# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2012ko maiatzaren 10a | 46. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak 2011. urtean egindako lanari buruzko txostena (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak 2011. urtean egindako lanari buruzko txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak 2011. urtean egindako lanari buruzko txostena jasotzat ematea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak 2011. urtean egindako lanari buruzko txostena

### AURKIBIDEA

AURKEZPENA (5. or.).

AITZINSOLASA (10. or.).

1. KAPITULUA. Kexen estatistika orokorra (11. or.).

1.1. Datu orokorrak (11. or.).

1.2. Onartutako kexak (12. or.).

1.3. Espainiako Arartekoari igorritako kexak (14. or.).

1.4. Baietsitako kexak eta herritarrei emandako aholkua (14. or.).

1.5. Kexen banaketa, gaiaren arabera (15. or.).

1.6. Kexak sorrarazi dituzten administrazio publikoak (16. or.).

II. KAPITULUA. Erakundean jasotako kexak (20. or.).

2.1. Aitzinsolasa (20. or.).

2.2. Aurkeztutako kexak, gaiaren arabera (20. or.).

2.2.1. Nekazaritza eta abeltzaintza (20. or.).

2.2.2. Gizarte Ongizatea (20. or.).

2.2.3. Kontsumoa (22. or.).

2.2.4. Kultura (23. or.).

2.2.5. Hezkuntza eta irakaskuntza (23. or.).

2.2.6. Atzerritarrak (25. or.).

2.2.7. Funtzio publikoa (25. or.).

2.2.8. Toki erakundeen funtzionamendua (28. or.).

2.2.9. Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten bermeak. Gardentasuna. (28. or.).

2.2.10. Ogasuna (31. or.).

2.2.11. Industria (32. or.).

2.2.12. Barne arloa (33. or.).

2.2.13. Justizia (33. or.).

2.2.14. Gazteria eta Kirola (34. or.).

2.2.15. Ingurumena (35. or.).

2.2.16. Herri lanak (36. or.).

2.2.17. Osasuna (36. or.).

2.2.18. Gizarte segurantza (37. or.).

2.2.19. Zerbitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna (38. or.).

2.2.20. Lana (39. or.).

2.2.21. Trafikoa (39. or.).

2.2.22. Hirigintza (40. or.).

2.2.23. Euskara (41. or.).

2.2.24. Etxebizitza (41. or.).

2.2.25. Juridiko-pribatuak (43. or.).

2.3. Energia fotovoltaikoaren produkzioa mudatzeari dagokionez, sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen aurkako Konstituzio Kontrakotasuneko Errekurtsoa jartzea eskatzeko kexa. (43. or.).

III. KAPITULUA. Ebazpenak (45. or.).

3.1. Balorazio orokorra (45. or.).

3.1.1. Emandako ebazpenak (45. or.).

3.1.2. Administrazio publikoek ebazpenak noraino onartu dituzten (46. or.).

IV. KAPITULUA Ofizioz abiarazitako ikerketak (49. or.).

4.1. Ofizioz abiarazitako jarduketak (49. or.).

4.2. Gaien araberako laburpena (58. or.).

4.3. Laburpena, administrazio publikoen arabera (59. or.).

4.4. Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa (59. or.).

4.4.1. Egindako jarduketen azalpena eta ebaluazioa. (59. or.).

4.4.2. Azken lau urteotako bilakaeraren laburpen-taula (64. or.).

4.4.3. Iradokizunak (64. or.).

4.4.4. Nafarroako Arartekoak ofizioz abiarazitako jarduketa, Nafarroan dauden familia-topaguneak direla eta. (65. or.).

V. KAPITULUA. Herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko eginiko proposamenak (68. or.).

5.1. Herritarren proposamenak (68. or.).

5.2. Herritarren proposamenen hartzaile izan diren administrazio publikoak (71. or.).

VI. KAPITULUA. Gomendio, iradokizun, legezko betebeharren gogorarazpen eta bitartekaritza-lan nagusiak (72. or.).

6.1. Aitzinsolasa (72. or.).

6.2. Gomendioak eta iradokizunak arloka (72. or.).

6.2.1. Nekazaritza (72. or.).

6.2.2. Gizarte Ongizatea (73. or.).

6.2.3. Kontsumoa (77. or.).

6.2.4. Kultura (77. or.).

6.2.5. Heziketa (77. or.).

6.2.6. Funtzio publikoa (80. or.).

6.2.7. Toki entitateen funtzionamendua (83. or.).

6.2.8. Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan (84. or.).

6.2.9. Ogasun publikoa (87. or.).

6.2.10. Barne arloa (88. or.).

6.2.11. Gazteria eta kirola (88. or.).

6.2.12. Ingurumena (88. or.).

6.2.13. Herri lanak (91. or.).

6.2.14. Zerbitzu publikoak (91. or.).

6.2.15. Osasuna (92. or.).

6.2.16. Zirkulazioa (93. or.).

6.2.17. Hirigintza (93. or.).

6.2.18. Euskara (95. or.).

6.2.19. Etxebizitza (97. or.).

6.3. Bitartekaritza-lanak (98. or.).

VII. KAPITULUA. Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako Arartekoarekin lankidetzan jardutea (100. or.).

7.1. Nafarroako administrazio publikoek Arartekoari laguntzeko duten betebeharra (100. or.).

7.2. Laguntzeko betebeharraren betetze-maila. Nafarroako Arartekoari laguntzarik eman ez dioten administrazioen aipamena (100. or.).

VIII. KAPITULUA. Beren onarpen eza justifikatu gabe, Nafarroako Arartekoaren iradokizun, gomendio edo legezko betebeharren gogorarazpenak onartu ez zituzten administrazio publikoak (101. or.).

8.1 Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa (101. or.).

8.2 Nafarroako toki entitateak (108. or.).

8.3 Nafarroako beste entitate publiko batzuk (114. or.).

IX. KAPITULUA. Nafarroako Arartekoaren txostenak (115. or.).

9.1 Sarrera. Egindako txostenak. (115. or.).

9.2 Erakundeak bere ekimenez egin dituen txosten bereziak (115. or.).

9.3 Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostenak (115. or.).

9.4 Foru Parlamentariek eskatutako txostenak (116. or.).

X. KAPITULUA. Erakundeak herritarrekin eta gizarte zibilarekin izan duen zuzeneko harremana (117. or.).

10.1 Informazio bulegoa. Nafarroako Arartekoari eginiko kontsultak (117. or.).

10.2 Gizarte zibilarekiko harremana (120. or.).

XI. KAPITULUA Erakundearen kalitateari buruzko ebaluazioa (121. or.).

11.1 Nafarroako Arartekoaren baliagarritasunari eta eraginkortasunari buruz herritarrek daukaten iritzia (121. or.).

11.2 Herritarrek azken lau urteetan eginiko ebaluazioa (124. or.).

11.3 Kexak izapidetzeko batez besteko epeak (127. or.).

I. ERANSKINA. Ebazpenen zerrenda (128. or.).

1. Onartu diren ebazpenak (128. or.).

1.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak onartutako ebazpenak (128. or.).

1.2. Nafarroako toki entitateek onartutako ebazpenak (139. or.).

1.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuek onartutako ebazpenak (147. or.).

2. Justifikazio egokiarekin onartu ez diren ebazpenak (147. or.).

2.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa. (147. or.).

2.2. Nafarroako toki entitateak (149. or.).

3. 2011ko abenduaren 31n erantzun gabe zeuden ebazpenak (149. or.).

3.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren erantzunaren zain dauden ebazpenak (150. or.).

3.2. Nafarroako toki entitateek oraindik ere erantzun ez dituzten ebazpenak (152. or.).

3.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuek erantzuteko dauzkaten ebazpenak (157. or.).

4. Bitartekaritza-lanak (157. or.).

4.1. Onartutako bitartekaritza-lanak (157. or.).

4.1.1. Foru Komunitateko administrazioa (157. or.).

4.1.2. Nafarroako toki entitateak (158. or.).

4.1.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuk (159. or.).

4.2. Onartu ez diren bitartekaritza-lanak (159. or.).

4.2.1. Foru Komunitateko administrazioa (159. or.).

4.2.2. Nafarroako toki entitateak (160. or.).

4.3. 2011ko abenduaren 31n erantzun gabe zeuden bitartekaritza-lanak (160. or.).

4.3.1. Foru Komunitateko administrazioa (160. or.).

4.3.2. Nafarroako toki entitateak (161. or.).

4.3.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuk (161. or.).

II. ERANSKINA 2011ko aurrekontuaren likidazioa (162. or.).

## AURKEZPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluaren arabera, Nafarroako Arartekoak Nafarroako Parlamentuaren mendeko organo gisa jardunen du eta, Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoaren eskumena galarazi gabe, Konstituzioak eta lege organiko honek babestutako eskubideak eta askatasunak defendatu eta babesteko eginkizuna izanen du, Foru Komunitatearen eskumenen eremuan. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoen jarduna gainbegiratu ahal izanen du, eta horren berri emanen dio Parlamentuari.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa aldatu zuen urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren hitzaurrean, berriz, Nafarroako Arartekoa Nafarroako Foru Komunitateko erakundea dela ezartzen da

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumenak, araubide juridikoa eta jardunbidea zehazten ditu, Foruaren Hobekuntzako 18 ter artikuluko 2. idatzzatian xedatutakoa garatuz hartara.

Lege horiekin bat, eta Nafarroako Arartekoa aipatzen duten beste foru lege batzuekin ere bat etorriz –adibidez, haurtzaroa eta nerabezaroa babesteari buruzko legeak edo administrazio elektronikoari buruzko legea–, Arartekoak ondoko eginkizunak ditu egun:

– Konstituzioak espainiar guztiei aitortzen dizkien eskubideen defentsa eta babesa.

– Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak nafarrei aitortzen dizkien eskubideen defentsa eta babesa.

– Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako Estatuko legeetan, Europar Batasuneko arauetan eta nazioarteko hitzarmenetan aitortzen diren eskubideen defentsa eta babesa.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek nahiz Nafarroako Foru Komunitateko edozein erakunde publikok herritarrei emandako zerbitzu publikoen hobekuntza.

– Herritarren bidezko interesen eta Nafarroako Administrazio Publikoek zaindu beharreko interes orokorraren arteko bitartekotza eta kontziliazioa.

– Herritarrei informazioa eta laguntza ematea, hobeki balia ditzaten beren interesak Nafarroako Administrazio Publikoen aurrean.

– Informazioa eta laguntza ematea Nafarroako Parlamentuari, foru parlamentariei eta Nafarroako gainontzeko entitate publikoei, bai haiek hala eskatuta bai bere ekimenez, bere eskumeneko auzietan.

2011ko txosten honen aurkezpenak –Erakundea arautzen duen Foru Legeko 37.1 artikuluak ezartzen du txostenaren muina zein izanen den– aukera ematen dit Nafarroako Parlamentuari berri eman diezaiodan Nafarroako Arartekoaren erakundeak arlo horietan egindako lanaren emaitzari buruz, Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak nahiz aplikatu beharreko gainontzeko xedapenek babestutako eskubideen eta askatasunen defentsa egiteko eta babes maila hobetzeko.

2011n zehar, erakundeak 2.317 jarduketa egin ditu, albo batera utzita elkarrizketak, bilerak edo ekitaldi instituzional nahiz publikoetako parte-hartzeak. Kopuru hori honela banatzen da: 1.042 kexa kudeatu dira (horietatik, 850 urte barruan aurkeztu dira); 1.209 kontsulta artatu dira; 35 jarduketa edo ikerketa abiarazi dira ofizioz; zerbitzu publikoak hobetze aldera herritarrek aurkeztutako 28 proposamen helarazi zaizkie administrazio eskuduneko organoei, eta eduki monografikoko hiru txosten berezi egin eta aurkeztu zaizkio Nafarroako Parlamentuari (horietako bat, hark eskatuta).

Egindako jarduera horri guztiari esker, Nafarroako Administrazio Publikoei 691 iradokizun, gomendio eta legezko betebeharren gogorarazpen egin zaizkio; horra foru erakunde honek Nafarroako Administrazio Publikoen jarduerari buruz egiten duen ikuskapen-lanaren eraginkortasunaren froga, gure herritarren eskubideen defentsari dagokionez.

Nabarmendu beharra dago ezen **2011n aurkeztutako 850 kexen atzean hamaika mila herritar baino gehiago daudela** (guk 11.017 herritar zenbatu ditugu), Nafarroako Arartekoarengana jo dutenak beren eskubideak aldeztera, Administrazio publikoen eta zerbitzu publikoen titularren ekintzak nahiz ez-egiteak direla eta.

Kexen edukiak agerian uzten du gero eta handiagoa dela herritarren kezka edo atsekabea ondoko arloei dagokienez: gizarte ongizatea; gardentasuna eta bermea, Administrazio Publikoekiko harremanetan herritarren eskubideak direla-eta; ogasun publikoa; trafikoa; ingurumena; etxebizitza; kontsumoa, eta lana.

Funtsean, Administrazio Publikoek beren jardunean herritarrei eman eta ziurtatu beharreko gardentasunarekin eta errespetuarekin lotutako arloak dira, gizarte ongizatearen, hezkuntzaren nahiz osasunaren arloan botere publikoek eman beharreko gizarte-babesarekin lotutakoak. Horiekin

batera, justiziari, tributuei, kontsumoari, etxebizitzari eta euskarari buruzko kexak dira herritarrek gehien aurkezten dituztenak.

Halatan, 2011n aurkeztutako kexarik gehienak **funtzio publikoarekin** zerikusia duten arloei buruzkoa izan dira. Alegia, azken urteotako joera errepikatu da. Arlo horretan, ordea, bi multzo bereizi behar dira. Alde batetik daude administrazio publikoentzat lan egiten ez duten herritarrek aurkeztutako kexak (horietako askok lanpostu bat lortu nahi dute sektore publikoan), arlo horretan aurkeztutako kexen % 57 egiten dutenak. Horien kexak, batik bat, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko edo lanpostuak betetzeko prozedurei buruzkoak dira. Eta beste alde batetik daude Administrazio Publikoen zerbitzuko kontratudunek edo funtzionarioek aurkeztutako kexak; alegia, Administrazioan lan egin eta Administrazioak langileen arloko kudeaketan edo politikan hartutako erabakiekin ados ez daudenek aurkeztutakoak (kexen % 42). Lehendabiziko multzoan –hau da, Administrazio Publikoetakoak ez diren herritarrek aurkeztutako kexen multzoan– zazpiehundik gorakoa da Nafarroako Arartekoari esku har dezan eskatu dioten herritarren kopurua. Arlo horretan –gogorarazi beharra dago Konstituzioaren arabera oinarrizko eskubide bat dela funtzio publikoetarako sarbidea berdintasun-baldintzetan egin ahal izatea– Nafarroako Arartekoak behin eta berriro adierazi du hautapen-prozesuen deialdia egiten duten Administrazio Publikoek ziurtatu behar dutela zorrotz betetzen direla deialdietako oinarriak, erregelamenduak eta legeak; arretarik handienarekin ziurtatu behar dela epaimahaien jarduna zuzena, zintzoa, objektiboa eta inpartziala dela; eta izangaiei haien eskubideen defentsa ziurtatzeko erreklamazio- nahiz berrikuspen-tresnak eskaini behar zaizkiela.

Horri dagokionez, Nafarroako Arartekoa tresna eraginkorra da ziurtatzeko Administrazio Publikoek oinarrizko eskubide hori errespetatzen dutela –Konstituzioko 23.2 artikuluak ezartzen duenez, herritarren oinarrizko eskubide bat da funtzio publikoetarako sarbidea berdintasun-baldintzetan egin ahal izatea–, bai eta begiratzeko, Konstituzioko 103.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, funtzio publikorako sarbidea merezimendu, gaitasun eta inpartzialtasun printzipioen arabera egiten dela ere.

Bigarren tokian daude **gizarte-politikari** buruzko kexak (aurreko txostenetan, gizarte-ongizatea edo gizarte-gaiak). 2010ean bezalatsu, arlo horretako kexek lotura zuzen-zuzena dute bizi dugun krisi ekonomikoarekin. Halatan, jasotako kexen % 35 oinarrizko errentaren prestazioa (orain, gizarteratze-errenta) ukatu izanari edo berandutu izanari buruzkoak dira; % 17k agerian jarri dituzte mendekotasunerako laguntzen kudeaketari eta ordainketari buruzko desadostasunak; % 12, ezgaitasunekin lotutakoak izan dira; beste % 12, adingabeen babesarekin lotutako prozedurei buruzkoak; % 9, gizarte-laguntzako prestazioei buruzkoak; % 6, pertsona zaharren babes eta laguntza premiari buruzkoak; % 4, gaixo zeliakoentzako laguntzei buruzkoak; % 3, familiari eta familia eta lana bateragarri egiteari buruzkoak, eta % 2, gizarte bazterketari buruzkoak.

Erakundeak iradokizun ugari egin ditu mendekotasunera bideratutako baliabideak eta prozedura hobetzeko eta Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioen kudeaketan hobekuntzak sartzeko, eta, jasotako kexen kopurua ikusita, azpimarratu du –ez soilik iradokizunen bitartez, ezpada legezko betebeharren gogorarazpenen bitartez ere– oinarrizko errentaren prestazioa azkartu beharra dagoela eta oinarrizko gizarte zerbitzuek gizarte-laguntzaren arloan jasotako eskabideen izapidetzea erraztu beharra dagoela, are gehiago orain, krisi ekonomikoa gogortzen ari denean, herritarren gizarte-eskariak nabarmenagoak direnean eta inoiz baino beharrezkoagoa denean gizarte-administrazioa azkarra izatea.

Hirugarren tokian daude honako kexak: Administrazio Publikoen gardentasuna, **Administrazioek informazioaren arloko betekizunak bete beharra, eskariak eta errekurtsoak epe barruan ebatzi beharra eta herritarrei tratu egoki eta adeitsua eman beharra**. Arlo honi dagokionez, Foru Komunitateko Administrazioaren nahiz toki entitateen ez-betetzeak gertatu direla egiaztatu du erakundeak, eta, horrenbestez, jarrera horiek kontrolatzeko tresnak sendotu behar direla adierazi du; izan ere, ez da onargarria administrazio publikoek gisa horretako jarrerak izatea XXI. mendean, ez baita ahaztu behar administrazioak herritarren eta haien eskubideen zerbitzuan jarduten direla, ezen ez zerbitzu orokor lauso eta zehaztugabeen zerbitzuan, haien arazoei kasu egiteko eta beren eskumenekoak badira eta ahal badute, arazo horiek konpontzeko. Nafarroako Administrazio Publikoei eskatu diegu, beharrezkoa izan denetan, beren legezko betebeharrak bete ditzaten, herritarrek eskatzen duten informazio publikoa lortzeko eskubidea errazteari dagokionez; herritarrek aurkeztutako errekurtso eta eskariei espresuki erantzun diezaien arrazoizko epe batean eta, betiere, legeek ezartzen duten gehieneko epean; gardentasunez jardun daitezen beti, eta herritarrek parte hartzeko bideak taxutu ditzaten.

Hori dela-eta, interes bereziarekin eta positiboki hartu dugu Gardentasunari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta bere erakunde publikoetarako sustatu duena eta herritarren eskubideak indartu eta foru administrazioaren jarduera herritarrengana hurbilduko duena. Eta Nafarroako Gobernua animatu nahi dugu, berezitasunak berezitasun, araubide analogo bat susta dezan Nafarroako toki entitateentzat.

Laugarren tokian daude **hezkuntzari** buruzko kexak; horien artean nabarmentzen dira, beste behin ere, ikasleak ikastetxeetan onartzeari buruz edo hautatutako ikastetxean onartu ez izanari buruz gurasoek aurkeztutako kexak. Orobat jaso ditugu kexak unibertsitateko ikasketak egiteko laguntzen deialdia hobetu beharrari buruz, unibertsitateko ikaskuntzen plangintzari eta kudeaketari buruz, hezkuntza premia bereziak dituzten zenbait neska-mutikorentzako laguntza hobetzeari buruz eta haur hezkuntzako lehen zikloko antolakuntzari buruz.

Arlo horretan, hezkuntza administrazioari gomendatu diogu interesdunei erraz diezaien muntakoa izan daitekeen informazio eta dokumentazio guztia lortu ahal izatea, beren eskubideak eta interesak defendatu ahal izan ditzaten ikasleen onarpen-prozeduretan, eta iradoki diogu gomendio hori egin diezaiela ikastetxeei eta egin beharreko ikerketak egin ditzan egiaztatze aldera funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ikasleak onartzeari begira emandako puntuazioen eta alegatutako datuen egiazkotasuna. Haur hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko lehen zikloari dagokionez, Administrazioari iradoki diogu azter dezan ziklo hori Nafarroan ezartzeko aukera eta jarduketa plan bat egin dezan, zehazte aldera zer neurri ezarri martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan aldi baterako ezarritako epea bukatu ondoren.

Bosgarren tokian ageri dira **herritarren hizkuntza-eskubideekin** lotutako kexak, eta, zehazki, Nafarroako Administrazio publikoetan euskara erabiltzearekin lotutakoak eta herritarrek hizkuntza horretan artatuak izateko duten eskubidearekin lotutakoak. Kexa horiek aurkeztu dira, batik bat, herritarrek ezin izan dituztelako euskaraz eduki Administrazioarekiko harreman idatziak, ezta eremu euskaldunean ere zenbaitetan, nahiz eta eremu horretan hizkuntza ofiziala den; gaztelaniaz soilik argitaratu direlako Administrazio publikoen inprimakiak, esku-orriak eta zabalkunderako materialak, eta Administrazio publikoek ez dietelako zerbitzua euskaraz eman erantzuna hizkuntza horretan jasotzea eskatu duten herritarrei.

Aurreko urteetan legez, Administrazio publikoei azpimarratu diegu eraginkor bihurtu behar ditztela Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak nahiz foru legea garatzen duten udal ordenantzek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak.

Nafarroako Arartekoari kexak aurkezteko gehien erabiltzen den modua da, oraindik ere, kexa bertatik bertara aurkeztea. Kexen % 45 Iruñeko gure bulegoan bertan aurkeztu dira. Aurten ere, agerian gelditu da herritarren borondatea eta nahia direla Nafarroako Arartekoaren bulegoan pertsonalki artatuak izatea, beren kexak azaltzeko eta kexa horiei buruzko laguntza nahiz aholkua eskatzeko; izan ere, sarritan, a priori ez dakite haien kexa eragin duen Administrazio publikoaren jokabideak haien eskubideak urratzen dituen ala ez. Halatan, Nafarroako Arartekoa herritarren eta Administrazio publikoaren arteko gatazkak prebenitzeko bide bihurtzen da, eta, sarri askotan, gatazkak auzitegian bukatzea ekiditeko balio du, gatazka gaizki-ulertu baten ondorio denean.

Kudeatutako kexei erreparatuta, Nafarroako Arartekoak hamarretik bederatzi izapidetzea onartu du, herritarrak helarazitako gaia aztertzeko. Onartutako hamarretik bederatzi horietatik bat, berriz, Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igorri zaio, haren eskumeneko gai bati buruzkoa zelako.

Onartutako kexak aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak kasuen % 57tan erabaki du bazirela arrazoiak Administrazio publikoari zuzentzeko eta herritarraren eskubideen aldeko konponbide bat proposatzeko hari.

Nafarroako Arartekoak 559 ebazpen eman ditu, kexek agerian utzitako gertakariak aztertu, Administrazio publikoei entzun eta jasotako informazio guztia aztertu ondotik. Kopuru horrek erakusten du % 56,1 igo dela ebazpenen kopurua 2010aren aldean, eta % 11,5, berriz, jasotako kexen kopurua, zeina 309koa izan baita 2011n.

Nafarroako Arartekoaren erabakien onarpen-maila % 80 ingurukoa da; horrek berresten du erakundea baliagarria dela herritarraren begietan, erakundera jo eta haren babesa aurkitzen baitu. Halatan, onartutako kexen % 80ren kasuan, Administrazio publikoek onartu egin dituzte Arartekoaren gomendioak, iradokizunak, legezko betebeharren gogorarazpenak edo aurretiazko bitartekotza, konponbide positiboa eman baitzaie herritarrek aurkeztutako auziei.

2011n, hogeita hamabost **jarduketa abiarazi dira ofizioz**. Ofizioz abiarazitako ikerketarik gehienen helburua izan da gizarte eskubideak babes-

tea; zehazki, ezgaitasunaren arloko laguntza, adingabeen babesa, mendekotasun egoeran daudenentzako laguntza, familiaren babesa eta prestazioak lortzea.

Osasunari lotutako lau jarduketa ere abiarazi dira ofizioz. Horien artean nabarmendu beharra dago txosten bat igorri izana Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari, zeinaren bidez eskatu baitzitzaion esku har zezan Lege Organiko bat onets dadin, gaixotasun mentala duten pertsonen derrigorrezko tratamendu mediko eta klinikoari nahiz internamenduari buruzko araubide osoa eta gaurkotua jasoko duena.

Hezkuntza arloan, jarduketa bat abiarazi zen ofizioz, lortze aldera aintzat har daitezen, irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate irakaskuntzako beken eta laguntzen hurrengo deialdietan, eskatzaileen egiazko ahalmen ekonomikoa eta lortutako emaitza akademiko positiboak. Ekimena gogo onez hartu zuten bai Hezkuntza Departamentuak bai interesdunen taldeek.

Etxebizitzari dagokionez, ofizioz abiarazitako jarduketetako baten helburua izan da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak alokairuko etxebizitzara bideratutako baliabideen eraginkortasuna egiaztatzea, krisi ekonomikoaren eraginez gero eta eskaera handiagoa dagoelako arlo horretan. Gure ustez, Administrazio publikoek badute oraindik ere hobetzeko tarte bat errentamendu araubideko etxebizitzen sustapenean –arrazoizko prezio batean eta errentariaren baliabide ekonomikoen araberakoan–. Beste jarduketa bat izan da proposatzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan sar dadin etxebizitza ordainean ematea, titularraren ohiko bizileku izateko etxebizitzaren hipoteka-zorren kasuan.

Azken lau urteotako txostenetan adierazi izan dudan bezala, erakunde honek 2008tik aitzina sustatu du herritarrek zerbitzu publikoen hobekuntzan parte hartzea; hartara, herritarrak animatu ditu zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak aurkez ditzaten, eta Arartekoa proposamen horien berri emateaz eta defendatzeaz arduratu da.

2011n **aurkeztutako 28 proposamenak** kontuan hartuta, guztira 188 dira lau urteotan aurkeztutakoak. Aurten aurkeztutako gehienak hezkuntzari eta etxebizitzari buruzkoak izan dira. Zehazki, haur hezkuntzako lehen zikloaren kudeaketa hobetzeko proposamenak igorri dizkiogu Hezkuntza Departamentuari, irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate hezkuntzako beken deialdi orokorrari dagokionez eta ikasleen onarpenari dagokionez. Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari igorritako proposamenen artean nabarmentzekoa da etxebizitza babestua betetzeko beharrizanetik salbuesteko kasuei eta baldintzei buruzko araubidea garatze aldera egindako gomendioa, esleipen-hartzaileen inguruabarrei, familiarenei nahiz pertsonalei, erreparatuta. Gomendioa onartua izan da.

Hiru **txosten monografiko** egin eta aurkeztu zaizkio Nafarroako Parlamentuari; bi Arartekoaren ekimenez egin dira –ikasle etorkinak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartzeri buruzkoa eta Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzkoa–, eta hirugarrena Nafarroako Parlamentuak hala eskatuta **–herritarren hizkuntza eskubideen egiazko egoera Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio digitala dela-eta–**.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin zezan, aztertzeko zein den herritarren hizkuntza eskubideen egiazko egoera gizarte hedabideei dagokienez.

Erakundearen Informazio Bulegoak **1.209** kontsulta artatu ditu. Aurten berriro nagusitu dira baliabide ekonomikorik gabeko pertsonei laguntzeko prestazioei buruzko kontsultak –batik bat, gizarte laguntzak lortzeko baldintzei buruzkoak eta oinarrizko errenta emateko epeei buruzkoak, berandutu egin baita horren ordainketa edo onarpena–; kontsulta ugari jaso dira ondokoei buruz ere: ezgaitasunaren arloko laguntza, hirugarren adina, familientzako laguntzak eta adingabeen eta nerabeen babesa. Areagotu egin dira, berriz, datu pertsonalen babesarekin lotutakoak. Ikus daitekeenez, gizarte gaiak dira nagusi Arartekoaren Informazio Bulegoaren jardueran.

Aurten garatutako jarduera guztitik –kexak, kontsultak, ofizioz abiarazitako jarduketak, hobetzeko proposamenak eta txosten bereziak– ondoriozta daiteke herritarrek gero eta gehiago eskatzen dutela botere publikoek herritarrak aintzat har ditzaten, entzun diezaieten, aholku eman diezaieten, haien eskubideak babes ditzaten –batez ere, gizarte-eskubide deiturikoekin lotutakoak: biziraupena, gizarte-babesa, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, ingurumena, kontsumoa, eta abar–, Administrazio publikoek egitez nahiz ez-egitez, gehiegikeriaz nahiz zabarkeriaz, egin ditzaketen urraketen aurrean. Herritarrek beren arazoei egiazko konponbide bat eman dakien nahi dute. Eta orobat nahi dute Administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuen hobekuntzan parte hartzen utz dakien, eginkizun aktibo bat edukitzen, eta ez ikusle hutsak izaten.

Herritarren eskaera hori are eta sentituagoa da krisia ekonomikoa ez ezik erakundeena eta orain

arte nagusi izan diren balioena ere baden uneotan eta etorkizunak ziurgabetasuna dakarkigunean. Gure jardunaren xede diren Administrazio publikoek, berriz, harmena eta lankidetza erakutsi digute oro har, eta Nafarroako Parlamentuak ere babesa erakutsi du gure eginkizuna bete dugunean. Horrek guztiak adorea ematen digu "Arartekoa" deitzen den erakunde honetan lan egiteko ohorea dugunoi, agindu zaigun zereginean tinko jarrai dezagun; alegia, Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta gainontzeko antolamendu juridikoak gure herrikideei aitortzen dizkien eskubideen eta askatasunen babes-maila defenditzen eta hobetzen jarrai dezagun.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

**AITZINSOLASA**

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1. artikuluak Nafarroako Parlamentuaren goi mandatariaren izaera aitortzen dio Nafarroako Arartekoari. Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko zereginean dihardu Nafarroako Arartekoak.

Parlamentuaren mandatari gisa, Nafarroako Arartekoak urtero Nafarroako Parlamentuari egindako kudeaketaren berri eman behar dio, ohiko bilkura-aldian aurkezten dion txosten baten bitartez.

Foru erakundea arautzen duen Foru Legeko 37.1 artikuluak zehazten du Nafarroako Arartekoak, urteko txostenean, aurkeztutako kexen kopurua eta motak azalduko dituela, eta adieraziko duela horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik; halaber, azalduko du zenbat gai ikertu dituen eta ikerketa horiek nolako emaitzak eman dituzten. Gainera, Nafarroako administrazio publikoek onartu dituzten ohar, iradokizun, gogorarazpen edo gomendioak zehaztuko ditu.

Agindu hori betetzeko, urteko txosten honetan Nafarroako Arartekoak 2011n zehar garaturiko jarduerari buruzko datuak jaso ditugu.

2011ko txostenaren egituran aldaketa batzuk egin dira 2010eko urteko txostenarekin alderatuta, herritarren eskubideen defentsan eginiko jardueraren informazio xeheagoa eskaintze aldera. Edukia hamaika kapitulutan banatuta dago.

I. kapituluan, aurkeztutako kexen kopuruari eta motari buruzko datuak eskaini dira. Kexen arloz arloko sailkapena, ukitutako administrazio publikoak eta eginiko ikerketen emaitza ere jaso dira.

II. kapituluan, azaldu dira herritarrek beren kexetan planteatzen dituzten sakoneko arazoak. Kapitulu hori arloz arlo aurkeztuta ageri da, eta hartan, laburbilduta daude herritarrek aurkezturiko kexei dagozkien gaiak.

III. kapituluan, kexa-espedienteetan emandako ebazpenei buruzko funtsezko informazioa eman da. Halaber, egindako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpen eta bitartekaritza-lanen kopurua azaldu da, bai eta Nafarroako administrazio publikoek haiek noraino onartu edo errefusatu dituzten ere.

Ofizioz eginiko jarduerak eta ikerketak, berriz, IV. kapituluan jaso ditugu. Gainera, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioari buruzko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezarri bezala, berariaz aipatu beharreko gaia baita hori.

V. kapituluan, herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko egin dituzten proposamenak jaso dira.

VI. kapituluan, Nafarroako administrazio publikoei, kexen, ofiziozko jardueren eta herritarren proposamenen ondorioz, egindako gomendio eta iradokizun nagusiak jaso dira.

VII. kapituluan, kasu zehatz batzuk jaso dira, non jotzen baita Nafarroako administrazio publikoek ez dutela erakunde honekiko lankidetzan jardun. Horrekin, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 31. artikuluan ezarritakoa bete nahi da.

VIII. kapituluak administrazio publikoek Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenak onartu ez zituzteneko kasuak ageri dira, baldin eta ezonartze horretarako arrazoiak egoki justifikatu ez bazituzten. Horrekin, Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 34,2. artikuluan ezarritakoa bete nahi da.

2011n eginiko txosten bereziak IX. kapituluan aipatzen dira.

X. kapituluan, herritarrek Informazio Bulegoaren laguntza eskatu duten kontsultak eta arloak jaso dira. Halaber, erakundearekin hartu-emanak izan dituzten gizarte zibileko eragileak aipatzen dira.

XI. kapituluan herritarrek, inkesta anonimoak betez, 2011n erakundeari buruz egin duten balorazioa islatzen da, bai eta 2008tik 2011ra bitartean eginiko balorazioaren xehetasunak ere, lau urteko aldi bati buruzko ikuspegi bateratua eman nahian.

Azkenik, txostenak bi eranskin dauzka: lehenengoan aipatzen dira Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenak administrazio publikoek onartu zituzteneko kasuak, edo, bestela, administrazioek haiek ez onartzeko arrazoiak egoki justifikatu dituzteneko kasuak; eta bigarrenean, erakundearen aurrekontuaren likidazioa erantsi dugu.

## 1. KAPITULUA. KEXEN ESTATISTIKA OROKORRA

### 1.1. DATU OROKORRAK

Honakoak dira Nafarroako Arartekoaren bulegoak 2011n kudeatutako kexei buruzko datu estatistikoak:

1. 850 **kexa aurkeztu ziren**. Horrek esan nahi du kexen kopuruak % 8,5 egin duela behera, 2010eko urtearekin alderatuta, orduan 929 kexa aurkeztu baitziren.

**AURKEZTUTAKO KEXAK 2011 - 2010**

Igoera.: % **-8,5**




Jotzen dugu aurten kexa gutxiago aurkeztu izatearen arrazoia dela ikuskatutako administrazio publikoek (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako toki entitateak) jarduera txikiagoa izan dutela, 2011ko maiatzean Nafarroako Parlamenturako eta udal eta kontzejuetarako hauteskundeak egin baitziren.

2. 2011n 1.042 **kexa kudeatu genituen**. Kopuru hori lortu da urteko 850 kexa horiei aurreko urteetan izapidetzen hasi ziren 192 kexa gehitzetik, dela aurreko urtetik ixteko geratu direlako, dela herritarrek eskatuta berriz ere ireki direlako.

**KUDEATUTAKO KEXAK 2011 - 2010**



2011ko abenduaren 31n, 834 kexa espediente **ebatzita zeuden**; hau da, kudeatutakoen % 80.

Gainerako 208 kexak ebazteko zeuden 2011ko abenduaren 31n –ekitaldia ixteko data–.




3. **Kexak aurkezteko erabilitako bitartekoari dagokionez**, gehien erabiltzen den bidea kexak erakundean bertan aurkeztea da oraindik ere. Izan ere, kexen % 45 modu horretan aurkeztu baitziren Arartekoaren egoitzan. Beste behin egiaztatzen da herritarrek nahiago izaten dutela gure bulegora joan beren kexak aurkeztera, modu horretan arreta pertsonalizatua eta behar duten aholkua jasotzen baitute, formalismorik gabe, beraiengan zuzenean eragina duten gaiak azalduz eta aldez aurretik hitzordua eskatu behar izan gabe.

Bestalde, kexen % 37 posta elektronikoz edo erakundearen webaren bitartez aurkeztu ziren. Kasu horietan, herritarrei igorri zitzaizkien komunikazioak, halaber, modu elektronikoz egin ziren.

Oso ohikoa da, halaber, herritarrek gure bulegora jotzea erakundeko langileekin elkarrizketak izateko eta kexaren aurrerabidearen jarraipena egiteko.

Kexen % 15 posta arruntez igorri ziren, eta % 3 baizik ez ziren fax bidez aurkeztu.

4. Aurkeztutako 850 kexetatik, 727 **banakakoek** aurkeztu zituzten, eta 123, aldiz, **talderen batek**, pertsona multzo batek alegia.

Kexak aurkeztu dituzten edo kexen atzetik dauden pertsonak –izaera sozialeko edo ingurumeneko entitateek nahiz bestelakoek ordezkatzen dituzten pertsonak kontuan hartu gabe– hamaika mila baino gehiago dira, guztira.

Datu horrek agerian jartzen du nola kexen kopurua ez datorren bat beti beren eskubide eta askatasun publikoak babesteko Nafarroako Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten herritarren kopuruarekin; izan ere, azken hori askoz ere altuagoa izaten da kexen aipamen numerikoa baino. Hori honako esparruetan gertatzen da: ingurumena, non zaratei buruzko kexak, askotan, jabeen erkidegoek aurkezten dituzte; hirigintza, planeamenduen egiturari eta exekuzioari buruzko kexetan; eta funtzio publikoa, non litekeena baita ehunka herritarrek kexa bakarra sinatzea.

5. Kexa sustatu duen pertsonaren profilari dagokionez, emakumezko gehiago daude gizonezko baino. Zehazki, banakoen kexen % 52 emakumezkoek aurkeztu zituzten, eta % 49, aldiz, gizonezkoek.

6. Nafarroako hizkuntza berekiei dagokienez, 76 kexa aurkeztu ziren **euskaraz** nahiz ele biz (euskaraz eta gaztelaniaz); hau da, guztien % 9.

### 1.2. ONARTUTAKO KEXAK

Onartutako kexak 853 izan ziren guztira. Horrek % 82 egiten du kudeatutako kexen guztizkoan (1.042).

Kexa horietan, Nafarroako Arartekoak alde bateko zein besteko iritzia eman du herritarrak azaldutako fondoko gaiari buruz, eta, horrenbestez, erantzun zehatza eman dio planteatutako gaiari.

**ONARTUTAKO / ONARTU GABEKO KEXAK**




Aitzitik, 116 kexatan, herritarrak planteatutako gaiari buruzko ebazpen bat emateko modurik ez zen izan. Kopuru horrek kudeatutako kexa guztien % 11 egiten du.

Foru erakundean nagusi den formalismoaren aurkako jokabidea dela eta, kexa bat ez-onartutzat eman baino lehen, herritarrei eskaintzen zaizkio Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak eskaintzen dituen aukera guztiak, kexa izapidetu ahal dadin. Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, ahaleginak eginda ere, ezin izaten da ikerketarik egin herritarrek azaldutako gaiei buruz, dela izaera juridiko pribatuko gaiak direlako, dela kexa bide judizialean dauden gaiei buruzkoa delako, dela legeak kexa planteatzeko ezartzen duen urtebeteko epea iragan delako, besteak beste.

Kasu horietan –jada aipatu dugun bezala, ez dira Nafarroako Arartekoaren bulegoan planteatutakoen % 11 baino gehiago– pertsonalki ematen zaie aholku herritarrei beren eskubideez balia daitezen behar diren tokietan, eta informazioa ematen zaie bide horietara jotzeko bete beharrekoei buruz.

Bestalde, komeni da bereiztea kexak arrazoi subjektiboengatik onartu ez diren kasuak; esate baterako, kexa-egileak behar ziren datuak eman ez dituen kasuak edo interesdunak kexa bertan behera uzten dituen kasuak. 2011n, kexak arrazoi horiengatik ez onartzeko 21 kasu izan ziren. Guztien % 18 egiten dute hain zuzen ere: kasu horietatik hamabitan herritarrei ez zitzaien daturik eman eta bederatzi kasutan interesdunak kexa bertan behera utzi zuen.

Arrazoi subjektiboez gain, badira arrazoi objektiboak direla-eta onartzen ez ditugun kexak. 2011n, esaterako, 95 kexa ez genituen onartu arrazoi horiengatik, eta egileak aholkatu egin genituen aurrez.

Arrazoi objektibo horien artean honakoak daude, besteak beste: kexa garaiz kanpo aurkeztea, hura aurkezteko urtebeteko gehieneko epea iraganik egoteagatik (bost kasutan); Arartekoak ebazteko proposatzen den auzia ezin ikertzea, dela alor juridiko pribatukoa delako (zortzi kasutan), dela epaitegietako prozedura baten gaia delako (hemezortzi kasutan), dela auzia administrazio eskudunari aurrez eta ezinbestez planteatzeko betebeharra bete ez eta zuzenean Arartekoari planteatu zaiolako (hemeretzi kasutan), dela helburu jakinik ez duelako (kasu bat).

Azkenik, hamar espediente ez ziren onartu amaitutzat emandako gai bati buruzkoak zirelako, eta beste hogeita hamalau, Arartekoak ez zuelako haiek bideratzeko eskumenik.







**1.3. ESPAINIAKO ARARTEKOARI IGORRITAKO KEXAK**

2011n 73 kexa igorri zitzaizkien Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari. Nafarroako Arartekoak kudeatutako kexen % 7 egiten dute. Kasu guztietan, kexak Estatuko Arartekoari igorri zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduerari buruzkoa zelako.

**1.4. BAIETSITAKO KEXAK ETA HERRITARREI EMANDAKO AHOLKUA**

Onartutako kexen azterketa eta analisia egin ondoren, espedienteen % 57,3an arrazoia eman zaio erreklamazioa aurkeztu duenari (489 kasutan).

Aipatu 489 kasuetatik, ikuskatutako administrazio publikoak % 67an (327 espediente) Nafarroako Arartekoaren erabakia onartu zuen, eta % 18 (90 espediente), berriz, ez zuen onartu. Abenduaren 31n, Nafarroako Arartekoak baietsitako 72 kexa-espedientetako erantzunak, Nafarroako administrazio publikoenak, jaso gabe geunden.

Hartara, erantzun gabe dauden espedienteak kenduta, Nafarroako administrazio publikoek kasuen % 78,4an onartu dituzte Nafarroako Arartekoak hartutako erabakiak.

Onartutako beste 224 espedientetan –guztizkoaren % 26,2 egiten dute–, Nafarroako Arartekoak jo du ez zela beharrezkoa kasuko administrazioari iradokizun, gomendio nahiz legezko betebeharren gogorarazpenik egitea.

Horrelako kasuetan, Nafarroako Arartekoak, Administrazioari entzun ondoren eta sakoneko gaiak aztertu ondoren, kexak aurkeztu zituzten herritarrei informazioa eta aholkua eman zien xehetasun guztiekin, antolamendu juridikoaren arabera konstituzio-eskubideen urratzerik ez atzemateko arrazoiei buruz.

**ERREKLAMATZAILEAK ARRAZOIA DUELA JO DIREN KEXAK**




### 1.5. KEXEN BANAKETA, GAIAREN ARABERA

Arloei erreparatuta, 2011n aurkeztutako kexak honela bana daitezke:

| Alorrak | 2011 | | 2010 | | Aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| FUNTZIO PUBLIKOA | 112 | 13,18% | 140 | 15,07% | -28 | -20,00% |
| - funtzionarioak ez diren herritarrek aurkeztuak | 64 | 7,53% | 58 | 6,24% | 6 | 10,34% |
| - langile publikoek aurkeztuak | 48 | 5,65% | 82 | 8,83% | -34 | -41,46% |
| GIZARTE ONGIZATEA | 100 | 11,76% | 90 | 9,69% | 10 | 11,11% |
| ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN HERRITARREK DAUZKATEN BERMEAK | 83 | 9,76% | 79 | 8,50% | 4 | 5,06% |
| HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA | 76 | 8,94% | 113 | 12,16% | -37 | -32,74% |
| EUSKERA | 69 | 8,12% | 78 | 8,40% | -9 | -11,54% |
| OGASUNA | 45 | 5,29% | 41 | 4,41% | 4 | 9,76% |
| TRAFIKOA | 43 | 5,06% | 36 | 3,88% | 7 | 19,44% |
| INGURUMENA | 39 | 4,59% | 29 | 3,12% | 10 | 34,48% |
| ETXEBIZITZA | 37 | 4,35% | 26 | 2,80% | 11 | 42,31% |
| OSASUNA | 32 | 3,76% | 65 | 7,00% | -33 | -50,77% |
| HIRIGINTZA | 32 | 3,76% | 35 | 3,77% | -3 | -8,57% |
| JUSTIZIA | 30 | 3,53% | 38 | 4,09% | -8 | -21,05% |
| ZERBITZU PUBLIKOAK | 29 | 3,41% | 25 | 2,69% | 4 | 16,00% |
| BARNE ARLOA | 24 | 2,82% | 36 | 3,88% | -12 | -33,33% |
| GIZARTE SEGURANTZA | 18 | 2,12% | 18 | 1,94% | 0 | 0,00% |
| MERKATARITZA | 17 | 2,00% | 8 | 0,86% | 9 | 112,50% |
| LANA | 11 | 1,29% | 8 | 0,86% | 3 | 37,50% |
| BESTELAKOAK (toki entitateen funtzionamendua) | 10 | 1,18% | 14 | 1,51% | -4 | -28,57% |
| HERRI LANAK | 10 | 1,18% | 13 | 1,40% | -3 | -23,08% |
| BESTELAKOAK (juridiko-pribatuen) | 10 | 1,18% | 11 | 1,18% | -1 | -9,09% |
| ATZERRITARTASUNA | 7 | 0,82% | 5 | 0,54% | 2 | 40,00% |
| GAZTERIA ETA KIROLA | 7 | 0,82% | 5 | 0,54% | 2 | 40,00% |
| NEKAZARITZA | 4 | 0,47% | 8 | 0,86% | -4 | -50,00% |
| KULTURA | 2 | 0,24% | 6 | 0,65% | -4 | -66,67% |
| INDUSTRIA | 2 | 0,24% | 2 | 0,22% | 0 | 0,00% |
| TURISMOA | 1 | 0,12% | 0 | 0,00% | 1 | #¡DIV/0! |
| **Guztira** | **850** | **100,00%** | **929** | **100,00%** | **-79** | **-8,50%** |

Aurkeztutako kexa gehienak **funtzio publikoari** buruzkoak dira. Kexa guztien kopuruan % 13,18 egiten dute.

Halere, gaia bi atal handitan banatzen badugu –alde batetik, kexak funtzionario publikoek aurkeztu dituztenean, lan egiten duten administrazioekiko lotura bereziko harremanetan sortutako gaiak direla medio, eta, bestetik, herritar ez-funtzionarioek izaera orokorreko harremanen ondorioz edo funtzio publikora sartzeko eskubideaz baliatzearen ondorioz sortutako kexak direnean– honela geratuko litzateke kexen kopurua:

– 48 kexa funtzionario publikoek edo administrazio publikoen zerbitzuko lan kontratupeko langileek aurkeztu zituzten; jasotako kexa guztien % 5,6 egiten dute.

– 64 kexa administrazio publikoetakoak ez diren herritarrek aurkeztu zituzten; hau da, urtean jasotako 850 kexetatik % 7,5.

Datu horiek 2010eko datuekin alderatuz gero, egiaztatzen da 2011n langile publikoen izaera ez duten herritarrek aurkeztutako kexek gora egin dutela eta nabarmen egin dutela behera langile publikoek aurkeztutakoek.

**Gizarte ongizatearen** arloko kexak bigarren tokian daude. Kexa guztien kopuruan % 11,76 egiten dute.

Hirugarren multzoan, administrazio publikoek **informazioa eman eta espedienteak legediak xedatzen duen epean ebazteko betebeharrari buruzko eta tratu txarra edo deskortesia jokabideei buruzko** kexak daude. Kexa horiek guztien % 9,76 egiten dute.

**Hezkuntzaren** arloko kexak laugarren tokian daude. Kexa horiek jasotako guztien % 8,94 egiten dute.

**Euskara administrazio publikoetan erabiltzeari** buruzko kexek erregistratutako guztien % 8,12 egiten dute.

Seigarren tokian **ogasunaren** arloko kexak daude (guztien % 5,29) eta beheragoko maila batean, alde txikiz, **trafikoari** buruzkoak ageri dira (% 5,06).

Gainerako arloak ez dira aurkeztutako kexa guztien % 5era iristen.

### 1.6. KEXAK SORRARAZI DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

2011n aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, haren erakunde publikoen eta haren sozietate publikoen jarduna dela-eta aurkeztu ziren. Horixe da 418 kexaren kasua –guztizkoaren % 49,2 egiten dute–. Horrenbestez, bi kexatatik bi Foru Administrazioari buruzkoak ziren.

Toki entitateen eta haien menpeko enteen jardunari buruz, berriz, 251 kexa aurkeztu ziren –guztizkoaren % 29,5–.

Hogeita hiru kexa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren baterako jardunei buruzkoak eta toki entitateren baten jardunari buruzkoak izan ziren.

Nafarroako Parlamentuaren administrazioa dela eta, hamaika kexa aurkeztu ziren.

Bi kexa Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari buruzkoak ziren.

Lanbide-elkargoen jardunari buruzko kexak, berriz, zazpi izan ziren.

Hamabi kexatan, kexaren xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan zen.

Estatuko Administrazioa dela eta, laurogeita lau kexa aurkeztu ziren.

Lau kexa aurkeztu ziren administrazio autonomikoei buruz eta nazioarteko administrazioari buruz; bi kexa hauteskunde-administrazioari buruz eta hogeita bat kexa, azkenik, justizia-administrazioari buruz.

Azkenik, hamabi kexa ente pribatuei buruzkoak eta hiru kirol federazioei buruzkoak izan ziren.

| KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKOAK | Kexa kop. | % |
|---|---|---|
| FORU ADMINISTRAZIOA | 418 | 49,2% |
| TOKI ADMINISTRAZIOA | 251 | 29,5% |
| FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOA (*) | 23 | 2,7% |
| ESTATUKO ADMINISTRAZIOA | 84 | 9,9% |
| ADM. JUDIZIALA | 21 | 2,5% |
| LANBIDE ELKARGOAK | 7 | 0,8% |
| NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA | 12 | 1,4% |
| NAFARROAKO PARLAMENTUA | 11 | 1,3% |
| AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA NAZIOARTEKO ADMINISTRAZIOA | 4 | 0,5% |
| HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA | 2 | 0,2% |
| NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA | 2 | 0,2% |
| BESTERIK / BESTE BATZUK | 15 | 1,8% |
| **GUZTIRA (*)** | **850** | **100,0%** |

*(*) 23 kexa badaude aldi berean eragina dutenak Foru Komunitateko Administrazioan eta toki entitateren batean.*

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuei –gaiak haien eskumenekoak zirelako– zuzendutako kexei dagokienez, lehenengo aipatuko ditugu 2011ko uztailera arte zeuden departamentuei zuzendutakoak, eta, gero, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen egitura ezarri zuen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren uztailaren 1eko 10/2011 Foru Dekretuaren bitartez ezarritako departamentuei zuzendutakoak.

Emaitza honako hau da:



**Toki entitateei** erreparatuta, honakoak izan ziren hamar kexa baino gehiago jaso zituztenak: Iruña (75 kexa) eta Tutera (20).

Kontzejuen jokabideei buruz, berriz, bost kexa aurkeztu ziren.

Mankomunitateen jarduera eta kudeaketa direla eta, 28 kexa aurkeztu ziren. Horietatik, bederatzi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari buruzkoak ziren.

Xehetasun gehiago izateko, hona datuei buruzko taulak.

| **UDALAK** | |
|---|---|
| Ablitas | 2 |
| Allín | 1 |
| Allo | 1 |
| Altsasu - Alsasua | 1 |
| Ansoáin | 1 |
| Aoiz | 2 |
| Aranguren | 4 |
| Arguedas | 1 |
| Artajona | 1 |
| Atez | 1 |
| Azagra | 2 |
| Barañáin | 1 |
| Baztan | 7 |
| Bera | 1 |
| Berrioplano | 1 |
| Berriozar | 3 |
| Bertizarana | 1 |
| Biurrun - Olcoz | 1 |
| Burgui | 1 |
| Burlada | 9 |
| Cabanillas | 1 |
| Cárcar | 2 |
| Cáseda (*) | 2 |
| Cintruénigo | 3 |
| Ciriza | 1 |
| Zizur Mayor | 2 |
| Corella | 3 |
| Etxauri | 1 |
| Egüés | 7 |
| Espronceda | 1 |
| Estella | 4 |
| Etayo | 1 |
| Etxarri - Aranatz | 1 |
| Ezcabarte | 1 |
| Funes | 1 |
| Guirguillano | 1 |
| Huarte | 6 |
| Igúzquiza | 1 |
| Iturmendi | 1 |
| Iza-Itza | 2 |
| Lerga | 1 |
| Lerín | 1 |
| Lesaka | 2 |
| Lónguida - Longida | 1 |
| Los Arcos | 1 |
| Marañón | 1 |
| Marcilla | 1 |
| Mendavia | 2 |
| Murchante | 1 |
| Muruzábal | 2 |
| Obanos | 1 |
| Ochagavía | 2 |
| Olite | 1 |
| Ollo | 1 |
| Olza | 1 |
| Pamplona | 75 |
| Peralta | 1 |
| Pitillas | 1 |
| Puente la Reina | 7 |
| Sangüesa | 4 |
| Sorlada | 1 |
| Tafalla | 2 |
| Tudela | 20 |
| Uharte - Arakil | 1 |
| Viana | 2 |
| Villava | 1 |
| Yerri | 1 |
| **UDALAK, GUZTIRA** | **219** |

| KONTZEJUAK | |
|---|---|
| Artica | 1 |
| Azanza | 1 |
| Larrayoz | 1 |
| Lizaso | 1 |
| Narbarte | 1 |
| **KONTZEJUAK, GUZTIRA** | **5** |

| MANKOMUNITATEAK | |
|---|---|
| Moncayoko Uren Mankomunitatea | 1 |
| Iruñerriko Mankomunitatea | 6 |
| Jurramendiko Mankomunitatea | 2 |
| Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea | 9 |
| Nafarroako Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea | 2 |
| Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea | 6 |
| Antsoaingo, Berriobeitiko eta Berriozarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 1 |
| Sakanako Mankomunitatea | 1 |
| **MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA** | **28** |

| | |
|---|---|
| **GUZTIRA (**)** | **252** |

(*) 252 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitateren bati zuzendutako kexa bat ere sartu da.

(**) 252 kexa horietan, Nafarroako toki entitate bati baino gehiagori aldi berean eragiten dieten bi kexa daude.

## II. KAPITULUA. ERAKUNDEAN JASOTAKO KEXAK

### 2.1. AITZINSOLASA

2011. urtean zehar, herritarrek 850 kexa aurkeztu zituzten.

Kexa guztiak batera aztertu ondorengo datuek agerian jartzen dute honako arloetakoek gora egin dutela, funtsean: herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideen bermeak; gizarte ongizatea; ingurumena; etxebizitza; kontsumitzailearen babesa, eta trafikoa. Behera egin dute, aldiz, honako arloetakoak: osasuna, hezkuntza, funtzio publikoa, euskararen erabilera administrazio publikoetan, eta barne departamentuaren arloa. Gainerako arloetan, ez da nabarmentzeko moduko aldaketarik gertatu.

2011n aurkezturiko kexei buruzko informazioa hobeki emateko, kexak gaiaren arabera antolatu ditugu, aurreko urteko txostenetan egin dugun bezalaxe, erakunde honek kexa-espedienteetan egin dituen iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak aipatu gabe, horiei buruzko informazioa txosten honetako III. eta VI. kapituluetan ematen baitugu.

Azken batean, helburua da ezagutzera ematea herritarrek planteatzen dituzten arazoak, alde batera utzita erakunde honek kasu zehatz bakoitzean esku hartzeko dauzkan aukera errealak, eta alde batera utzita, halaber, zein izan den kexa bakoitzari eman zaion erantzuna edo gure jardunak amaieran zein emaitza izan duen, halako moduz non jasotako informazioa baliagarria izanen baita Nafarroako Parlamentuarentzat eta, kasua bada, Nafarroako administrazio publikoentzat.

Gaiaren araberako aurkibidea ordena alfabetikoan ematen dugu, kapitulu honen kontsulta errazteko.

Zenbait arlotan, haien norainokoa ikusita, informazioa gaien arabera xehakatu da. Bestalde, arlo bakoitzean kexak aurkeztu diren gaiak zehazterakoan, aurkeztutakoak hiru edo gehiago diren adierazi dugu.

### 2.2. AURKEZTUTAKO KEXAK, GAIAREN ARABERA

#### 2.2.1. Nekazaritza eta abeltzaintza

2011n, 4 kexa aurkeztu ziren nekazaritza eta abeltzaintza direla eta. Gutxiago dira 2010ean aurkeztutakoak baino, orduan 8 izan baitziren. Aurreko ekitaldian aurkeztutako kexen guztizkoan, kexa horiek ez dira iristen ezta % 1era ere.

Aurkeztutako kexetatik, bi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari zuzenduta zeuden, bat ureztatze sindikatu bati eta laugarrena udal baten jarduerari buruzkoa zen.

Aurkeztutako kexak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

– Ureztatze sindikatu baten jarduketa, uhate bat jartzeagatik.

– Udal batek ezezkoa ematea kexa-egile bati hidrante bat erabiltzeari buruz.

– Administrazio publikoak ez betetzea lurzatiberrantolamenduko prozesu batean hartutako konpromisoa, alegia, bide baten bi aldeetan erretenak egitea, lurzatietan uholderik izan ez dadin.

– Lurzati berrantolamenduko prozesu batean esleitutako ordezko lursailean ureztatze-azpiegitura bat ezartzeko baimen-eskariari ezetz erantzutea, aztarnategi arkeologiko bat egoteagatik, eta, horrenbestez, ondare historikoa babesteko organo administratibo eskudunak horri ezezkoa ematea.

#### 2.2.2. Gizarte Ongizatea

100 kexa aurkeztu ziren; 2010ean, berriz, 90 kexa aurkeztu ziren. Kexa horiek guztizkoaren % 12 egiten dute; joan den urtean, berriz, % 9,7 egiten zuten.

Ondoko gaiei buruzko kexak izan dira:

– 35, oinarrizko errentaren eskariari ezezkoa emateagatik edo ematean geroratzeagatik.

– 17, mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arretarengatik;

– 12, ezgaitasunaren arloari buruzkoak;

– 12, adingabeentzako arretarengatik eta babesarengatik.

– 9, gizarte laguntzen arloko prestazioei buruzkoak;

– 6, adineko pertsonei laguntza eta babesa emateari buruzkoak;

– 4, gaixotasun zeliakoa duten pertsonentzako laguntzei buruzkoak;

– 3, familia eta familia eta lana bateragarri egiteari buruzkoak;

– 2, gizarte bazterketari buruzkoak;

Honakoak izan ziren kexa hauek aurkeztea eragin zuten egitateak:

**A) Oinarrizko errenta**

– Oinarrizko errenta berritzeko eskaerak ebazterakoan geroratzea, premia egoeran dauden pertsonen kasuan (13 kexa).

– Geroratzea, araudian ezarritako gehieneko epeak zabal gaindituz, oinarrizko errentari buruzko ebazpenean (14 kexa).

– Oinarrizko errenta ukatzea (6 kexa).

– Oinarrizko errentaren ordainketan geroratzea, behin hura egokia dela aitortu ondoren.

– Administrazioak erabakitzea oinarrizko errentaren prestazioa eten eginen duela, onuraduna Nafarroatik kanpo bizi delako.

**B) Mendetasun egoeran dauden pertsonei arreta ematea (Mendetasunari buruzko 39/2006 Legearen aplikazioa).**

– Mendetasun egoeran dauden pertsonei aitortutako prestazioen ordainketan geroratzea (4 kexa).

– Ados ez egotea laguntzak jasotzeko aitortutako eragin-datarekin (3 kexa).

– Aitortutako laguntza ez ordaintzea, beste laguntza batzuekin bateraezina izan daitekeelakoan (2 kexa)–

– Eguneko zentro batera joateko mendetasunerako laguntza eta familia ingurunean zainketak hartzeko laguntza bateraezinak izateari buruzko deklarazioa (2 kexa).

– Egoitza batean dagoen eta 1. mailako mendetasun larriko maila aitortua duen senide batentzako hileroko tarifa ordaintzeko zailtasunak izatea.

– % 75eko minusbaliotasuna duen pertsona bati eginiko balorazioa. Pertsona horri, izan ere, gutxienez ere exijitzen den puntuaziora ez iristeagatik, ez zaio mendetasun egoera aitortu.

– Laguntza berraztertzeko lanak egin ondoren, geroratzea mendetasunaren arloko laguntzen espediente bat ebazteko garaian, 2. mailako mendetasun handi duen pertsona baten kasuan.

– Desadostasuna 2. mailako mendetasun larria aitortua duen pertsona bati emandako laguntzaren zenbatekoarekin.

– Mendetasun gradua administrazioak bere kabuz aztertu ondoren, emandako laguntza deuseztatzea, eta 2. mailako mendetasun handiaren kalifikazioaren ordez, 1. mailako mendetasun moderatua ematea.

– Aurrekontu baliabideak nahiz laguntzarakoak nahikoak ez izatea mendetasuna duten adineko pertsonentzako laguntza bermatzeko.

**C) Ezgaitasuna**

– Ados ez egotea aitorturiko minusbaliotasun graduarekin (4 kexa).

– Bitartekaritza eskaera bat, berehala egoitzatoki bat eman dakion buru-gaixotasun baten ondorioz % 59ko ezgaitasuna duen pertsona bati, zeinari, prestaziorako eskubidea aitortua duen arren, ez baitzaio ordaintzen.

– Egoitza batean toki bat ukatzea buru-nahaste larriaren ondoriozko ezgaitasuna eta % 66ko minusbaliotasun gradua duen 65 urtetik gorako pertsona bati; pertsona hori epai bidez desgaitua dago.

– Semearen kotizaziorik gabeko pentsiotik kopuru bat bahitzea. Pertsona horrek % 65eko minusbaliotasuna du.

– Desadostasuna diabetesa pairatzearen ondoriozko ezgaitasuna ez aitortzearekin, bai eta gidatzeko baimena bi urtez behin berritu behar izatearekin, gaixotasun horren ondorioz.

– Errehabilitazio psikosozialeko zentro batean bizikidetasun arazoak izatea.

– Desadostasuna tutoretzapeko senide bat ezgaitasuna duten pertsonentzako zentro batera sartzearekin. Tutoretzapeko etxebizitza batera eraman dezaten eskatzen da.

– Egoitza-baliabiderik ez egotearen ondorioz Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gisa eskaintzen dituen baliabideak eskuratu ahal izateko exijitzen denera iristen ez diren pertsona ezgaituek autonomia ezin eskuratzea.

– Zor bat exijitzea ezgaitasuna duen senide baten zentro psikogeriatriko bateko egonaldiarengatik.

**D) Adingabeentzako arreta eta babesa.**

– Desadostasuna adingabeen zainketarako ezarritako lege-araubidearekin (2 kexa).

– Zaintzailerik ez egotea adingabeentzat tratu txarrak pairatu dituzten emakumeak artatzeko larrialdi-zentroan.

– Desadostasuna Administrazio Publikoak hartutako erabakiarekin, hain zuzen ere bost urteko alabaren zaintza kentzeko prozedura abiatzeari dagokionez.

– Adingabe bat zentro terapeutiko batean sartzen geroratzea.

– Geroratzea pertsona hartzaileari ahaidetasun-harreman batez (ilobak ditu) lotutako bi adingabeen harrera formalizatzerakoan.

– Adingabe baten gurasoen desadostasuna semearen ludoteka zerbitzua eta etxeko laguntzaren zerbitzua emateko baldintzekin.

– Adingabeei beraiengan eragina duten prozesu administratibo eta judizialetan entzuteko legezko betebeharra ez betetzea.

– Ados ez egotea adingabe baten babesgabetasun-deklarazioarekin –adingabe hori familia-ingurune batean bizi da–, bere jatorrizko herrialdera itzultzeko izapideak hasteko.

– Desadostasuna administrazio publikoak jaio berritako alabaren zaintza administratiboa bere gain hartzearekin.

– Eskaria, Administrazio Publikoak esku har dezan adingabe baten babesgabetasuneko balizko kasu batean.

– Desadostasuna familia-harreran dagoen bere alabaren bisita-araubidearekin.

**E) Gizarte laguntzako prestazioak**

– Gorabeherak oinarrizko gizarte zerbitzu batean esleituta daukan gizarte langilearekin, eta beste bat esleitu dakion eskatzea.

– Gizarte laguntzak ukatzea Artikako bizilagunei Berriozarko oinarrizko gizarte zerbitzuetan.

– Gizarte langileak informazio okerra ematea laguntza bat eskatzeko epearen amaierari buruz.

– Udaleko gizarte zerbitzuetan arreta txarra ematea.

– Gizarte laguntza bereziak ukatzea (5 kexa).

**F) Hirugarren adina**

– Ados ez egotea Administrazioak zentro psikogeriatrikoetako egonaldi-kontzeptua dela-eta erreklamatutako zorrarekin.

– Desadostasuna senide batek hirugarren adinerako zentro batean izandako egonaldiarengatik erreklamatzen den zorraren zenbatekoarekin (hilobiratzeko gastuak).

– Ados ez egotea zentro psikogeriatriko batean egonaldiarengatik ezarritako tarifarekin eta tarifaren gaurkotzeari buruzko jakinarazpenik ez bidaltzearekin.

– Zentro psikogeriatriko batean egonaldiarengatik ezarritako tarifa ordaintzeko zailtasunak edukitzea.

– Alargun pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekora arte osatzeko laguntza bat ukatzea.

**G) Gaixotasun zeliakoa duten pertsonentzako laguntzak**

– Ados ez egotea gaixotasun zeliakoa duten pertsonentzako laguntzen deialdiko oinarriekin (2 kexa).

– Laguntza horiek ukatzea (2 kexa).

**H) Familia eta familia eta lana bateragarri egitea**

– Eszedentziarengatiko aldizkako ordainketaren laguntza ekonomikoa ukatzea adingabeetako bat eskatzailearen seme biologikoa ez, senarraren seme biologikoa izateagatik.

– Desadostasuna familia ugariaren txartela berritzeko betebeharrarekin, lau seme-alaba baino gehiago izateagatiko laguntza jaso ahal izateko.

– Familia ugariaren izaera duela ez aitortzea ezkondutako bikote bati, zeinak zaintzapean bi seme-alaba komun dituen eta, gainera, gizonezkoak aurreko bikotekidearekin izandakoa alaba bat ere baduen, zaintza partekatuko araubidean dagoena gizonezko horren eta bikotekide ohiaren artean.

**I) Gizarte bazterketa**

– Gizarte laguntza bat eskatzea gaixotasun terminala duen eta ez errentarik, ez baliabide ekonomikorik ez duen pertsona baten bizirauteko gutxieneko gastuei aurre egiteko.

– Oinarrizko gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoaren premia.

**2.2.3. Kontsumoa**

Kontsumoaren arloa dela-eta 17 kexa aurkeztu ziren 2010ean (% 2); 2010ean, berriz, 8 izan ziren (guztizkoaren % 0,86).

Kexen edukian kontsumitzailearen babesarekin loturiko honako gaiak azaltzen dira:

– Telefonia mugikorreko enpresek gehiegi fakturatzea (3 kexa).

– Telefoniako operadoreek etxebizitzetara dei gehiegi egitea (2 kexa).

– Telefonia mugikorreko enpresekin kontratatutako zerbitzuak ez betetzea (2 kexa).

– Zenbait produkturen publizitate engainagarria (2 kexa).

– Kontsumitzailearen aurreko betebeharrak ez betetzea (2 kexa).

– Nazio mailako irrati programa batean iragarritako balizko iruzur komertziala.

– Etxebizitza batean gas instalazioaren izapidetzea arintzeko premia.

– Kontsumitzaileari arreta emateko udal bulego baten itxiera.

– Telefonia konpainia batek fidantza bat eskatzea.

– Kontsumoko Arbitraje Batzordean aurkeztutako erreklamazio bat ez izapidetzea eta hari buruzko informazioa ez jasotzea.

– Desadostasuna kontsumoarena arloko erreklamazio bat artxibatzearekin.

**2.2.4. Kultura**

2 kexa aurkeztu ziren arlo honetan; 2010ean, berriz, 6 izan ziren. Kexa-egileek honako gaiei buruzko desadostasuna erakutsi zuten:

– Liburutegi Nagusiko jendeari arreta egiteko zerbitzua azpikontratatzea.

– Herri bateko liburutegi publikoa luzaroan itxita egotea.

**2.2.5. Hezkuntza eta irakaskuntza**

Arlo honetan, 76 kexa aurkeztu ziren 2011n; 2010ean, berriz, 113 aurkeztu ziren. Guztira aurkeztutako kexen % 9 egiten dute; aurreko urtean, berriz, % 12 egiten zuten.

Aurkeztutako 76 kexetatik:

– 32 ikastetxeetan ikasleak onartzeari buruzkoak izan ziren;

– 9 bekak eta ikasteko beste laguntza batzuk emateari eta ukatzeari buruzkoak;

– 9 unibertsitate-irakaskuntzei buruzkoak;

– 6 hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzari buruzkoak;

– 6 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako laguntzari buruzkoak (haur hezkuntzako lehen zikloa);

– 5 hezkuntzaren kudeaketari buruzkoak;

– 3 eskolako bizikidetasunari buruzkoak;

– 2, eskola garraioko zerbitzu osagarriari buruzkoak;

– 2 hezkuntza plangintzari buruzkoak;

– 1 tituluak emateari eta baliozkotzeei buruzkoak;

– 1 baliogabetutako matrikula bateko diru-zenbatekoa itzultzeari ezezkoa emateari buruzkoa.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

**A) Ikasleak ikastetxeetan onartzea**

– Funts publikoekin ordaindutako ikastetxeek ikasleak onartzeari buruzko baremoan, familiaren helbidea eskolatik hurbil egoteko iruzurrezko erroldatzeak erabiltzea, puntuazio handiagoa lortze aldera.

– Ikasleak ez onartzea lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean (3 kexa).

– Ikastetxe pribatuetan ikasleak ez onartzea, tokirik ez egoteagatik, eta ratioa handitzeko eskatzea, eskariari erantzun ahal izateko (2 kexa).

– Ikastetxe batean, ikasleak onartzeko prozesuan prozedurazko irregulartasunak detektatzea (2 kexa).

– Desadostasuna eskatzaileen helbideko eta ikastetxeko helbideko posta kodea bat etortzeko irizpidea erabiltzearekin hurbiltasunari dagokion puntuazioa emateko (2 kexa).

– Kexa-egileak ados ez egotea “antzinako ikaslearen seme-alaba” irizpide osagarria erabiltzearekin funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko garaian (2 kexa).

– Hezkuntza Administrazioak ezezkoa ematea onartuak izan direneko lanbide heziketako moduluetan ikasleak matrikulatzeari (2 kexa).

– Iruñeko hizkuntza eskola ofizialean “on line” matrikulatzeko zailtasunak.

**B) Ikasteko bekak eta bestelako laguntzak.**

– Aurreko urteetan jasotzen ar iziren ikasketa unibertsitarioetarako bekak ukatzea, deialdi berrian ondarea dela-eta atalase berriak ezarri direlako (6 kexa).

– Eskola garraiorako beka bat ukatzea.

– 2011ko azken bi hiruhilekoetan helduei euskara irakasteko laguntzak ez ordaintzea.

– Lanbide heziketako ikastetxe batek ezezkoa ematea ikasketetarako beka-eskari bateko dokumentazioa paper-euskarrian hartzeari, eskaria internetez aurkeztu behar izateari buruzko aitzakia erabilita.

**C) Unibertsitateko irakaskuntza**

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduko ikasleak ados ez egotea eskolak emateko ezarri den ordutegiarekin (2 kexa).

– Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduko lanaldi partzialeko ikasleek zailtasunak izatea errepikatzeko taldeen ordutegiak eta ohiko lan ordutegiak bateraezinak izateagatik.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresen Zuzendaritzako lizentziatu eta Zuzenbideko lizentziatu ikasketak aldi berean egiten ari diren ikasleak ados ez egotea ikasketa planetik kentzeagatik praktikak nazioarteko enpresetan egiteko aukera.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra Graduko bigarren mailako ikasleak ados ez egotea Ingelesa II ikasgaian matrikulatu behar izatearekin oraindik ere Ingelesa I gainditua eduki gabe.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezezkoa ematea Lan Harremanetako diplomatu ikasketetako ingeles ikasgaia baliozkotzeari.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoak liburutegirako doako sarbidea eragoztea.

– Desadostasuna Nafarroako Unibertsitate Publikoak ematen duen Kudeaketa Publikoko aditu titulurako sarbidea izateko eskatzen den titulazioarekin.

– Desadostasuna unibertsitate-praktiketan eman zaion “gutxiegi” kalifikazioarekin.

**D) Hezkuntza kudeaketa**

– Batxilergoko lehen mailako ikasleak atzerrira joateko 2011ko udako programako zozketan gertaturiko akatsak.

– Ikastetxe publikoetan haur hezkuntzako bigarren zikloan (3 ikasmaila dira) zehar maisu-maistrak aldatzea irakasleen plantilletan dagoen ezegonkortasunaren ondorioz.

– Ikasle bat ebaluatzerakoan hartutako erabakia, zeinaren indarrez ikasmaila errepikatu beharrean dagoen.

– Desadostasuna haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat bigarren hezkuntzako beste institutu bati atxikitzearekin eta eskola-orientabidearen antolaketarekin.

– Bigarren hezkuntzako institutu bateko patioaren egoera txarra.

**E) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta**

– Guraso batzuen desadostasuna hezkuntza premia bereziak dituzten beren seme-alabek jasotzen duten hezkuntza-laguntzarekin, eskasa dela uste baitute (4 kexa).

– Hezkuntza administrazioak ezezkoa ematea hezkuntza premia bereziak dituen ikasle baten amari, ikastetxez aldatzeko eskaria egin ondoren.

– Hezkuntza Departamentuko Eskola Ikuskapenerako Zerbitzuaren jarduketak eragindako ezinegona, sei urteko neskato batek lehen hezkuntzako lehenengo mailaren hasieran erakutsi dituen zailtasunak direla eta.

**F) Haur hezkuntzako lehen zikloa (0 - 3 urteko zikloa)**

– Udal batek ezezkoa ematea iraileko egunetako kuota proportzionalaren zati bat ordaintzeari, horietan ez baita jantoki zerbitzurik izan udalaren haur eskolan.

– Desadostasuna haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batzuetan ezarritako hezkuntza antolaketarekin eta plangintzarekin, ezinezko egiten baitu behar diren baldintzetan hezkuntza proiektu bata urrera eramatea eta ikasleei laguntza ematea zailtzen baitu (2 kexa).

– Alaba ez onartzea haur hezkuntzako lehen zikloko udal eskola batean.

– Hirugarren hezitzailea kentzea haur hezkuntzako ikasgela misto batean.

**G) Eskolako bizikidetasuna**

– Ikasle bati bere irakaslea izandako batek eginiko eraso fisikoa.

– Ikasle bati ezarritako zehapena, diziplina espedientea izapidetu ondoren.

– Bigarren hezkuntzako institutu bateko garbitzaileek errespeturik ez erakustea ikasle baten amari.

**H) Eskola garraioaren zerbitzu osagarria**

– Nafarroako ikastetxe publikoetako British ereduan eskolatutako ikasleentzako eskola-garraioa ez finantzatzea.

– Desadostasuna eskola garraioko zerbitzu batean ezarritako ibilbidearekin.

**I) Hezkuntza arloko plangintza**

– Etxeko lan gehiegi jartzea, ikasleek eskola-ordutegiaz kanpo egiteko.

– Nafarroan bi hizkuntza –horietako bat ingelesa; H.T.I. eredua– ikasteko programa ezartzeak hezkuntza sistema osoan izan duen eragina: irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua, irakasleen prestakuntza eta gaitasuna, ikastetxeetako plantillak, ikasleen banakako arreta eta familiek jasotzen duten informazioa. Eta beste faktore batzuk behar bezala ponderatzeko beharra, hezkuntzarako

konstituzio-eskubidea behar bezala bermatze aldera.

**J) Titulua eta baliozkotzeak**

– Geroratzea unibertsitate-titulu baten homologazioa izapidetzerakoan.

**K) Beste zenbait**

– Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak “That’s English” ikastarorako matrikularen diruzenbatekoa ez itzultzea, hartan huts-egite baten ondorioz apuntatu ondoren.

**2.2.6. Atzerritarrak**

Arlo honetan 7 kexa aurkeztu ziren. Kopuru hori aurreko urtekoaren antzekoa da, orduan 5 kexa aurkeztu baitziren. Guztizkoaren % 1 egiten dute. Aurkeztutako kexetatik sei Espainiako Arartekoari igorri zitzaizkion, haren eskumeneko gaiak zirelako.

Aurkeztutako kexak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

– Atzerriko Gaietarako Ministerioak eta Erregistro zibila geroratzea antolamendu juridiko espainiarraren arabera ezkontza bat aitortzeko prozeduran, ondoren familia berriz biltzeko prozesuari ekin ahal izateko.

– Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren aldaketa. haren bidez, emigranteei eta atzerrian bizi diren herritar atzerritarrei toki hauteskundeetan botoa emateko eskubidea kentzen zaie.

– Geroratzea berriki Espainiako nazionalitatea lortu duen pertsona batentzako pasaportea izapidetzerakoan.

– Ezin lan egitea kexa-egileari eman zaion egoitza-baimenarekin.

– Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaritzak ezezkoa ematea atzerriko nazionalitatea duten barruko mediku egoiliarrek lanaren ondoriozko egoitza-baimena lortzeko izapideak errazteari.

– Egoitza- eta lan-baimen berritzeari ezezkoa ematea.

– Esku-hartzeko eskari bat, bere kargu duen seme txikienak dokumentaziorik ez duelako (pasaportea, A.I.Z.). Seme horrek aitortutako ezgaitasun bat dauka eta, horrenbestez, eskatzen du bitartean Gizarte Segurantzak egora hori aitor diezaion, behar diren ondorioekin.

**2.2.7. Funtzio publikoa**

Arlo honetan 112 kexa aurkeztu ziren 2011n; aurreko urtean, berriz, 140 izan ziren. Kexen % 13 inguru egiten dute. Aurreko urteetan bezala, gaien lehenengo multzoa da, erregistratutako kexen kopuruari erreparatuta.

Aurkeztutako 112 kexetatik:

– 64 (guztizkoaren % 57) administrazio publikoetakoak ez diren herritarrek aurkeztu zituzten. Kexa horiek, nagusiki, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko edo haren lanpostuak betetzeko prozedurei buruzkoak izan ziren.

– Gainerako 48 kexak (% 42) administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioek edo lan kontratupeko langileek aurkeztu zituzten, eta honako gaiei buruzkoak ziren: 19, langileen eskubide eta betebeharrak; 8, ordainsarien araubidea; 10, mugikortasuna; 7, eskubide pasiboak eta pentsioak; eta 4, diziplina araubidea.

Honakoak izan ziren kexak eragin zituzten arrazoiak:

**A) Administrazio Publikoan sartzea**

– Ustezko irregulartasunak hautapen prozesuak izapidetzerakoan; atzerapena haiek garatzerakoan, eta izangaiei informaziorik ez ematea (17 kexa).

– Ados ez egotea Nafarroako Gobernuak 2011ko urriaren 7an iragarritakoarekin (horren jatorri aurriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu Legearen onespena izan zen, zein aren bitartez defizitaren helburua betetzeko zenbait neurri onesten baitziren), hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko E mailako 167 lanposturen deialditik 102 lanpostu kentzea, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 23/2011 Ebazpenaz onetsia eta maiatzaren 10eko 44/2011 Ebazpenaz aldatua (10 kexa).

– Desadostasunak aldi baterako kontrataziorako izangaiei dei egiteko prozedura dela eta (11 kexa).

– Ados ez egotea hautapen prozesuetan emaniko puntuazioekin (4 kexa).

– Ados ez egotea Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan aldi baterako kontrataziorako ezarritako lehentasun irizpideekin; izan ere, foru agindu horren bidez aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dira. Izan ere desadostasuna dator lehentasunezko irizpideak sartzetik % 33 edo gehiago minusbaliotasuna duten pertsonei deitzeko eta gutxienez ere Foru Komunitatearen Administrazioan gutxienez ere hamabost urteko zerbitzuak eman dituzten

eta berrogeita bost urte baino gehiago dituzten pertsonei deitzeko (3 kexa).

– Hautapen prozesuetan ezgaitasuna duten pertsonentzako aldien eta bitartekoen egokitzapena ukatzea edo halakorik ez aplikatzea (3 kexa).

– Ados ez egotea oposizio bateko gai zerrendarekin, bi eta hura pliken sistemaren bitartez ez garatzearekin ere.

– Aldi baterako administrari laguntzailea izateko lanpostu bat betetzeko deialdia publiko ez egitea.

– Aldi baterako kontratazio baterako dei egiteko erabili den sistemarekin ados ez egotea ezgaitasuna duen pertsona baten kasua ez lehenestegatik.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzailea izateko lanpostu batzuk oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarrietan eginiko zuzenketa, zeren eta jotzen baita hautapen prozesuan parte hartzeko baldintzak aldatzen direla legea aintzat hartu gabe.

– Toki entitate bateko idazkari lanpostuaren adjudikazioaren publizitaterik egitea.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileak hartzeko deialdi bateko izen-ematea nahitaez internet bidez egin behar izatea.

– Desadostasuna euskararen ezagutza kreditatzeko prozedura dela-eta, administrari laguntzailea izateko oposizio batean, zeren eta jotzen baita euskararen ezagutzari buruzko proba hautapen prozesuaren amaieran egiten den kasuetan, aukera eman beharko litzaiekeela hautagaiei ezagutza hori egiaztagiri baten bitartez kreditatzeko hain zuzen ere oposizioko azterketak berak amaitu eta ondoren eta ez eskabideak aurkezteko garaian.

– Informatikako proba bat hautapen prozesuan aldatzea, zeren eta jotzen baita deialdiko oinarrien behar ez bezalako aldaketa bat dela.

– Desadostasuna lanbide heziketako irakasle teknikarien kidegoan sartzeko exijitzen den titulazioarekin.

– Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko aldi baterako kontratazio zerrendetan ezgaitasunak dituzten izangaiak direla-eta ezarritako lehentasunarekin.

– Administrazio publiko batek ezezkoa ematea hautapen prozesu batean izena emateko tasa itzultzeari, zeren eta jotzen baitu prozedura horretan parte hartzeko behar den titulazioa ez duela.

– Izangai bat ez onartzea hautapen prozesu batean, parte hartzeko eskabidea garaiz kanpo aurkeztu duelakoan.

– Hautapen prozesu bateko hautapen batzordeko kide batek abstentziorik ez ematea, noiz eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikuluaren araberako arrazoi bat zegoenean.

– Desadostasuna lanpostu bat sartzearekin oposizio-lehiaketa bidez betetzekoak direnen artean.

– Administrazio publikoak ezezkoa ematea irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretuan jasotako gaitasun agiria eta abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako maila aurreratuko ziurtagiriaren baliokidetasuna aitortzeari, atezain lanpostuetara sartzeko deialdi batean euskararen mailaren ezagutza egiaztatzerakoan.

– Desadostasuna hezkuntza administrazioaren lan-eskaintzaren baldintzekin, irakaslea izateko kontratu batean.

**B) Eskubideak eta betebeharrak**

– Salaketak laneko jazarpena dela eta (2 kexa).

– Desadostasuna administrazio publikoak oporegun gisa kontatu dituelako Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ebazpen bidez senda-agirirako erabakitako datatik interesdunari ebazpen hori jakinaraztera bitartean iragandako aldia.

– Edoskitzeagatiko baimen bat ukatzea, eta ez erantzutea hura aurkatzeko aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoari.

– Minusbaliotasuna duen seme edo alaba bat edukitzeagatik emandako laguntza kentzea.

– Norberaren gaietarako baimen ordaindua eskatzeko arrazoiak justifikatu behar izatea.

– Irakasle gisa jarduteko izenpetua zuen ordezkapen kontratua amaitzea eta beste bat sinaraztea, lanpostu bererako, baldintza desberdinekin.

– Lan akordio edo hitzarmen kolektibo baten barruan izenpetutako aseguru poliza bat ordaintzeari ezetz ematea.

– Lanaldiaren egituratzea, indarreko arauen araberakoa ez dela jotzen baita.

– Desadostasunak lanpostuaren baldintza higieniko-sanitarioak direla eta.

– Ez aitortzea aparteko ordu gisa zerbitzuaren betebeharrak direla-eta joan-etorrietan emandako denborak.

– Organoak erauzteko ebakuntza kirurgikoak egiten diren ebakuntza-gelako garbiketan esku hartzen duten pertsonak baztertzea, lan zama dela eta, txanda desberdina duten beste langile batzuengandik eta programan parte hartzen duten beste langile batzuengandik.

– Desadostasuna Dantza Eskolan dauden beharrak betetzeko dantza-laguntzaileekiko kontratuetan erabiltzen den modalitatearekin, ez baitzaizkie irakasle gisako kontratua egiten.

– Adingabe bat familia-harrera iraunkorreko modalitatean hartzeagatik eskatutako familia-laguntza ukatzea.

– Irakasle gisako aldi baterako lan kontratua amaitzea eta udako hilabeteetako ordainsariak ez ordaintzea.

– Ezezkoa ematea lanpostuan eszedentzia bat izateko eskaerari.

– Une jakin batera arte baliatzen ari zen irakaskuntza-lanaldiko orduen murrizketa eskatu eta eskaera horri ezezkoa ematea, 65 urte izan eta zerbitzu aktiboan jarraitzea erabakitzeagatik.

– Desadostasuna Nafarroako Unibertsitate Publikoak lan ordutegia onesteko jarraitutako prozedurarekin, hura organo eskudunak ez duela onetsi jotzeagatik.

– Nafarroako Parlamentuaren 2011ko martxoaren 18ko erabakia (2011ko martxoaren 28ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala) ez betetzea. Izan ere, haren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan diharduten zaintzaileen lanaren hezkuntza-alderdia kontuan hartu eta C mailan sar ditzan.

**C) Lansariak**

– Bi urte baino gehiago geroratzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak atzeraeraginez aitortutako destinoko osagarria ordaintzerakoan (3 kexa).

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea eskatua zuen lansari-osagarria aitortzeari eta ordaintzeari.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lanbide karrera ez aitortzea beste autonomia erkidego batzuetatik lekualdatze bidez etorritako osasun langileei (2 kexa).

– Estatuko Administraziotik Nafarroako Foru Komunitateko Administraziora transferitutako behin-behineko funtzionario bati antzinatasunaren eta graduaren lansari-kontzeptuak ez aitortzea.

– Osasunaren arloko langileen lanbide karrerari dagokion lansari osagarria ebaluatzeko eta esleitzeko prozedurak izapidetzerakoan atzeman diren akatsak, atzerapenak eta ez-jarduteak.

**D) Mugikortasuna**

– Desadostasuna Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emandako ebazpen batekin; haren bidez, euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliozkotzeak ezartzen dira, baina irakasleak aplikazio-esparrutik kanpo utzita.

– Ikastetxe publiko bateko zuzendaria hautatzeko prozeduran balizko irregulartasunak egotea.

– Desadostasuna zortzi urteko antzinatasuna eskatzearekin polizia kidegoetan hautapen prozesuetara txanda murriztu bidez aurkeztu ahal izateko.

– Desadostasuna maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze lehiaketarako deialdiko behin-behineko adjudikazioen emaitzarekin, lekualdatze lehiaketako izangaien parte-hartzea erregistratzeko erabili den aplikazio telematikoetan informazio okerra egoteak eragindako akatsengatik.

– Beste osasun zentro batera zerbitzu eginkizunetan joateko eskariari ezezkoa ematea.

– Desadostasuna Gizarte Segurantzako lanpostuak betetzeko lehiaketaren emaitzarekin.

– Lanpostuz aldatzeko eskaera bati ezezkoa ematea.

– Eskatutako lanbide-sustapena ukatzea.

– Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A mailako osasun langileen barne mugikortasunari buruzko 1/2011 Jarraibidean ezarritako mugikortasun-irizpideekin.

– Atalburutza bat merezimenduen lehiaketa baten bitartez betetzen atzeratzea eta balizko irregulartasunak egotea.

**E) Eskubide pasiboak**

– Desadostasuna Osasun Laguntzaren Zerbitzuko Erabilera Bereziari atxikitakoei sendagaiengatik ordaindutakoa itzultzeko sistemarekin, aurrez ordaindutakoa itzultzerako pairatzen duten atzerapenarengatik (4 kexa).

– Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen araubidean alarguntasun pentsioa ez gaurkotzea.

– Osasun laguntzaren erabilera bereziko araubidea oker aplikatzea.

– Umezurtz-pentsioa ukatzea, atzeraeraginez.

**F) Diziplina araubidea**

– Enplegu-soldatak eteteko zehapen bat betearaztea zehatutako subjektua aldi baterako ezgaitasun egoeran dagoenean.

– Desadostasuna diziplina-espediente baten largespen-erabakiaren testuarekin.

– Diziplina espediente batean gertatutako babesgabetasuna.

– Ados ez egotea diziplina espediente bat irekitzearekin.

**2.2.8. Toki erakundeen funtzionamendua**

2011n, 10 kexa jaso ziren Nafarroako toki entitateen funtzionamendua dela eta (guztizkoaren % 1); aurreko urtean, berriz, 14 jaso ziren.

Kexak honakoei buruzkoak izan ziren:

– Toki entitate bateko idazkariaren eta buruaren artean dauden harreman txarrak (2 kexa).

– Toki entitate batek ez betetzea landetxe bat errentan emateko baldintzen plegua.

– Zaitasunak edukitzea bikote egonkor gisa izena emateko udal bateko Bikote Egonkorren Erregistroan.

– Desadostasuna alkate baten jarduketarekin, epai judizial bat betearaztearren udal errolda berraztertzeko beharra dela eta.

– Udal batek ezezko ematea mailegu hipotekario bat egiteko behar den baimena emateari.

– 2010eko irailetik auzolagunen batzar bat egiteko deialdirik ez egitea.

– Udal bateko erroldan izena emateko arazoak egotea.

– Kontzeju bateko kideek mehatxu-salaketak aurkeztea.

– Udal batek ez betetzea Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 3ko 24/2003 Foru Legea, kanpoko aldean Nafarroako ikurra ez jartzeagatik.

**2.2.9. Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten bermeak. Gardentasuna.**

Arlo honetan, 83 kexa aurkeztu ziren 2011n; 2010ean, berriz, 79 aurkeztu ziren. Guztira aurkeztutako kexen % 10 egiten dute; aurreko urtean, berriz, % 8,5 egiten zuten.

Epigrafe horretan sartzen dira herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideei buruzko kexak, bai eta eginiko eskari eta errekurtsoei Administrazio Publikoaren erantzuna behar den denboran eta moduan jasotzeko eskubideari (isiltasun administratiboa) buruzko kexak, informaziorako eskubideari buruzkoak, zentro eta bulegoetara sartzeko eskubideari buruzkoak, arreta egokia jasotzeko eskubideari buruzkoak, herritarren parte-hartzerako eskubideari buruzkoak, kudeaketaren gardentasunerako eskubideari buruzkoak, administrazio egokirako eskubideari buruzkoak eta antzeko beste batzuk.

Herritarrek aurkezturiko kexak ondoko gaiei buruzkoak izan dira:

**A) Administrazio publikoen erantzun bat jasotzeko eskubidea**

– Ez erantzutea herritarrek aurkeztutako eskabide eta instantziei (17 kexa).

=> Eguesibarko Udalak ez erantzutea etorbide nagusiko oinezkoentzako pasabideetan semaforoak jartzeko aurkeztutako zenbait idazkiri.

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez erantzutea hartzekoak jasotzerakoan dagoen diferentzia ordaintzeko erreklamazio bati.

=> Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ez erantzutea mendetasunerako laguntza baten amaierari buruzko idazki bati.

=> Ikerketa bat eskatzeko Garesko Udalari aurkeztutako idazki bati ez erantzutea.

=> Ez erantzutea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan aldi baterako kontratazioetarako izangaiak deitzerakoan izandako akats bati buruz aurkeztutako bi idazkiri.

=> Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztutako bi eskabideri ez erantzutea; izan ere, eskabideetan eskatzen zen ingurumenaren defentsan diharduten entitate eta elkarteen ordezkariak izendatzeko Nafarroako Oihangintzaren Kontseilu Aholku-emailerako eta Nafarroako Uraren Kontseilurako.

=> Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez erantzutea elkarte ekologista batek aurkeztutako eskabideari. Haren bidez eskatzen du Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilurako ingurumenaren defentsan diharduten entitate eta elkarteen ordezkaria izendatzeko.

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez erantzutea lanpostu bat betetzeko eginiko hautaprobei buruzko idazki bati.

=> Lizarrako Udalak ez erantzutea bahitutako diru kopuruak itzultzeko eskari bati.

=> Ikastetxe publiko batek ez erantzutea eskolako jantokian alabak bizi duen egoerarekin lotutako zenbait alderdiri buruzko informazio eskatzeko idazki bati.

=> Iruñeko Udalak ez erantzutea toki entitatean sartzeko prozedura bati buruz udal erregistroan aurkeztutako eskari bati.

=> Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak ez erantzutea langileriaren arloko erreklamazio bati.

=> Kasedako Udalak ez erantzutea zaratak direla-eta aurkeztutako salaketa bati.

=> Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ez erantzutea lurzatiberrantolamendu batean zehar erabilitako hautapen irizpideei buruzko informazio-eskaera bati.

=> Cintruenigoko Udalak ez erantzutea lanpostu batean borondatezko eszedentzia eskatzeko aurkeztutako idazkiei, beste lanpostu batekin bateraezina izateagatik.

=> Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak ez erantzutea aurkeztutako eskabide bati, non irregulartasunak salatzen baitziren enpresa baten kudeaketa zela eta.

=> Gobernuko lehendakariari ehizaren jarduna murrizteko eta ehiza-jardueraren antolaketa dela-eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren jokabidearekiko desadostasuna adierazteko zuzendutako idazki bati ez erantzutea.

– Ondare erantzukizunarengatiko kalteordain-eskariei ez erantzutea (8 kexa).

=> Cabanillasko Udalak ez erantzutea ondare-erantzukizunarengatiko kalteordain-eskari bati.

=> Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak ez erantzutea ondare-erantzukizunarengatiko kalteordain-eskari bati.

=> Lizarrako Udalak ez erantzutea ondare-erantzukizunarengatiko kalteordain-eskari bati.

=> Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez erantzutea ondare-erantzukizunarengatiko kalteordain bat ordaintzeko eskariari.

=> Etaiuko Udalari ondare-erantzukizuna dela-eta aurkeztutako eskaera bat ez ebaztea eta prozedura izapidetzen geroratzea.

=> Iruñerriko Mankomunitatea ez erantzutea kalteordainen eskari bati, eskualdeko hiri garraioko autobus batera igotzerakoan gertatutako kalteei dagokienari.

=> Iruñeko Udalak ez erantzutea etxebizitza batean gertatutako kalte eta zartadurengatiko erreklamazio bati. Kalte horiek etxebizitza hori kokatuta dagoen kalea berrurbanizatzeko obren ondorioz gertatu ziren.

=> Hezkuntza Departamentuak ez betearaztea foru agindu bat, zeinak hein batean baiesten baitu ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat.

– Ez ebaztea Administrazioaren egintzak aurkatzeko aurkeztutako errekurtso administratiboak, edo haiek izapidetzean atzeratzea (7 kexa).

=> Iruñeko Udalak berraztertzeko errekurtso bat ez ebaztea.

=> Berriozarko Udalak berraztertzeko errekurtso bat ez ebaztea.

=> Barañaingo Udalak berraztertzeko errekurtso bat ez ebaztea.

=> Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak gora jotzeko errekurtso bat ez ebaztea.

=> Uharteko Udalak berraztertzeko errekurtso bat ez ebaztea.

=> Iruñeko Abokatuen Elkargoan aurkeztutako kexa bat ebazten geroratzea.

=> Desadostasuna kitatze-agiriaren likidazioarekin eta hura aurkatzeko Garesko Udalean aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoari ez erantzutearekin.

**B) Sarbidea izateko eskubidea eta informaziorako eskubidea**

– Zenbait espediente administratibotarako sarbidea izateko eta kopiak lortzeko eskubidea ukatzea (6 kexa).

=> Larraiozko Kontzejuak ezezkoa ematea alegazioak izapidetzeko ordenantza baten testurako sarbidea izateko eskubideari.

=> Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteri Departamentuak ez erantzutea espediente baterako sarbidea izateko eskabide bati eta elkarrizketa bat izateko eskari bati.

=> Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak ez erantzutea espediente administratibo baterako sarbidea izateko eskari bati.

=> Iruñeko Udalak ezezkoa ematea espediente administratibo bateko dokumentazioaren kopia emateari.

=> Lesakako Udalak ezezkoa ematea kontratazio publikoko espediente bateko dokumentaziorako sarbidea emateari.

=> Garesko Udalak ezezkoa ematea eskatutako dokumentazioa emateari.

– Herritarren informaziorako eskubidea ukatzea zenbait prozesu administratibotan (5 kexa).

=> Enplegu zentro berezientzako eta laneratzeko eta gizarteratzeko zentroentzako kontratu publikoen erreserba Administrazio publikoak betetzeari buruzko dokumentazio-eskaria.

=> Uharteko Udalak ezezkoa ematea bahitura-espediente bati buruzko informazioa emateari eta kopiak eskuratzeari.

=> Hezkuntza Departamentuak ez erantzutea unibertsitate-ikasketetarako bekak emateko irizpideak aldatzeari buruz eginiko informazio-eskari bati.

=> Ablitasko Udalak ez erantzutea bide publikoak tabernen terrazak jartzea arautzen duen araudiari buruzko informazioari.

=> Zangozako Udalak ez erantzutea ezgaitasuna duten pertsonentzako zentro bateko tokitara sartzeari buruz eskatutako informazioari.

– Ezkabarteko Udaleko langileen ordezkari gisa egindako informazio-eskariei ez erantzutea.

– Udal informazioaren sarbiderako eskubidea ukatzea (2 kexa).

=> Narbarteko Kontzejuak udal informaziorako sarbidea izateko eskubidea ukatzea.

=> Iruñeko Udalak udal informaziorako sarbidea izateko eskubidea ukatzea.

– Hirigintzari buruzko informazioaren sarbiderako eskubidea ukatzea (6 kexa).

=> Deierriko Udaleko Hirigintza Planaren aldaketak dakarren ingurumen-eraginari buruzko azterlana ezin eskuratzea, hasierako onespenaren ondorengo informazio publikoko fasean.

=> Hirigintza-antolamendua betetzeko ekintza publikoaz baliatuta, Iruñeko Udalari aurkeztutako idazki bati ez erantzutea.

=> Baztango Udalak ezezkoa ematea hirigintza-proiektu bati buruzko dokumentazioa eskuratzeari.

=> Uharte-Arakilgo Udalak ezezkoa ematea eskatutako hirigintza-informazioa emateari.

=> Otsagabiako Udalak ez erantzutea hirigintzari buruzko informazio-eskari bati.

=> Arangurengo Udalak ez ebaztea hirigintzari buruzko informazio eskari bat.

– Ingurumenari buruzko informazioaren sarbiderako eskubidea ukatzea (5 kexa).

=> Landa Garapeneko Departamentuak ez erantzutea ingurumenaren inguruko eskari bati. Eskaria ingurumena babesten diharduen entitate batek aurkeztu zuen, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren uztailaren 20ko 351/2010 Foru Aginduan sarturiko espezieei buruz eginiko azterlanen kopia bat eskatzen zuen.

=> Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ez erantzutea ingurunearen arloa dela-eta talde ekologista batek europar kastorrari buruz aurkeztutako informazio-eskari bati.

=> Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak epe barruan ez betetzea ingurumena dela-eta elkarte ekologista batek eskatutako informazioa emateko betebeharra.

=> Landa Garpen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak sarbiderik ez ematea ingurumenaren arloko informaziorako. Informazioa ingurumena babestearen arloan diharduen entitate batek eskatu zuen, Zilbeti herritik hurbil Etxarro ibaiaren urak kutsatuta egoteari buruz, isurketa batzuen ondorioz.

=> Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ingurumenaren arloko behar adina informazio ez ematea herritar bati ahateak gizentzeko granja bateko ustiakuntza-baldintzei buruz.

**C) Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta herritarrentzako arreta.**

– Ezinegona, gobernuko goi-karguentzat 2012ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ezarritako lansari-osagarriengatik (9 kexa).

– Desadostasuna, salaketa bat aurkeztu ondoren, Nafarroako Foruzaingoak emandako erantzunarekin.

– Zenbait unitate administratibok herritarrei arreta desegokia ematea (4 kexa).

=> Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuaren menpeko Tuterako Herritarrei Laguntza emateko Bulegoan informazio eskasa ematea.

=> Desadostasuna Iruñeko Udaleko auzo unitateek ematen duten laguntzarekin, zeren eta zerbitzu horiek ordutegi murritz batean, goizez, baizik ez baitira ematen.

=> Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean aurkeztutako gora jotzeko errekurtso bat oker erregistratzea.

=> Hezkuntza Departamentuaren Eskolatze Batzorde Nagusiak tratu desegokia ematea.

– Artxibo administratiboen kopiak ukatzea (2 kexa).

=> Ados ez egotea Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren Lurralde Zuzendaritzak (Estatuko Administrazioa) ezezkoa ematearekin kexa-egileak lurralde-zuzendaritza horretan hasitako espediente bateko dokumentazioa eskuratzeari.

=> Atarrabiako Udalak ezezkoa ematea espediente administratibo baterako sarbidea izateari.

– Mendabiako Udalak ezezkoa ematea dokumentazio jakin bat baliozkotzeari.

**D) Beste batzuk**

– Berako Udalarekin ados ez egotea desjabetze prozesu batean formazko ez-betetzeak egiteagatik.

– Hauteskunde Araubideari buruzko Lege Organikoa aldatzearekin ados ez egotea; izan ere, udal hauteskundeetan botoa galarazten die atzerrian bizi diren espainiarrei.

– Desadostasuna posta bidez botoa emateko sistemarekin.

– Desakordioa Iruñeko udal erroldan izena materakoan bizitokia egiaztatzeko erabiltzen den prozedurarekin.

– Ados ez egotea Vianako Udalak lokal bat ukatzearekin bizilagunen elkarte bateko bilerak egiteko.

– Zuzendaritza Batzarraren titularitate aldaketa Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko Elkarteen Erregistroan ezin inskribatzea, karguak utzi berritakoek sinatzeari ezezkoa emateagatik.

– Desadostasuna Indar Armatuen Institutu Sozialean baja emateko prozedurarekin.

**2.2.10. Ogasuna**

Arlo honetan 45 kexa aurkeztu ziren, 2010ean aurkeztutakoen antzera, orduan 41 aurkeztu baitziren. Kexa guztien kopuruan % 5 egiten dute.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan ziren:

**A) Nafarroako Foru Ogasunaren zergak**

– Desadostasuna pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eginiko likidazioarekin (4 kexa).

– Ados ez egotea Nafarroako Zerga Ogasunak eginiko behin-behineko likidazioarekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota diferentziala berraztertzeko.

– Nafarroako Zerga Ogasunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan eginiko aldaketa, zeren eta ez baita justifikatutzat jotzen bere aita pertsona lagundua izateagatik egindako gutxipena.

– Nafarroako Zerga Ogasunaren menpeko unitateen arteko koordinazio falta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik bidezkoa ez den errekargu bat exijitzeagatik eta gero hura deuseztatzeagatik.

– Senide bati ondasun baten bi heren dohaintzan eman ondoren, horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazioan izan duten zerga-eragina.

– Nafarroako Zerga Ogasunak ezezkoa ematea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean akats bat zuzentzeari eta zerga-zehapen bat ezartzea.

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritako salbuespen bat, ohiko etxebizitzan berrinbertitzekoa, ez aplikatzea, beste etxebizitza bat erosteko gehieneko epea iragateagatik.

– Alabari kooperatiba bateko partaidetzen aldi baterako usufruktua dohaintzan emategatik oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ez ordaintzearen ondorioz ezarritako zerga-zehapena.

– Etxebizitza bat gainetik baloratzea, oinordetza gisa onartzerakoan, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioaren ondorioetarako.

– Ekonomia eta Ogasun Departamentua geroratzea eskatzaileari gasolio profesionalen onuradunen zentsuan izena emateko garaian.

– Nafarroako Zerga Ogasunak eginiko bahitura, gehiegizkoa izateagatik.

– Zergak biltzeko prozedura izapidetzerakoan geroratzea, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren laguntza bat ezin jasotzetik heldu den zor bat erreklamatzerakoan.

– Bere kargura duen seme bat zerga ondorioetarako aintzat ez hartzea.

**B) Toki zergak**

– Higiezin bakar batean hondakin solidoen kudeaketarako zerbitzurako bi tasa ordainaraztea (3 kexa).

– Ados ez egotea hondakin solidoen kudeaketa-zerbitzua emateagatiko tasaren zenbatekoarekin, zuzengabea eta gehiegizkoa dela jotzen delako (2 kexa).

– Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak hiri hondakin solidoen gaineko tasa ezartzeko irizpide gisa sartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearena (2 kexa).

– Hondakin solidoen kudeaketa zerbitzua emateagatiko tasa kobratzea merkataritzarako lokal gisa jotako higiezin batean, nahiz eta etxebizitza bat izan.

– Bizitzeko gauza ez den etxebizitza batean hondakin solidoen kudeaketarako zerbitzua emateagatiko tasa itzultzeko eskaria.

– Udal batek ziurtagiririk ez ematea etxebizitza bat ezin erabiltzeari buruz, eta gero Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak hondakin solidoen kudeaketarako zerbitzua emategatiko tasa kobratzea.

– Tasa bat ordainaraztea hondakin solidoen kudeaketa-zerbitzua emateagatik, promotore baten jabetzakoak izan eta oraindik ere transmititu ez diren etxebizitza batzuetan.

– Desadostasuna katastroan lursail bati eman zaion azalerarekin.

– Ez aplikatzea matrikulazioaren gaineko zergaren salbuespena, ezgaitasuna duten pertsonei dagokiena, ibilgailuak gehiegizko potentzia fiskala edukitzeagatik.

– Erantzukizun subsidiarioaren deribazio-deklarazioa emateko prozedura, hiri lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kontzeptuan aurkeztutako likidazioa ez ordaintzearen ondorioz.

– Desadostasuna udalak bere semari igorritako bahitura-dilijentziarekin.

– Orain dela zortzi urte zirkulaziorako baja emandako ibilgailu baten zirkulazio zerga ez ordaintzeagatik eginiko bahitura.

– Pertsona batek bere etxearengatik auzolana egiteko betebeharra izatea eta, gainera, beste jabetza batengatik ere auzolana egin behar izatea.

– Desadostasuna udal batek jarduera ekonomikoen gaineko zergarako ezarritako tarifekin.

– Plusbalioaren zergaren ondorioz zor den kuota bati ezarritako gainkargua.

– Lurralde kontribuzioaren kontzeptuan ordaintzeko igorritako zenbatekoa eta ados ez egotea hondakin solidoen kudeaketa zerbitzua emateko tasarekin.

– Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoak udal ordenantzan ezarrita ez dauden tasa batzuk ordainaraztea, bere etxebizitza eraikitzeko jarritako fidantza itzul dakion.

– Eginiko aldaketa katastralarekin ados ez egotea.

– Bere etxebizitzaren titulartasuna ez aldatzea udal erregistroetan, eta ados ez egotea udal zergen banku-helbideratzearekin.

– Udal igerilekuetara sartzeko ordaindutako tarifak ez itzultzea.

– Udal ikastaro batean izana emateko kuota ez itzultzea.

– Bi ibilgailuren zirkulazio zerga ordaintzeko igortzea, igorpena egiteko datan ibilgailu horiek jada ageri den subjektu pasiboarenak ez diren arren.

**C) Estatuko Tributu Agentzia**

– Diru-bilketako ekintza batzuen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztearen harira igorritako kreditatze-errekerimendua.

– Semearen jaiotzarengatiko laguntza ukatzea, haren adopzioa Erregistro Zibilean berandu inskribatzeagatik.

– Zehapen bat exekutatzeko eginiko bahitura.

**2.2.11. Industria**

Arlo honetan, bi kexa jaso ziren; honakoak, hain zuzen ere:

– Energia fotovoltaikoko 8.583 ekoizleen ezinegona eta desadostasuna Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearekin, zeren eta jotzen baitute errege dekretu horretatik eratorritako araubide juridiko eta ekonomiko berriarekin familia nafarrek, batez beste, % 28 gutxiago jasoko dutela diru-sarreretan, eta urteko eta titular bakoitzeko 3.500 eta 4.000 euro gordin gutxiago jasoko direla. Gainera, uste dute Konstituzioko printzipio eta eskubide batzuk urratzen direla; besteak beste, segurtasun juridikoarena, botere publikoen arbitrariotasunaren debekuarena eta eskubideen aurkakoak diren xedapenek atzerako eragingarritasunik ez izatearena.

– Familia bakarreko etxebizitza baterako efizientzia energetikoaren ziurtagiria ezin lortzea, zeren eta jotzen baita ziurtagiri hori bide telematikotik baizik ezin dela lortu.

**2.2.12. Barne arloa**

Arlo honetan 24 kexa erregistratu ziren (guztizkoaren % 3); 2010ean, ordea, 36 kexa izan ziren (% 3,8).

Arlo honetan, 10 kexa izan ziren espetxe-administrazioari buruz. Bestalde, 8 kexa erregistratu ziren herritarrak ados ez egoteagatik polizia jarduketekin; 3, zehapen-prozedura batzuk direla eta; 3, izaera pertsonaleko datuen babesari buruz; eta bat izapide administratiboengatik.

Honakoak izan ziren kexak eragin zituztenak:

**A) Polizia jarduketak**

– Udaltzaingoko agenteek emandako tratua (3 kexa).

– Ados ez egotea Udaltzaingoak trafikoko istripu batean eginiko jarduketekin.

– Administrazio publikoek ezer ere ez egitea Nafarroako herri batean ETAren anagrama duen pintada bat agertzearen aurrean.

– Iruñeko Polizia Nazionaleko Atzerritartasunerako Brigadaren jarduketa, atzerriko naziotasuna duen pertsona bat kanporatzeko prozeduran.

– Polizia nazionaleko agenteek ustez emaniko tratu txarrak.

– Gehiegizkotzat jotzea Foruzaingoaren ikuskapen-funtzioak, etxeko animaliak edukitzeari buruz aplikatzekoak diren arauak betetzen direla kontrolatzerakoan.

**B) Espetxe-administrazioa**

– Espetxeetan “vis a vis” baimenak ukatzea (2 kexa).

– Espetxe batean espetxeratu baten ezkontza ospatzeko ezarritako baldintzak, zeremoniara bilurrekin joanarazteagatik eta ezkontzara soilik familiako bi kide joan ahal izateagatik.

– G-20aren bilkuraren aurkako manifestazio batean parte hartzera Nizara joandako gazte batzuk atxilotzea eta Nizako espetxe batean edukitzea.

– Preso bat beste espetxe batera eramatea.

– Iruñeko espetxeko janariaren kalitate eskasa.

– Espetxe bateko egonaldietarako baldintzak.

– Espetxe batean adineko pertsonen modulu batetik gazteen modulu batera eramatea.

– Tangerreko Espainiako Kontsuletxeari eskatzea Tangerreko espetxeko preso baten osasun egoerari buruzko txosten medikoak.

– Espetxe Zuzendaritza Nagusiak erabilitako sistema liburuetarako laguntza-bekak ematea dakarten gastuak barematzerakoan, eta beka hori emateari ala ez emateari buruz ez erantzutea.

**C) Zehapen prozedurak**

– Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak izapidetutako zehapen espediente bat irekitzea, baimendu gabeko manifestazio batean parte hartzeagatik.

– Zehapen espediente bat irekitzea taberna bat ixteko ordutegia ez betetzeagatik.

**D) Datuen babesa**

– Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako datu baseetan dauden datu pertsonalak Ministerio Fiskalari eta Estatuko abokatuari ematea, prozesu judizial batean.

– Udal batek ez betetzea datuak babesteari buruzko arauak, kale batzuetan zaintzarako bideo-kamerak jartzeagatik, haien ondoan ohar edo kartelik jarri gabe kamera horien presentziaren berri emateko.

– Foruzaingoak ezezkoa ematea izaera pertsonaleko datuak deuseztatzeko eskariari, nahiz eta instrukzio-epaileak datu horiei zegozkien egitateak artxibatu izan, haietan deliturik ez zegoelakoan.

**E) Izapide administratiboak**

– Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia aldatzea, hura bikoizturik egoteagatik.

**2.2.13. Justizia**

Arlo honetan, 30 kexa aurkeztu ziren 2011n; 2010ean, ordea, 38 aurkeztu ziren. Kexa horiek guztizkoaren % 3,5 egiten dute, aurreko urtearen antzera.

Edukiari dagokionez:

– 8 kexa izan ziren herritarrak ados ez egoteari buruz jarduketa judizial batzuekin;

– 5, emandako epaiekin ados ez egoteari buruz;

– 4, epaiak ez exekutatzearekin ados ez egoteari buruz;

– 5 abokatuen eta abokatuen elkargoen jokabide profesionalari buruz;

– 3, prozesu judizialak geroratzeari buruz;

– 3 erregistroen funtzionamenduari buruz;

– 1. hauteskunde-administrazioari buruz;

– eta bat Justizia Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruz.

Jada aurreko txostenetan jakitera eman dugun bezala, Justizia administrazioak Nafarroako Foru Komunitatean duen funtzionamenduari buruzko kexak Estatuaren eskumen esklusiboa dira. Hala eta guztiz ere, gai honetan, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 13. artikuluak ezarri zuen erakundeak berariaz islatuko dituela bere urteko txotenean jasotzen dituen kexak.

Bestalde, Justizia Ministerioaren menpe dauden erregistroen funtzionamenduari buruzko kexak Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zitzaizkion, hura baita haiek ikuskatzeko erakunde eskuduna, erregistro horiek Estatuaren administrazioaren zeregina direlako, eta herritarrak erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzkoak, berriz, ez ziren onartu, erakunde honek ezin baitu horri buruzko ikuskapenik egin, botere judiziala independentea baita justizia administratzeko garaian.

Honakoak izan ziren kexetan islatu ziren arrazoiak:

**A) Justizia Administrazioa**

– Ados ez egotea prozedura judizialen garapenarekin, bereziki probak onartu eta egiteko izapideekin (8 kexa).

– Bidegabeko geroratzea prozedura judizialen tramitazioan (3 kexa).

– Epaiak ez exekutatzearekin ados ez egotea (4 kexa).

– Desadostasuna hartutako erabaki judizialekin (5 kexa).

**B) Abokatuen eta lanbide elkargoen jardun profesionala**

– Desadostasuna ofizioko txandan izendatutako abokatuen jardun profesionalarekin (2 kexa).

– Abokatu batek ezezkoa ematea Doako Laguntza Juridikoko Zerbitzuaren bitartez esleitutako ofiziozko txandako prozedura batean parte hartzeari.

– Abokatuen Elkargoak ezer ere ezegitea elkargokide baten axolagabekeriazko jokaeraren aurrean, eta ez erantzutea herritar batek aurkeztutako erreklamazio bati.

– Desadostasuna Abokatuen Elkargoak ofiziozko txandaren bitartez beste abokatu bat esleitzeari ezezkoa eman izatearekin.

**C) Erregistro publikoak**

– Iruñeko Erregistro Zibilak ezezkoa ematea Etiopian egindako adopzio bat inskribatzeari.

– Geroratzea Espainiako naziotasuna lortzeko espediente bat ebazten.

– Ezezkoa ematea ezkontza bat Espainiak Oranen duen Kontsuletxean inskribatzeari.

**D) Hauteskunde Administrazioa**

– Eskualdeko Hauteskunde Batzarrak oker aplikatzea Hauteskunde Batzar Orokorrak emaniko jarraibideak, hauteskunde-mahaietako lehendakari eta mahaikide karguentzako eragozpenei eta aitzakia justifikatuei buruzkoak, zeren eta ezezkoa eman baitio hauteskunde-mahaiko kide zen herritar bati kargutik kentzeari, bederatzi hilabete baino gutxiago dituen haur baten ama dela alegatu ondoren.

**E) Administrazio elektronikoaren ezarpena**

– Ezin aurkeztea, posta elektroniko bidez ,demandarik, idazkirik edo errekurtsorik Nafarroako organo judizial desberdinetan.

**2.2.14. Gazteria eta Kirola**

Arlo honetan, 7 kexa aurkeztu ziren; guztizkoaren % 1 egiten dute. Ehuneko hori aurreko urtekoaren antzekoa da, orduan 3 kexa aurkeztu baitziren.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

– Toki entitate baten pasibotasuna, igerileku estalien segurtasuna urratzearen aurrean, soroslerik ez baita izaten, askotan egon behar izaten duelako instalazioetako sarbideko kontrolean.

– Nafarroako Ziklismo Federazioaren Batzorde Kudeatzaileko kide baten jokabide okerra bilera batean.

– Lau urte betetzen dituzten haurrek herri bateko kirol instalazioak erabiltzeko tasak noiztik aurrera ordaindu behar dituzten zehazteko ezarri den irizpidea, zeina baita haurrek tasa ordaindu beharko dutela “haurrak lau urte betetzen dituen hiruhilekotik aurrera”.

– Kirol klub batek ezezkoa ematea haren jokalarietako bat beste kirol talde batean jokatu ahal izateari, non goragoko kategoria batean jokatu ahalko lukeen, eta ezezko horrek eragindako ezinegona.

– Aisialdiko eskola batek Hezitzaileen Hezitzailea ikastaroan “ez gai” emaitza ematea.

– Alde bakarrak aldatzea aisialdiko ikastaro batzuk emateko ezarritako prezioa.

– Naziotasunaren baldintza exijitzea Nafarroako kirol federazio batek antolatutako lehiaketetan

parte hartzeko, eta Europar Batasuneko beste herrialdeetako naziotasuna duten jokalariek parte har dezaten debekatzea.

**2.2.15. Ingurumena**

39 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 5 egiten dutenak. Arlo honetan hazkunde bat gertatu da 2010ean erregistraturiko kexen kopuruarekin alderatuta, orduan 29 aurkeztu baitziren. Guztizkoan, berriz, % 3 egiten dute.

Edukiari dagokionez, kexa gehienak kutsadura akustikoari (zaratak) buruzkoak izan ziren. Jasotako 39 kexetatik 24 horri buruzkoak izan ziren hain zuzen ere.

Honakoak izan ziren jasotako kexak eragin zituzten egitateak:

**A) Kutsadura akustikoa**

– “Pipero” deitutako aisialdiko etxabeetan garatutako jarduerak etxebizitza batean eragindako eragozpenak (5 kexa).

– Aisialdiko lokalen jarduerak etxebizitza batean eragindako eragozpenak. Zehazki, tabernek eta kafetegiek eragindakoak (3 kexa).

– Hirigunean, galtzada-harriez eginiko kale batean, ibilgailuen trafikoak etxebizitza batean sortzen dituen eragozpenak; hain zuzen ere, etorbide baten eta kale baten bidegurutzean gertatzen da hori, eta bertan etxebizitza bat baino gehiago daude (2 kexa).

– Auzo bateko zaratek etxebizitza batean sortzen dituzten eragozpenak. Honako hauetatik datoz zarata horiek:

=> Lokal oso txikietan eta bizilagunen etxeetan, zuzeneko musika jotzeko baimenik gabe, gauez egiten diren rock kontzertuak.

=> Gazteen koadrilek gauez plazako eserlekuetan sortzen duten zarata.

=> Egunsentian, berritzeko makinak egiten duen zarata sorra eta atzera martxako txistu hotsak.

– Etxebizitzetan 118 pertsonak pairatzen dituzten eragozpenak, kalean, gaueko ordutegian, gazteak elkartzen direlako “botilatzarrak” egitera eta egoera horretan zarata handiak sortzen direlako. Horren aurrean, berriz, udalak ez du neurri egokirik hartzen ukitutako bizilagunek nozitzen duen egoerari konponbidea emateko.

– Udalak ezer ere ez egitea bero-punpa batetik datozen zaraten eta bibrazioen aurrean.

– Erloju bateko soinuak eta eliza bateko kanpai-hotsek eragiten dituzten eragozpenak.

– Zaborretarako edukiontzietatik hondakinak jasotzeak eragiten dituen zaratengatiko eragozpenak.

– Eskualdeko hiri garraioko autobusek sortutako zaratek etxebizitza batean eragiten dituzten eragozpenak.

– Udalak ezer ere ez egitea higiezin batean bizilagunek eragiten dituzten zaratengatiko etengabeko eragozpenengatik aurkeztutako salaketen aurrean.

– Kalean gauez sortzen den zaratak eragiten dituen eragozpenak; zehazki, udalak kale horretan antolatzen dituen aisialdiko jarduerek sortutako eragozpenak.

– Etxebizitza batetik metro gutxitara dagoen industrialdeko jarduerek eragindako zaratak.

– Foruzaingoak ezer ere ez egitea zaratengatik aurkeztutako salaketen kasuetan.

– Metal-estanpazioen fabrika batetik heldu diren zaratek eragindako eragozpenak.

– PA-30 errepideak kontzeju batetik iragaten den tartean gehiegizko zarata eragitea.

– Herri bateko jaietan musika ekitaldi batean sortutako zaratak eragiten dituen eragozpenak, zeren eta kalean, udalak baimenduta, taberna-barra bat eta sei anplifikatzaile jartzen baitira, goizeko 11:30eetik gaueko 3:00etara funtzionatzen egoteko.

– Etxebizitza baten etxabeetan dagoen hozkailu batek eta konpresoreek sortzen dituzten zaratengatiko eragozpenak.

**B) Ingurumena babesteko esku hartzea**

– Desadostasuna jarduera sailkatuko eta irekiera lizentzien eraginak amaitu direla deklaratzen duen prozedura batekin, “kafetegia duen okindegi-goxotegi” baten kasuan. Lokala ixteko dekretatu da, eta uraren eta energia elektrikoaren hornidura eten zaio.

– Udal batek ebaztea taberna bateko sukaldea itxi eginen dela, jarduera horretan aritzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik.

– Bide publikoan pasatzeko eragozpenak sortzea, terraza-mahaitxoak ezartzearen ondorioz. Bizilagunentzako traba da beren etxebizitzetara iristeko.

– Udalak ezer ere ez egitea orain dela hamaika urte baino gehiagotik garaje batzuetan hirigintza- eta ingurumen-arauak ez betetzearen aurrean.

**C) Ingurune naturala babestea**

– Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren obra batzuek lursail batean eragindako kalteak.

– Administrazioak ezer ez egitea, ez baitu presa edo azud bat eta zubi bat bota herri bateko erdigunean. Izan ere, haiek herrian uholdeak eragiten dituzte, urak estal ditzakeen esparruak okupatzen baitituzte eta uren emarirako traba handiak baitira.

**D) Basa fauna eta beste animalia batzuk**

– Udal batek ezestea ondare-erantzukizunarengatiko erreklamazio bat, untxi batzuek jabego pribatu bateko finketan eragin dituzten kalteengatik. Finka horietan 2010ean erein zuten.

– Nafarroan eperrentzako babes neurriak ezarri behar izatea, desagertzeko arriskuan baitaude.

– Ados ez egotea barruti batean ehizatzeagatik aplikatzen zaion kuotarekin.

**E) Telefoniako antenak eta baseak**

– Udal batek ezer ere ez egitea telefonia-enpresa batek lizentziarik gabe ezarritako telefonia mugikorreko antena erretiratzeko agindua betearazteko.

– Telefonia mugikorreko zenbait base jartzea (3 kexa).

**F) Hondakinak**

– Aisialdiko lokal (taberna) batzuen erabilera esklusibokoak diren zaborretarako edukiontzien kokalekua aldatzea, eta aldaketa horrek higiezin bateko bizilagunak kaltetzea, higiezin horretako atarian baitaude.

**G) Beste zenbait**

– Nafarroako Ingurumenaren arloko Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamendu eskasak, eta horrek kalte egitea ingurumenaren defentsan diharduten erakundeen parte-hartzea.

**2.2.16. Herri lanak**

Arlo honetan, 10 kexa aurkeztu ziren, hain zuzen ere guztizkoaren % 1. 2010ean, berriz, 13 aurkeztu ziren, eta guztizkoaren % 1,4 egiten zuten.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan ziren:

– Administrazioak konponbiderik ez ematea Iruña-Logroño autobiderako obraren ondorioz nekazaritza-bide bat desagertzeari, hartatik baitzegoen bi finketarako sarbidea, eta ez erantzutea egindako informazio-eskariari.

– Desadostasuna abiadura handiko trenak (AHT) Nafarroa aldean izanen duen trazadurarekin.

– Kexa-egilearen negozioak izan duen balio-galera, bide publikoan zenbait obra egitearen ondorioz.

– Herri bateko kale baten egoera txarra eta udalak horren aurrean ezer ere ez egitea.

– Udalak ezer ez egitea herri bateko zenbait etxebizitzaren oinarri den mendi mazelari eusteko lubetaren baldintza eskas eta desegokien aurrean.

– N-240 errepidean dagoen zikintasuna ez garbitzea, herri batetik iragaten den aldean, Iruña-Jaka autobideko obrek eragina.

– Bidegorri bat zolaberritzeko eta eraikitzeko udal obren eraginez jabetza pribatu batean sortutako kalteak.

– Luizia eta arrakalak ageri dituen lubeta bat ez konpontzea.

– Berandutzea herrilanak egiteko jabetza pribatuko hiru lursailen desjabetzearen ondoriozko diru-kopurua ordaintzerakoan.

– Obra publiko baten ondorioz jabetza pribatu batean eragindako kalte-galerengatik aurkeztutako erreklamazioari ez erantzutea.

**2.2.17. Osasuna**

Arlo honetan 32 kexa aurkeztu ziren (guztizkoaren % 4); 2010ean, berriz, 65 kexa aurkeztu ziren (% 7).

32 kexa horietatik:

– 16 osasun sistemaren erabiltzaileen eskubideei buruzkoak izan ziren; horietatik, 3 itxaronzerrendei buruzkoak izan ziren;

– 7, osasun prestazioei eta gastuen itzulketari buruzkoak;

– 5, laguntza klinikoari buruzkoak, oro har;

– 3, farmazia-prestazioei buruzkoak; eta

– 1 osasun publikoari buruzkoa.

Kexak egiteko arrazoiak hauek izan ziren:

**A) Osasun sistemaren erabiltzaileen eskubideak**

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lehendik seme-alaba bat daukaten bikoteei “in vitro” ugalketaren osasun prestazioa ukatzea (4 kexa).

– Antzutasunerako tratamenduan geroratzea.

– ·Ezarpenaren aurreko diagnosi genetikoa dagoen kasuan, “in vitro” ernalketa egiteari ezetz esatea.

– Aho-hortzetako laguntzaren osasun prestazioa ukatzea Marfanen sindromea duen gaixo bati.

– Sarrigurengo osasun etxearen zabalpena geroratzea.

– Ados ez egotea buru-gaixotasun larri batek ukitutako gaixo baten psikiatriako kontsultarako jarritako datarekin, bi hilabeteren buruan izanen baita.

– Behar adina laguntza ez egotea giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa duen lau urteko alaba baten osasun arretak eta laguntzak eragindako gastuei aurre egiteko. Gaueko dialisi peritonealaren bidez tratatzen da, eta gastrostomiaren eramailea da.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea gaixo baten gerrialdeko ezkerreko saihetsaldean duen orratz bat ateratzeko ebakuntza egiteari, eta ezezko horretarako arrazoiak ez ematea.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea adingabe bat zentro pribatu batera deribatzeari, behar duen laguntza espezializatuarekin jarraitu ahal dezan.

– Gaixo onkologiko bati ebakuntza kirurgikoa egiten geroratzea.

– Pediatriaren arloko jarraipen ebolutiboko azterketak, hiru, bost eta zazpi hilabetetakoak, bertan behera uztea osasun etxe batean.

– Senda-agiria emateko erabakia eta gaixotasun baten jarraipenik ez egitea.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea osasun tratamendua emateari atzerriko naziotasuna duen adingabe bati; adingabe horrek udako egonaldiez gozatzen du, harrera-araubidean, Nafarroan.

**B) Osasun prestazioak eta gastuen itzulketa**

– Ezezkoa ematea osasun zentro pribatuetan egiten diren ugalketa-tratamenduetan behar diren sendagaien kostua itzultzeari (2 kexa).

– Gaixo kronikoak dituzten seme-alaben sendagai batzuk finantzatzeari ezezkoa ematea.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea B-5 oxigenoko botila bat emateari.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea zentro pribatu batean eginiko ebakuntza kirurgiko batek sortutako gastuak ordaintzeko eskariari.

– Jasotako osasun laguntza dela-eta oker ordaindutako diru-kopurua ez itzultzea.

– Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrak (MUFACE) ezezkoa ematea osasun laguntzako gastu gisa ordaindutako kopuruak ordaintzeari.

**C) Laguntza kliniko orokorra**

– Adineko gaixo bati emandako laguntza eskasa, Nafarroako Ospitalean erradioterapia-tratamendua jasotzeko osasun garraioaren prestazioaz baliatzerakoan.

– San Fermin jaietan izan zuen lesio baten ondoren laguntza medikorik eman nahi ez izatea, eta ez erantzutea gai hori dela-eta aurkeztutako erreklamazioei.

– Zabarkeria medikoak (3 kexa).

**D) Farmazia-prestazioak**

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea beste autonomia erkidego batzuetan emandako errezeten ondoriozko farmazia-gastuak finantzatzeari (2 kexa).

– Farmazia bat irekitzeko baimena ematen geroratzea.

**E) Osasun publikoa**

– Desadostasuna udal batean animaliak edukitzeari eta babesteari buruzko araudi batekin.

**2.2.18. Gizarte segurantza**

2011n, 18 izan ziren Gizarte Segurantzari buruz jasotako kexak. Kexa horiek erregistratutako guztien % 2 egiten dute, ia 2010ean bezalaxe, orduan % 1,9 izan baitziren.

Honakoak izan dira kexa horiek eragin dituzten egitateak:

**A) Pentsioak eta prestazioak**

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ezezkoa ematea zahartzarako eta elbarritasuneko nahitaezko aseguru pentsioa emateari.

– Desadostasuna aitortutako erretiro-pentsioaren zenbatekoarekin, aldeak daudelako haren kalkuluan beren konturako langileen eta besteren konturako langileen artean.

– Eskatutako alarguntasun pentsioa ukatzea.

– Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko 174. artikulua aldatzeko eskaria, 40/2007 Legean emandako erredakzioaren arabera, izatezko bikoteek alarguntasun pentsioa eskuratzeari dagokionez, zeren eta jotzen baita arauak alarguntasun pentsioa aitortzeko jasotzen dituen baldintzek izatezko bikoteak kaltetzen dituela, ezkondutako bikoteekin alderatuz gero.

– Desadostasuna aitortua duen alarguntasun pentsioaren zenbatekoarekin.

**B) Ezgaitasunen aitorpena**

– Patologia desberdinak direla-eta behin-behineko ezgaitasuneko bi prozesu batera biltzea (2 kexa).

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emandako lanerako senda-agiria.

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak lan istripu baten ondoriozko laneko bajaren data finkatzea.

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ezezkoa ematea ezgaitasun iraunkorra aitortzeari, edozein dela ere haren gradua.

– Desadostasuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Nafarroako Zuzendaritza Probintzialeko Balorazio Taldearen ebazpen proposamenarekin, senda-agiria ematea proposatzen baitu.

**C) Ordainketak eta itzulketak**

– Frantziako Estatuak senide baten pentsioari dagozkion zenbateko batzuk ez ordaintzea.

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Nafarroako Zuzendaritza Probintzialaren erabakia, aitortua duen gutxienekoen osagarri bat berraztertzeko prozedura bat hastekoa eta behar gabeko prestazioak ordaintzekoa (2 kexa).

– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak kexa-egilearen amari behar gabeko prestazioak itzultzeko eskatzea.

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bahitura-dilijentziaren kautelazko ebazpena ematea, kexa-egileek lan egiten duten enpresaren aurka, jotzen baita oinordeko diren enpresak dituen zorren arduradunak direla, enpresa-oinordekotzaren ondorioz erantzule solidarioak direlako.

– Desadostasuna aitortuta daukan pentsio batean kenkariak egin izatearekin bahitura judizial batzuen ondorioz.

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren Zuzendaritza Probintzialak eginiko bahitura, zor duen diru-kopurua dela eta.

**2.2.19. Zerbitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna**

29 kexa aurkeztu ziren 2011n; 2010ean, berriz, 25 izan ziren. Kexa horiek % 3 izaten jarraitzen dute kexen guztizkoan, aurreko urtean bezalaxe.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

**A) Zerbitzu publikoak**

– Posta Zerbitzuaren funtzionamendu txarra.

– Herrilur batzuen kontserbazio txarra.

– Arraiozen (Baztan) lurreko telebista digitalaren seinalea hartzeko zailtasunak izatea.

– Herri bateko erdigunetik berrehun metrora dagoen toki batean asfaltatzeko eta argiztatzeko gutxieneko zerbitzuak ez ematea.

– Herri bateko sarbidea eskasa izatea, zeren eta herrira sartzeko bidegurutzean abiadura gutxitzeko “abiadura mantsoarazteko” bat ez dagoelako, eta oinezkoentzako pasabide bat ere falta delako, inguruko bizilagunen joan-etorrietan lagungarri.

– Eremu publiko bateko kontserbazio egoera txarra, metatu diren zikinkeriarengatik eta hondakinengatik.

– Etxebizitza baten alboko fatxadan zaborretarako bi edukiontzi jartzea.

– Trenbide geltokian ez egotea mugikortasun mugatua duten pertsonentzako plataforma jasotzailerik.

– Kaleak garbitzeko zerbitzua berritzeko makinen bitartez ematea.

– Uren Udal Batzordeak ezer ere ez egitea lorategietarako banakako ur-kontagailuak jartzeko eskariari dela eta.

– Matxura baten ondoren ur-kontsumoa dela-eta igorritako faktura.

– Herri bat eta mugakide duen beste bat lotzeko oinezkoentzako pasabide egokirik ez egotea.

– Urbanizazio bateko bizilagunei ur-hornidurarik ez ematea.

– Argiteria publikorik ez egotea urbanizazio berri bateko bi ataritan.

– Udalak ezer ez egitea herri bateko hustubide orokorrak aztertzeko eskari baten aurrean.

– Zerbitzuen mankomunitate batek ur hornidura moztea, irekitzeko lizentziarik ez duen merkataritza lokal batek zaborren tasak ez ordaintzeagatik.

– Desadostasuna Uren Mankomunitateak eraikitzen ari den etxebizitza baten hornidurarako eta saneamendurako exijitzen dituen baldintzekin.

– Zaborra biltzeko zerbitzua ez ematea, zerbitzu hori emateko tasa aldizka igorri arren.

– Lurreko garraioen arloko zehapen prozedura batean ezarritako zehapena.

– Udalak ezer ez egitea lorategietan eta oinezkoentzako bideetan zakurrek eragiten duten zikintasuna dela eta.

**B) Ondare erantzukizuna.**

– Ondare erantzukizunarengatiko kalteordainak ukatzea, bide publikoan izaniko erorikoen kasuetan (3 kexa).

– Izapidetzeko ez onartzea ondare erantzukizuneko erreklamazio bat, ikasle batek gorputz heziketako eskola batean pairatutako kalteen ondoriozkoa.

– Mugakidea den eraikin bat eraistearen ondorioz jabego pribatu batean eragindako kalteak ez ordaintzea.

– Udalak eginiko zolaberritzeko eta zerbitzuak bideratzeko lanen ondorioz filtrazioak eta hezetasunak gertatzea.

– Zezen ikuskizun batean zehar txekor batek kale batera jauzi egin ondoren eragindako kalteak ordaintzeari ezezkoa ematea.

– Hiri-altzariek eragindako kalteen ondoriozko ondare erantzukizunarengatiko erreklamazio bat ezestea.

– Desadostasuna udal langile baten zabarkeriak eragindako kalteengatiko ondare erantzukizunarengatiko kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruarekin.

**2.2.20. Lana**

Arlo honetan, 11 kexa aurkeztu ziren; 2010ean, berriz, 8 izan ziren. Guztizkoan % 1 egiten dute.

Honakoak izan ziren kexetan agerian jarritako egitateak:

– Gazte autonomoen enplegurako diru-laguntza bat ukatzea.

– Langabeziako subsidioa etetea, eta behar gabe jaso gabeko prestazioak itzuli behar izatea.

– Langabeziarengatiko subsidioa etetea.

– Langabezian dauden pertsonentzako ikastaroak egiteko emandako diru-laguntza ez ordaintzea.

– Ados ez egotea Gazteen enplegua sustatzeko, enpleguaren egonkortasuna bultzatzeko eta langabeziarengatiko babesa agortzen duten pertsonen birkualifikazio profesionaleko programari eusteko presako neurriei buruzko abuztuaren 26ko 10/2011 Errege Dekretu Legean ezarritako araupetzearekin, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko laguntzei eta hobariei dagokienez, zeren eta hobarien eta enpresaburuentzako deskontuen artean hautatu behar baita.

– Unibertsitate-titulua duten eta enpresa pribatuetan lan egiten duten bekadunek laneko eskubideei eta prestazio sozio-laboralei dagokienez pairatzen duten egoera txarra.

– Ados ez egotea unibertsitate-titulua izan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan diharduten bekadunen araubide juridikoarekin.

– Ez erantzutea espetxeko lan bizitzari buruzko eskari bati.

– Teknologoak prestatzeko jardueretarako enpresen hautapenerako prozeduratik kanpo geratzea, dokumentazioa zuzentzeko izapidea eskaini gabe.

– Langabeziarengatiko prestazioa ukatzea, enpresaburuaren senidea izan eta enpresako partaidetzaren portzentaje bat edukitzeagatik.

– Enplegua lortzeko zailtasunak.

**2.2.21. Trafikoa**

Arlo honetan 43 kexa aurkeztu ziren 2011n; aurreko urtean, berriz, 36 izan ziren. Kexa hauek % 3,9 egiten zuten guztizkoan 2010ean, eta 2011n, berriz, % 5 egin dute.

Honakoa azaltzen zuten kexek:

– Desadostasuna trafikoko araudiaren urraketengatik zehapenak ezartzeko izapidetutako zehapen prozedurekin eta ezarritako zehapenekin (24 kexa).

– Trafikoko araudiaren aurkako arau-hausteengatiko zehapenak betearazteko prozedurekin ados ez egotea (7 kexa).

– Desadostasunak Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenekin, trafikoko araudiaren urratzeengatiko zehapenen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtso batzuk direla eta (2 kexa).

– Kexa-egileak ez jasotzea bere etxean egoiliar txartela, 2011n eremu urdinean aparkatu ahal izatekoa.

– Desadostasuna eremu urdinean aparkatzeko egoiliar txartela baliogabetzearekin.

– Guardia Zibileko kideen jarduketa desegokia, trafikorako segurtasun arriskuan jartzeagatik.

– Alde zaharrean bizi direnentzako aparkalekuak falta izatea.

– Udalak ezer ez egitea kale batetik ibilgailuak iragatearen aurrean; izan ere, hori etxebizitza baten zimentazioa eta fatxada kaltetzen ari da.

– Udalak ezer ez egitea garaje baten sarbidea oztopatzen denean.

– Ezer ez egitea lorategi-eremu bat narriatzearen aurrean, ibilgailu bat behar ez bezala aparkatzearen ondorioz.

– Administrazio publikoak ezer ez egitea gidarientzako lanbide gaitasuneko ziurtagiria lortzeko ikastaroak baimendu gabeko zentroetan egitearen aurrean.

– Desadostasuna supermerkatu batek hirigunean duen kokapenarengatik eta hornikuntzetarako eragiten duen trafikoarengatik.

– Desadostasuna Nafarroako Trafikoko Probintziako Buruzagitzak, ziklomotorra gidatzeko baimena modu librean lortzeko azterketa praktikoa egin ahal izateko, exijitzen dituen baldintzekin.

**2.2.22. Hirigintza**

Hirigintzaren arloko kexak 32 izan ziren, 2010ean erregistratutakoen parean, orduan 35 izan baitziren. Kexa horiek guztizkoaren % 3,7 egiten dute.

Zehazki, honako motibazioa zuten kexek:

**A) Hirigintzaren plangintza**

– Ados ez egotea Viana herrian plan partzial bat onestearekin, bideragarritasun ekonomikorik ez dagoelako eta planak garapenerako jasotzen duen justifikazioarengatik.

– Desadostasuna Eguesibarko udal planaren behin betiko onespenarekin, izapidetzerakoan prozedurazko akatsak egon direlako, etxebizitzen premiak justifikatu ez direlako eta hazkunde programaturik ez dagoelako.

– Geroratzeak Lizarrako hirigintzako udal planaren onespenarekin eta exekuzioarekin.

**B) Hirigintzaren kudeaketa**

– Ados ez egotea Erriberriko udal planeko exekuzio unitate bat birzatitzearekin.

– Udalak ez itzultzea eraikuntzarengatiko eta urbanizazioarengatiko abalaren kontzeptuan eratutako fidantza, orain dela bi urte amaituriko obra batzuei dagokiena.

– Udalak ez betetzea hirigintza-kudeaketarako hitzarmen batean ezarritakoa.

– Desadostasunak industrialde baten urbanizazioa dela eta.

– Desadostasuna udal batek hirigintza-aprobetxamendu baten lagapena exijitzearekin.

– Udalaren eta herriko bizilagun baten arteko desadostasunak, lursail batzuen titularitatea –publikoa ala pribatua– dela eta.

C) Legezkotasuna eta hirigintza-diziplina babestea

– Ados ez egotea udal batek bi higiezinen artean dagoen mehelina konpontzeko exijitzearekin.

– Desadostasuna obretarako lizentzia bat ematearekin igogailu bat jartzeko.

– Udal batek jarduketarik ez egitea udalaren lokal baten goiko pisuetan hezetasunak saihesteko.

– Desadostasuna lehen okupazioko lizentzia bat lortzeko ezarritako baldintzekin.

– Kale bateko segurtasun eza, iluntasuna eta zikintasuna, altuera handiko eraikin bat zaharberritzearen ondorioz areagotu direnak.

– Desadostasuna obretarako lizentzia bat ematearekin herri bateko hirigunean etxebizitzen eraikin bat eraikitzeko.

– Obretarako lizentzia bati buruz ez ebaztea eta etxebizitza baterako sarbide eskasa.

– Desadostasuna lokal mugakide bateko obraren exekuzioarekin, eta obra horren exekuzioan jabari publikoaz baliatzearekin.

– Lehen okupazioko lizentzia bat ukatzea, obretarako lizentzia ematerakoan eskatu z ziren baldintza batzuk ez betetzeagatik.

– Desadostasuna udalak ezarritako exijentziarekin, alegia, lehen okupazioko lizentzia emateko baldintza gisa ezartzea banku-abal bat izatearena, bide publiko bat urbanizatu behar izatea eta hirugarren bati kalte-ordainak ordaintzea lurzoru publikoan legez kanpoko obra bat eraikitzeagatik.

– Ados ez egotea hirigintzaren arloko legezkotasuna urratzeagatik ezarritako zehapenarekin, bai eta urratutako ordena berrezarri behar izateagatik ere, zeren eta kexa-egileak jotzen baitu izatezko kasu berdinetan tratu desberdina eman dela.

– Udalak ezer ez egitea lurzoru ez-urbanizagarrian eraikitzearen aurrean.

– Udalak ezer ez egitea ahurri egoeran dagoen eraikin baten kasuan.

– Ados ez egotea udalak barrakoi bat jartzearekin autobuserako geraleku gisa, kale gisa egituratu zen lursail batean, hain zuzen ere nabe industrial baterako sarbideak errazteko.

– Zutoin elektriko bat lizentziarik gabe jartzea.

– Etxebizitza baten fatxadan kalteak eragitea, kableak etengabe jartzearen ondorioz.

– Ados ez egotea obrarako lizentzia ematearekin, hain zuzen ere hirigintza-arauen aurreikuspenen aurkako itxiturak eraikitzeko.

– Obrak exekutatzea lizentzian ezarritakoaren aurka eta egindako salaketa bati kasurik ez egitea.

– Udalak ezer ez egitea eraikin bateko ahurri egoerari buruzko salaketa batean, eta eskabideak ez ebaztea.

– Udalak ez betetzea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen bat, obretarako lizentzia bat ematea ebazten duena.

– Ados ez egotea legez kanpoko obra bat egitearekin eta, gero, herriko hirigintza-arautegia aldatu nahi izatearekin, hain zuzen ere hura legeztatze aldera.

– Udalak ezer ez egitea zenbat eraikinen narriaduraren aurrean.

**D) Beste zenbait**

– Merkataritza-lokal bat zabaltzeko jarduerarako lizentzia izapidetzean eginiko prozedurazko akatsak.

**2.2.23. Euskara**

Arlo honetan, 69 kexa aurkeztu dira, hain zuzen ere 2011n aurkeztutako guztien % 8. 2011n, 78 izan ziren, eta antzeko portzentajea egiten zuten. Kexa horietatik gehienak, aurreko urteetan bezala, Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak igorritakoak dira.

Aurkeztutako kexetatik:

– 18 herritarrekiko idatzizko harremanei buruzkoak dira, ezin izan baitira gauzatu.

– 15 inprimakiak, administrazio publikoen eskuorriak eta zabalkundeko materialak gaztelania hutsez argitaratzeari buruzkoak dira.

– 14, administrazio publikoek herritarrei zerbitzuak euskaraz ez emateari buruzkoak, hizkuntza horretan artatuak izatea edo hizkuntza horretan erantzutea eskatzen dutenean.

– 9 euskara egoitza eta bulego administratiboetan edo Administrazio Publikoko langileekin ahozko harremanetan ezin erabiltzeari buruzkoak, hala eskatu denean.

– 6 kale, hiri bide, hiri arteko bide eta eremu publikoetako egoitza eta seinaleztapenak gaztelania hutsez egoteari buruzkoak dira.

– 5 Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuen hizkuntza profilak zehazteari buruzkoa izan zen, euskara ez baita kontuan hartu ez merezimendu gisa, ez baldintza gisa ere.

– 1, hedabideetan euskara sustatzeko laguntzarik ez egoteagatik.

– 1, Baztango udal ordenantzan euskararen erabilera dela eta arautzen denarengatik, zeren eta jotzen baita haren helburua dela gaztelania Baztango udalerrian baztertzea, administrazioaren esparruan desagerraraztearen bidetik.

**2.2.24. Etxebizitza**

Arlo honetan, 37 kexa aurkeztu ziren 2011n; 2010ean, ordea, 26 aurkeztu ziren. Kexa horiek guztizkoaren % 4,3 egiten dute; 2010ean, berriz, % 2,8 egiten zuten.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

**A) Etxebizitza baterako sarbidea eta babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoa**

– Desadostasuna etxebizitza baten balorazio ekonomikoarekin. Balorazio hori administrazio publikoak egin zuen, lehenengo etxebizitza egokia ez izateagatik beste etxebizitza bat adjudikatzeko prozeduraren barruan.

– Fidantza bat eta hilero errenta bat ordainaraztea, “alokairu gaztea” programaren pean esleitutako etxebizitza bat erreserbatzeko.

– Babes publikoko etxebizitza bat salerosteko bisatua ukatzea, bi etxebizitzaren jabe izateagatik, nahiz eta bi etxebizitza horiek desegokiak izan.

– Desadostasuna Administrazio publikoak eskainitako etxebizitzarekin, egungoa desegokia izateagatik; izan ere, ezin du eskainitakoaren erreta ordaindu.

– Alokairu-araubideko etxebizitza bat ukatzea, udalean erroldatuta egotearen baldintza ez beteteagatik.

– Udal batek ezezkoa ematea udal etxebizitza baten enkantean sesta emateko formula onartzeari.

– Etxebizitza babestu baten behin-behineko kalifikazioa ukatzea.

– Ezin errendamenduko nahiz erosteko aukera biltzen duen errentamenduko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzea, nahiz eta behin baino gehiagotan eskatua duen.

– Etxebizitza publiko baten errentamendu-kontratuaren prezioa berrikusteko eskaria, familia-unitateko kide bat hil ondoren diru-sarrerek behera egiteagatik.

– Etxebizitzaren premia larria, bizi den tokiaren bizigarritasun baldintza txarrengatik.

– Administrazio publikoak ez izapidetzea errentamendu-araubideko etxebizitza egokitu baten eskaria. Eskatzaileak batetik bestera joateko zailtasun oso larriak dauzka, % 77ko ezgaitasun baitu, eta orain bizi den etxebizitza ez dago egokitua ezgaitasuna duten pertsonentzat.

– Desadostasuna Administrazio publikoak ezarritako betebeharrarekin, alegia, prezio tasatuko etxebizitza bat errentamenduan eskaintzea haren titularrek, arrazoi profesionalak tarteko, hura aldi baterako okupatu gabe daukaten bitartean; eta desadostasuna, halaber, etxebizitza erosteko eman zitzaizkion laguntza publikoak itzuli behar izatearekin, arrazoi hori dela eta.

**B) Laguntzak**

– Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ukatzea (2 kexa).

– Atzeratzea gazteen emantzipaziorako oinarrizko errentaren ordainketan (3 kexa).

– Emantzipaziorako oinarrizko errenta ukatzea, etxebizitza partekatu batean gela bat edukitzeko errentamendu-kontratua edukitzeagatik.

– Desadostasuna emantzipazio-errentaren kontzeptuan jasotako zenbatekoak itzultzeko eskariarekin, 108 eurotan gainditzen baititu urte bakoitzeko finkatutako 22.000 euroko diru-kopurua, laguntza hori jasotzeko gehieneko muga gisa.

– Babes ofizialeko etxebizitza erabili bat erosteko diru-laguntza ukatzea, zuzenean partikular batengandik bigarren transmisioan jasotako etxebizitza babestu baten erosleei diru-laguntzak ematea aurreikusita ez egoteagatik.

– Atzeratzea babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko zuzeneko diru-laguntzaren ordainketan.

– Babes ofizialeko etxebizitza baten errenta ordaintzeko diru-laguntza kentzea.

– Araubide bereziko etxebizitza babestu bat alokatzeko diru-laguntza ukatzea.

**C) Eraikuntza-akatsak**

– Babes ofizialeko etxebizitzetan eraikuntza akatsak egotea (2 kexa).

– Administrazioak ezer ere ez egitea babes publikoko etxebizitza bateko eraikuntza akatsen aurrean (3 kexa).

**D) Herritarrentzako informazioa eta arreta**

– Administrazio publikoak behar adina informazio ez ematea etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzei buruz.

– Etxebizitza babestu baten salmenta jakinarazteko idazkiari ez erantzuteak eragindako kaltegalerak; eta arrazoi hori dela-eta eta emandako informazio eskasaren ondorioz sorrarazitako kaltegalerak.

– Desadostasuna Madrilgo errentamendu-sozietate publiko batekin izenpetutako errentamendukontratua amaiaraztearekin.

– Desadostasuna etxebizitza babestuko eskatzaileen zentsuaren funtzionamenduarekin, honako akats hauengatik:

a) Informaziorik ez egotea zentsatuek betetzen duten tokiari buruz, behin lehenengo adjudikazioak egin ondoren.

b) Informaziorik ez egotea etxebizitzak adjudikatzeko puntuazioari buruz.

c) Behar adina informazio ez egotea zentsatuen zerrendan gertatzen diren mugimenduei buruz.

– Desadostasuna etxebizitza baten gastu arruntak (erkidego-gastuak) eta gastu partikularrak (uraren, elektrizitatearen eta gasaren hornidura) desglosatu behar izatearekin, higiezina lagatzeko baimena eman aurretik.

**E) Beste zenbait**

– Etxabea udalaren jabetzakoa den eraikin batean igogailua jartzeko zailtasunak egotea.

– Desadostasuna bizilagunen erkidego batean biomasazko berokuntza sistema zentrala instalatzeko zenbait obra egitearekin. Obra horiek udal plan batean jasota daude.

– Udalak ezer ez egitea kexa-egilea bakarrik bizi deneko blokeari argi-hornidura etetearen aurrean, promotoreak, zeina eraikineko jabea baita, fakturak ordaintzen ez dituelako.

– Esleitu zaion babes publikoko etxebizitza batean ez bizitzeagatik ezarritako zehapena.

### 2.2.25. Juridiko-pribatuak

Erakundeak argiki arlo juridiko pribatukoak diren gaiengatiko 10 kexa jaso zituen. Bi kasutan, kexa-egileek eskatu zuten erakundeak bitartekari lanak egin zitzala banku-entitateekin, hipoteka-kredituak nahiz maileguak ez ordaintzeengatiko exekuzio-prozeduretan.

### 2.3. ENERGIA FOTOVOLTAIKOAREN PRODUKZIOA MUDATZEARI DAGOKIONEZ, SEKTORE ELEKTRIKOAREN TARIFA-DEFIZITA ZUZENTZEKO PRESAKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN ABENDUAREN 23KO 14/2010 ERREGE DEKRETU LEGEAREN AURKAKO KONSTITUZIO KONTRAKOTASUNEKO ERREKURTSOA JARTZEA ESKATZEKO KEXA.

Nafarroako Arartekoak Espainiako jarduneko Arartekoarengana jo zuen, eskatzeko konstituzio-kontrakotasuneko errekurtso bat aurkez zezala Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen aurka, energia fotovoltaikoaren produkzioa mugatzeari dagokionez.

Horren aurretik, Nafarroako Arartekoak irizpen juridiko bat prestatu zuen, non azaltzen baitzuen behar adina argudio juridiko-konstituzional bazegoela Konstituzio Auzitegian konstituzio-kontrakotasuneko errekurtso bat aurkezteko aipatutako errege dekretu legeko lehenengo xedapen gehigarriaren eta bigarren xedapen iragankorraren aurka.

Jarduketa honen jatorria izan zen energia fotovoltaikoko 8.583 ekoizleen ezinegona eta desadostasuna Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearekin, zeren eta jotzen baitute errege dekretu horretatik eratorritako araubide juridiko eta ekonomiko berriarekin familia nafarrek, batez beste, % 28 gutxiago jasoko dutela diru-sarreretan, eta urteko eta titular bakoitzeko 3.500 eta 4.000 euro gordin gutxiago jasoko direla. Gainera, uste dute Konstituzioko printzipio eta eskubide batzuk urratzen direla; besteak beste, segurtasun juridikoarena, botere publikoen arbitrariotasunaren debekuarena eta eskubideen aurkakoak diren xedapenek atzerako eragingarritasunik ez izatearena.

Nafarroako Arartekoak egindako txostenean aipatzen zen nola administrazio publikoek energia fotovoltaikoa sustatu duten eta nola nabarmendu duten energia berriztagarria eta ingurumenaren aldetik desiragarria dela, eta Industria eta Energia Ministerioak energia horren produkzioa diruz lagundu zuela eta araubide juridiko bat ezarri zuela hurrengo ureetarako arrazoizko segurtasun bat bermatzeko, hain zuzen ere urte horietan herritarrek etekinak jaso eta etekin horiekin gauzatutako inbertsioen finantziazioari aurre egin ziezaioten. Alabaina, 2010. urtearen amaieran, dekretu lege horren bitartez, gobernuak aurrez ezarritako araubidea aldatu eta funtzionamendu-orduak mugatu ditu, lehenengo 2011-2013 urteetarako eta gero aurreragorako. Jokabide horrekin, egungo lege dekretuak herritarren segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak urra ditzake. Aipatutako lege dekretua onetsi egin da, gainera, arauaren zuzeneko hartzaile direnei aurrez entzunaldirik eman gabe eta haiek ordezkatzen dituzten elkarteei kontsultarik egin gabe. Elkarte horiek guztiak, izan ere, bat datoz esaterakoan Estatuko Aldizkari Ofiziala irakurriz jaso dutela araubide ekonomiko berriaren berri.

Halaber, adierazitakoaren arabera, hasieran, ekoizleek aurreikusten zuten planta fotovoltaikoen bizitza erabilgarri guztian zehar jasotzea pizgarrien bidez sustatutako ordainsaria, 2007ko errege dekretu baten arabera. Eta, hain zuzen ere, errege dekretu hori aldatu da orain, 25 eta 28 urte bitarteko indarraldi bat ezartzeko. Halaber, bi errege dekreturen bitartez (2007koa eta 2008koa) ezarritako produkzio-orduen araubide bat bazuten, baina orain errege dekretu legeak bi araubide ezartzen ditu: lehenengoa 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartekoa, orduen kopuru txikiegi batekin (Administrazioak ordaindu beharreko gastua gutxitzeko xedez) eta zonifikaziorik ezarri gabe; eta bigarrena 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa, aurrekoa baino ordu kopuru handiago batekin, batez beste, eta berritik ezartzen den zonifikazio batekin. Horri guztiari gehitu behar zaio banaketa-sareetarako sarbidea izateko sari bat ezarri dela, eta araubide bereziko ekoizleek hura ordaindu egin beharko dutela.

Horrenbestez, Errege Dekretu Legeak kalte ekonomiko eta ondarezko handia eraginen die Nafarroako familia ekoizleei, zeren eta ezartzen dituen mugek ustiategietarako ezarritako errentagarritasuna gutxitzen baitu eta beraiekin ekartzen baitute familia ekoizle batzuek hondoa jotzeko egiazko arriskuan egotea; izan ere, familia horiek beren inbertsioak egin zituzten geroan 2007ko dekretuan aurreikusitako araubidearen arabera jokatuko zutela sinistuta, haren bitartez ezarri baitzen araubide bereziko energia elektrikoaren produkzio-jarduerarako araubide juridiko eta ekonomikoa. Kexa-egileek baieztatu dute 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa izanen zen araubide berria orain dela bi edo hiru urte ezagutu izan balute, haietatik gehiengo handi batek ez zuela inbertsiorik eginen energia horretan, arra-

zoizko errentagarritasunik izanen ez zuelako, hasieran egin beharreko inbertsio handiak direla eta.

*Konstituzio printzipioen balizko urraketak.*

Irizpenaren arabera, errege dekretu legeak zenbait konstituzio-printzipio urra ditzake; esate baterako, segurtasun juridikoarena eta konfiantza legitimoarena, gobernuak diseinatu, eskaini eta bermatu zuen araubidean (orain desegiten duen segurtasun juridikoko giro bat sortu zuren harekin) bildu ziren ekoizleak zigortzen baititu. Administrazioak sortutako itxaropen legitimoen mozketa hori, ekoizleek inbertsio material eta finantzario handiak egin ondoren, banakako eskubideen aldekoak ez diren xedapenek atzerako eragingarritasuna ezin izatearen konstituzio-printzipioaren aurkakoa izan liteke.

Halaber, legearen aurreko berdintasunaren printzipioa urra litzake, zeren eta errege dekretu legeak negatiboki baztertzen baitu teknologia fotovoltaikoa araubide bereziko gainerako teknologia energetikoen aldean, pizgarriak ordaintzeko epearen iraupenean muga bat ezartzen baitu, bestelako teknologien kasuan ezartzen ez dena, eta bestelako teknologia horiek araupetze ez hain kaltegarria baitute, orduen mugaketari dagokionez.

Gainera, errege dekretu legearen hautapenak eragin bat sortzen du, zeren eta eragozten baitu ukitutako ekoizleek hura epaitegi arruntetan aurkatu ahal izatea. Izan ere, horrekin, babes judizial eragingarrirako eskubide urratuko luke, zeren eta orain arte, arlo beraren erregelamendu bidezko araupetzeak aurkapen judiziala bideratzen baitzuen.

Era berean, botere publikoen arbitrariotasundebekuaren printzipioa urra liteke, zeren eta errege dekretu lege horren xedea bailitzateke ez hainbeste tarifen defizita zuzentzea, baizik eta orain arte araubide bereziko ekoizleei ematen zitzaizkien “ordainsari” edo diru-laguntzak gutxitzea. Arbitrariotasun hori agertzera emanen litzateke, era berean, dekretu-legearen eraginaren proportzio ezan, xedapen iragankorrak ordu-kopuru txikiegia ezartzen baitu hiru urtetarako, eta gero kopuru hori handitzen joaten da zonifikazio baztertzaile baten arabera, betiere aurreko araubidean ezarritako batez bestekotik behera.

Aurrez azaldutako guztia dela eta, Nafarroako Arartekoak uste izan zuen behar adina argudio juridiko-konstituzional bazegoela Konstituzio Auzitegian konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa bat aurkezteko Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen errege dekretu legearen aurka. Irizpena erakundearen webgunean (http://www.defensornavarra.com) ikus daiteke, “albisteen” epigrafean.

Espainiako Arartekoak Nafarroako Arartekoari jakinarazi zion ezen, gaia baloratu ondoren, erabakia zuela ez baliatzea Konstituzioko 162.1 artikuluak ematen zion zilegitasunaz, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa aurkezteko.

Aurrekoa gorabehera, Espainiako Arartekoaren erakundeak, arau berritik heldutako egoera xeheki aztertu ondoren, honako iradokizuna egin zion Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari:

“Organo eskudunek, munduko abagune berria kontuan izanda, balora dezatela instalazio fotovoltaikoen ordu baliokideen produkzioa handitzeko agindua emateko aukera, Espainiako klima-eremu desberdinen arteko bereizkuntzak eginez. Halaber, gomendatzen da ezen, ziurgabetasun-egoerak saiheste aldera, araudi egonkor eta argia presta dezala araubide bereziko sektore elektrikorako”.

# III. KAPITULUA. EBAZPENAK

## 3.1. BALORAZIO OROKORRA

### 3.1.1. Emandako ebazpenak

2011n, Nafarroako Arartekoak guztira 559 ebazpen eman zituen, 319 kexa-espedientetan. Zifra horiek erakusten dute, aurreko urtearekin alderatuta, % 56,1eko hazkundea izan dela emandako ebazpenen kopuruan, eta % 11,5eko hazkundea, berriz, kexa-kopuruan.

Aurreko beste txosten batzuetan jaso den bezala, ebazpenen kopurua (559) eta haiei dagozkien kexen kopurua (319) bat ez etortzearen arrazoia da kexa-espediente beraren ondorioz ukitutako administrazioari gomendio, iradokizun edo gogorarazpen bat baino gehiago egin dakiokeela, betiere egindako ikerketaren arabera; eta, gainera, gerta daitekeela kexa-espediente batean, legezko betebeharren gogorarazpena administrazio bati baino gehiagori, aldi berean, egin behar izatea. Horrekin azaltzen da 319 kexa-espedientetan Nafarroako administrazio publikoei zuzendutako 559 neurri jasotzea, guztira.

Emandako ebazpenen edukia, dagokien espedientearen erreferentziarekin, Nafarroako Arartekoaren webgunean daude. Horra http://www.defensornavarra.com helbidetik sar daiteke, "Ebazpenak" atalean klik eginda.

Espediente horietan, Nafarroako Arartekoaren bitartekaritza kasuak ere jasotzen dira, Arartekoak herritarren interesak administrazio publikoen erabakiekin uztartu nahi izan zituen 14 kexa-espedientetan. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoen eta herritarren arteko adiskidetze-formula batzuk iradoki zituen, konponbidea emate aldera ikuskatutako administrazio publikoetan jarduera irregularra atzeman ez arren, inplikaturiko herritarren interesen aldeko konponbidea proposatzea komenigarri jo zuen kasuetan, betiere legezkotasunarekin eta interes publikoekin bat.

Ondoko taulan, egindako gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen, eta iradokizunen kopurua azaltzen dugu, bai eta bitartekaritza-ebazpenei dagokien datua ere, gaien arabera banakatuak:

| Arloa | Lankidetzari buruzko gogorarazpena | Gomendioa | Legezko betebeharren gogorarazpena | Iradokizuna | Iradokizun normatiboa | Bitartekaritza | 2011an, guztira | Ukitutako kexen kopurua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| FUNTZIO PUBLIKOA | 1 | 37 | 37 | 11 | 1 | 1 | **88** | **52** |
| GIZARTE ONGIZATEA | 0 | 36 | 29 | 13 | 2 | 3 | **83** | **44** |
| ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN HERRITARREK DAUZKATEN BERMEAK | 2 | 21 | 34 | 6 | 0 | 0 | **63** | **40** |
| HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA | 0 | 59 | 25 | 13 | 1 | 3 | **101** | **36** |
| EUSKERA | 0 | 4 | 21 | 1 | 0 | 0 | **26** | **22** |
| OGASUNA | 0 | 13 | 10 | 3 | 1 | 0 | **27** | **18** |
| TRAFIKOA | 0 | 7 | 3 | 0 | 0 | 0 | **10** | **7** |
| INGURUMENA | 0 | 13 | 18 | 4 | 0 | 0 | **35** | **16** |
| ETXEBIZITZA | 0 | 8 | 6 | 2 | 1 | 0 | **17** | **9** |
| OSASUNA | 0 | 15 | 5 | 7 | 1 | 0 | **28** | **18** |
| HIRIGINTZA | 0 | 9 | 8 | 8 | 0 | 0 | **25** | **16** |
| JUSTIZIA | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | **2** | **1** |
| ZERBITZU PUBLIKOAK | 0 | 6 | 5 | 4 | 0 | 0 | **15** | **11** |
| BARNE ARLOA | 0 | 4 | 3 | 3 | 0 | 0 | **10** | **9** |
| MERKATARITZA | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | **2** | **1** |
| LANA | 0 | 3 | 2 | 0 | 0 | 0 | **5** | **2** |
| BESTELAKOAK (toki entitateen funtzionamendua) | 0 | 2 | 2 | 1 | 0 | 0 | **5** | **4** |
| HERRI LANAK | 0 | 3 | 2 | 3 | 0 | 0 | **8** | **6** |
| GAZTERIA ETA KIROLA | 0 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | **3** | **2** |
| NEKAZARITZA | 0 | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | **3** | **3** |
| KULTURA | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | **1** | **1** |
| INDUSTRIA | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | **2** | **1** |
| **GUZTIRA** | **3** | **245** | **212** | **84** | **8** | **7** | **559** | **319** |

Taulak erakusten du gomendioak direla administrazio publikoei gehien egiten zaizkionak, bere jarrera alda dezan norabide jakin batean eta kasu jakin bati dagokionez (erabakien % 44 gomendioak dira). Horren ondoren, legezko betebeharren gogorarazpenak datoz (212 dira, guztizkoaren % 38). Azkenik, iradokizunak datoz (92 dira, guztizkoaren % 16); iradokizunetatik 8 normatiboak izan dira.

Horrela, erakundeak izaera proaktiboari eusten dio Administrazioarengana jotzen duen 10 alditatik 6tan.

Gaien arabera, hezkuntzarena da gomendio eta iradokizun gehien egitea eragin zuen arloa. Ondotik, funtzio publikoa eta gizarte ongizatea datoz. Ingurumena beste gai azpimarragarri bat, osasunaren, ogasunaren, euskararen edo hirigintzaren aurretik.

Ebazpen gehien zuzendu zaizkien administrazio publikoei erreparatuta, honakoak nabarmen ditzakegu, handitik txikira:

• Iruñeko Udala: 50 ebazpen.

• Hezkuntza Departamentua: 47 ebazpen.

• Familia, Gazteria Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua: 42 ebazpen.

• Osasun Departamentua: 30 ebazpen.

• Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua: 28 ebazpen.

• Eguesibarko Udala: 20 ebazpen.

• Tuterako Udala: 13 ebazpen.

2011ko abenduaren 31n, ikuskatutako administrazio publikoek 244 kexa-espedienteri (% 76,5) erantzuna emana zieten.

– 168 kasutan, Administrazioak erakundearen erabakia onartu zuen. Kopuru horrek guztizkoaren % 52,7 egiten du.

– Beste 76 kasutan (guztizkoaren % 23,8), berriz, proposamena ezetsi zuen.

2011ko abenduaren 31n, administrazio publikoak 75 espedienteri erantzuna eman gabe zeuden (guztizkoaren % 23,5 egiten dute).

**3.1.2. Administrazio publikoek ebazpenak noraino onartu dituzten**

Adierazi dugun bezala, Nafarroako administrazio publikoek berariaz onetsi zituzten Arartekoak 2011n emandako ebazpenen % 52,7, eta ebazpenen % 23,8, berriz, ezetsi zituzten. Gainerako % 23,5a ekitaldia ixteko garaian erantzuteke zegoen.

Erantzuteko geratu diren ebazpenak kontuan hartzen ez badira (oraindik ere erantzuna zein den ezagutzen ez delako), administrazio publikoek ebazpenen ehuneko 69 onartu zituzten (2019ean, % 76 onartu zituzten). Hau da, erantzuna jaso den espedienteak –kasuko gomendioa, iradokizuna edo legezko betebeharren gogorarazpena nahiz bitartekaritza onestekoak nahiz ezestekoak– kontuan hartuta, **batez beste, administrazioek hamarretatik zazpitan onetsi egin zituzten erakundeak hartutako erabakiak**.

**2011 an EMAN ETA ERANTZUNDAKO EBAZPENAK**




Lehen ere adierazi dugun bezala, oso maiz gertatzen da kexa-espediente beraren harira ukitutako administrazio publikoari gomendio, iradokizun edo gogorarazpen bat baino gehiago egitea. Alabaina, kexa horietako bakoitzean Nafarroako Arartekoaren proposamena onartzearen edo ezestearen ondorioetarako eta, horrenbestez, ikerketaren ondoren lortutako emaitza txostenean jasotzearen ondorioetarako, neurri nagusiaren aldean lortutakoari erreparatzen zaio (gomendioa, iradokizuna nahiz gogorarazpena izan daiteke), haien onarpenarekin herritarrek aurkeztutako gaiari konponbide efektiboa onartzeari dagokionean.

Aurrez argibideak eman eta gero, ondoren, ebazpen mota bakoitzaren onarpenaren ehunekoak erakusten ditugu; hau da, gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen (iradokizun normatiboak barne) onarpen-maila, jasotako kexen arabera.

Gomendioak:




Gomendioen onarpenaren portzentajea % 62,5era iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Legezko betebeharren gogorarazpenak:




Legezko betebeharren gogorarazpenen onarpenaren portzentajea % 90,9ra iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Iradokizunak




Iradokizunen onarpenaren portzentajea % 69,4ra iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Iradokizun normatiboak




Iradokizun normatiboen onarpenaren portzentajea % 66,7ra iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Bitartekaritza ebazpenak:




Bitartekaritza-ebazpenen onarpena % 50ekoa da.

Hurrengo taulan, agertzera ematen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako toki entitateek eta unibertsitateek eta lanbide elkargoek erakutsi duten onarpen-maila, ebatzi diren eta 2011n itxi diren kexa-espedienteei dagokiena.

| **Ebazpena duten kexa espedienteak, 2011n erantzuna jaso dutenak** | Kexa - kopurua | Onartuak | Onartu ez direnak | Bestelako itxierak | Erantzunaren zain daudenak | Onartutakoek erantzuna jasotakoen guztizkoan egiten duten ehunekoa | Erantzuteke daudenen ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Foru Komunitateko administraziokoa | 223 | 141 | 53 | 0 | 29 | 72,7% | 13,0% |
| Toki entitateak | 165 | 80 | 39 | 2 | 44 | 66,1% | 26,7% |
| Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar | 8 | 5 | 1 | 0 | 2 | 83,3% | 25,0% |
| **Guztira** | **396** | **226** | **93** | **2** | **75** | **70,4%** | **18,9%** |

Txosten honetako VIII. kapituluan, ikuskatutako administrazio publikoak Nafarroako Arartekoaren gomendio, iradokizun nahiz legezko betebeharren gogorarazpena onartu ez dituen kexa-espedienteei buruzko informazioa jasotzen da, erakunde honen iritziz ez-onartze horretarako arrazoiak behar bezala justifikatu ez direnean.

Bestalde, txosten honen eranskin gisa, informazio xehakatua ematen dugu administrazio publikoak onartutako ebazpenei eta bitartekaritzalanei buruz, bai eta administrazio publikoak justifikazioarekin ezetsi zituenei buruz ere, ez-onartze horretarako arrazoiak emanda.

## IV. KAPITULUA OFIZIOZ ABIARAZITAKO IKERKETAK

### 4.1. OFIZIOZ ABIARAZITAKO JARDUKETAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 18.1 artikuluak Nafarroako Arartekoari ematen dio ofiziozko jarduketak egiteko ahalmena –hain zuzen ere zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzera bideratuak, herritarren eskubideak bermatze aldera–, eta, horrenbestez, Nafarroako administrazio publikoei gomendioak eta iradokizunak egiteko ahalmena.

2011. urtean, erakundeak 35 jarduketa abiarazi zituen ofizioz.

Honakoak izan ziren jarduketa garrantzitsuenak:

**1. Mendetasun-egoera aitortzea eta ondoren sistemako prestazioak jasotzea.**

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte Gaiak. Mendekotasuna.

Emaitza: Zenbait iradokizun egin zitzaizkion Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako prestazioak aitortzeko eta ordaintzeko prozedura hobetzeko. Hona egindako iradokizunak:

*A) Izaera orokorrekoak, baliabideen zuzkidurari eta egokitzapenari dagokienez:*

=> Nafarroako Administrazio publikoek dituzten aurrekontu-zuzkidurak eta giza baliabideak nahiz baliabide materialak egokitu daitezela, mendekotasun-sistemaren prestazioen arloko eskariari erantzuteko, hala oinarrizko mailan (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak) nola maila espezializatuan (Nafarroako Mendetasunaren Agentzia), sustatuz, kasua bada, horiek indartzeko behar diren neurriak.

=> Mendetasuna duten pertsonentzako laguntzako egoitza-tokien erabilgarritasun publikoa areagotu dadila, kontuan hartuta bereziki ezen, legedi indardunarekin bat, zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomikoak emateak izaera subsidiarioa duela, zerbitzu publiko edo hitzartu bat ematerik ez dagoen kasuetara mugatua, eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroak hamabi hilabeteko denbora-muga ezartzen duela prestazio horien iraupenari dagokionez.

=> Ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaren esparruan, azter dadila eta, kasua bada, egokitu dadila egoitza-tokien eskaintza, pairatutako arazoen aniztasunari doitutako zerbitzu bat emate aldera, neurri egokiak sustatuz legediak bermatutako laguntza-eskubidea egiazkoa eta baliagarria izan dadin kasu guztietan.

*B) Prozedurari buruzkoak:*

=> Oro har, eskubidea aitortze aldera eta mendetasun-sistemako prestazioak jasotze aldera ezarritako eta aplikatutako prozedura ahal den guztian errazten saiatzea.

=> Foru araudi indardunaren aplikaziotik heldu diren izapidetze-epeak egiaz murrizteko aukera azter dadila.

=> Azter dadila mendetasun-sistemako prestazioak onartzeko bete behar diren izapideen segida prozedura eta ebazte-ekintza bakar batean metatzeko aukera –mendetasun-egoeraren onarpena; banakako laguntza programaren onespena eta programaren barruan kasuko baliabidea esleitzea, eta mendetasun-sistemako prestazioaren barruan eskatzen dena ematea, baldin eta horretarako eskubidea badu–, interesdunari sei hilabeteko gehieneko epean jakinaraziz hartutako erabakiak. Hori guztia ez da eragozpen izanen, haien izaerari erreparatuta, administrazio-erabaki horiek, kasua bada, banan-banan aurkaratzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.

=> Neurri egokiak har daitezela, jarduketen iraupen-epeak araudi indardunaren araberakoak izateko; izan ere, gizarte-arrazoiak direla medio, administrazioaren jardunaren eremu orotan horrela izan beharko balitz ere, mendekotasunaren arloan garrantzi berezia dauka horrek.

=> Baldintza egokiak susta daitezela, prozedura bide elektronikoaren bidez izapidetzea hautatu ahal izateko interesdunek nahiz haien familiartekoek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak xedatutakoarekin bat, hartara erraztuko bailitzateke prestazioak eskatzea eta lortzea.

=> Herritarrentzako betekizun formalak berrazter daitezela, espedientea izapidetzeko eta ebazteko eskatzen diren dokumentazioak aurkezteari dagokionez. Bereziki:

a) Prozeduran aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko arau-xedapen indardunen egokitasuna balioets dadila (zehazki, urtarrilaren 19ko 6/2009 Foru Dekretuko 8. artikulua).

b) Erraztu dadila, ahal den neurrian, dokumentazioa aurkezteko betekizuna, sustatuz, bidezkoa baldin bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko Legeko 71 bis) artikuluan aipatzen den aitorpen arduratsuaren figura, eta hori ez da eragozpen izanen ondoren kontrola egin dadin, eta ofizioz bilduz entitate publikoen esku dauden agiri guztiak, interesdunaren edo interesduna ordezkatzen duenaren baimenarekin.

c) Interesdunei informazioa eman dakiela, modu argi eta errazean, aurkezten dituzten eskabideetan bete beharreko betekizun formalei buruz, ezertan ere galarazi gabe egoki iritzitako beste bide osagarri batzuk, eskabidearen eredu normalizatuari erantsitako agiri batean hain zuzen ere.

d) Zuzentze-errekerimenduak izapide daitezela, uko egiteko deklarazioaren ohartarazpenarekin, espedientea izapidetzeko ezinbestekoa den kasuetan bakarrik eta azkartasun-printzipioaren arabera betiere, prozeduraren hastapeneko fasean, ekidinez errekerimendu horien data eskabidearen datatik urrun egotea.

e) Errekerimendu horien xedea mugatu dadila xedapen indardunetan espresuki jasotako dokumentaziora; izan ere, herritarrek ez dute zertan aurkeztu xedapen horietan eskatzen ez den agiririk.

=> Bultza dadila, interesdunak espedientea ikusteko eta prozeduraren izapidetzea zertan den ezagutzeko duen eskubidearen osagarri, ofiziozko komunikazio-sistema bat, izapidetzea atzeratzea ekar dezaketen gorabeherei buruzkoa, ukitutakoak informatuta edukiz ezartzen den aldizkakotasunarekin igorritako komunikazioen bidez (bide elektronikoak edo telematikoak erabiltzen ahalko dira horretarako).

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak iradokizunak onartu zituen.

**2. Nafarroako Bikote Egonkorren Erregistroa sortzea.**

Administrazio eskuduna: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Gizarte Gaiak. Familia.

Emaitza: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak onartu egin zuen 2010ean erregistro hori sortzeko iradokizuna, Nafarroako Foru Komunitate osorako administrazio-erregistro bat egon dadin erakunde honek egindakoa, baina, egiaztatu ahal izan dugunez, oraindik ez da erregistroa sortu.

Eta Foru Administrazioak sortu eta arautu gabe dauka, orobat, Nafarroako Bikote Egonkorren Erregistroa. Hortaz, erregistroa sortzeko iradokizuna eginen zaio 2012an Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari berriz ere.

**3. Gaixo mentalen nahi gabeko tratamendu anbulatorioei buruzko arau egoki bat prestatzea.**

Administrazio eskuduna: Estatuko administrazioa.

Gaia: Osasuna.

Emaitza: Auziari buruzko txosten xehakatu bat igorri zitzaion Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari, zeinean eskatu baitzitzaion esku har dezan Lege Organiko bat onets dadin, gaixotasun mentala duten pertsonen nahitaezko tratamendu mediko eta klinikoari nahiz internamenduari buruzko alderdi guztien araubide oso eta gaurkotua jasotzeko.

Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igorritako txostenean aipatzen zen ondoko alderdiak arautu beharko liratekeela aipatu Lege Organiko horren bidez:

=> Gaixo mentalen nahi gabeko tratamendu anbulatorioa.

=> Pertsonen nahitaezko internamendu eta tratamendua, osasun publikoaren kariaz.

=> Eritasun infekto-kutsakorrengatiko araumugak, gaixotasuna dela-eta ez diskriminatzeko oinarrizko eskubidea urratzen dutelako ustean.

Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoak oso begi onez hartu zuen egindako proposamena, eta igorritako txostena aztertu ondoren, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioari gomendatu zitzaion Lege Organikoaren aurreproiektua presta zezan, albait azkarren arautze aldera alderdi horiek eta, bereziki, estaldura eta araumaila emate aldera norbanakoaren askatasun pertsonala zeharo deuseztatzen duten egoerei; esate baterako, nahasmendu psikikoaren ondoriozko derrigorrezko internamenduari.

**4. Seme-alaba bakarreko emakumeen in vitro ernalketa eta lehen mailako antzutasuna duten bikoteek prestazioa lortzea.**

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Prestazioak.

Emaitza: Bi gomendio egin zitzaizkion Osasun Departamentuari:

=> Bigarren mailako antzutasuna eta seme-alaba osasuntsu bat duten bikoteei in vitro ernalketako prestazioa egiaz eman dakien, baldin eta hala eskatzen badute eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

=> Eman beharreko jarraibideak eman diezazkion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, lehen nahiz bigarren mailako antzutasuna duten bikoteek itxaron beharreko denbora murrizte aldera eta prestazioa jasotze aldera, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Osasun Departamentuak ez zituen gomendioak onartu.

**5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoei laguntzeko zerbitzuetan iradokizunak eta erreklamazioak egiteko prozeduren eraginkortasuna.**

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Erabiltzaileen eskubideak.

Emaitza: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoei laguntzeko zerbitzuen funtzionamendua egiaztatu zen, eta zuzena dela esan daiteke.

**6. Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen egiazko betetze-mailaren ebaluazioa.**

Administrazio eskuduna: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua.

Gaia: Ingurumena. Natur ingurunearen babesa.

Emaitza: Zenbait iradokizun egin zitzaizkion Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari:

=> Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarrian aipatzen den natur parkeen antolamendua eta deklarazioa has daitezen, natur parkearen figuran sakonduz, natur balioen antolamendu eta kontserbazio tresna eta, aldi berean, deklarazioan sartutako edo inguruko herrien garapen sozioekonomikorako tresna den aldetik.

=> Foru Legean jasotzen diren Nafarroako naturguneen beste kategoria batzuen deklarazioa susta dadin, bereziki gune txiki eta sentikorrei babes hobeagoa ematen dietenena (natur erreserbak, guneak edo monumentuak) eta erabileren antolamendua ahalbidetzen dutenena eta lurralde zabalagoetan ingurumenarekiko bateragarriak direnena (paisaia babestuak edo aisiarako natur eremuak).

=> Sakonkiago azter dadin ea zehapen-ahalmenaren baliatze-maila eta, orobat, leheneratze-ahalmenena eta legezkotasunaren babesarekin lotutako beste batzuena egokia eta nahikoa ote diren, eta, kasua bada, hartu beharreko zuzentze-neurriak har daitezen naturgune babestuen eta Europako araudiaren arabera deklaratutako lekuen babes eraginkorra eta erreala ziurtatzeko.

Ingurumen arloko eskumena duen Departamentuak hiru iradokizun horiek onartzeari uko egin zion.

**7. Poliziaren esku-hartzea telefono bidezko komunikazioetan eta datuen komunikazioetan.**

Administrazio eskuduna: Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua.

Gaia: Barne arloa.

Emaitza: Iradokizun bat egi zitzaion Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari, Nafarroako Polizia Kidegoei –Foruzaingoa eta Udaltzaingoak– helaraz ziezaien herritarrei ezin zaizkiela telefonia mugikorreko gailuak kendu, salbu eta ebazpen judizial bat baldin badago, delitu bat gertatu izanari buruzko behar adina zantzu dagoelako.

Departamentuak espresuki adierazi zuen iradokizun hori onartzen zuela, eta Nafarroako Arartekoari informatu zion hitzen hitz eman ziola horren berri Foruzaingoko Burutzari, jakinaren gainean egon zedin eta bere kideen artean zabal zezan.

**8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kenkaria aplikatzea, subjektu pasiboarekin 65 urteko edo 65 urtetik goragoko aurreko ahaide bat (edo gazteagoa, baina minusbaliotasunaren kariaz kenkaria jasotzeko eskubidea duena) bizitzeagatik.**

Administrazio eskuduna: Ekonomia eta Ogasun Departamentua – Nafarroako Tributu Ogasuna.

Gaia: Ogasuna. Tributuen ordainketa.

Emaitza: Iradoki zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araubidean aintzat har zedila urteko gehieneko errenta gisa ezarritako zenbatekoa gaurkotzeko aukera, kenkaria aplikatu ahal izate aldera subjektu pasiboarekin 65 urteko edo 65 urtetik goragoko aurreko ahaide bat (edo gazteagoa, baina minusbaliotasunaren kariaz

kenkaria jasotzeko eskubidea duena) bizi baldin bada.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak informatu zuen ez dagoela aurreikusita foru araubidea arlo horri dagokionez aldatzea; izan ere, Nafarroako araudian ez dago erreferentzia muga absoluturik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarrian kenkaria aplikatzeko aurreko ahaideengatiko familia-gutxienekoa dela-eta; aitzitik, muga hori indize zehatz bati lotuta dago –Ondorio Anitzetarako Errenta Adierazle Publikoari, alegia–; halatan, Estatuko araudian ez bezala, Nafarroan modu automatikoan gaurkotzen da legez ezarritako errenta-muga, adierazle publiko hori urtero gaurkotzen den neurrian.

**9. Irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate hezkuntzako beken deialdi orokorra, 2010-2011 ikasturterako.**

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Hezkuntza Batzordea. Bekak.

Emaitza: Iradoki zen eskatzailearen egiazko ahalmen ekonomikoa eta lortutako emaitza akademikoak modu eragingarriagoan kontuan har daitezela irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate hezkuntzako beken hurrengo deialdietan. Zehazki, ondokoa iradoki zen:

=> Familia-unitateko kide gisa zenbatu daitezela familia-harrera iraunkorreko adingabeak, familia-errentaren gaineko kalkulua egitean.

=> Familia-ondarea adierazten duten atalaseak bi norabidetan berrikus daitezela:

a) Landa- nahiz hiri-finken katastroko balioen baturarekiko ezarritako zenbatekoak igoz.

b) Hiri- nahiz landa-ondasun higiezinak edo higigarriak salbuetsiz, baldin eta osorik atxikirik badaude merkataritza, industria- edo lanbide-jarduera bati, nekazaritza eta abeltzaintza barne.

=> Konpentsazio irizpideak ezar daitezela, familia-ondarearen eta urteko negozio-bolumenaren kariaz baztergarriak diren irizpideen artean, halako moduan non horiek denak neurtuko baitira eskatzailearen egiazko ahalmen ekonomikoa balioesteko.

=> Ez daitezela familia-errenta gisa hartu PFEZaren ondorioetarako salbuetsitako zenbait errenta; esaterako, kaleratzearen kalte-ordainetatik heldu direnak.

=> Diru-sarrerak gutxitu izanaren inguruabar ekonomiko gisa aintzat har dadila ez bakarrik familia-unitateko kide bat hil izana PFEZaren aitorpena egin ondotik eta deialdiaren behin-behineko ebazpena baino lehen, ezpada ikasleak denbora-epe horretan zurztasun-pentsioa jasotzen bukatzeko adina bete izana ere.

=> “Ikaskuntza” kontzeptua dela-eta emandako laguntzaren zenbatekotik ez dadila ken ikasgai batean edo batzuetan “ohorezko matrikula” kalifikazioa lortu izanagatik lortutako matrikula-murrizketaren hobaria; izan ere, bekek ez dute estaltzen matrikularen kostu osoa.

=> Aurreikus dadila bekak emateko aukera lizentziatura bikoitzetarako edo titulu bereki eta arautuko graduetarako, graduak edo lizentziaturak irauten duen denbora guztian.

=> Motibazio positiboko irizpideak ezar daitezela, ikasleen aprobetxamendu ona dela-eta, errespetatuz betiere matrikularen kostuaren muga, baldin eta eskatzaileak deialdiko gainontzeko betekizunak betetzen baditu.

=> Graduko titulura daramaten ikaskuntzen kasuan, beka lortze aldera eskatzaileari eskatzen zaion matrikula izan dadila ikasketen planak hartzen dituen gutxieneko kredituena, ikastaldi osoko araubidean; izan ere, horrela egiten ez baldin bada, eskatutako kredituen gutxieneko kopuruak gainditu egin dezake ikasketa planei dagokiena.

Hezkuntza Departamentuak gogo onez hartu zituen egindako iradokizunak, eta adierazi zuen ondoko aldaketak sartu zituela 2011/2012 ikasturterako irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate hezkuntzako beken deialdi orokorrean:

=> Familia-unitateko kide gisa zenbatzea familia-harrera iraunkorreko adingabeak, familia-errentaren gaineko kalkulua egitean.

=> Errentaren atalaseak gaurkotzea urte batetik besterako KPIan –% 3,3–, bai eta beken nahiz betekizun ekonomikoak taxutzen dituzten gainontzeko aldagaien zenbatekoak ere.

=> Zenbait ikasgaitan “Ohorezko matrikula” kalifikazioa lortzeagatiko matrikula-murrizketaren laguntza ez deskontatzea.

=> Familia-unitatearen hiri-ondareko atalasea igotzea –eta 108.966 €-tan ezartzea– onuradun izan ahal izateko.

=> Familia-errentaren kenkariak kalkulatzeko sistema aldatzea, familia ugarien kasuan. Halatan, 4 seme-alaba baino gehiagoko familiek 832 €-ko kenkaria aplikatu ahalko dute lehendabiziko seme-alabatik hasita.

**10. Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa aldatzen duen Foru Dekretuaren aurreproiektuaren azterketa.**

Administrazio eskuduna: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua.

Gaia: Gizarte Gaiak. Prestazioak.

Emaitza: Hainbat iradokizun egin ziren, Gizarte Zerbitzuen Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren aurreproiektuaren testua, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak igorritakoa, hobetze aldera. Zehazki, ondoko iradokizunak egin ziren:

=> Gizarte zerbitzuen sistema publikoan prestazio bat –teknikoa nahiz ekonomikoa– sartzea, daukaten ezgaitasun egoerarengatik lanera joan ahal izateko arazo bereziak dituzten pertsonei lanera joateko garraioa errazteko.

=> Azter dadin ea komenigarria den zerbitzua kontratatzeko laguntza ekonomikoa orain arte bezala mantentzea edo, aitzitik, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren aldaketan xedapen gehigarriren bat sartu behar den, halako moduan non ziurtatuko baita aldaketak ez duela eragin negatiborik izanen laguntza mota horren onuradunentzat.

=> Adingabeei hezkuntza-esparruan ikasturtean zehar emandako estimulazio-tratamenduen jarraitutasuna eskola orduetatik kanpo ziurtatzera bideratutako prestazio bat sar dadin, gutxienez ere mendekotasun egoeran dauden adingabeei.

=> Gaixotasun mentala edo ezgaitasun intelektuala duten pertsonentzako gaikuntza psikosozialeko zerbitzu baten bidez nahiz egoki iritzitako bestelako baliabide batzuk esleitzearen bidez konpon dadila gaixotasun mentala duten pertsonak ostatuetan egotearen arazoa; izan ere, Administrazioak diruz lagundutako zerbitzua da, baina Administrazioak ez du baliatzen gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuak berezkoa duen ikuskapen eta kontrol ahalmena.

Txosten hau bukatu zen egunean, erantzun gabe zeuden iradokizun horiek.

**11. Azpilagañako bidegurutzean trafikoa antolatzea.**

Administrazio eskuduna: Iruñeko Udala.

Gaia: Trafikoa.

Emaitza: Iruñeko Udalari iradoki zitzaion azter zezan bidegurutze horretako trafikoaren arriskugarritasuna, eta balioets zezan ea egokia den neurri zehatzak ezartzea oinezkoen segurtasuna eta Konstituzioak oinezkoei aitortzen dizkien bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea bermatzeko.

Iruñeko Udalak iradokizuna onartu zuen, eta une honetan semaforo-gune bat dago paratuta, oinezkoen joan-etorriak eta haien osotasun fisikoa segurtasun handiagoarekin bermatzen duena.

**12. Gazteen oinarrizko emantzipazio-errenta.**

Administrazio eskuduna: Sustapen Ministerioa.

Gaia: Etxebizitza. Laguntzak.

Emaitza: Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari txosten bat igorri zitzaion, zeinetan jasotzen baitzen zer alderdi hobetu daitezkeen gazteentzako laguntza hori taxutzean eta laguntza aitortzeko eta ordaintzeko prozeduran. Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari ere jakinarazi zitzaizkion egindako jarduketak, jakinaren gainean egon zedin.

Ondoko proposamenak egin ziren arlo honetan:

=> Azter dadila gelen errentamendua atenditzeko eta diruz laguntzeko aukera; hori, dena den, ez da eragozpen izanen horrekin batera laguntzen zenbatekoan modulazio bat egiteko.

=> Oinarrizko errenta jasotze aldera aurreikusitako gehieneko diru-sarrera gordinen atalasea –22.000 euro urtean– berrikus dadila, aldatu gabe dagoelako Errege Dekretua orain ia lau urte onetsi zenetik.

=> Arauaren salbuespenak ezar daitezela etxebizitza baten titularrak direnak bazter uzteari dagokionez, halako moduan non anai-arreba gazte eta umezurtzek jaraunspen bidez jasotako etxebizitza baten titularrak izateak ez baitu a priori ekarriko laguntza horretatik bazter egotea.

=> Laguntzaren zenbatekoari eta baldintzei dagokienez, iradoki zen denbora aldetiko muga ezar zedila ezarritako gehieneko adina betetzen deneko erreferentziarekin (hogeita hamar urte), eta laguntza manten dadila harik eta adin hori bete arte, laguntza jasotzeko gehieneko epe bat aldez aurretik ezarri gabe.

=> Laguntza hori izapidetzeko eta emateko prozedura hobetu dadila.

Jarduneko Arartekoak erakunde honi adierazi zion gaia aztertzen hasia zela eta gaiaren izapidetzeari buruzko informazioa emanen zigula uneanunean. Estatuko Administrazio Orokorrak orain dela gutxi iragarri du laguntza hori kendu duela.

**13. Legez kanpoko isurketak naturgune babestu bateko erreka batera.**

Administrazio eskuduna: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua.

Gaia: Ingurumena. Natur ingurunearen babesa.

Emaitza: Gertakariak ikertze aldera abiatutako jarduketen berri izatea eta auziari buruzko dokumentazio gehigarria igortzea eskatu zen.

Departamentuak informazioa igorri zuen, eta ez zela zehapen-espedienterik ireki jakinarazi zuen.

**14. Hartutako hipoteka-zor osoaren truke familiaren etxebizitza ordainean ematea arautzeko proposamena.**

Administrazio eskuduna: Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua.

Gaia: Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila.

Emaitza: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari iradoki zitzaion azter zezala Nafarroako Foru Berrian jaso ahal izatea hartutako hipoteka-zor osoaren truke familiaren etxebizitza ordainean eman dadin, edo pertsona fisikoen zorrak barkatzea baldin eta hipotekadunak kasuko higiezina fede onez ematen badu.

Departamentuak proposamena baztertu zuen, uste baitu aldaketak hipotekei buruzko legedia eta Prozedura Zibilaren Legea ukituko lituzkeela eta, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren ustez, Nafarroako Foru Komunitateak ez dauka eskumenik arlo horretan arauak emateko. Nafarroako Arartekoa ez dago irizpide horrekin ados, uste baitu Nafarroako Foru Komunitateak eskumena daukala etxebizitza ordainean ematearen gaineko araudia onesteko, Foru Berri indardunak egiten duen bezalaxe.

**15. Alokairuaren araubideko etxebizitza babestuaren sustapena.**

Administrazio eskuduna: Sustapen eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Etxebizitza.

Emaitza: Arlo horretako baliabideen eragingarritasuna egiaztatu ahal izate aldera, ondokoei buruzko informazioa eskatu zitzaion Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari:

=> Alokairuaren araubidean Nafarroan sustatutako etxebizitza babestuen kopurua, sustatzaileak publikoak nahiz pribatuak izan, 2008ko, 2009ko eta 2010eko datuak bi ekimen mota horien arabera xehakaturik.

=> Alokairuaren araubideko etxebizitza babestua eskatu dutenen kopurua, adierazitako hiru urte horietako bakoitzean.

=> Alokairuaren araubideko etxebizitza babestuaren hartzaileen kopurua, adierazitako hiru urte horietako bakoitzean.

=> Departamentuaren balorazioa, alokairuaren araubideko etxebizitza babestuaren arloko eskaintza nahiko ote den dagoen eskariari erantzuteko.

=> Sustapen eta Etxebizitza Departamentuaren aurreikuspena, alokairuaren araubideko etxebizitza babestuaren arloan hurrengo ekitaldietan bultzatu nahi duen eskaintza dela-eta.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak eskatu zitzaion informazioa igorri zuen, eta informazio horretatik ondokoa ondorioztatzen da:

a) Sustatzaile publikoek alokairuko etxebizitzen sustapen murritza egiten dute sustatzaile pribatuen aldean, nahiz eta datu horri gehitu behar zaizkion “alokairu-poltsa” izenekoaren bidez NASUVINSAk egun kudeatzen dituen 500 etxebizitza.

b) Gero eta eskatzaile gehiago dago alokairuaren araubideko etxebizitza babestuen arloan. Eskatzaileen kopurua, dagoen datu ofizial baten arabera, 5.728koa da.

c) Alokairuaren araubideko etxebizitza babestuen esleipen-kopurua 1.000 ingurukoa da 2011n; hartara, azken lau urteotako bigarren handiena da, 2010ean 1.300ekoa izan baitzen gutxi gorabehera.

d) Departamentuak uste du errentamendu araubideko etxebizitzen kopurua ez dela nahikoa egun dagoen eskariari erantzuteko.

e) Ez dago jakiterik ea errentamendu araubideko etxebizitzei buruz dagoen eskaria unean unekoa den, krisi ekonomikoaren ondorio zuzena den edo, aitzitik, joera erreal bat den, Nafarroako Gobernuaren etxebizitzaren arloko politiken etorkizuna markatu behar duena.

f) Nafarroako Gobernua errentamendu araubideko etxebizitzak sustatzeko lurrez hornitu da azken urteotan, udalez gaindiko zuzkidura-izaerako lursailak lagapen bidez lortuz Lurzoru Publikoko Foru Bankurako; horrek bide ematen du errentamendu araubideko 1.000 etxebizitza babestu eraikitzeko –hala dago aurreikusita–, gehienak Iruñerrian.

g) Neurri horretaz gain, Departamentuak aurreikusten du etxebizitza gehiago hartzea Alokairuko Poltsaren bitartez, ekimena hedatuz errentamendu araubideko etxebizitza babestuen

eskaria dagoen udal guztietara; horretarako, eskatzaileen errolda baliatuko da, jakin ahal izate aldera zein den etxebizitza babestuen eskatzaileen profil zehatza, non nahi duen eduki etxebizitza eta zer araubidetan lortu nahi duen etxebizitza.

Hori guztia ikusita, eta egiaztatuta gero eta gehiago eskatzen direla alokairuaren araubideko etxebizitzak, krisi ekonomikoak eta etxegintzaren sektorearen krisiak dirautela, komenigarria dela azken urteotako salerosketa bidezko modu tradizionalaz bestelako moduak taxutzea etxebizitza duin eta egoki bat lortzeko, eta egiaztatuta orobat populazioaren sektore handi batek alokairuko etxebizitzak eskatzen dituela, bakoitzaren inguruabarrak direla medio, ondoko iradokizunak egin zitzaizkion Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari:

=> Jarrai dezala alokairuko etxebizitzak bultzatzeko lan egiten, ahaleginak biderkatuz jorratzen ari diren bideetatik.

=> Azter dadila, Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin lankidetzan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan alokairuari dagokion zerga-arinketa areagotzeko aukera.

=> Azter dadila alokairurako laguntza publikoak handitzeko aukera, ez soilik zenbatekoei dagokienez, ezpada populazio-segmentuei dagokienez ere, horien diru-sarrerak jaitsi izanari edo beste inguruabar sozial batzuei erreparatuta.

=> Azter dadila, orobat, zaharberritu beharra duten hirigune jakin batzuetako etxebizitzetan errentamendua diruz laguntzeko aukera –adibidez, alde zaharretan edo beharrizan hori duten beste batzuetan–, sustatze aldera horiek biziberritzea, horiek okupatzea eta, hortaz, alderdi horietako etxebizitzak hobetze aldera, etxebizitza horien konponketari esker eraikuntzaren sektorea bultzatze aldera eta etxebizitza horietan adin eta gizarte-segmentu ezberdinetako pertsonak eta familiak sartze aldera".

**16. Sakelako telefonoetatik Internetera egindako konexioak fakturatzea telefono-konpainiek.**

Administrazio eskuduna: Sustapen Ministerioa. Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarteko Estatu Idazkaritza.

Gaia: Komunikazioak.

Emaitza: Idatzi bat igorri zitzaion Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari, dozenaka pertsonaren haserrea helarazte aldera, beren telefono-konpainiek zenbateko bidegabeak fakturatu dizkietelako egin gabeko konexioengatik.

Jarduneko Arartekoak Nafarroako Arartekoari jakinarazi dio auziari buruzko txosten bat egin dezan eskatu diola Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarteko Estatu Idazkaritzari, eta gai hori dela-eta egiten dituen jarduketa guztiei buruzko informazioa igorriko diola.

**17. Ilundaingo adingabeen zentroa irekitzeko atzerapena.**

Administrazio eskuduna: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu zitzaion informa zezala Ilundaingo adingabeen zentroa ireki dadin eginen dituen jarduketei buruz.

Departamentuak adierazi zuen zentro hori irekitzea dela Departamentuaren helburu nagusietako bat, eta 2012ko lehen hilabeteetan irekiko dela aurreikusten dutela.

Hori horrela den egiaztatzeko zain gaude.

**18. Errioxako Osasun Zerbitzuak emandako osasun-laguntza kentzea Errioxarekin muga egiten duten herrietako nafarrei.**

Administrazio eskuduna: Errioxako Gobernuko Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Osasun laguntza.

Emaitza: Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari iradoki zitzaion egin beharreko jarduketak egin zitzan Errioxako Osasun Zerbitzuaren aitzinean, Errioxarekin muga egiten duten herrietako bizilagunei osasun zerbitzua ematen jarrai zedin, ordura arte egiten zen bezala, harik eta egoera argitu arte.

Badakigu Nafarroako eta Errioxako osasun administrazioek auzi hori konpontzeko akordio bat erdietsi zutela.

**19. Aldi baterako ezgaitasun kasuetan oporrak edukitzea.**

Administrazio eskuduna: Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua.

Gaia: Funtzio publikoa. Eskubideak eta betebeharrak.

Emaitza: Ondoko iradokizunak egin zitzaizkion Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari:

=> Urteko oporrak beste sasoi batean hartzeko aukera eman dakiela Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileei, aldi baterako ezgaitasuna dela-eta bajan egoteagatik urteko oporrak eduki ez badituzte, nahiz eta oporrak sorrarazitako urtea bukatuta badago ere.

=> Baliatu gabeko opor egunak ordain dakizkiela, hartzekoen likidazioa eginda, aldi baterako kontratudunei –administrazio- nahiz lan-kontratua izan–, baldin eta bere borondateaz bestelako arrazoiak direla medio ezin izan badute baliatu, kontratua bukatu baino lehen, urteko opor ordainduak edukitzeko eskubidea, aldi baterako ezgaitasunarengatik bajan egoteagatik.

=> Azaroaren 4ko 2003/88/CE Zuzentarauan xedatutakora egoki dakiola Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen oporrak arautzen dituen foru araudia, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2009ko urtarrilaren 20ko epaiaren argitan.

Departamentuak jakinarazi zuen ezen, Nafarroako Administrazio Publikoetako negoziazio mahai orokorraren azken bileran, sindikatuen ordezkariekin abiarazitako negoziazio-prozesuaren baitan, Nafarroako Administrazio Publikoetako langile funtzionarioen oporrak, lizentziak eta baimenak arautzen dituen otsailaren 9ko 117/2009 Foru Dekretuaren aldaketa sartu dela, aurreikuste aldera enplegatu publikoek beren oporrak beste sasoi batean eduki ahal izan ditzaten, baldin eta aldi baterako ezgaitasuna dela medio ez badute oporrik eduki, edo diru-konpentsazioa eman dakien, baldin eta ezinezkoa bada oporrak edukitzea.

Hori horrela den egiaztatzeko zain gaude.

**20. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, 2010ekoa, itzultzea.**

Administrazio eskuduna: Ekonomia eta Ogasun Departamentua.

Gaia: Tributuak. Itzulketak.

Emaitza: Ekonomia eta Ogasun Departamentuari informazioa eskatu zitzaion, egiaztatze aldera ea zailtasunik zegoen, diruzaintzan likideziarik ez egoteagatik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko 2010eko Zergako itzulketak egiteko.

Departamentuak itzulketen kudeaketari buruzko informazio xehakatua igorri zuen; horren arabera, egin gabeko itzulketak ez ziren % 1era iristen, ez eta itzultzeko eskatutako zenbatekoaren % 7ra ere, eta diruzaintzan ez zegoen likidezia arazorik. Kudeaketa, beraz, zuzena zen.

**21. Ezgaitasun mugatzaileren bat eduki arren gizarte- nahiz lan-bizitza autonomoa egiten duten pertsona gazteentzako egoitza-baliabideak.**

Administrazio eskuduna: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua, Sustapen eta Etxebizitza Departamentua eta Iruñeko Udala.

Gaia: Gizarte gaiak. Ezgaitasuna.

Emaitza: Ondokoei buruzko informazioa eskatu zitzaion Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari, ezgaitasuna duten pertsona horientzako egoitza-baliabideen edo -zerbitzuen eskaintza (tutoretzapeko pisuak/funtzionalak) nahiz kolektibo horri zuzendutako alokairuko apartamentuen sustapena ezagutze aldera:

=> Ezgaitasuna duten pertsonentzat egun dauden tutoretzapeko/gainbegiratutako pisuen kopurua, Gizarte Zerbitzuen Zorroan lehen adierazitako prestazioei dagozkienak, Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak edo hark hitzartuak.

=> Pisu horietako bakoitzari dagokion tokien kopurua.

=> Okupazio-maila eta, kasua bada, itxaronzerrendan egon daitekeen pertsona kopurua.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari ondoko informazioa eskatu zitzaion:

=> Tutoretzapeko alokairuaren araubideko pisu edo apartamentuen kopurua, ezgaitasuna duten pertsonei zuzenduak, etxebizitzaren babes publikoari buruz arestian aipatutako legediak aipatzen dituen sustapenei dagozkienak –alegia, sustapen arruntetan sartutako erreserbez at–, ekimen publikoak nahiz pribatuak sustatuak izan.

=> Apartamentu horietako bakoitzari dagozkion tokiak, horien okupazio-maila eta, kasua bada, horietan sartzeko itxaronzerrendan egon daitezkeen pertsonak.

=> Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nahiz haren ente instrumentalek (VINSA) egindako gisa horretako sustapenen erreferentzia, arestiko paragrafoan adierazitako datu berberak emanez.

Iruñeko Udalari:

=> Ezgaitasuna duten pertsonentzat egun dauden tutoretzapeko/gainbegiratutako pisuak, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan aurreikusitakoen berdintsuak, Iruñeko Udalaren titulartasunekoak nahiz hark hitzartuak: pisuen kopurua, toki kopu-

rua, okupazio-maila eta itxaronzerrendan egon daitezkeen pertsonak.

=> Tutoretzapeko nahiz lagundutako pisu edo apartamentuak, ezgaitasuna duten pertsonei zuzenduak, Iruñeko Udalak sustatuak etxebizitzaren babes publikoari buruzko legedian xedatutakoaren esparruan (lehen aipatutako sustapen bereziei dagozkienak): pisuen kopurua, toki kopurua, okupazio-maila eta itxaronzerrendan egon daitezkeen pertsonak.

Eskatutako informazioari erreparatua, Nafarroako Arartekoak ondokoa iradoki zien ukitutako administrazio publikoei:

=> Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentuaren bitartez eta, beharrezkoa balitz, Iruñeko Udalarekin lankidetzan, azter dezala zenbat pisu gainbegiratu edo funtzional eta zenbat tutoretzapeko apartamentu dagoen baliagarri gaur egun ezgaitasuna duten pertsonentzat, gizarte zerbitzuen nahiz etxebizitzaren arloko legedian aurreikusitakoetatik, populazioaren sektore horretan egon daitekeen eskariaren aldean.

=> Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak gogoan har dezala egungo pisu gainbegiratu edo funtzionalen kopurua handitzeko aukera, eta saia dadila orobat asetzen % 33ko ezgaitasun-mailara iristen diren pertsonen eskaria, nahiz eta horiei ez zaien ezgaitasun-izaera aitortzen.

=> Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak azter dezala ezgaitasuna duten pertsonei berariaz zuzendutako tutoretzapeko apartamentuak sustatzeko aukera, edo, kasua bada, daudenak handitzekoa, eta orobat azter dezala sustapenak NASUVINSAren bitartez zuzenean egitearen egokitasuna.

=> Iruñeko Udalak, gizarte-laguntzaren eta etxebizitzaren arloan dituen eskumenak baliatuz, azter dezala gisa horretako baliabideak sortzeko edo sustatzeko aukera (pisu gainbegiratuak eta tutoretzapeko apartamentuak), egun dauden baliabideak osatze aldera.

**22. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege aurreproiektuari eginiko ekarpenak.**

Administrazio eskuduna: Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Emaitza: Departamentuari iradoki zitzaion aurreproiektuari gehi ziezaion auziak bide judizialetik kanpo konpontzeko tresna bat, eragingarria bihurtze aldera herritarrek Administrazioaren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea, eskubide hori aitortzeari uko egiten zaion kasuetarako.

Horretarako, ondokoa proposatu genion: administrazio-egintzei dagokienez egungo legeetan ezarritako berme administratibo eta judizialez gain, Nafarroako Arartekoren aurrean erreklamatzeko eskubidea izan dezatela herritarrek, baldin eta ebazpen baten bidez osorik edo hein batean eragozten bazaie informazio publikoa eskuratzeko eskubidea; hartara, erakunde honek babestu eginen luke, modu eraginkor eta independentean babestu ere, eskubide hori prozedura soil, azkar, aldebiko, berariazko eta doako bidez baliatu ahal izatea administrazio-errekurtsoaren ordez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 60. artikuluan eta Estatuko oinarrizko legedia horren korrelatiboan ezarritakoaren babesean.

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak ez zuen egindako iradokizun hori onartu; izan ere, haren ustez, berme hori aurreproiektuarekin oso-osorik bat etorri arren, proposamena sartu ala ez sartu erabakitzerakoan kontuan hartu behar da Nafarroako Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeko 18. ter artikuluan ageri dela jasota Nafarroako Arartekoaren erakundea. Departamentuak dioenez, artikulu horrek ezartzen du gehiengo osoz onetsi beharreko Foru Lege bat behar dela erakunde honen eskumenak, araubide juridikoa eta funtzionamendua arautzeko, eta baldintza horrek eragotzi eginen luke aurreproiektuak –Administrazioak informatu duenez gehiengo soilez onetsiko dena unea iristen denean– eskumen berriak ematea Nafarroako Arartekoari.

Halere, Departamentuak adierazi zuen Nafarroako Arartekoa espresuki aipatzeko asmoa duela, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bermerako bide judizialetik kanpoko mekanismo gisa, erakundea arautzen duen Foru Legerako bidaltze-oharra eginda.

**23. Ezgaitasuna duten neska-mutikoentzako haur-parkeak egokitzea.**

Nafarroako Arartekoak ofizioz abiarazitako hamar jarduketa egin zituen 2011n zehar, egiaztatze aldera ea ezgaitasuna duten neska-mutikoek baliatzeko moduko parkeak eta instalazioak dituzten 10.00 biztanletik gorako Nafarroako udalek, edo, bestela, udal horiek jarduketa zehatzik aurrei-

kusi ote duten, mugikortasun murriztua duten neska-mutikoak haur-parkeetan jolasten ahal daitezen.

Ofiziozko jarduketa horiek abiarazi ziren, hain zuzen ere, Egoitzetarako Aspace Nafarroa Fundazioko Ramón y Cajal zentroko haur talde baten gutun bat jaso genuelako gure bulegoan, zeinean “Imajina ezazu zure hiria” izeneko proiektua, hirietako irisgarritasuna hobetze aldera egin zutena, azaltzen baitziguten. Haien proiektuaren xedea zen Nafarroako herrietako haur-parkeak eta -instalazioak baliagarriak izan daitezen ezgaitasuna duten neska-mutikoentzat, halako moduan non haur guztiek mugarik gabe baliatu ahal izanen dituzten. Proiektuarekin batera informazioa igorri zuten, neska-mutiko guztiek berdintasun-baldintzetan eta ezgaitasunak eragindako mugarik gabe baliatu ahal izateko diseinatutako zabuei eta hauraisiarako beste elementu batzuei buruz.

Ekimen hori dela-eta, Nafarroako Arartekoak informazioa eskatu zien ondoko udalei:

- Antsoaingo Udala
- Barañaingo Udala.
- Burlatako Udala.
- Eguesibarko Udala.
- Lizarrako Udala.
- Iruñeko Udala.
- Tafallako Udala.
- Tuterako Udala.
- Atarrabiako Udala.
- Zizur Nagusiko Udala.

Aipatu udal horietako gehienek oso begi onez ikusi zuten ekimena.

Barañaingo, Eguesibarko eta Tuterako udalek jakinarazi zuten badituztela egokitutako zenbait zabu eta parke.

Antsoaingo, Burlatako, Lizarrako, Tafallako eta Atarrabiako udalek, berriz, beren herrietako zabuak eta parkeak arian-arian egokitzeko asmoa dutela adierazi zuten.

Iruñeko eta Zizur Nagusiko udalek ez dute ekimenari buruzko informaziorik igorri.

### 4.2. GAIEN ARABERAKO LABURPENA

Ofizioz abiarazitako jarduketak ondoko arloetakoak izan ziren (handitik txikira antolatuta):

– Gizarte gaiak: 15.
  – Ezgaitasuna: 11 (aurreko atalean aipatutakoetatik 21. eta 23. zenbakia daramaten jarduketak)
  – Adingabeak: 1 (17. jarduketa).
  – Menpekotasuna: 1 (1. jarduketa).
  – Familia: 1 (2. jarduketa).
  – Prestazioak: 1 (10. jarduketa).
– Osasuna: 4.
  – Osasun laguntza: 3 (3., 4., eta 18. jarduerak).
  – Osasun sistemaren erabiltzaileen eskubideak: 1 (5. jarduketa).
– Hezkuntza: 1.
  – Bekak eta laguntzak (9. jarduketa).
– Ogasuna: 2.
  – Tributuak ordaintzea: 2 (8. eta 20. jarduketak)
– Barne arloa: 1.
  – Komunikazioen interbentzioa (7. jarduketa).
– Ingurumena: 2.
  – Ingurumenaren babesa: 2 (6. eta 13. jarduketak)
– Trafikoa: 1.
  – Trafikoaren antolamendua (11. jarduketa).
– Etxebizitza: 2.
  – Gazteen emantzipazioko oinarrizko errenta: 1 (12. jarduketa).
  – Etxebizitza babestuen alokairua sustatzea: 1 (15. jarduketa).
– Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila: 1.
  – Etxebizitza ordainean ematea (14. jarduketa).
– Funtzio publikoa: 1
  – Oporrak edukitzeko eskubidea (19. jarduketa).
– Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan: 1.
  – Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege aurreproiekturako ekarpena (22. jarduketa).
– Komunikazioak: 1.
  – Telefono mugikorren fakturazioa (16. jarduera)

### 4.3. LABURPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARABERA

Honakoa da Arartekoak ofizioz abiarazitako jarduketen laburpena, Nafarroako administrazio publikoen arabera sailkatua:

**I. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:** Ofizioz abiarazitako 20 jarduketa.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua: 6.

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua. Justizia eta Barne arloa: 5.

Osasun Departamentua: 3.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua: 2.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 2.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentua: 2.

Hezkuntza Departamentua: 1.

**II. Udalak:** Ofizioz abiarazitako 12 jarduketa.

Antsoaingo Udala: 1.

Barañaingo Udala: 1.

Bulatako Udala: 1.

Eguesibarko Udala: 1.

Lizarrako Udala: 1.

Iruñeko Udala: 3.

Tafallako Udala: 1.

Tuterako Udala: 1.

Atarrabiako Udala: 1.

Zizur Nagusiko Udala: 1.

**III. Estatuko Administrazio Orokorra:** Ofizioz abiarazitako 3 jarduketa.

**IV. Errioxako Autonomia Erkidegoko Administrazioa:** ofizioz abiarazitako jarduketa bat.

### 4.4. NAFARROAKO HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA:

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko (aurrerantzean, 15/2005 Foru Legea) 14. artikuluak ezarri zuen Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratu behar duela, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela. Neurri horien artean dago haurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urteko txostenean.

Lege-aurreikuspen hori betetzeko, atal honetan arlo horri buruzko zenbait datu eta balorazio eskaintzen ditugu, betiere erreferentziatzat hartuta aipatu foru legean adierazitakoa, adingabearen babesaren arloko esku-hartze administratiboaren arloan dagoen arau nagusia delako.

#### 4.4.1. Egindako jarduketen azalpena eta ebaluazioa.

**A) Arau- eta plangintza-lana.**

Aurreko urteko txostenetan adierazi genuenez, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko Erregelamendua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bidez. Arau horrek legearen erregulazioa osatzen du zenbait alderdi garrantzitsutan; esate baterako: arloan esku hartzen duten langileen lanbide profil espezializatuak; Balorazio Batzordea; Administrazioak zenbat jarduera, baliabide eta produktutan izanen duen esku-hartzea; kautelazko neurriak; babesgabetasuneko egoerak; familiako babesa eta babes neurrien jarraipena; babes neurrien aldaketa eta iraungipena.

Hala eta guztiz ere, urteko txosten horietan adierazi genuen bezala, oraindik ere garatzeko daude 15/2005 Foru Legean jasotako alderdietako batzuk. Izan ere, arau horretan, 2010ean zenbait aldaketa egin dira azaroaren 8ko 18/2010 Foru Legearen bitartez, funtsean adopzioari dagokionez.

Horri dagokionez adierazi behar da une honetan izapidetzen ari dela Nafarroako Foru Komunitatean adopziorako prozedura administratiboa arautuko duen Foru Dekretua. Aurreko ekitaldian ere aipatu genuen izapidetze hori; hortaz, esparru horretan bizkor jardutea komeniko litzateke, adopzioaren arloko arau-esparrua osatzeko.

Bestalde, azaroaren 8ko 18/2010 Foru Legearen bidez Nafarroako Adingabearen Kontseilua sortu zen, haurren eta nerabeen sustapen, arreta eta babesaren arloan aholkularitza, parte-hartze eta kontsultarako eginkizunak dituen organo kolegiatu gisa. Adierazi denaren arabera, taxututa dago haren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua, zeina Nafarroako Adingabearen Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsi behar baitu. Halaber, komenigarria izanen litzateke albait azkarren onestea; izan ere, agorturik da 15/2005 Foru Legeko 111. artikuluak 18/2010 Foru Legeko testuaren arabera emandako bederatzi hilabeteko gehieneko epea.

Azkenik, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak adierazi duenaren arabera, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren

bidez onetsi zen Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren aldaketa prestatzen ari dira, adingabearen babesaren arloko prestazioei dagokienez.

Plangintza eta programazio jarduerari dagokionez, indarrean dira aurreko txostenetan aipatutako tresnak: Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2008-2012) eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa. Biek ala biek adingabeak babestearen arloko jarduketak, prestazioak eta zerbitzuak jasotzen dituzte.

Alderdi oso positibo gisa nabarmendu beharra dago ezen, programazioaren eta plangintzaren esparruan, adingabearen babesaren arloko jarduketa berriak sustatu direla 2011ren amaiera aldean, helburu orokor eta berariazkoak ezarrita. Azken horiek –alegia, izaera berariazkoa dutenak– hauexek dira: a) Nafarroako Foru Komunitatean adingabearen babesari eta sustapenari buruzko informazio-sare partekatua modernizatzea; b) Familia-harrera bultzatzea; c) Egoitza-harrera baliabide gisa espezializatzea; d) Premia bereziekiko neska-mutikoen adopziorako neurriak bultzatzea; e) Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesaren deskripzioa hobetzea; f) Babes- eta erreforma-neurrien pean dauden adingabeen irudi errealago eta ez hain desitxuratua sortzea; eta g) Baliabideak, profesionalak eta lan-ereduak espezializatzea.

Erakunde honen ustez, egokia da Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiko Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzuak helburu zehatzago eta berariazkoagoak programatzea izaera orokorreko plangintza-tresnen esparruan; helburu horiek urtero berrikus edo gaurkotu litezke, egoeraren bilakaeraren arabera eta hauteman daitezkeen beharrizan nagusien arabera. Horrenbestez, lan horretan jarraitzera animatzen dugu.

**B) Adingabeen eskubideen sustatzea eta zabaltzea.**

15/2005 Foru Legeak adingabeen eskubideen eta betebeharren taula bat ezartzen du eta haiek sustatu eta zabaltzea agintzen du.

Jarduketa honi dagokionez –horren norainokoa handitzat har daiteke–, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak dio 2011n diru-laguntzak eman dizkiela Nafarroako Foru Komunitatean adingabearen babesaren esparruan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateei, haien jarduerak, ekintzak eta programak sustatzeko.

Halaber, 2011ko abuztura bitarte, hastapeneko lanbide-kualifikazioko programak garatzeko diru-laguntza bat eman zitzaien izaera bereko zenbait entitateri, prestakuntza-hautu horren hartzaile adingabeek beren oinarrizko konpetentziak zabal ditzaten eta, hartara, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko eta, kasua bada, ikasketak beste irakaskuntza batzuetan jarraitzeko.

Bestalde, Estatuko Administrazioarekin lankidetzan, ikastaro bat antolatu eta koordinatu zen, jokabide-nahasmendua duten adingabeekiko ikastetxeetan esku hartzeari buruzkoa. Ikastaroa gizarte-zerbitzuetako eta esku-hartze sozialeko profesionalei zuzendua zen, ezagutzaren gaurkotzean lagun egite aldera eta baliatutako praktikei buruzko hausnarketa sustatze aldera.

Jarduera horiek –sektore horretan jarduten diren entitateen sustapena eta prestakuntza– positiboak dira, eta adingabeen eskubideak hedatzen eta, bereziki, sustatzen lagun dezakete inondik ere. Halere, aurreko urteko txostenetan adierazi izan dugunez, eta kontuan hartuta populazioaren sektore horrentzat zeinen zaila den hain zuzen ere bere eskubideak eta betebeharrak –banakakoak zein sozialak– ezagutzea, erakunde honek komenigarritzat jotzen du nabarmentzea adingabeen eskubideak zabaltzea ekintza koordinatuen bitartez –funtsean adingabearen arloko organo eskudunen eta hezkuntza administrazioaren arteko ekintza koordinatuen bitartez.

**C) Prebentzio jarduerak.**

Prebentzio jardueren funtsezko helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea.

Administrazioaren esparru honetako esku-hartzea –diru-laguntzak eta prestakuntza ematea–, zeinak eragin prebentiboa ere izan baitezake, beren jardunari jarraikiz adingabeak artatzen dituzten instantzien arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarritzen da funtsean, arestiko atalean adierazitakoa gorabehera. Honakoez ari gara, funtsean: hezkuntza-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak. Gauzak horrela, Haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua jarraitzen da aplikatzen. Eskuliburuan, Nafarroako Foru Komunitatean adingabeen babesari buruzko programak, baliabideak, prozedurak, kontzeptuak eta eskumen-esparruak jaso, bateratu eta azaltzen dira.

Hartara, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak adierazten duenaren arabera, prestakuntza-saioak egiten jarraitu dute, koordinazio-tresna hori behar bezala aplikatze aldera. Saioak ondokoei zuzendutakoak ziren: oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak, haurrak eta nerabeak artatzeko bitarteko ekipoak eta, oro har, haurrekin eta gazteekin lan egin eta

parte hartzea eskatu duten guztiak (osasun eta hezkuntza arloko profesionalak, haurrendako tratu oneko sareak).

Nafarroako Foru Komunitateko koordinazioari berariaz dagokionez, berriz, lan-esparru bat sortu dela adierazi digute; hartan, teknikariak eta zuzendaritzako kideak biltzen dira (Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria departamentuetako zerbitzuetakoak), organo horiek direlako adingabeekin harreman zuzen handiagoa dutenak.

Erakunde honen ustez, positiboa da egindako koordinazio-ahalegina, eta bide horretan lan egiten jarraitzera animatu nahi dugu, ezinbestekoa baita babesgabetasun egoerak behar bezala prebenitzeko.

Halere, erakunde honek berriz dio prebentzio neurriak areagotzea komeni dela, hain zuzen ere 15/2005 Foru Legeak lehentasunezkotzat jotakoak, adingabeengan eragina duten arazoek ez dezaten berekin ekar babes sistemak esku hartu behar izatea. Zehazki, arrazoizkoa bada ere azpimarra gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntzaren arloko profesionalen arteko koordinazioan jartzea, komenigarria litzateke, orobat, prebentzio-programak edo -ekintzak abiaraztea, 15/2005 Foru Legeko 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ondoko arloetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisialdia, animazioa, prestakuntza eta enplegua.

**D) Babes sistemako jarduerak.**

*a) Arrisku-egoerak.*

Babesgabetasuneko egoeren artean, arriskukoak dira intentsitate handiena edukitzen dutenak eta, horrenbestez, esku-hartze txikiagoa exijitzen dutenak. Jasotako informaziotik ondorioztatzen denez, 2011n, egoera horiei erantzuteko baliatu ziren eguneko zentroak (28 adingabe), hezkuntzaren arloan esku hartzeko programak (132 adingabe), behaketa eta harrera zentroak (194 adingabe) eta laguntza ekonomikoak (110 adingabe).

Administrazioak emandako datuen arabera, nahiz eta egoera horiei erantzuteko erabilitako baliabideak edo programak guztiz berdinak ez izan, 2010eko datuekin alderatuta ikus daiteke % 10 inguru igo dela arrisku egoeran dauden adingabeen kopurua. Izan ere, 391 adingabek jaso zuten neurriren bat 2011n, aurreko urteko 353 adingabeen aldean.

Igoera horrek ez du zertan izan datu negatibo bat. Izan ere, izaera horretako egoeretako esku-hartze goiztiarra –intentsitate txikiagokoa adingabearen babesgabetasunari dagokionez– onuragarria izan daiteke eta babesgabetasun egoerak gertatzea ekiditeko balio dezake.

Hala eta guztiz ere, datu horrek orobat erakusten du komenigarria dela arrisku egoerak detektatzeko dauden gailuak eta tresnak ahal den neurrian bultzatzea. Halatan, azken urteetako txostenetan nahiz Nafarroako Parlamentuan oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko txosten berezia aurkeztu zuenean erakunde honek adierazi izan duen bezala, ematen du komenigarria dela esku-hartze jarduketak osatzea, esparru horretan garrantzitsua izan baitaiteke lurralde osoan modu orokortuan ezartzea “bitarteko” ekipoak, eta, zehazki, “Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Ekipoak” izenekoak.

*b) Babesgabetasun egoerak.*

Babesgabetasuna intentsitate handiagoaz agertzen den eta adingabearen zaintza hartu beharra dakarten babesgabetasun egoerak dira. 2011n, 33 adingabe babesgabetasun egoeran deklaratu ziren. Kopuru hori 2010ekoa baino pixka bat txikiagoa da (44 adingabe), eta 2009koa baino zertxobait handiagoa (29 adingabe). Berez, eta erreparoak erreparo, positibotzat hartu beharra dago babesgabetasun egoera aurreko urtean baino kasu gutxiagotan deklaratu behar izatea. Adierazi dugun bezala, komenigarria izanen litzateke adingabeari laguntzeko zerbitzuen esku-hartzea, gertatzekotan, babesgabetasunaren faserik goiztiarrenean gertatzea; alegia, arrisku-fasean gertatzea.

Bestalde, 7 adingaberen babesgabetasun egoeraren deklarazioa deuseztatu zen. Kopuru hori, aurreko urtekoa baino handiagoa izan arren (4 kasu), ez da handia. Igoera hori gorabehera, erakunde honek berriz azpimarratu behar du Administrazio Publikoak ahaleginak biderkatu behar dituela, adingabeak beren jatorrizko familietara itzultzeko baldintzak eman daitezen. Halatan, gogorarazi egin beharra dago horixe dela babesgabetasunaren azken helburua, eta horrek berekin dakarrela beren adingabeak, arrazoiak arrazoi, artatzen ez dituzten edo artatu nahi ez dituzten familiekiko esku-hartzea bultzatzeko betebeharra. Erakunde hau jabetzen da helburu hori ezin dela kasu guztietan lortu; halere, gogorarazi behar da xede hori lortzeko lan egin behar dela, ahal den neurrian kenduz babesgabetasuna pairatzen duten familiek laguntza eman dezaten eragozten duten oztopoak; hori, jakina, ez da eragozpen izan behar adingabearen interesak lehenesteko kasu guzti-guztietan.

Arestian nahiz erakunde honen beste txosten batzuetan adierazitakoarekin bat, ematen du

komenigarria dela indartzea prebentzioa, arrisku-egoeren detekzioa eta familiekiko esku-hartze soziala, ahal den neurrian ekidite aldera ingurua-barren eraginez adingabeen babesgabetasuna deklaratu beharra, eta, kasua bada, babesgabetasun egoera deklaratuz gero, itzulera bideragarri egitea.

*c) Familiei laguntzeko jarduerak.*

Puntu honetan, Administrazioaren babesak jaso dituzten familiak aipatzen dira (babes teknikoa nahiz ekonomikoa), alde batera utzita zein jarduera mota izan den. Administrazioaren babes horren helburua izan da bereiztea saihestea, eta bereizte kasuetan, adingabearen itzultzea bilatzea. Datua aipagarria da, zeren eta ongi islatzen baitu zenbat familiak izan dezaketen Administrazioaren laguntzaren beharra, eta, horrenbestez, zenbatek dituzten zailtasunak, gutxi-asko trinkoak eta era askotakoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak jakinarazi digunaren arabera, erreferentziako ekitaldian 1.062 familia izan ziren era bateko edo besteko laguntza jaso zutenak (Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Ekipoen zerbitzuak jasotzen dituzten familiak; diru-prestazioak jaso zituzten familiak; Familietan Esku-hartzeko Programa erabili zuten familiak; seme-alabak eguneko zentroetara joaten diren, harrera-familia batekin bizi diren edo egoitza-zentro batean dauden familiak; Behaketa- eta Harrera-Zentroak esku hartu duen familiak; topaguneetan laguntza jasotzen duten familiak...).

Datu horrek, aurreko urtekoa baino txikiagoa izanagatik, agerian uzten du, halere, oraindik ere nabarmena dela arrazoi desberdinengatik, beren adingabeen egoerarengatik, laguntza publikoa behar duten familia guneen kopurua (babesgabetasunarengatik nahiz babesgabe gelditzeko arriskuarengatik). Datu horrek justifikatzen du botere publikoek ahalegin bat egin dezatela arlo horretan diharduten agenteei (Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua, oinarrizko gizarte zerbitzuak, laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko entitateak eta abar) behar dituzten baliabideak emateko –pertsonalak zein materialak– garrantzi sozial handiko beren lan honetan arrakasta izan dezaten.

*d) Zaintza egoeran dauden adingabeak.*

Zaintza da babesgabetasun egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurri bat, eta familia-nahiz egoitza-harreraren figuraren bitartez gauzatzen da. 2011n 492 adingabe egon dira egoera horretan; kopurua aurreko urtekoa baino handiagoa da (458 adingabe), eta azken urteotako goranzko joera berresten du (452 adingabe 2009an).

*e) Tutoretzapeko adingabeak.*

Tutoretza, administratiboa nahiz arrunta, legeak ezarritako beste babes-neurri bat da. 2011ren amaiera aldean, 214 adingabe zeuden Administrazioaren tutoretzapean; kopuru hori azken ekitaldietakoaren bertsua da (2009an, 220; 2010ean, 202).

*f) Harrera indardun eta formalizatuak.*

Babesgabetasun egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza harreraren bidez formalizatzen dira. 2011n, 128 adingaberen harrera formalizatu zen (2010ean baino 10 gehiago).

Ondoren adierazitakoak dira harreran dauden adingabeen guztizko kopuruak:

– Harrera egoeran dauden adingabeen kopurua, guztira: 492 (463, 2010ean).

– Familia-harrerak: 250 adingabe (247, 2010ean).

– Adingabeak harrera etxeetan hartzea: 242 adingabe (216, 2010ean).

– Familia zabalean eta beste familia batzuetan gauzaturiko harrerak: 162 (169, 2010ean) eta 88 adingabe (78, 2010ean), hurrenez hurren.

Horri dagokionez, 15/2005 Foru Legeak familia harrerari ematen dio lehentasuna egoitzako harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen zaio adingabeak familia zabalean hartzeko aukerari, beste familia batzuetako harreraren gainetik, adingabea bere eremu naturaletik gertuen egon dadin printzipio orokor gisa.

Iazko urteko txostenean, erakunde hau kezkatuta azaldu zen, egoitza-harreren eta familia-harreren artean hautematen zen erlazioa dela-eta. Halatan, txostenean adierazi genuen 2009an hazi egin zela egoitza-harreren kopurua, eta jaitsi, berriz, familia-harrerena. Bestalde, batzuen eta besteen arteko erlazioa 2010ean berdintsu mantentzen zela adierazi genuen, baina urte horretakoak formalizatu zirenetatik gehien-gehienak egoitza-harrerak zirela –instituzionalak, alegia–, eta hori ez dela desiragarriena.

2011n, ikus daitekeenez, aurreko urtearekin alderatuta, familia-harrerak hiru gehiago dira, baina kopuru hori 26raino igotzen da egoitza-harreren kasuan. Eta 128 harrera berrietatik 90 lehen moldekoak dira, eta 38 baino ez dira bigarren moldekoak. Finean, berriro ikus daiteke egoitza-harreren pisu erlatiboa igo dela. Datu hori

negatibotzat hartu beharra dago, aurreko txostenetan adierazitako kezka berresten duelako.

Horrenbestez, beste behin adierazi beharra dago komenigarria dela neurriak ezartzea familia-harreraren modalitatea errazteko, ahal den guztian adingabeen instituzionalizatzea saihestuz; horretarako, Administrazio Publikoaren ikuspegitik, familia hartzaileentzako (egun daudenak zein etorkizunean ezar litezkeenak) babesa eta pizgarriak (zentzu zabalean uler bedi) areagotu beharra dago. Halatan, berriz era adierazi beharra dago ezen, berriki, Senatuak, "Adopzio nazionalaren eta horrekin lotutako beste gai batzuen inguruko arazoak aztertzeko batzorde bereziaren" txosten batean –2010aren amaieran argitaratu zen–, azpimarratu duela egoitza-harrera, nolanahi ere, subsidiarioa izanen dela, eta proposatu du adingabe txikienentzat figura hori kentzea, halako moduz non neurria eraginkorra izanen baita, lehenengo une batean, 0-3 urteko tartean, eta arrazoizko epe batean, sei urtera bitarteko tartean. Ematen du bide horretan sakondu beharra dagoela; izan ere, erakunde hau ohartzen da helburu hori lortzea ez dagoela soilik Administrazioaren borondatearen mende.

Familia-harreren esparruan, datuek erakusten dute familia arrotzean egindakoen kopurua igo dela (aurreko urtean baino 10 gehiago), eta familia zabalean egindakoak, berriz, jaitsi direla (aurreko urtean baino 7 gutxiago).

Oro har, familia arrotzean egindako harreren kopurua askoz ere handiagoa da oraindik (ia bikoitza), eta hori positibotzat jo behar da, legegileak adierazitako nahiarekin bat datorrelako. Halere, ezin da alde batera utzi familia arrotzean egindakoen pisu erlatiboa iazkoa baino handiago dela, eta datu horrek balio dezake joera aldaketa bati buruz ohartarazteko; erakunde honek, beraz, iradoki nahi du bultza daitezela, ahal den neurrian, harreraren neurria behar duten adingabeen familia zabalari laguntzeko jarduketak eta esku-hartzea.

*g) Nazioko eta nazioarteko adopzioak eta egokitasun-deklarazioak.*

2011n, nazioko 6 adopzio eta nazioarteko 64 adopzio gauzatu ziren. Halaber, egokitasuneko 93 ziurtagiri eman ziren (horren barnean, eskabide berriak eta luzapenak daude). Konparazioz, 2010ean, kopuruak honakoak izan ziren: Nazioko 4 adopzio, nazioarteko 54 adopzio eta egokitasuneko 137 deklarazio.

Iazko urteko txostenean adierazi genuen legez, nazioarteko adopzioari eta egokitasuneko deklarazioei dagokienez, azaroaren 8ko 12/2010 Legeak nabarmentzeko moduko berrikuntzak sartu zituen, prozedurak malgutzeko eta arintzeko lehentasunezko helburuarekin. Horrenbestez, berriz ere eskatzen dugu behar diren neurriak har daitezen xede horretarako eta foru legearen edukia osa dadin, behar den erregelamendu-garapenaren bitartez, zeina onetsi gabe baitago.

*h) Gatazka egoeran dauden adingabeak.*

Puntu honetan babes sisteman egon eta ezegokitzapen larriko egoeran daudelako beren buruei edo besteei kalte egiteko arriskuan izan daitezkeen adingabeak aipatzen ditugu. 2011n, 371 adingabe zeuden egoera horretan. 198 izan ziren talde hori osatzera sartu zirenak. 2010ekoak baino askoz ere handiagoa da kopurua: 236 adingabe gizarte-gatazka egoeran, eta horietako 42 kasu berriak ziren.

Horrek ez du inolaz ere adierazi nahi Administrazio publikoaren jokabidearen kritika bat egiten ari garenik. Datua kezkagarria da gizartearen ikuspuntutik, eta, aurreko txostenetan adierazitakoarekin bat, azpimarratu behar dugu ahaleginak biderkatu beharra dagoela arazo hau prebentzio-, hezkuntza-, kultura- eta gizarteratze-neurrien bidez bukarazteko. Halaber, erakunde honek uste du beharrezkoa dela gatazka egoera honetan dauden adingabeekiko familiei laguntza berezia ematea, egoera horrek eragindako arazo larriak izaten baitituzte sarritan.

*i) Autonomia pertsonaleko programa.*

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutakoak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak emandako datuen arabera, arlo horretako 5 laguntza-espediente ireki dira 2011n; alegia, aurreko urtean baino askoz ere gutxiago, orduan 22 izan baitziren.

Gure iradokizuna da arlo horretako jarduerak indar daitezela, neurri ekonomiko eta teknikoekin. Eta erakunde honek lehenago ere behin eta berriro nabarmendu du komenigarria dela emantzipatze programak nahiz helduarora iragatekoak indartzea.

**E) Erreforma-sistemako jarduerak.**

Erreforma-sistema izenekoari dagokionez, 262 adingabe egon dira horren barruan 2011n, neurri judizialak bai ingurune irekian bai internamendu-araubidean betetzen.

Kopurua 2010ekoa baino handiagoa denez (217 adingabe), beste behin esan beharra dago ahaleginak biderkatu behar direla gatazka eta zehatzeko moduko jokabideak ekar ditzaketen

egoerei aurrea hartzeko eginkizunetan eta hautemate-eginkizunetan, eta inplikatutako instantzien artean (familiaren arloa, arlo soziala eta hezkuntzaren arloa, batez ere) jarduerak koordinatu behar direla.

Halere, positibotzat har daiteke internamendu-araubideko "alten" kopurua (14) 2010ekoa baino zertxobait txikiagoa izatea (45), hori delako murrizketa handiena dakarrena eta jarrera larrienei dagokiena; hau da, azken urteotan arlo horretan ikusten zen joera hautsi da.

### 4.4.2. Azken lau urteotako bilakaeraren laburpen-taula

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---|---|---|---|---|
| **Arrisku-egoerak** | 144 | 386* | 353 | 391 |
| **Babesgabetasun-egoerak** | 20 | 29 | 44 | 33 |
| **Laguntza jaso zuten familiak** | 1847 | 1908 | 1952 | 1062 |
| **Zaintza egoeran dauden adingabeak** | 442 | 452 | 458 | 492 |
| **Tutoretzapeko adingabeak** | 207 | 220 | 202 | 214 |
| **Harreran dauden adingabeak** | 464 | 452 | 463 | 492 |
| **Formalizatutako harrerak** | 24 | 155 | 118 | 128 |
| **Familia-harrerak** | 267 | 242 | 247 | 250 |
| **Egoitza-harrerak** | 197 | 210 | 216 | 242 |
| **Familia zabaleko harrerak** | 183 | 164 | 169 | 162 |
| **Familia arrotzeko harrerak** | 84 | 78 | 78 | 88 |
| **Nazioko adopzioak** | 4 | 9 | 4 | 6 |
| **Nazioarteko adopzioak** | 74 | 65 | 54 | 64 |
| **Egokitasun ziurtagiriak** | 130 | 128 | 137 | 93 |
| **Gatazka sozialen bat duten adingabeak** | 217 | 328 | 236 | 371 |
| **Autonomia pertsonaleko laguntzak** | 62 | 59 | 22 | 5 |
| **Erreforma egoeran dauden adingabeak.** | 335 | 313 | 217 | 262 |
| **Internamendu-araubideko alten kopurua** | 13 | 23 | 45 | 14 |

*(*) Urte horretatik aitzina, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Ekipoen bidez eginiko esku-hartzeak ere jasotzen dira.*

Ikus daitekeenez, ondokoa ondorioztatzen da azken lau urteotako bilakaeraren alderaketatik :

– Egonkortu egin dira zenbait kopuru; esate baterako, arrisku egoeran dauden adingabeak, babesgabetasun egoeran daudenak edo zaintzapean daudenak (halere, kasu honetan goranzko joera ikusten da azken urtean), tutoretzapeko adingabeak edo harreran daudenak (kasu horretan ere, goranzko joera ikus daiteke azken urtean).

– Gatazka egoeran dauden adingabeen kopurua igo da.

– Jaitsi egin da erreforma-sistemako adingabeen kopurua eta, zehazki, internamendu-araubidekoena.

– Jaitsi egin dira nazioko nahiz nazioarteko adopzioak eta egokitasun ziurtagiriak, krisi ekonomikoaren eraginez beharbada.

#### 4.4.3. Iradokizunak

Aurreko guztia laburbilduz, erakunde honen ustez, oso positiboa da adingabeen benetako babesari eta laguntzari dagokienez Nafarroan egiten den lana, bai gizarte-politikaren arloko eskumena duen Departamentuak egiten duena, bai laguntza erabakigarria ematen duten gizarte-erakundeek egiten dutena. Halere, neska-mutikoen eta nerabeen eskubideen babesa hobetzeko eta zerbitzu publikoak hobetzeko eginkizuna duen aldetik, ondoko iradokizunak egin nahi dizkio

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari:

1) Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena osatzea, bereziki adopzioari buruzko administrazio-prozedurei dagokienez.

2) Adingabeei babesa ematearen arloan diharduten agenteei (Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua, oinarrizko gizarte zerbitzuak, laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko entitateak eta abar) behar dituzten baliabideak ematea (giza-baliabideak, baliabide materialak edo baliabide teknikoak, kasuaren arabera), esleituta dauzkaten eginkizunei behar den bezala ekin ahal izateko.

Halatan, egin behar duten lan-mailari erreparatuta, gure iradokizuna da manten daitezela egungo zuzkidurak bederen, eta, ahal baldin bada, areagotu daitezela, defizit publikoa murriztu beharrak eragindako egoeraz jabetzen garen arren.

3) Programazio-lanarekin jarraitzea izaera orokorreko plangintza-tresna estrategikoen esparruan, eta helburu zehatzago eta berariazkoagoak ezartzea, urtero edo maizago eginez berrikusketak edo gaurkotzeak, egoeraren bilakaerari nahiz unean-unean detektatzen ahal diren beharrizanei edo defizitei erreparatuta.

4) Adingabeen eskubideak eta betebeharrak hedatzeko ekintzak edo programa zuzenak, adingabeei berariaz zuzenduak, bultzatzea, adingabearen babesaren arloko organo eskudunen eta hezkuntza administrazioaren arteko ekintza koordinatuen bidez.

5) Adingabeak artatzen dituzten administrazio-organoen arteko koordinazio-neurriak hartzen jarraitzea, prebentzio neurriak, zeinak legearen arabera lehentasunezkoak baitira, bultzatzeko.

Hori guztia ez da eragozpen izanen prebentzio programak edo ekintzak ere egiteko ondoko esparruetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisia eta animazioa, eta prestakuntza eta enplegua.

6) Arrisku-egoerak detektatzeko gailuak eta tresnak indartzea, eta, zehazki, Nafarroan “bitarteko” ekipoen ezarpena –Haur eta Nerabeentzako Arreta Taldeak edo gisakoak– orokortzea, ahal den neurrian ekidite aldera inguruabarrek ezartzea adingabeen babesgabetasunaren gaineko deklarazioa egin beharra.

7) Aztertzea zerk eragozten edo zailtzen duen babesgabetasun-egoera gehiago ez deuseztatzea, eta, betiere, egoera horretan deklaratutako adingabeen familientzako laguntza eta esku-hartzea bultzatzea, ahal den neurrian itzulera bideragarria egiteko baldintza zehatzak sortzen saiatuz.

8) Egoitza- edo erakunde-harreraren pisu erlatiboa igotzea dakarten faktoreak aztertzea, eta neurriak hartzea familia-harreraren modalitatea sustatzeko, familia hartzaileentzako –bai gaur eguneko bai etorkizuneko familia hartzaileentzako– era guztietako laguntza eta pizgarriak areagotuz (teknikoak, ekonomikoak, eta abar).

Zehazki, egoitza-harrera desagerrarazteko neurriak hartzea, sei urtetik beheitiko neska-mutikoen kasuan.

9) Harrera-neurria behar duten adingabeen familia zabalari laguntzeko jarduketak eta esku-hartzea bultzatzea, eta modalitate hori areagotzen saiatzea, neska-mutikoak beren ingurune naturaletik gertuen egon daitezen.

10) Adopzio prozedurak eta egokitasun deklarazioak malgutzeko eta bizkortzeko neurriak hartu beharra azpimarratzea.

11) Ahaleginak biderkatzea gizarte-gatazkako egoerak minimizatze aldera, neurriak hartuz prebentzioaren, hezkuntzaren, kulturaren eta gizarteratzearen arloetan. Berebat, laguntza eta babes berezia ematea gatazka-egoeran dauden adingabeak dituzten familiei.

12) Autonomia pertsonaleko programak indartzea, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta, neurri judizial edo administratiboren bat jaso duten nerabeek helduarorako iraganbide egokia eduki ahal izan dezaten.

13) Erreforma-sistemari atxikitako adingabeen kopurua areagotzea dakarten arrazoiak aztertzea, eta azpimarra jartzea jokabide zigorgarria ekar dezaketen egoeren prebentzioan eta detekzioan, inplikatutako instantzien arteko jarduketak (familia, gizarte, hezkuntza, osasun eta bestelako jarduketak) koordinatuz.

**4.4.4. Nafarroako Arartekoak ofizioz abiarazitako jarduketa, Nafarroan dauden familia-topaguneak direla eta.**

Nafarroako Arartekoak ofizioz abiarazitako jarduketa bat egin zuen 2011n zehar, Nafarroan dauden familia-topaguneen funtzionamendua egiaztatze aldera.

Hartara, ondoko datuak eskatu zitzaizkion Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari 2011ko azaroaren 11n:

=> Nafarroan dauden familia-topaguneen kopurua.

=> Nafarroan dauden familia-topaguneen mendekotasun organikoa eta funtzionala.

=> Nafarroan dauden familia-topagune bakoitzetik urtero igarotzen diren haurren kopurua: 0 eta 2 urte bitartekoak, 3 eta 11 urte bitartekoak eta 12 eta 18 urte bitartekoak.

=> Nor edo nortzuk ari diren bideratzen familia-topaguneetara 2010eko espedienteak.

=> Tutoretzapeko bisitetan eta bisita irekietan familia-topaguneetan aurkitzen diren haurren kopurua.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak ondoko informazioa igorri zuen 2011ko abenduaren 28an:

1. Nafarroan 3 familia-topagune daude; hauexek, hain zuzen ere:

   1. Arrotxapea (Iruña), 2002tik aitzina funtzionatzen ari dena.

   2. Mendebaldea (Iruña), 2006tik aitzina funtzionatzen ari dena.

   3. Tutera, 2008tik aitzina funtzionatzen ari dena.

Familia-topagune horiek Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren menpe daude; zehazki, Familientzako Politiken Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendariordetzaren menpe. Institutu hori erakunde autonomo bat da; alegia, administrazio publiko berezi bat, Nafarroako Gobernuak sortua eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari atxikia, eta ondoko eginkizunak ditu: familiari lotutakoak, haurren eta nerabeen babesa, berdintasuna, eta abar. Haren eginkizun guztien administrazio-tutoretza, berriz, Departamentuari dagokio.

Erakunde autonomoak, Nafarroako administrazio izaerako foru legediarekin bat, zeharkako kudeaketaren modalitate bidez esleitu zuen hiru topaguneen kudeaketa, eta, halatan, irabazi asmorik gabeko “Xilema” entitateari esleitu zion 2011ko urtarrilean.

2. Hona, xehakaturik, Nafarroan dauden topaguneetako bakoitzetik urtero igaro diren neska-mutikoen kopurua (0 eta 2 urte bitartekoak, 3 eta 11 urte bitartekoak eta 12 eta 18 urte bitartekoak):

| **Adin tarteak** | **Erabiltzaileak TUTERA** | **Erabiltzaileak MENDEBALDEA** | **Erabiltzaileak ARROTXAPEA** |
|---|---|---|---|
| 0-2 | 2 | 11 | 15 |
| 3-11 | 22 | 94 | 72 |
| 12-18 | 5 | 33 | 51 |

Neska-mutikoen kopurua, guztira: 305

3. Ondoko erakunde publikoek bideratu dituzte 2010eko espedienteak familia-topaguneetara:

| **Organoa** | | |
|---|---|---|
| Gizarte Politikako Departamentuaren adingabeen atala | 55 | % 24 |
| Iruñeko 3. familia-epaitegia. | 59 | % 25,76 |
| Iruñeko 8. familia-epaitegia. | 23 | % 10,04 |
| Iruñeko Emakumearen aurkako Indarkeriako Epaitegia | 48 | % 20,96 |
| Lizarrako epaitegiak | 6 | % 2,62 |
| Tafallako epaitegiak | 6 | % 2,62 |
| Agoizko epaitegiak | 9 | % 3,93 |
| Tuterako epaitegiak | 12 | % 5,24 |
| Bestelakoak | 11 | % 4,80 |
| **GUZTIRA** | **229** | **% 100** |

4. Familia-topaguneetan aurkitzen diren neska-mutikoen kopuruari eta bisita-motei dagokienez, honela xehakatzen dira hiru familia-topaguneetako 2010eko datuak:

   1. Gainbegiratutako bisitak: 88 familia.
   2. Bisita erdi-gainbegiratuak: 8 familia.
   3. Haurrak utzi eta hartzea: 133 familia.

| **BISITA MOTA** | Adingabeak TUTERA | Adingabeak MENDEBALDEA | Adingabeak ARROTXAPEA |
|---|---|---|---|
| Gainbegiratuak | 13 | 42 | 56 |
| Erdi-gainbegiratuak | 0 | 5 | 3 |
| Haurrak utzi eta hartzea: | 16 | 91 | 79 |

## V. KAPITULUA. HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO EGINIKO PROPOSAMENAK

### 5.1. HERRITARREN PROPOSAMENAK

Nafarroako Arartekoak, 2008tik, sustatzen du herritarrek parte har dezatela zerbitzu publikoetan –foru erakunde honen helburuetako bat baita hori– eta haiek bultzatzen ditu zerbitzu horiek hobetzeko proposamenak aurkeztera.

Horrela, 2008tik herritarrek 188 hobekuntza-proposamen aurkeztu dituzte; horietatik, 28 proposamen 2011. urteari dagozkio.

Aurkeztutako proposamenak administrazio publiko eskudunari igortzen dizkio erakundeak, eta ahal den neurrian, haren aurrean defendatzen ditu; bestela, Estatuaren eskumenekoak badira, Gorte Nagusietako arartekoari igortzen dizkio.

2011ko proposamenak honako gaiei buruzkoak izan dira, kopuruaren arabera handitik txikira ordenatuta:

| Arloak | Proposamen Kopurua |
|---|---|
| Hezkuntza | 8 |
| Etxebizitza | 6 |
| Funtzio publikoa | 5 |
| Gizarte gaiak | 2 |
| Osasuna | 2 |
| Ogasuna | 2 |
| Kontsumoa | 1 |
| Komunikazioa | 1 |
| Zerbitzu publikoak | 1 |
| **Guztira** | **28** |

A) Azaldutako datuetatik ondorioztatzen denez, **hezkuntzaren** arlokoak izan dira ugarienak, beste behin. Jasotako proposamenetan honakoak eskatu ziren:

• Behar diren neurriak hartzea Nafarroako Gobernuaren Dantza Eskolan ematen diren dantza ikasketen ezaugarriek eta antolamenduek beraiekin ekar dezaten dantzako irakaskuntza profesionalei dagokien titulu ofiziala lortzea.

• Funts publikoekin ordaintzen diren haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak eskolaratzeko onarpen-irizpideak aldatzea; zehazki, helbidearen posta-kodea ikastetxeko posta-kodearekin bat etortzeari buruzko irizpide osagarriari dagokionez.

• Irakaskuntza ertainetarako eta unibertsitate-ikasketetarako beken deialdi orokorrari dagokionez:

=> Errenta-tarte gehiago ezartzea, halako moduz non jarraitutasun bat gertatuko den beken progresioan, eta gaur egun errenta-mugak oso gutxirengatik gainditzen duten pertsonek laguntzaren bat hartu ahalko duten beren seme-alaben ikasketen matrikula-gastuak ordaintzeko, ikasketa horiek Nafarroako Unibertsitatean egin behar dituztenean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen ez direlako.

=> Beken onuradunen argitalpena egitea Foru Komunitateko Administrazioaren iragarki-oholetan ez ezik, Nafarroako Gobernuaren webgunean (w) ere.

=> Urtero beketarako esleitzen den aurrekontuaren guztizkoa exekutatzea.

=> Beka kopurua ikasketa-planak dituen ikasmailen kopuruarekin berdintzeko murriztapena kentzea.

=> Bekaren zenbatekotik ez deskontatzea ohorezko matrikulengatiko eta aprobetxamendu onarengatiko hobariak, ez eta bestelako deskontu eta hobariak ere. **Administrazioak onartua.**

=> Titulazio bikoitzetarako beka eman dadin baimentzea.

=> Nota onengatiko eta aprobetxamendu onarengatiko pizgarri positiboak emateko sistema bat ezartzea. **Administrazioak onartua.**

=> Beken zenbatekoa eta beken baldintzetan ageri diren gainerako diru-aldagaiak determina-

tzen duten errenta-tarteen deflaktazioa urtero egitea.

=> Familiaren errentaren kalkulurako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren oinarria erabiltzea, kanpoko errentak kontuan hartu gabe. (PFEZaren deklarazioaren 550 laukitxoa).

=> Landa-ondarea bazterketarako arrazoia ez izatea, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan familia-unitateko edozein kideren izenean inskribatuta dagoen nekazaritza ustiategi bati atxikita daudenean.

=> Hiri ondarearen maila 90.000 eurotan doitzea, ohiko etxebizitza eta hari erantsitakoak kanpo utzita, eta ondorio horietarako ez kontatzea enpresa-jarduera bati, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako jarduera bati, merkataritza jarduera bati edo lanbide jarduera bati atxikitako hiri ondasunak, familia-unitateren batenak direnak.

=> Beketatik baztertzeko irizpideetatik kentzea merkataritza-jardueren, lanbide-jardueren, autonomoen jardueren eta nekazari eta abeltzainen jardueren negozio-zifra.

=> Konpentsatzeko irizpideak ezartzea familia-ondarearen ondoriozko irizpide baztertzaileetarako eta negozioen urteko bolumenerako, halako moduz non, horiek guztiak ponderatuko baitira interesdunaren benetako gaitasun ekonomikoa baloratzeko.

• Neurriak ezartzea ikasleek beren etxeetan egin behar izaten dituzten etxeko lanak direla eta, eskolako bizitza eta familiako bizitza bateragarri egin ahal izateko.

• Familien tarifak ez handitzea 2011/2012 ikasturterako Hezkuntza Departamentuarekiko hitzarmenen bitartez finantzaturiko udal titularitateko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan.

• Haur hezkuntzako lehenengo zikloaren kudeaketa hobetzea eta behar diren neurriak hartzea ziklo horretako tokien eskaintza eta eskaria doitzeko. **Administrazioak onartua.**

• Azterlan bat egin dezala, non 0-3 ureko zikloan hizkuntza-eredu desberdinetan dagoen eskaintza eta eskaria alderatuko diren, eta lortutako emaitzaren arabera, eskola-postu publikoen eskaintza egin dezala, eredu batean zein bestean.

B) **Etxebizitzaren** arloan, proposamenetan honakoak planteatu ziren:

• Etxebizitzaren beharra baloratzearen ondorioetarako, familia unitateko kide gisa kontatzea ekonomikoki gurasoen menpe dauden seme-alaba adindunak, haiekin batera familiaren etxebizitzan bizi direnak.

• Berraztertzea babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak arautzen dituen araudia, halako moduz non ez diren gutxieneko diru-sarrera batzuk exijituko –3.000 euro errentamendu araubidean babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko, erosteko ahalmenarekin nahiz gabe; 12.000 euro, etxebizitzak jabetzan hartzeko; eta 15.000 euro, prezio tasatuko etxebizitzak lortzeko–.

• Urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan ezarritako irizpideak –etxebizitza batek, desegokitzat jotzeko, gutxienez ere eduki behar dituen metro koadroak– aplikatzea martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuak indarra hartu aurretik familia unitateko kide berrien jaiotza itxaroten ari ziren familiei.

• Honako kasuan berandutza-interesa ez aplikatzea jasotako laguntzen zati proportzionala itzultzen den kasuetan, orobat, ezkontza baten banaketaren edo dibortzioaren ondorioz edo bikote egonkor bat bereiztearen ondorioz, etxebizitza titularkide bati esleitzen bazaio etxebizitzaren edo zaharberritze babestuko obraren behin betiko kalifikaziotik hasita bost urte baino lehenago.

• Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak babes ofizialeko etxebizitza bat okupatzeko betebeharra salbuesteko kasuak eta baldintzak arau bidez garatzea, bereziki erreparatuz adjudikazio-hartzaileen inguruabar familiarrei eta pertsonalei. **Administrazioak onartua.**

• Pertsona bananduak edo dibortziatuak izan eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako berariazko laguntzak ezartzea alokairu araubidean babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko.

C) Honakoak izan ziren **funtzio publikoaren** arloan aurkeztutako proposamenak:

• Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko gehieneko adin-muga kentzea.

• Iruñeko Udaleko Hirigintzako Gerentzian behin-behineko langileak kontratatzean eta haietarako lanpostuak egotean oinarritutako behin-behinekotasuna kentzea.

• Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko administrari laguntzailea izateko lanpostuen deialdietan lanbide heziketako berariazko titulua eskatzea.

• Hezkuntza Departamentuak prozedura baterako dei egitea, honako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak hartu ahal ditzaten, dauden kidegoaren barruan: Bigarren Hezkuntzako Kate-

dradunen Kidegoa; Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak; Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradunak eta Irakasleak; Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradunak eta irakasleak eta Are Plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko Maisu-maistrak.

• Nafarroako Polizia Kidegoetako kideei kentzea zerbitzu efektiboko zortzi urte betetzeko exijentzia, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan sartzeko prozeduretan sustapen-txandan aurkeztu ahal izateko.

D) **Gizarte gaien** arloan jasotako proposamenetan honakoak eskatzen ziren.

• Erditze anizkoitzarengatik ematen diren laguntzen zenbatekoak doitzea, seme-alaba bikientzako laguntzaren eta seme-alaba hirukientzako laguntzaren artean zenbatekoetan dagoen aldea gutxitzeko. **Administrazioak onartua.**

• Adineko pertsonentzako arretarako politikak areagotzea.

E) **Osasunaren** arloan, honakoei buruzkoak izan ziren proposamenak:

• Nafarroako Ospitaleguneko Alergologia Zerbitzuari giza baliabideak eta baliabide materialak eman behar izatea, alergia arazoak dituzten haurrei “elikagaien tolerantzia induzitzeko” teknika aplikatu ahal izateko. **Administrazioak onartua.**

• Bularreko minbiziari dagokionez:

=> Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak programa bat diseinatzea, berariaz zuzendua gaixotasun horren atzemate goiztiarrera familia aurrekariengatik arrisku handia duten emakume gazteen kasuan, eta haren barruan aldizkako azterketak biltzea (mamografia, ekografia eta erresonantzia magnetikoa).

=> Gidarien Erregelamendu Orokorra onesten duen maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretua aldatzea, gidatzeko baimenaren edo lizentziaren indarraldia lortu edo luzatu ahal izateko exijitzen diren gaitasun psiko-fisikoei dagokienez kimioterapiako tratamendua biltzen duten prozesuetan. Izan ere nahi da ez dadila eskatu, horrelako kasuetan gidatzeko baimenaren luzapena lortzeko, hiru hilabete iraganak egotea kimioterapia tratamendua hasi zenetik, eta, gainera hematologo batek aldeko txostena ematea, eta, aitzitik, mediko onkologoa izatea txosten medikoa ematen duena, determinatzeko ea bularreko minbizia izateagatik tratamenduan dagoen gaixo bat baldintza fisiko normaletan ote dagoen gaitzat hartua izateko gidatzeko baimena lortzeko edo hura luzatzeko, eta, halaber, onkologoa bera izatea gaixotasuna guztiz amaitu dela ziurtatuko duena. **Gorte Nagusietako Arartekoari igorria.**

=> Nafarroako Lan Osasunaren Zerbitzuak edo eskuduna nahiz interesduna izan daitekeen beste edozeinek zehatz ditzala zein irizpide jarraitu behar diren enpresetan bularreko minbizia kentzeko tratamendu onkologiko baten ondorioak pairatzen dituzten langileak birkokatzeko, halako moduz non laneratzeko daukaten egokitasuna indartuko den eta bizi kalitate eta osasun hobeak izanen dituzten.

=> Bularreko minbizirako tratamendu onkologikoaren eraginez ondorioak pairatzen dituzten pertsonen minusbaliotasun gradua eta, kasua bada, lanerako ezintasuna aitortzeko gaur egun dauden prozedurak hobetu daitezela**. Gorte Nagusietako Arartekoari igorria.**

F) **Ogasun publikoari** buruz eginiko proposamenak ondokoen gainekoak izan ziren:

• Toki entitateek ikuskapenerako dauzkaten ahalmenak areagotzea, halako moduz non ez den jarduera profesionalik eginen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren pean egon gabe.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzeko beharra, eroslearen ordezkoaren baldintza kentzeko transmisio-egilea den subjektu pasiboari, kostu bidezko eskualdaketen hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zergari dagokionez, hartara saihesteko hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zerga erosleari ordainaraztea, zergadunaren ordezkoa izateagatik.

Proposamen hori behin baino gehiagotan aurkeztu zaio Nafarroako Arartekoari, dela kexen bitartez, dela herritarren ekimenen bitartez, eta haren oinarria da Nafarroako Foru Komunitateko arauetan, Estatuko arauetan ezarritakoaz bestela, ezarrita dagoela higiezinaren eroslea dela tributuduna, zergadun nagusiaren –alegia, saltzailearen– ordezko gisa, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergan, eta horrek, praktikan, berarekin ekarri ohi duela zerga ondasunaren erosleari ordainaraztea.

Estatuko araudiak foru araudian jasota dagoenaz bestelako araupetzea biltzen du. 1988ra arte, Estatuko legediak zergadunaren ordezkoaren baldintza erosleari aitortzen zion, foru araudian egiten den bezalaxe. Estatuko egungo araudiak –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua–, ordea, erosleari ordezkoaren izaera aitortzen dio soilik saltzailea Espainian egoiliarra ez den pertsona fisikoa denean (106. artikulua).

Horrenbestez, eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga erosleari ordainaraz dakion sai-

hesteko, zergadunaren ordezkoa izateagatik, erakunde honek jada 2009an iradoki zuen azter zedila Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 174.1.b) artikulua aldatzeko aukera, eroslearen ordezkoaren baldintza kentzeko transmisioegilea den subjektu pasiboari, kostu bidezko eskualdatzeetako hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zergari dagokionez. Administrazioak ez du, gaur arte, iradokizuna onartu.

G) **Kontsumoaren** arloan, proposatu zen konpentsazio-mekanismo berariazkoak artikula daitezela telefonia zerbitzuetako kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat, sektore horretan gertatzen diren gehiegikeriak saiheste aldera.

H) **Komunikazioen** arloan, proposamen bat aurkeztu zen, zeinaren bidez aldezten baitzen foru-xedapen bidez araupetzea irrati-amateurren antenen luzera eta altuera.

I) Azkenik, **zerbitzu publikoen** arloan, proposatu zen beharrezkoa dela administrazio publikoek energia aurrezteko neurriak har ditzatela, zehazki, Nafarroako herrietan eta bide publikoetan argiteria publikoak sortzen duen gastua gutxitze aldera.

Proposamen horietako batzuk bat datoz, edukiari dagokionez, aurreko urteetan aurkeztutako proposamenekin, eta haien eraginez Nafarroako Arartekoak 17 iradokizun aurkeztu dizkie Nafarroako administrazio publikoei. Iradokizun horien edukia txosten honetako VI. Kapituluan ageri da.

### 5.2. HERRITARREN PROPOSAMENEN HARTZAILE IZAN DIREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Honakoak izan ziren Nafarroako Arartekoak herritarrek aurkeztutako proposamenak helarazi zizkien Nafarroako administrazio publikoak:

**I. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: 22 proposamen jaso dituzte.**

Hezkuntza Departamentua: 8.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentua: 6.

Osasun Departamentua: 3.

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua: 3.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua: 2.

**II. Toki entitateak: 2 proposamen jaso dituzte.**

Iruñeko Udala: 2

Horretaz gainera, adierazi dugun bezala, Gorte Nagusietako Arartekoari proposamen bat helarazi zitzaion, gaia haren eskumenekoa zela jo baitzen.

## VI. KAPITULUA. GOMENDIO, IRADOKIZUN, LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPEN ETA BITARTEKARITZA-LAN NAGUSIAK

### 6.1. AITZINSOLASA

Kapitulu honetan 2011n Nafarroako Arartekoak izandako jarduerari dagokionez erakundeak egin dituen gomendio, iradokizun,lege-betebeharren gogorarazpen eta bitartekaritza-lan nagusiak jasotzen dira.

Metodo arrazoiengatik, ez dira denak jaso; izan ere, soilik jaso dira mami handiena dutela jo direnak, dela haien norainoko orokorrarengatik, dela haien interesarengatik.

2011n 691 gomendio, iradokizun eta gogorarazpen egin ziren guztira, honako taula honetan adierazten den moduan:

| | Lankidetzari buruzko gogorarazpena | Gomendioa | Legezko betebeharren gogorarazpena | Iradokizuna | Iradokizun normatiboa | Bitartekaritza | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kexetan | 3 | 245 | 212 | 84 | 8 | 7 | 559 |
| Arartekoak bere kabuz eginikoetan | | | | 41 | | | 41 |
| Proposamenetan | | | | 17 | | | 17 |
| Txosten berezietan | | | | 74 | | | 74 |
| **GUZTIRA** | **3** | **245** | **212** | **216** | **8** | **7** | **691** |

Gomendio, iradokizun eta gogorarazpen nagusiak hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude, eta haietan Nafarroako xede-administrazioa nahiz edukia adierazten dira.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen egiturari dagokionez, gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak aipatzen dira, lehenengo, 2011ko uztailera arte zeuden departamentuei zuzendutakoak; gero, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen egitura ezarri zuen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren uztailaren 1eko 10/2011 Foru Dekretuaren bitartez ezarritako departamentuei zuzendutakoak aipatzen dira. Logikoa den bezala, hori zor zaio Nafarroako Gobernu berria eratu izateari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa aldatu izateari, Nafarroako Parlamenturako 2011ko maiatzeko hauteskundeen ondorioz.

Horrez gain, adierazten da administrazio hartzaileak gomendioa, iradokizuna, gogorarazpena edo bitartekaritza-lana onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen. Berariaz ezer esaten ez dugunean, gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena Administrazioaren erantzunaren zain dagoela esan nahi du.

### 6.2. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ARLOKA

#### 6.2.1. NEKAZARITZA

**Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua**

• Lurzati berrantolamenduko prozedura baten ondorioz esleitutako ordezko lursail batean ureztaketa-sistema ezin ezartzearen aurrean, bertan aztarnategi arkeologiko bat egoteagatik, ofizioz has dezala kasuko prozedura administratiboa, zehazte aldera ukitutako pertsonak kalte-ordainen bat jasotzeko eskubidea izan dezakeen.

• Azter dezala administrazioak esku hartzeko zein aukera dauden, lurzati berrantolamenduko prozesu baten ondoren jabetza pribatuko lursail batean dauden uholde arriskuei konponbidea emateko. Ez da onartu.

**Ablitasko Udala**

• Azterlan bat egin dezala udal titularitateko ureztatze-aho baten erabilerari buruz –haren erabilera udalarentzat erreserbatuta dago–, haren ahalmenari, lehentasunezko erabilerei, erreserbei, soberakinei eta abarrei dagokienez. Eta azterlan horren emaitza gisa inferitzen bada udal kudeake-

tarenak direnez bestelako behar batzuetarako soberan ur badagoela, baimena eman dakiela jabe partikularrei ureztatze-ahoa erabiltzeko, betiere izaera subsidiarioekin. Onartua.

### 6.2.2. GIZARTE ONGIZATEA

**Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua**

1. Mendetasun egoeran laguntza ematearen arloan (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea):

*A) Prozedurari dagokionez:*

=> Ahaleginak egitea, aukera dagoen guztian, mendetasun sistemako prestazioetarako eskubidea eta haietarako sarbidea aitortzeko ezarritako eta aplikatutako prozedura errazteko.

=> Foru arau indardunaren aplikaziotik eratortzen diren tramitazio-epeak denbora errealean gutxitzeko aukera baloratzea.

=> Aztertzea aukerarik ba ote dagoen prozedura eta ebazpen-egintza bakarrean kontzentratzeko, behar diren arauak aldatu ondoren, mendetasun sistemako prestazioak emateko behar diren ondoz ondoko izapideak (mendetasun egoera aitortzea, arretarako banakako programa onartzea eta hartan kasuko baliabidea esleitzea, eta eskubidea dagoen eta eskatzen den mendetasun sistemarako prestazioa ematea), betiere interesdunari sei hilabeteko epean hartutako erabakiak jakinaraziz. Hori guztia ezertan kendu gabe ezen, erabaki administratibo horien izaerarengatik eta substantibotasunarengatik, haiek modu berezituan aurkatu ahalko direla, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako moduan.

=> Behar diren neurriak hartzea jarduketen iraupen-epeak arau indardunetan ezarritakoari egokitzeko, eta jotzea ezen, hori administrazio-jardueraren esparru guztietan desiragarria bada ere, arrazoi sozialak tarteko mendetasun berezia hartzen duela mendetasunaren arloan.

=> Behar diren baldintza sustatzea interesdunek edo haien senideek prozedura bide elektronikotik izapidetzeko aukera izan dezaten, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean ezarritakoaren bidetik, hartara eskaria eta prestazioak jasotzea erraztuz.

=> Espedientea izapidetzeko eta ebazteko eskatzen diren dokumentuak emateari dagokionez herritarrei egiten zaizkien formazio exijentziak berraztertzea. Bereziki:

a) Baloratzea prozeduran aurkeztekoa den dokumentazioari buruzko arau indardunak egokiak ote diren (zehazki, urtarrilaren 19ko 6/2009 Foru Dekretuko 8. artikulua).

b) Ahal den guztian erraztea dokumentazioa aurkezteko betekizuna, eta beharrezkoa bada Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 71.bis) artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaren figuraren erabilera bultzatzea, eta ofizioz biltzea entitate publikoen esku dauden dokumentu guztiak, betiere interesdunaren edo hura ordezkatzen duen pertsonaren baimenarekin.

c) Interesdunei informazio argi eta erraza ematea aurkezten dituzten eskabideei dagozkien formazko betekizunei buruz, eta hori egitea eskabide-eredu normalizatuari erantsitako dokumentu batean; hori, halere, ez da eragozpena izanen egokitzat jotzen diren bestelako bitarteko gehigarriak erabiltzeko.

d) Zuzentzeko errekerimenduak izapidetzea, eta ezesteko adierazpenaren ohartarazpena egitea, soilik espedientea izapidetzeko beharrezkoa den kasuetan, eta, betiere, arintasun printzipioaren arabera, prozeduraren hasierako fasean, hartara saihestuz errekerimendu horiek gertatzea eskabidea egin denetik denbora luze batera.

e) Errekerimendu horien xedea mugatzea xedapen indardunetan berariaz jasotako dokumentaziora, kontuan hartuz herritarrek ez dutela xedapen horietan exijitzen ez diren agiriak aurkezteko betebeharrik.

=> Interesdunak espedientea eskuratzeko eta prozeduraren izapidetze-egoera ezagutzeko duen eskubidearen gehigarri moduan, bultzatzea ofiziozko komunikazioa egiteko sistema bat, izapidetzea gerora dezaketen gorabeherei buruzkoa, eta ukituei beti informazioa ematea, zehazten den aldizkotasunez bidalitako komunikazioen bitartez, bide elektroniko nahiz telematikoak erabiltzeko aukerarekin.

=> Iradokitzea azter dezala behar diren neurriak hartzea banakakoaren arreta programa prestatzen denean xede nagusia eta aldi baterako beste xede batzuk artikulatu ahal daitezen, zeren eta suposatzen baita xede nagusi hori (bereziki zerbitzu baten emakida den kasuetan), denboran luzatu egin daitekeela. **Ez da onartu.**

*B) Baliabideak jartzeari eta egokitzeari dagokionez:*

=> Nafarroako administrazio publikoek dauzkaten aurrekontu-zuzkidurak eta baliabideak, pertsonalak zein materialak, egokitzea mendetasun sistemaren prestazioen eskakizunari erantzuteko, bai oinarrizko mailan (oinarrizko gizarte zerbitzuan), bai maila espezializatuan (Nafarroako Mendekotasun Agentzia), eta, kasua bada, haiek indartzeko behar diren neurriak bultzatzea.

=> Mendetasuna duten pertsonei arreta emateko toki publikoen eskuragarritasuna areagotzea, bereziki kontuan hartuz ezen, lege indardunei jarraituz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak emateko izaera subsidiarioa duela, zerbitzu publiko edo itundua ematea bidezkoa ez den kasuetara mugatua, eta esparru orokorreko gizarte zerbitzuen zorroak hamabi hilabeteko muga ezartzen duela prestazio horien iraupenerako.

=> Ezgaitasuna duten pertsonentzako arretaren esparruan, aztertu eta egokitu dadila, kasua bada, egoitza-tokien eskaintza, hura baliagarri gerta dadin dauden arazoen aniztasunari doitutako zerbitzua emateko; halaber, behar diren neurriak sustatuko dira legediak arretarako bermatzen duen eskubidea, nolanahi ere, erreala eta efektiboa izan dadin.

=> Mendetasunaren gradua berraztertzeko kasuetan, eta berrazterketa horren ondorioz mendetasunerako ematen diren laguntzak gutxitu diren kasuetan, prozedura bat izapidetu dadila ukitutakoei entzunaldia bermatzeko eta ukituen arteko kontradikzioa bideratu ahal izateko**. Onartua.**

2. Familia inguruneko zainketei dagokienez:

=> Mendetasun egoerari egokitutako familia inguruneko zainketetarako laguntza ematea, dagokion zenbatekoan eta egoeraren aitorpena egin zenetik hasi (2009ko irailean) eta egoitza arretarako zerbitzuarekin lotutako prestazioa eragina izaten hasi zen arte (2010eko apirilean)**. Ez da onartu.**

3. Gizarte zerbitzuen zorroari dagokionez:

=> Gizarte zerbitzuen sistema publikoan prestazio bat –teknikoa nahiz ekonomikoa– sartzeko aukera aztertzea, daukaten ezgaitasun egoerarengatik lanera joan ahal izateko arazo bereziak dituzten pertsonei lanera joateko garraioa errazteko**. Onartua.**

=> Baloratzea komenigarria ote den zerbitzua kontratatzeko laguntza ekonomikoari eustea egungoen antzeko terminoetan, edo gizarte zerbitzuen zorroaren aldaketan xedapen gehigarriren bat sartzea, bermatze aldera ez duela eragin negatiborik izanen laguntza modalitate honen egungo onuradunengan**. Ez da onartu.**

=> Prestazio bat sartzea, bermatze aldera irakaskuntza-garaiaz kanpo ere jarraitutasuna emanen zaiela ikasturtean zehar adingabe batzuei hezkuntzaren esparruan ematen zaizkien estimulazio-tratamenduei, gutxienez ere mendetasun egoera dagoen kasuetan**. Onartua.**

=> Dela buru-gaixotasuna edo adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako habilitazio psikosozialeko zerbitzuaren bitartez, dela egokitzat jotzen diren beste baliabide batzuk ematearen bitartez, konponbidea ematea buru-gaixotasuna duten pertsonei pentsioetan egoteko arazoari. Administrazioak diru-laguntzak emanen ditu egonaldi horietarako, eta gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuari dagozkion ikuskapen eta kontrol ahalmenez baliatuko da**. Onartua.**

=> Azter dadila aukerarik ba ote dagoen behar diren neurriak ezartzeko arreta goiztiarrerako zerbitzuaren erabiltzaile diren Bortzirietarako haurrek, fisioterapia-prestazioa behar dutenek, hura beren etxetik ahal den hurbilena jasotzeko aukera izan dezaten. Nolanahi ere, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroak aipatzen duen iparraldeko barrutian emanen zaie arreta hori**. Onartua.**

4. Oinarrizko errentari dagokionez:

=> Oinarrizko errenta emateko prozedurak ebaztea arau indardunetan (kasu honetan, Gizarte Zerbitzuen Orroan eta prestazio hori arautzen duen foru dekretuan) ezarritako epean**. Onartua.**

=> Presakoenak diren premia-egoerei arreta ematearen ondorioetarako, premia-egoera koiunturalak eta premia nahiz bazterketa egoera egiturazkoak bereiztea, eta, kasua bada, tratamendu juridiko berezitua ematea**. Onartua.**

=> Nafarroako administrazio publikoek dauzkaten aurrekontu-zuzkidurak eta baliabideak, pertsonalak zein materialak, aztertzea prestazio horren eskakizunari erantzuteko, bai oinarrizko mailan, bai maila espezializatuan, eta, kasua bada, haiek indartzeko behar diren neurriak bultzatzea**. Onartua.**

=> Ahal den guztian erraztea ezarritako prozedura eta prestazioa emateko exijitzekoak diren eta funtsezkoak ez diren baldintzak, bateragarri eginez segurtasun juridikoaren printzipioa eta baliabide publikoak eraginkortasunez eta arintasunez egoki esleitzea, eta, gainera, jotzea azken printzipio horiek berebiziko garrantzia dutela prestazioaren izaeran eta xedean**. Onartua.**

=> Baloratzea aukerarik ba ote dagoen “aldez aurreko kontrolaren” izapideak gutxitzeko, prestazioaren ematea ahal den guztian arintze aldera; hori, halere, ez da eragozpena izanen geroko fase batean nahiz ikuskatze-fase batean betekizunen edo baldintzen betetzea egiaztatzeko**. Onartua.**

=> Aztertzea aukerarik ba ote dagoen araudian “larritasunezko” prozedura bat sartzeko, kasu jakin batzuetan; esate baterako, teknikari eskudunek ikusten dutenean egoera guztiz luzaezin bat dagoela eta larritasun oso-oso handikoa. Nolanahi ere, arreta berezia eskainiko zaie haur txikiak dauzkaten familia unitateei**. Onartua.**

=> Herritarrei espedientea izapidetzeko eta ebazteko exijitzen zaizkien dokumentuen aurkezpenari dagokienez, formazko betekizunak berraztertzea, eta interesdunei argitasunez eta soiltasunez informatzea betekizun horiei buruz. Beharrezkoa bada, jarduketak oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatuko dira, eskari osatu gabeak argitzeko eta horren ondoriozko akats-zuzenketako errekerimenduak ahal den guztian gutxitzeko**. Onartua.**

=> Aztertzea aukerarik ba ote dagoen, kudeaketa arintzen laguntzeko bitarteko gehigarri gisa, oinarrizko errentaren prestazioa emateko prozedura deszentralizatzeko edo delegatzeko, administrazioen arteko lankidetza-harremanak arautzen dituen legedian ezarritako tekniken eta mekanismoen bitartez. Prozedura, beraz, oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren entitate batzuen esku geratuko dira, bereziki populazio handienen kasuan eta kudeaketarako baliabide handienak dituztenen kasuan**. Onartua.**

=> Oinarrizko errenta ematerakoan, erreparatzea, familia-gunea aintzat hartzearen ondorioetarako, familia bakoitzaren inguruabar zehatz eta egonkorrei, premia luzaezinak direla-eta beste senide batzuen bizitokian behin-behinekoz egoteak prestaziorako sarbidea eragotzi gabe**. Onartua.**

5. Adingabeei eta generoko indarkeriaren biktimei dagokienez:

=> Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxe eta pisuetan edo larrialdi zentroetan, emakume horiek beren kargura adingabeak baldin badituzte, biktimen seme-alaba adingabeei behar duten laguntza integrala eta berariazkoa bermatzea, egokitzat jotzen diren langile edo baliabideen bitartez, eta biktima izan diren amei laguntza ematea lana eta familia bateragarri egin ahal izateko. **Onartua.**

• Esku hartzeko eta zehatzeko ahalmenez baliatzea, egoitza pribatu baten kasuan**. Onartua.**

**Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua.**

• Nafarroako Mendetasun Agentziak eginiko balorazioaren ondoren desadostasunik baldin badago, txosten medikoetan oinarrituta, beste balorazio bat egitea, eta hartan kontuan izatea batera bildu diren inguruabar guztiak, are gehiago haur txikien kasuan**. Onartua.**

• Hirugarren adineko zentroetan emaniko egonaldiak sortutako zorretik ken daitezkeen hilobiratze gastuak gaurkotzea**. Onartua.**

• Herritarrek aurkezten dituzten eskabide eta eskari guztiak behar den denboran ebaztea; besteak beste, oinarrizko errentaren prestazioari dagokiona**. Onartua.**

• Oinarrizko errentaren prestazioa emateko zenbait eskabide ebaztea, haietan zabal gainditu baita (lau eta bost hilabete baino gehiago) ebazteko epea**. Onartua.**

• Zenbait kasutan aitortutako oinarrizko errentaren prestazioa ordaintzea, haietan ordainketan geroratu dela egiaztatu bada**. Onartua.**

• Oinarrizko errenta berritzeko zenbait espedienteren izapidetzea arintzea, haiek arauz ezarritakotik ahal den eta hurbileneko epean ebazteko**. Onartua.**

• Zentro psikogeriatrikoetako egonaldien ondorioz sortutako zorren jakinarazpenak, bai eta egoiliarrengan eragina duten aurkako erabaki guztiak, haien legezko tutoreei eta ordezkariei egitea, eta behar den entzunaldia ematea**. Onartua.**

• Langileek familiako eta laneko eginbeharren osagarri izateko eta jaiotzak sustatzeko laguntzak ematerakoan, seme-alabak laguntza eskatzen duten pertsonen zaintzaren eta jagoletzaren menpe daudela kreditatzea, alde batera utzita seme-alabak komunak diren ala ez diren, eta, horrenbestez, erreparatuz soilik etxe horretan sortu den familia unitateak lana eta familia bateragarri egin ahal izateari**. Onartua.**

• Eraginkor egin dadila herritarrek idazkiak eta agiriak aurkezteko daukaten eskubidea, eta eskubide hori ez mugatzea formako nahiz fondoko arrazoiengatik. Halaber, eskubidea izatea egin nahi diren eskabideetarako xedapen indardunetan ezartzen diren baldintzei buruzko informazio egokia lortzeko**. Onartua.**

• Herritarren kalterako diren erabakiak dakartzaten jarduketetan –esate baterako prestazioak itzultzea–, errespetatzea prozedura administratiboaren buruan dagoen kontradikzioaren printzipioa eta aurrez entzunaldia emateko eskubidea, Nafa-

rroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legeko 7. artikuluan jasotakoa.

• Behar gabe ordaindutako prestazioak itzultzea erabakitzen den kasuetan, interesdunei aukera ematea zenbatekoa itzultzeko 2011. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeko hogeita hamargarren xedapen gehigarrian adierazitako moduan; hau da, zatikatze bidez, ondorengo ordainketak eteteko beharrik gabe.

• Lehendik aitortutako graduari buruzko ofiziozko berrazterketa baten ondorioz lortutako mendetasun kalifikazioa ezeztatzea, zeren eta mendetasun-graduaren gutxitzea ez baitzaio zor gaixoaren egoerari eta egiazko bilakaerari, baizik eta ondoz ondoko ebaluazioetan baloraziorako tresna gisa aplikatu den irizpide desberdinari.

• Behar diren neurriak hartzea, mendekotasun sistemako prestazioak aldi berean jasotzeari dagokionez, ordaintzeko nahiz doikuntzak egiteko espedienteak, bidezkoak direnean, arintasun printzipioaren arabera gauza daitezen, oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateekiko koordinazioa indartuz.

• "Adinekoei egoitza-arreta emateko zerbitzua" deitutako prestazioa lortzeko espediente baten izapidetzea arintzea, hura arau bidez ezarritako gehieneko epetik ahal bezain hurbil ebazte aldera; izan ere, epea jada iraungita dago**. Onartua.**

• Menpekotasun sistemako prestazioak eskuratzeko eskubidea aitortzea, dela ebazpena egiten denetik aurrera, dela ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bete eta biharamunetik aurrera.

• Dokumentuak oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez aurkezteari dagokionez:

=> Aztertzea, sakontasunez, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eskabide eta dokumentuen erregistrorik ez izateak dakartzan arazoak, eta bultzatzea, zerbitzu horien titularrak diren toki entitateekin batera lan eginez, neurri batzuk arazo horri konponbidea emateko eta bermatzeko eskabideak eta dokumentuak aurkeztu izatea jasota gera dadin –agiri bakoitzari dagozkion aurkezpen-datarekin eta –orduarekin– herritar guztiek daukaten eskubidea.

=> Behin huts horri konponbidea emanda, behar den lankidetza artikulatzea Foru Komunitateko Administrazioaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen artean, herritarrek zerbitzu horietan aurkeztutako eskabideek eta dokumentuek erabateko eraginkortasuna izan dezaten.

=> Adierazitako arazoak konpontzen ez diren bitartean, laguntzetarako onesten diren arauekin edo deialdiekin bat, haietan eskabideak aurkezteko data eta ordua emaitzetarako determinanteak baldin badira:

a. Saihestea eskabideak oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkezteari buruzko erreferentziak egitea, baldin eta horrek birtualtasunik ez badu, aurkezteko uneari dagokionez, zeren eta herritarrentzako nahasgarri gertatzen baita.

b. Halakorik egin ezean, oinarrietan berariaz ohartaraztea herritarrei litekeena dela eskabidea eta dokumentazioa oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkezteak eraginik ez izatea, aurkezteko data eta ordua kontuan hartzeari dagokionez.

• Adingabeen izatezko zaintza kasuetan, amaiera ematea, ahal den bezain laster, egoera iragankor eta behin-behineko honi, eta adingabeak babesteko egokitzat jotzen duen neurria edo jotzen dituen neurriak hartzea, abenduaren 5eko 15/2006 Foru Legean aurreikusitakoen artetik, horien egoerari konponbide egonkorra emate aldera**. Onartua.**

• Familia Ugariak Babesteko Legeko 2.2 c) artikuluaren aplikazioari dagokionez, aukera ematea familia unitateko kide gisa kontatzeko, familia ugariaren baldintza aitortzearen ondorioetarako, aurreko ezkontzetako seme-alabei, baldin eta ekonomikoki eskatzailearen menpekoak badira, nahiz eta bizikidetasunaren baldintza ez bete, eta egoera hori aitortzeko baldintza gisa ez jartzea dokumentu bat aurkeztu behar izatea, eskatzailearen bikotekide ohiaren adostasuna jasotzen duena**. Onartua.**

**Bulatako Udala**

• Ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelak emateko ebazpenean, erreferentzia gisa erabiltzea abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeari buruzko III. eranskinean jasotako baremoa, halako moduz non baloratzen direnak mugikortasun zailtasunak izanen baitira, eta ez ezgaitasunaren jatorria fisikoa edo sentsoriala den.

**Cortesko Udala**

• Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea betetzea kirol instalazioetan, eta, horrenbestez, udal liburutegian tamaina handiagoko binilo batzuk jartzea beira-manparetan; halaber, aztertzea aukerari ba ote dagoen barandan babes edo sare motaren bat jartzeko.

**Iruñeko Udala**

• Gizarte zerbitzuen sistemako prestazioak eskuratu nahi dituzten herritarrei informazioa ematea balizko bateraezintasunari buruz, edo, kasua bada, aldi bereko jasotzearen eraginari edo garrantziari buruz.

• Lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez dituzten pentsioak ez bahitzea, eta, horrenbestez, itzultzea aplikatzekoa den araudiaren aurka atxikitako eta bahitutako pentsio bat**. Onartua.**

**Olloibarko Udala**

• Behar diren neurriak ezartzea ezgaitasuna duten edo menpekotasun egoeraren bat duten pertsonek udal zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko eskubidea eraginkorra egiteko**. Ez da onartu.**

• Menpekotasun baldintza aitortua duen haur adingabe bati ludoteka eta etxeko laguntza zerbitzuak ematen jarraitzea, eta, beharrezkoa bada, behar diren neurriak ezartzea hari arreta egokia emateko**. Ez da onartu.**

**6.2.3. KONTSUMOA**

**Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua**

• Betetzea legez betetzeko behartuta dagoena, kontsumitzaileek aurkeztutako erreklamazio guztiak izapidetzeari eta izapidetze horren emaitzaz eta espedienteaz informatzeari dagokienez, azken erabakia zein ere den**. Onartua.**

**6.2.4. KULTURA**

**Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua**

• “Estrena 2011” programaren exekuzioan honako helburuak bermatzea:

a) Sorkuntza eszenikoaren arloan diharduten talde profesionalen antzerki- eta dantza-produkzio berrien zabalkundean laguntzea, haiek Nafarroako Antzerki Sareak sortutako katalogoan jasota daudenean**. Onartua.**

b) Topagune bat sortzea bertan arte eszenikoetan inplikatutako sektoreak, sareari atxikitako espazioen programatzaileak eta arte eszenikoetako ikus-entzuleak ordezkatuta egon daitezen, antzerkiaren profesionalak ere kontuan hartuta**. Onartua.**

c) Civivoxen urteko programan handitzea edo, kasua bada, mantentzea tokiko produkzio profesionalen ekitaldiak**. Onartua.**

**6.2.5. HEZIKETA**

**Hezkuntza Departamentua**

• Interesdunei sarbidea ematea beren eskubideen defentsarako muntaduna izan daitekeen informazio eta dokumentazio guztira, ikasleak onartzeko prozeduretan, eta gogorarazpena ikastetxeei zabal dakiela iradokitzea**. Onartua.**

• Eguesibarko Udalarekin koordinatuta, bakoitzaren eskumenen esparruaren barruan, ikertzea, 2008an jaio ziren eta 2011/2012 ikasturtean ikastetxeetan onartzeko prozeduran parte hartu duten haurrei dagokienez, Sarrigurenen 2010eko azkeneko hiruhilekoan eta 2011ko prozesuaren aurretiko hilabeteetan izandako erroldatzeak, eta zaintzea erroldan izena ematea eta bizitokiaren errealitatea bat etor daitezela, eta bidezkoa bada, ikastetxe pribatu itundu batean ikasle bat onartzeko egintza berraztertzea**. Onartua.**

• Behar diren ikerketak egitea egiaztatze aldera funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleak onartzerakoan alegatutako datuak eta emandako puntuazioak egiazkoak direla**. Onartua.**

• Zaintzea ikasleak ikastetxeetan onartzeko prozesua bat datorrela legedi indardunean ezarritako irizpideekin eta aukera-berdintasunaren printzipioarekin, eta erreakzionatzea interesdunek, beren interesean eta hirugarrenak kaltetuz, printzipio horren eraginkortasuna auzitan jartzen dutenean**. Onartua.**

• Hezkuntza administrazioa geroratu denez ikastetxe batean dagoen ikasle kopurua baino ikaspostu gutxiago egoteari konponbidea ematerakoan, aztertzea bi haur onartzeko aukera, eta haiek hasiera batean onartuta baina ikasposturik gabe egotea**. Ez da onartu.**

• Hizkuntza anitzeko programaren (H.T.I.) ezarpenari dagokionez:

=> Ebaluazio orokor bat egin dadila H.T.I.ren eredua edo programa Nafarroako hezkuntzaren esparruan ezartzeari buruz**. Onartua.**

=> Ikastetxe bakoitzak abian jarri nahi den ereduan dauzkan premiak ebaluatzea, eredua ezarri aurretik**. Onartua.**

=> Ezarri den ikastetxe guztietan eredua ematen ari den emaitzak ebaluatzea**. Onartua.**

=> Irakaslanean arituko diren irakasleen prestakuntza- eta gaikuntza-programak indartzea**. Onartua.**

=> Ikastetxeei giza baliabide eta baliabide material egokiak ematea, ezarpenaren emaitza ona izan dadin**. Onartua.**

=> Arloari buruzko kalitate-plan bat abian jartzeari buruzko balorazio bat egitea. **Onartua.**

• Ikastetxe publikoen kudeaketari dagokionez:

=> Irakasleen egonkortasun eza eragiten duten arrazoiei buruzko azterlana egiten jarraitzea, eta egonkortasun-ez hori gutxitzeko neurriak hartzea, egun dagoen behin-behinekotasuna ahal den guztian murriztuz. **Onartua.**

=> Behar diren neurriak hartzea ikastetxe publikoetan atzematen diren gabezia materialak zein segurtasunekoak zuzentzeko, udal eskudunekin koordinatuz, beharrezkoa baldin bada. **Onartua.**

=> Azterketa bat egitea "landa-eskolak" deitutakoetan eragina izan dezaketen arazo bereziei buruz, eta unean-unean behar diren neurriak ezartzea ikasleei hezkuntza-arreta egokia emanen zaiela bermatzeko. **Onartua.**

=> Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko baliabide materialen eta pertsonalen egungo zuzkidura balora dezala eta, beharrezkoa bada, haiek areago ditzala, maila egokietara ekarri arte, ikasle guztiek aukera berdinak izateko daukaten eskubidea ziurtatze aldera. **Onartua.**

=> Jarrai dadila neurriak ezartzen, eta beharrezkotzat eta egokitzat jotzen bada neurri horiek osa ditzala, ziurtatze aldera abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 19. artikuluak aitortzen duen eskubidea, hezkuntza maila desberdinetan euskarazko eta gaztelaniazko irakaskuntza jasotzekoa, hain zuzen ere foru lege horretako 20. artikulutik 26. artikulura ezarritako moduan. **Onartua.**

• Irakaskuntza ertainetarako eta unibertsitate-ikasketetarako beken deialdi orokorrari dagokionez:

=> Familiaren errenta erabilgarria kalkulatzerakoan, aintzat hartzea, familia unitateko kide gisa, harrera iraunkorreko egoeran dauden adingabeak. **Onartua.**

=> Familiaren ondareari buruzko atalaseak berraztertzea, bi norabidetan:

a) Landa- eta hiri-finketarako balio katastralen baturarako ezarritako kopuruak igotzea.

b) Kontuan ez hartzea merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduera bati (nekazaritza eta abeltzaintza barne) guztiz atxikita dauden ondasun higiezin edo higigarriak, hirikoak nahiz landakoak izan.

=> Konpentsatzeko irizpideak ezartzea familia-ondarearen ondoriozko irizpide baztertzaileetarako eta negozioen urteko bolumenerako, halako moduz non, horiek guztiak ponderatuko baitira interesdunaren benetako gaitasun ekonomikoa baloratzeko.

=> Familiaren errenta gisa ez kontatzea PFEZaren eraginetarako salbuetsita dauden errenta batzuk, ez eta kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainetatik heldu diren errentak ere.

=> Kontuan hartzea, diru-sarrerak gutxitzeko inguruabar ekonomiko gisa, ez soilik familia-unitateko kide baten heriotza, PFEZaren aitorpenaren ondorengoa eta deialdiaren behin-behineko ebazpenaren aurrekoa, baizik eta, baita ere, aldi horretan ikasleak umezurtz-pentsioa jasotzeari uztea determinatzen duen adinaren baldintza betetzearen inguruabarra.

=> "Irakaskuntzaren" kontzeptuan emandako laguntzaren zenbatekotik ez deskontatzea matrikularen gutxipenarengatiko onura, ikasgai batzuetan "ohorezko matrikula" kalifikazioa lortzearen ondoriozkoa, zeren eta bekek ez baitute matrikularen kostu osoa estaltzen. **Onartua.**

=> Aurreikustea aukera egon dadila lizentziatura bikoitzetarako edo titulu bereki eta arautuetarako bekak emateko, gradu edo lizentziatura batek irauten duten guztian.

=> Motibazio positiboko irizpideak sartzea, ikasleen aprobetxamendu egokiarengatik, nolanahi ere matrikularen kostuaren muga errespetatuz, eskatzaileak deialdian ezarritako gainerako baldintzak betetzen baldin baditu.

=> Gradu-titulua lortzera bideratutako irakaskuntzetan, eskatzaileari beka emateko exijitzen zaion matrikula gutxienez ere egun osoko dedikazio akademikoaren araubideko ikasketa-planak gutxienez ere hartzen dituen kreditu-kopuruarengatik izatea, kredituen gutxieneko kopururik ezarri gabe; izan ere, bestela, litekeena da exijitzen den kredituen gutxienekoak ikasketa-planari dagokion kreditu-kopurua gainditzea.

• Haur hezkuntzako lehen zikloaren plangintzari eta kudeaketari dagokienez:

=> Behar diren jarduketak egin ditzala 0 eta 3 urte arteko haurrei arreta emateko eskola-postu publikoen eskaintza areagotzeko, eta ahalegin horretan hezkuntza ziklo horretan dauden eskaintza eta eskaria doitzeko. **Onartua.**

=> Aztertzea Nafarroan haur hezkuntzaren lehen zikloaren ezarpena, eta jarduketa plan bat egitea non zehaztuko baitira zer neurri eraman behar dituen aurrera hezkuntza-administrazioak, behin martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan ezarri-

tako aldi iragankorra amaiturik. Izan ere, foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen du eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen ditu**. Onartua.**

=> Azterlan bat egin dezala, non 0-3 ureko zikloan hizkuntza-eredu desberdinetan dagoen eskaintza eta eskaria alderatuko diren, eta lortutako emaitzaren arabera, eskola-postu publikoen eskaintza egin dezala, eredu batean zein bestean**. Ez da onartu.**

• Hezkuntza ikuskapenaren eginkizuna behar diren denboran eta moduan betetzea, ikastetxeetako onarpen prozedurekin koordinatuta, eta hezkuntza sisteman eragina duten lege, erregelamendu eta gainerako xedapen indardunak betetzen direla zaintzea, hartara ikasleak onartzeko prozesuetan irregulartasunak egoteko aukera saihestuz**. Onartua.**

• Apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuan ezarritakoaren aldaketa bat bultzatzea –izan ere, foru dekretu horren bitartez, ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itundunetan onartzea arautzen da–, aurkeztutako eskabide guztiak izapidetzeko onartzeari dagokionez, baldin eta aurkeztutakoak bat baino gehiago badira. Herritarrentzat hain kaltegarria ez den konponbide bat ezarriko da, hain zuzen ere pro actione printzipioarekin hobeki ezkontzen dena**. Onartua.**

• Behar den prozedurak eta baliabideak ezartzea hezkuntza premia bereziak edukitzeagatik ohikoaz besteko hezkuntza arreta behar duten ikasleen berariazko hezkuntza premiak goiz identifikatzeko, eta, horrenbestez, ikasle horiei arreta emateko behar diren neurriak hartzea**. Onartua.**

• Antsoaingo eta Artikako ikasleak garraiatzen dituzten autobusen ordutegia eta kopurua egokitzea, British ereduko ikasleei ere zerbitzua eman ahal izateko**. Onartua.**

• Pedro de Ursúa Institutuko sarbideen segurtasunari buruzko azterlan bat egitea, bai eta instalazioen (komunak) egokitasunari buruzko azterlan bat ere.

• Behar diren ekintzak bultzatzea Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulazio elektronikoa eta on line matrikula egiteko prozesuan gertatutako hutsak zuzentzeko, eta, bereziki, denborazko lehentasunaren irizpidea aldatzea. Halaber, eskatzen da epe jakin bat ematea interesdunei eta, gero, beharrezkoa bada, ikasleak hautatzea aurrez erabilitako irizpide objektibo baten bitartez.

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 9. artikulua –Administrazioari idazkiak eta dokumentuak aurkezteko herritarrek duten eskubidea arautzen du– errespetatzea, eta haren indarrez behar diren jarraibideak ematea ikastetxeek bekaeskariei buruzko dokumentazioa paper euskarrian jaso dezaten, ikasleei eskariak on line bidetik egin dezatela exijitu gabe**. Ez da onartu.**

• Kalte-ordainak ematea ikasketetarako beka bat eskaria aurkezterik izan ez zuen ikasle bati. Ezin aurkeztearen arrazoia izan zen ikastetxeak uko egin ziola eskabidea hartzeari, hura on line aurkeztu behar zen aitzakiarekin**. Ez da onartu.**

• Behar diren neurriak ezartzea laguntza edo zaintza berezia eskatzen dituzten gaixotasunak dauzkaten ikasleak langile kualifikatuek eta behar adina ezagutza teoriko eta praktikoa dutenek arta ditzaten**. Ez da onartu.**

• Behar dena xedatzea ikasle bati ezarritako neurri zuzentzaile edo zehapena ezeztatzeko**. Ez da onartu.**

• Eskola garraioaren erantzukizuna duen aldetik, erabiltzaile onuradunek zerbitzua eskuratu ahal izateari buruzko kontrola bermatzeko behar diren neurriak hartzeaz gainera, garraioa egiten den bitartean laguntzaile bat bertan egonen dela zaintzea, arau indardunetan esleitzen zaizkion eginkizunekin eta halako zerbitzuetan izenpetzen diren kontratu-baldintzekin**. Ez da onartu.**

**Tuterako Udala**

• Haur eskoletan jantoki zerbitzua ematen ez den kasuetan (ikasturtearen hasierako bi asteetan), ez exijitzea hileko ordainketak egin daitezela, eta, horrenbestez, udalaren haur eskoletako jantokiko tasak itzultzea, iraileko lehenengo bi asteei dagozkienak, haietan jantoki-zerbitzua ez baitzegoen funtzionamenduan**. Onartua.**

**Eguesibarko Udala**

• Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta, bakoitzaren eskumenen esparruaren barruan, ikertzea, 2008an jaio ziren eta 2011/2012 ikasturtean ikastetxeetan onartzeko prozeduran parte hartu duten haurrei dagokienez, Sarrigurenen 2010eko azkeneko hiruhilekoan eta 2011ko prozesuaren aurretiko hilabeteetan izandako erroldatzeak, eta zaintzea erroldan izena ematea eta bizitokiaren errealitatea bat etor daitezela, eta bidezkoa bada, ikastetxe pribatu itundu batean ikasle bat onartzeko egintza berraztertzea**. Onartua.**

• Zaintzea udal erroldaren izen-emateak bat etor daitezela bizi deneko tokiaren errealitatearekin. **Onartua.**

**Nafarroako Unibertsitate Publikoa**

• Behar den moduan eta epean erantzutea ikasleek unibertsitate-gaiak direla-eta aurkezten dituzten eskabideei edo eskariei.

• Enpresen Zuzendaritzako Lizentziatura eta Zuzenbideko Lizentziatura batera egiteko ikasketen programan matrikulatutako ikasleei erraztasunak ematea praktikak nazioarteko enpresetan egiteko, funtsean orain arte eskaini izan direnen antzekoak diren baldintzetan, are gehiago beren ikasketak 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan hasi ziren ikasleen kasuan; izan ere, ikasturte haietako matrikula egin zen behar bezalako araudi bat egon gabe.

**6.2.6. FUNTZIO PUBLIKOA**

**Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enkargatutako langile hautapeneko prozedurak egiten dituzten sozietate publikoen jarduna zaintzea, gardentasunaren printzipioa bete dezaten, prozesu horietatik izangaiak baztertzea dakarten erabakien arrazoiak eman ditzaten, betiere lehendik ezarritakoak diren eta ezagunak diren irizpide objektiboen arabera, eta beren erabakiak jakinaraz ditzaten, edozein izanda ere, haiek ukitutako pertsonei. **Onartua.**

• Ahal den guztian azkartzea zaintzaile lanpostuaren eginkizunei buruzko azterlana, zehazteko ea lanpostuetara sartzeko datozen deialdietan edo, kasua bada, lanpostu horiek betetzeko prozesuetan, exijitu behar ote den gaur egun egokitzat jotzen dena baino titulazio berariazkoago bat, planteatzen diren premia desberdinei erreparatuta, bai adingabeak zaintzeko lanpostuei dagokienez, bai adineko pertsonak, ezgaituak edo arreta bereziren bat behar duten bestelako pertsonak zaintzeari dagokionean. **Onartua.**

• Behar diren neurriak ezartzea Osasun Laguntzarako Erabilera Bereziko Zerbitzuko afiliatuen osasun gastuen itzulketarako epeak gutxitzeko, bereziki langile jubilatuen kasuan. **Onartua.**

• Bultzatzea arau bat onets dadila, haren bidez zehazteko zein den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Estatuko Administraziotik transferituta, zerbitzuak ematen dituzten behin-behineko funtzionarioen ordainsarien araubidea, Estatuko oinarrizko legeriak kolektibo horretako langileei bermatzen dizkien oinarrizko eskubideak errespetatuta. **Onartua.**

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua**

• Funtzio publikora sartzeko prozeduretako izapide guztietan merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak eraginkor egiteko konstituzio-betebeharra zaintzea. **Onartua.**

• Behar diren neurriak aztertzea eta ezartzea funtzio publikora sartzeko prozedura orotan balorazio handiena duten izangaiek lehentasuna izan dezaten lanpostu hutsen esleipenean, eta, horrenbestez, funtzionario lanpostuak lanaldi osoan betetzeko izendatutakoetatik batzuek lanpostua garaiz hartzen ez badute, edo jabetza hartzeko unean eszedentzia egoera eskuratzen badute, lanpostu huts horiek, lehentasunez, eskaintzea lan-araubideko lanpostuak eta lanaldi partzialekoak esleitu zaizkienei, hautaprobak lanposturik lortu gabe gainditutakoei eskaini baino lehen. **Onartua.**

• Aldi baterako lanpostuen eskaintzaren kasuan, lehentasuna eman dakiela hautapen prozesuak gainditu dituztenei, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartezko hautaproben deialdien bitartez sartutako izangaien aurretik, alde batera utzita deialdian izangaiak hautatu duen kudeaketa-esparrua (Administrazio erroa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua edo Hezkuntza Departamentua). **Onartua.**

• Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan ari diren langileek urteko oporrez baliatzerik izan ez duten kasuetan, aldi baterako ezgaitasunaren ondoriozko baja-egoera bat dela-eta, eta opor horiek sortu direneko urtea iragan arren, baimena eman dadila opor horietaz baliatzeko beste aldi batean. **Ez da onartu.**

• Aldi baterako kontratazio kasuetan –kontratazio administratiboa izan nahiz lanekoa izan–, non langileak, nahi gabeko arrazoiengatik urteko opor ordainduetarako eskubideaz baliatzerik izan ez duenean kontratu-harremana amaitu baino lehen, aldi baterako ezgaitasun egoeran egoteagatik, hartzekoen likidazioarekin batera gozatu ez dituen opor-egunak ordain dakizkiola. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen oporrak arautzen dituen foru araudia egokitu dakiola azaroaren 4ko 2003/88/CE Zuzentarauan ezarritakoari, betiere arau hori Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2009ko urtarrilaren 20ko epaiaren arabera interpretatuta.

• Esklusibotasuneko edo lanaldia luzatzeko ordainsari-osagarria esleituta ez duten langileen

kasuan, lanaldi gisa har dadila lanpostutik beste toki batzuetara zerbitzu-arrazoiengatik joateko denbora, zeren eta aparteko ordu gisa jota joan-etorrietan emandako aparteko orduak, lanaldi arrunta gainditzen baldin badute**. Ez da onartu.**

• Langileak hautatzeko prozesuak bitarteko elektronikoez egin behar direla jotzen den kasuetan, betebehar hori dekretu bidez nahiz foru agindu bidez ezartzea**. Onartua.**

• Aztertzea komenigarria ote den Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua edo hura garatzeko araudia alda dadila, bidea emateko Nafarroako Gobernuko langileei, haurrak familia-harrera iraunkorrean dutenei, hartutako haurrengatiko familia-laguntzaren ordainsaria jasotzeko**. Ez da onartu.**

• Lanpostuetara sartzeko edo lanpostuak hornitzeko deialdietan, aplikatzea irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretuan jasotako gaitasun agiriaren eta abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako maila aurreratuko ziurtagiriaren baliokidetasuna**. Ez da onartu.**

• Lanpostuak oposizio bidez betetzeko garaian euskara edo Europako beste hizkuntza batzuk jakin behar izatea aurreikusten den kasuetan, etorkizunean oinarri bat sar dadila, zeinaren bidez aurreikusiko baita eta bideratuko baita hizkuntzaren ezagutza dela-eta exijitzen den mailarako azterketaren ordez –izangaiak hura egiteko nahia adierazi duenean–, eskabidea aurkeztu ondoren eta azterketaren data baino lehen lortutako titulazioa aurkeztu ahal izatea**. Ez da onartu.**

• Hautapen prozesu batean eginiko jarduketak atzera eramatea, zeren eta izangai bati baremastu zitzaizkion merezimenduak ez baitzitzaizkion zuzen baloratu, administrazio publikoak berak ziurtagiriak oker egitearen ondorioz**. Ez da onartu.**

**Hezkuntza Departamentua**

• Hezkuntza Ministerioari proposatzea hobekuntzak ezar ditzala Maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioentzako estatu mailako leku-aldatze lehiaketen parte-hartzea kudeatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoan, halako moduz non etorkizuneko deialdietan saihestuko baita izangaiak nahasteko bidea ematea**. Onartua.**

• Funtzionario publikoek parte ez hartzea, ezta ebaluatzaileak ez diren hautapen batzordeetako kide gisa ere, irakasleak hautatzeko hautapen prozeduretan, noiz eta haietara aurkezten diren izangaiekiko odolkidetasuneko laugarren mailara arteko edo ezkontza bidezko bigarren mailara arteko senidetasuna daukatenean, Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28.2.b) artikuluan ezarri bezala**. Onartua.**

• Arauak aurreikusten dituen kontratazio modalitateen erabilera egokitzea berez gertatzen diren kasuei, halako moduz non ez den ordezkapeneko kontratua erabiliko irakasle premia berriei erantzuna emateko**. Onartua.**

• Irakasleen kidegoan sartzeko langileen hautapen deialdiak egitea aurreikusten ez den espezialitateetan –eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioak ondoz ondoko urteetan eginen direnetan–, maiatzaren 8ko 60/2009 Foru Aginduko xedapen iragankorraz baliatuta, zerrenda indardunen ordez, merezimenduak gaurkotuta dituzten zerrenda berriak erabiltzea.

• Egokitzat jotzen dituen neurriak ezartzea laguntza edo zaintza berezia eskatzen dituzten gaixotasunak dauzkaten ikastetxe publikoetako ikasleak langile kualifikatuek eta behar adina ezagutza teoriko eta praktikoa dutenek arta ditzaten**. Ez da onartu.**

• Frogabide gisa onartzea, erlijio-irakasleen antzinatasuna aitortzearen eraginetarako, ikastetxeetako zuzendariek eta Artzapezpikutzak emandako dokumentuak, ikastetxeetan 2000 baino lehen irakasle gisa egiazki emandako zerbitzuak kreditatze aldera**. Ez da onartu.**

• Kontratatutako irakasleak ikastetxe berean eta lanpostu berean mantenduko diren irakasleen aldi baterako kontratazio kasuetan, kontratua abuztuaren 31ra artekoa izan dadila eta, horrenbestez, uztaileko eta abuztuko ordainsariei euts dakiela, eta halakoetan ez gertatzea hasiera batean eginiko ordezkapeneko kontratua eragin zuen arrazoia aldatzearen ondorioz kontratu-modalitatea aldatzen dela, kontratatuaren kaltetan**. Ez da onartu.**

• Analisi juridiko bat egitea Dantza Eskolan dauden premiei aurre egiteko dantza-laguntzaileek egiten duten lanaren ohiko nahiz ohiz kanpoko izaerari buruz, eta analisi horren ondorioz ondorioztatu ahal izatea ea ondoz ondoko ekitaldietan erabili nahi den kontratazio administratiboa lan bereziak egiteko kontratazioari dagokiona den, edo, bestela, langileak kontratatzeko beste formula administratibo batera jo beharra dagoen edo halako formula bat ex novo arautu behar ote den**. Ez da onartu.**

• Behar diren neurriak ezartzea irakasle funtzionario bati aitortzeko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan, lanpostu horretan eszedentzia boluntarioa deklaratua zuen garaian, behin betikoz esleitu zitzaion lanpostu bat**. Ez da onartu.**

**Osasun Departamentua**

• Arrazoizko epe batean izapidetzea eta ebaztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordainsarien likidazioa, eta horretarako behar diren neurriak hartzea, zeregin horretan esku hartzen duten organo administratiboei dagokienez**. Onartua.**

• Ordaintzea, gehiago geroratu gabe, 2009tik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei aitorturiko ordainsari osagarriak, aplikatzekoak diren berandutza-interesekin**. Ez da onartu.**

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A mailako osasun langileek barne mugikortasunari buruzko erabakia aplikatzea, behar diren terminoetan**. Onartua.**

• Behar den negoziazioa egin ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanaldia eta asteko atsedenaldia arautzea, osasun administrazioak zentral sindikalekin landa eremuetan laguntza jarraitua emateari buruz eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen bestelako lan baldintza batzuei buruz sinaturiko ituna onesten duen 2008ko martxoaren 13ko erabakia langile horiei aplikatzen ez zaien kasuetan**. Onartua.**

• Ehuneko 33ko ezgaitasun gradua edo hura baino altuagoa duten pertsonei, sartuta dauden kontratazioetarako izangaien zerrenda guztietan, deituak izateko lehentasuna ematea, lehentasun hori mugatu gabe hautapen probak gainditzearen ondorioa diren zerrendetara**. Ez da onartu.**

• Lanbide karrera aitortzeko espedienteak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebaztea, interesdunei dagozkien ordainsariak ebazteko eta ordaintzeko garaian atzerapenik edo geroratzerik gertatu gabe**. Ez da onartu.**

• Iraupen laburreko kontratuetarako lanpostuak betetzeko garaian, betetzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun zentro eta establezimenduetarako aldi baterako langileak hautatzeko arauak onetsi zituen Osasun kontseilariaren azaroaren 24ko 172/2009 Foru Legeko 5. artikulua, eta artikulu horren indarrez bi dei egin daitezela egun bereko bi ordutan (gutxienez 2 orduko aldearekin), izangaiak eskabidean adierazitako helbide elektronikoaren edo telefonoaren bidez, izangaia jakinaren gainean jarriko dela bermatzen duten baldintzak guztiak betez**. Onartua.**

• Izapidetzea eta arrazoizko epe baten barruan ebaztea langileen arloko behar diren hautapen prozedura guztiak, eta horretarako bidezko diren neurri guztiak hartzea; halaber, 2009ko urrian hasitako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako zaintzaile lanposturako hautapen prozedurari amaiera ematea, ahal den bezain laster**. Onartua.**

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premiatzea kexa-egile bati zerbitzu eginkizunetan jarduteko aukera eman diezaion, Iruñerrian hutsik dagoen edo hutsik geratzen den lehenengo pediatra lanpostua betetzeko**. Ez da onartu.**

• Lanbide karrera aitortzeko espedienteak ebazteko hiru hilabeteko epe osagarria betetzea**. Ez da onartu.**

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premiatzea kexa egin dutenei karrerako maila aitortzeko espedienteak ahal bezain azkar ebatz ditzan, eta dagokien ordainsari osagarria eman diezaien**. Ez da onartu.**

**Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, langileen araubide administratiboko kontratazioa arautzen den urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz probaldi bat ezarri eta kasuko langileak hura gainditzen ez duen kasuetan, langileari xehetasunekin eta arrazoiak emanda jakinaraz diezazkiotela probaldi hori ez gainditzeari buruzko arrazoi zehatzak, bere defentsa ahalbidetzeko**. Onartua.**

**Sustapen eta Etxebizitza Departamentua**

• Behar diren neurriak aztertu eta, kasua bada, betetzea Alhondiga kaleko 1. zenbakiko 2. solairuan dauden bulegoen ingurumen-baldintzak egokitzeko Lantokietako osasuneko eta segurtasun gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuan ezarritakoari, eta, zehazki, III. eranskinean aurreikusitako balioei**. Onartua.**

**Nafarroako Unibertsitate Publikoa**

• Diziplina ahalmenaz baliatzeari dagokionez:

=> Legezkotasun eta tipikotasun printzipioak aplikatzea enplegatu publikoen diziplina ahalmenaz baliatzeko garaian.

=> Prozedura administratiboetan, diziplina-prozeduretan barne direla, interesdunei erraztasunak ematea aholkulari baten laguntza izateko eskubideaz baliatzeko, Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 85.2 artikuluan ezarritako terminoetan.

=> Ezeztatzea diziplina espediente batean emaniko zehapen ebazpena, eta zehapena indarrik gabe uztea**. Ez da onartu.**

• Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 105.2 artikuluan aurreikusitako bidetik, aldaketarik ez egitea deialdien oinarrietan, parte hartzeko baldintzetan eragina dutenean. Izan ere, arau horrek gaikuntza ematen du soilik akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko. **Onartua.**

**Itzako Udala**

• Ezeztatzea Alkatetzaren 2009ko urriaren 9ko Erabakia, zeinak ezezkoa ematen baitio lan-kontratudun baten borondatezko eszedentzia (bateraezintasunarengatiko eszedentzia) hartzeko eskariari, eta, horrenbestez, interesdunaren eskaria aintzat hartu eta hari bateraezintasunarengatiko borondatezko eszedentzia ematea. **Ez da onartu.**

**Leringo Udala**

• Herritarrei zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa emateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 27. artikuluan ezarritakoa betetzea eta, horrenbestez, izapidetzea hautapen prozesu bateko azterketa bat berraztertzeko eskari bat, bide elektronikoaz aurkeztutakoa.

**Iruñeko Udala**

• Araubide administratiboan kontratatutako langileak hautatzerakoan, berdintasuneko, merezimenduko eta gaitasuneko printzipio konstituzionalak bete daitezela zaintzea. **Onartua.**

• Udalak deitzen dituen oposizioetan, non zenbait ariketa teoriko eta praktiko egonen diren, izangaiek egin beharreko ariketetatik gutxienez bat ez izatea irakurketa pertsonal eta publikokoa, eta epaimahaiak haren ebaluazioa pliken sistemaren bidez egitea, hartara anonimatoa zainduz gutxienez ere ariketetako batean. **Onartua.**

• Bidezkoa ez izatea enplegua eta soldata eteteko diziplina zehapenak betetzea, zehatuak aldi baterako ezgaitasun egoeran dagoen aldian. **Onartua.**

• Funtzio publikora sartzeko oposizioetako deialdietan, ariketak test motakoak direnean, oinarrietan honakoa ezartzea: a) gainditzeko gutxieneko puntuak; b) erantzun zuzen bakoitzari ematen zaion puntuazioa; eta c) epaimahaiak, hautaprobak egin ondoren, erantzun zuzenen txantiloia argitaratzeko betebeharra. **Ez da onartu.**

• Deialdi bat egitea oposizio bidez Udaltzaingoko hogeita hamar lanpostu betetzeko, oinarri guztiekin, eta haren indarrez Udaltzaingoko laguntzailea izateko prestakuntza ikastaroa egitea eta deialdi horretan aurreikusten den aldi baterako kontratazioko izangaien zerrenda egitea. **Ez da onartu.**

• Bere egitea Lan Osasunaren Institutuaren eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Udal Zerbitzuaren izaera prebentibo zegin dituen proposamenak; honako hauek definitzean dautza, hain zuzen ere:

=> Langile bakoitzaren rola, haren atribuzioak eta betebeharrak argiro markatuz. **Ez da onartu.**

=> Estamentuen arteko harreman-arauak, batzuen eta besteen eskubideekiko errespetua zaintze aldera. **Ez da onartu.**

=> Lanerako txandak eta libratzeko txanda ekitatiboak, lankideen artean adostutako aldaketak bideratuz, betiere zerbitzua bermatzen den bitartean. **Ez da onartu.**

=> Lana ebaluatzeko irizpideak, zeinek publikoak izan behar baitute. Komeni da haiek egiterakoan langileek parte hartzea. **Ez da onartu.**

**Gareseko Udala**

• Udaleko langile funtzionarioen oporrei buruzko xedapenen interpretazioa eta aplikazioa egokitzea jurisprudentziak gai horiei buruz ezarrita dituen irizpideei, eta, horrenbestez, bere zerbitzuko langileak ekonomikoki konpentsatzea lanerako aldi baterako ezgaitasunarengatiko baja baten ondorioz gozatu ez dituzten opor-egunengatik. **Ez da onartu.**

### 6.2.7. TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA

**Berriozarko Udala**

• Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko 8. artikulua betetzea eta, horren indarrez, egunero Nafarroako Foru Komunitateko bandera erakuts dezan bere egoitzetan bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren eraikinetan, gutxienez ere egun bakoitzeko 8:00etatik 20:00etara, eta behar diren neurriak ezartzea betebehar hori eraginkortasunez bete dadin.

**Sorladako Udala**

• Gutxienez ere hiruhilekoan behin bizilagunen batzarrerako deia egiteko betebeharra betetzea. Onartua

**Tuterako Udala**

• Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen abenduaren 26ko 30/1992 Legeko 35. artikuluko h) letra beti betetzea. Izan ere, hartan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela agintariek eta funtzionarioek begirunez artatuak izateko, eta agintari eta funtzionarioek erraztasunek emanen dituztela herritarrek beren eskubideez baliatu ahal izateko eta beren betebeharrak bete ahal izateko udal erroldaren kudeaketari dagokionez. **Onartua.**

### 6.2.8. HERRITARREN BERMEAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN

Zenbait jarduketaren bitartez eta arlo ia guztietan eragina duten kexak ebazterakoan, nabarmendu da Nafarroako administrazio publikoek honako hauetarako legezko betebeharra daukatela:

• Konfiantza legitimoaren eta fede onaren printzipioen arabera joka dezatela eta eraginkor bihurtu dezatela herritar orok administrazio egokia edukitzeko duen eskubidea.

• Bidea eman dezatela herritarrek artxibo eta erregistro administratiboak begiratu ahal izateko, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako moduan.

• Ez eskatzea herritarrei aurkez dezaten administrazio publiko eskatzailearen artxiboetan lehendik badagoen dokumentazioa.

• Herritarrek eskatzen duten informazioa eta herritarrak interesduntzat jotzen direneko espedienteetako agirien kopiak ematea.

• Behar diren neurriak hartzea herritarrek arreta egokia jasotzeko eta zerbitzu publikoak erabiltzeko dauzkaten eskubideak eraginkor egiteko, eta uneoro zerbitzu horien funtzionamendu arrunta bermatzea.

• Herritarrei zuzendutako egintza administratiboak motiba ditzatela, bereziki egintza horiek herritarren kalterako izaten direnean.

• Errespetatzea administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubideak. Bereziki, ondokoak: alegazioak egitea, jardueretarako eskatzen diren baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientabidea jasotzea; agintariek eta funtzionarioek errespetuz eta begiramenez tratatzea, eta agintari eta funtzionarioek erraztasunak ematea beren eskubideez baliatu ahal izateko eta betebeharrak bete ahal izateko.

• Ondare erantzukizuneko prozeduretako tramiteak arin ditzatela, haien ebazpena ez dadin beharrik gabe gerora, behar diren neurriak ezarriz administrazio egokirako eskubidea eraginkor egiteko.

• Herritarren datu pertsonalak exijitzekoak diren berme guztiekin babes ditzatela, intimitaterako oinarrizko eskubidearen urraketarik gerta ez dadin.

• Zehapen prozedurak izapide ditzatela aplikatzekoak diren araua hertsiki betez, inoiz ere babesgabetasunik eragin gabe.

• Herritarrei ahal den informazio zabalena ematea toki enteen jarduerari buruz, eta haiei tokiko bizitzan parte hartzeko bidea ematea.

• Erraztasunak eman eta berma dezatela herritarrek hirigintzari buruzko informazioa eskuratzeko daukaten eskubidea bermatzeko.

• Erraztasunak eman eta berma dezatela herritarrek ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko daukaten eskubidea bermatzeko.

Zehazki, legezko betebeharren honako gogorarazpenak egin dira:

**Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua**

• Behar diren neurriak hartzea herritarrei laguntzeko bulegoak antolatze aldera, hain zuzen ere haietan informazio eta arreta arin eta eraginkorra eman dakizkien herritarrei Administrazioarekin egin behar dituzten izapideetan. Onartua

• Nafarroako Administrazio Auzitegiak aukera ematea auzitegi horri dokumentazio batzuk aurkezterakoan eginiko akats bat zuzentzeko, eta, horrenbestez, aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa izapidetzeko onartzea**. Ez da onartu.**

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen aurreproiektuan sartzea konponbideetarako arlo judizialaz kanpoko mekanismo bat, zeinak eraginkor bihurtuko baitu herritarrek daukaten eskubidea, Administrazioaren esku udagoen informazio publikoa eskuratzekoa, baldin eta eskubide hori ukatzen bada. Zehazki, gaurko legeetan ekintza administratiboetarako aurreikusitako berme administratibo eta judizialei eranstea herritarrek eskubidea izan dezatela Nafarroako Arartekoari erreklamatu ahal izateko, baldin eta informazioa eskuratzeko eskubidea guztiz edo zati batean eragozten duen ebazpenen bat badago, halako moduz non erakunde horrek babestuko baitu, eraginkortasunez eta independentziaz, herritarrek eskubide horretaz baliatu ahal izateko aukera izatea, prozedura erraz, azkar, kontradikziozko, berariazko eta doako baten bitartez (prozedura horrek errekurtso administratiboa ordeztuko luke), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 60. artikuluan eta Estatuko oinarrizko legediko korrelatiboan ezarritakoaren babesean**. Ez da onartu.**

**Hezkuntza Departamentua**

• Politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeko 30.1 artikuluak erantzuteko aipatzen duen epea –hilabetekoa– betetzea, eta behar diren neurriak ezartzea eraginkor bihurtzeko herritarrek beren gaien administrazio egokorako daukaten eskubidea**. Onartua.**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Eskolatze batzordearen legezko betebeharra, herritarrei arreta egoki eta eraginkorra ematekoa, beti betetzea, eta beti kortesiaz jokatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 3. artikuluak ezarri bezala.

**Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua**

• Ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko eskabideak izapidetzea 27/2006 Legean ezarritako arauen arabera, eta, bereziki, behar diren epeetan ebazpenak ematea, eta erantzuna eskatutakoaren edukiari egokitzea**. Onartua.**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Nafarroako Ingurumen Kontseiluko idazkaritza premiatzea ahal den bezain laster jo dezan behar diren entitate eta elkarteei, Nafarroako Oihangintzaren Kontseilu Aholku-emailerako eta Nafarroako Uraren Kontseilurako ordezkariak izenda ditzaten eskatzeko**. Onartua.**

**Ablitasko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Ez da onartu.**

**Agoizko Udala**

• Xehetasunekin erantzun diezaiela herritar batek bere eskubideetan eta interes legitimoetan eragina duten gaiei buruz eginiko galderei**. Ez da onartu.**

**Cabanillasko Udala**

• Herritarrek aurkeztutako eskabide eta idazkiei erantzuna ematea arauetan ezarritako epean, eta eskariei erantzuteko herritarrei bidaltzen zaizkien erantzunetan arrazoiak ematea**. Onartua.**

**Kasedako Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Cortesko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei.

**Lizarrako Udala**

• Administrazio publikoen ondare-erantzukizunaren arloko prozeduretarako erregelamendua onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritako epeak betetzea**. Onartua.**

**Etaiuko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Ezkabarteko Udala**

• Langileen ordezkariei erraztasunak ematea beren funtzio sindikala bete dezaten, eta egiten dituzten eta langileek zerbitzua emateko baldintzekin zerikusia duten informazio-eskariei erantzutea**. Onartua.**

**Larragako Udala**

• Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 318. eta 319. artikuluetan ezarritako betetzea, non honakoa ezartzen baita: "Nafarroako toki entitateak behartuta egonen dira haien eskumenak diren arloetan aurkezten dizkioten eskaera guztiak ebatzi eta ebaztera"; eta "toki erakunde eta entitateek beren eskumen gabezia aitortu beharko dute, agintariek hori eskatzen ez badiete ere, ezagutzea egokitzen ez zaizkien gaiei buruzko erabakiak eskatzen zaizkienean"**. Ez da onartu.**

**Leringo Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei.

**Irunberriko Udala**

• Eliza Katolikoaren jabetzakoa den higiezin bat kultur jarduerak egiteko lagatzeko itun berrian, hain zuzen ere esku hartutako aldeek formalizatu behar duten horretan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak deuseztatutakoaren ordez, baldintzetatik kanpo uztea Irunberriko Udalak, Konstituzioko 16. artikuluaren indarrez, bete beharreko akonfesionaltasunaren aurkako aipamen oro**. Ez da onartu.**

**Mendabiako Udala**

• Baloratzea zein aukera dauden bere erregistro organoek dokumentuak konpultsa ditzaten, are haren aurrean aurkeztutako eskabide, komunikazio eta gainerako idazkiekin batera aurkeztu ez direnean ere, hartara erraztasunak emanez bizilagunek beren eskubideez balia daitezen; hori, halere, ez da eragozpena izanen zerbitzua ematearen truke tasa bat ezartzeko.

**Iruñeko Udala**

• Kopiak eskatzen dituena interesduna den kasuetan, espediente administratiboetan dauden dokumentuen kopiak ematea; hori, halere, ez da eragozpena izanen pertsonen intimitatean eragina duten datuak babesteko, Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Auzoetako jai batzordeek “Olentzero-jai” tradizionalen inguruan aurkezten dituzten eskabideak ebaztea, eta behar diren erantzuna jakinaraztea, behar den denborarekin, hiriko kaleetan zehar egin behar diren ekitaldiak eta desfileak behar den moduan antolatu ahal daitezen, ezertan ere kendu gabe ordena publikoa zaindu behar izatea, Konstituzioko 21.2 artikuluan aipatzen den bezala**. Onartua.**

• Auzo unitateetan, oinarrizko gizarte zerbitzuetan, herritarrari arreta emateko ordutegia malgutzea, eta intentsitate txikiagoarekin bada ere, zerbitzua arratsaldez eskaintzea**. Onartua.**

• Erraztasunak ematea herritarrei espedientea administratiboetako dokumentazio eskuratzeko, guztiz eraginkor bihurtuz artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeko duten eskubidea**. Onartua.**

• Zinegotziei erraztasunak ematea udalaren esku dauden dokumentu eta artxiboetara sartu ahal izateko, beren eginkizunak garatzeko beharrezkoak direnean.

• Herritarrek hirigintzaren arloa dela-eta eskatutako informazioa ematea, ezarritako terminoetan eta norainokoarekin.

**Azkoiengo Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Gareseko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei.

**Torraba del Ríoko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Erraztasunak ematea herritarrei espedientea administratiboetako dokumentazio eskuratzeko, guztiz eraginkor bihurtuz artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeko duten eskubidea**. Onartua.**

**Tuterako Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Uharte-Arakilgo Udala**

• Zaintzea bete egiten dela langileek, uneoro, herritarrekiko harremanetan tratu zuzen eta adeitsua edukitzeko legezko betebeharra.

• Betetzea herritarrek hirigintzaren arloa dela-eta eskatutako informazioa emateko legezko betebeharra, ezarritako terminoetan eta norainokoarekin.

**Aranguren Ibarreko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Eguesibarko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Arbeitzako Kontzejua**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

• Jubilatuen Kluba berriz irekitzea eta haren kudeaketa berrezartzea, harik eta, kasua bada, legez lokalaren kudeaketari buruzko kontratua amaitzen den arte edo behar den aurre-abisuaren bidez amaiarazten den arte, aurrez horretarako dauden arrazoi objektiboak emanez**. Ez da onartu.**

**Azantzako Kontzejua**

• Bete dezala Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 35. artikulua eta Toki Araubideko Oina-

rriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.3 artikulua, eta, zehazki, kexa-egileari berehala eman diezaiola eskatutako dokumentazioa eskuratzeko bidea**. Ez da onartu.**

**Larraiozko Kontzejua**

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 325. artikulua betetzea –haren bidez, tokiko ordenantzak onesteko prozedura ematen da–, eta, horren indarrez, erabaki dezala jendaurreko informaziorako beste epe bati hasiera ematea, bizilagunek eta interesdunek bide eta aparkaleku publikoen erabilera arautzen duen ordenantza onesteko espedientea aztertu ahal dezaten eta nahi dituzten alegazioak egin ahal ditzaten.

**Iruñerriko Mankomunitatea**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Montejurrako Mankomunitatea**

• Erantzuna ematea herritarrek arauen bitartez ezarritako epeetan aurkeztu dituzten eskabide eta idazkiei**. Onartua.**

**Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea**

• Modu fede-emailean eta pertsonalean jakinaraz ditzala herritarren eskubideak eta interesak ukitzen dituzten administrazio-egintza guztiak, ulertuta afekzio hori gertatzen dela baldin eta hartu-agiriak egiteak karga ekonomiko bat baldin badu**. Onartua.**

**6.2.9. OGASUN PUBLIKOA**

**Ekonomia eta Ogasun Departamentua**

• Eraginkortasunez, azkartasunez, efizientziaz eta tributu-kudeaketako unitate organikoak koordinatuz jardutea, herritarrek administrazio egokirako duten eskubidea bermatze aldera**. Onartua.**

• Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 150. artikuluak ebazpena emateko aipatzen duen epea betetzea, interesdunek aurkezten dituzten berraztertzeko errekurtsoak izapidetzeari dagokionez**. Onartua.**

• Aztertzea aukerarik ba ote dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araudian gaurkotzeko urteko gehieneko errenta gisa ezarritako zenbatekoa, subjektu pasiboarekin batera bizi den 65 urteko edo gehiagoko –edo minusbaliotasuna dela-eta eskubidea duen 65 urtetik beheragoko– aurrekoarengatiko kenkaria aplikatu ahal izateko**. Ez da onartu.**

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua**

• Aztertzea eta, kasua bada, bultzatzea, beste organo batzuekin batera beharrezkoa bada, aldaketa bat egiteko aukera, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga dela-eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 160.1.d) artikuluan aurreikusitako salbuespenean, Nafarroan bizi eta ezgaitasunen bat duten pertsonek ez dezaten tratu okerragoa jaso Estatuko beste lurralde batzuetan jasoko luketena baino, dela ibilgailuen potentzia dela-eta ezarritako muga kenduz, dela hura, gutxienez ere, hamalau zaldi fiskaletaraino igoz**. Onartua.**

**Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea**

• Hiri hondakin solidoak jaso, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen irizpidea ken dadila eta haren ordez berdintasun- eta progresibitate-printzipioekin hobeki uztartzen den irizpide bat ezar dadila, edo, bestela, egungo tarifetan irizpide aldagarriak eta gutxieneko eta gehieneko topeak ematea, hain zuzen ere tasa berdintasun printzipioari hobeki egokitzeko, halako moduz non haren zenbatekoaren banaketak zuhurtzia irizpideak beteko dituen eta ez den justifikatu gabeko desberdintasunik edo neurrigabeko emaitzarik gertatuko**. Ez da onartu.**

• Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta aprobetxatu edo deuseztatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritakoa aplika dezala, jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jarduera bat etxebizitza batean garatzeko kasuei dagokienean; izan ere, kasu horretan, zenbateko handieneko tasa aplikatuko da**. Onartua.**

• Ordenantza arautzaileko 6. artikuluan jasotako kasua aplikatzea –artikulu hori zergapetutako egoerak, etxebizitzakoa eta jarduera ekonomikokoa, batera gertatzeari buruzkoa da– soilik kasuko jarduera hori efektiboki eta materialki subjektu pasiboaren etxebizitzan garatzen denean.

**Barillasko Udala**

• Deuseztatu diren edo eraginkortasuna galdu duten gaikuntza emateko egintza administratiboei dagozkien diru-sarrerak itzultzeko legezko betebeharra betetzea.

**Leringo Udala**

• Udaleko teknikariek orientabideak ematea herritarrei lursailen eta higiezin unitateen mugak eta azalerak grafikoki aldatzeko prozedura izapide-

tzeko aurkeztu beharreko baldintzei eta dokumentazioari buruz, eta, horrela, aldaketa katastralak premiatzeko eskubidea eraginkor egitea. **Onartua.**

**Atarrabiako Udala**

• Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduko 109.4 artikuluan xedatutakoa betetzea; izan ere, artikulu horrek, banku-kontuen titularkidetasuneko kasuetan, baimena ematen du soilik titular zordunari dagokion zatia bahitzeko; eta, horrenbestez, indarrik gabe uztea hamar urtetik beherako neska baten eta haren anaiaren izenean dagoen banku-kontu batean eginiko bahitura.

### 6.2.10. BARNE ARLOA

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako** eta Barneko Departamentua

• Egokitzat jotzen dituen bideen bitartez jakinaraztea Nafarroako Polizia Kidegoei (Foruzaingoa eta tokiko poliziak) ezin direla herritarren telefono mugikorrak errekisatu, salbu eta erabaki judiziala dagoenean, hain zuzen ere delitu-egitateren bat egin izatearen behar adin aztarna dagoen kasuetan. **Onartua.**

• Auzitegi Nazionaleko fiskalburuaren jarraibidean ezarritakoei jarraituz, behar diren neurriak ezartzea dagokionak ahal bezain laster ken dezan gaur egun Arbizuko elizan dagoen ETA erakunde terroristaren aldeko pintada. **Onartua.**

**Iruñeko Udala**

• Zaintzea udaltzainek bete egiten dutela, uneoro, herritarrekiko harremanetan tratu zuzen eta adeitsua edukitzeko legezko betebeharra. **Onartua.**

• Toki publikoetan bideokamerak jartzen den kasuetan, informazio-xaflak jar daitezela, gehienez ere 100 metroko erradioko esparru batean, behar den panel osagarriarekin, adierazteko toki hori bideokameren bidez zainduta dagoela. **Onartua.**

• Ikuskizun publikoetarako eta josketa jardueratarako lokalak ixteko ordutegia bete ez eta udaltzainek ikuskapenak egiten dituzten kasuetan, egitateen egiaztapenak egiterakoan udaltzainak lokalera sartzea eta, kasua bada, ezarritako salaketa jakinaraztea establezimendu horietako titularrei edo une horretan establezimendu horien ardura dute pertsonei. **Ez da onartu.**

**Tafallako Udala**

• Zaintzea udaltzainek uneoro betetzen dutela herritarrekiko tratuan egoki eta adeitasunez jokatzeko betebeharra, bai eta polizia kidegoko kide gisa identifikatzeko betebeharra ere, beren jokabideak herritarrek legez dituzten eskubide eta askatasun publikoak mugatzen dituen egoera guztietan. **Ez da onartu.**

### 6.2.11. GAZTERIA ETA KIROLA

**Antsoaingo Udala**

• Udako-neguko igerilekuak, zentro hidrotermala eta instalazio osagarriak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza aldatzea, halako moduz non adin tarte bakoitzari dagozkion kuoten zenbatekoak kobratzekoa igorriko baita kasuko adinak egiazki betetzen diren egunean, adin hori egiazki edukitzearen prorrateoa eginez.

• Tributu-zor bat dagoen kasuetan, tributu-arauetan aurreikusitako prozedurak erabiltzea haren kobrantza segurtatzeko. Horrek, halere, ez du berarekin ekarriko kasuko udal zerbitzua erabiltzen jarraitzeko debekua.

### 6.2.12. INGURUMENA

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua**

• Herritarrek Foruzaingoari, telefono bidez, beren etxebizitzetan zaratak egoteari buruzko salaketak egiten dituzten kasuetan, agenteak gertagunean bertaratzea, eta zaratei buruzko arauak urratzen ari direla egiaztatzen badute, behar den zehapen prozedura abiatzea. **Onartua.**

**Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua**

• Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1966 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarrian aipatzen den parke naturalen antolaketa eta deklarazioa abiatzea, eta parke naturalaren figuran sakontzea, balio naturalak antolatzeko eta kontserbatzeko eta, aldi berean, aitortutako eremuan sartzen diren edo hartatik hurbil dauden herrien garapen sozioekonomikorako tresna gisa. **Ez da onartu.**

• Foru legean Nafarroako eremu naturalei buruz jasotako beste kategoria batzuen deklarazioa bultzatzea; bereziki, espazio txiki sentsibleei babes hobea ematekoak (esate baterako, erreserba, lekune edo monumentu naturalak) eta lurralde zabalagoetan ingurumenarekiko erabileren eta bateragarritasunaren antolaketa bideratzen dutenak (esate baterako, paisaia babestuak edo aisiarako natur eremuak). **Ez da onartu.**

• Sakontasun handiagoz aztertzea ea egokia eta nahikoa izaten ari ote den zehapen ahalmenaren, eta, halaber, lehengoratze ahalmenaren eta

legezkotasuna babestearekin lotutako beste batzuen erabilera-maila; eta, kasua bada, behar diren neurri zuzentzaileak ezartzea naturgune babestuen eta Europako arauen arabera deklaratutako guneen babes eraginkor eta erreala bermatzeko**. Ez da onartu.**

**Baztango Udala**

• Behar diren neurriak ezartzea lokal baten makineriak eragindako zarata arazoei konponbidea emateko, eta legez toleratzekoak diren mailak gainditzen dituzten episodioak berriz gertatzekotan, zarata eragiten duen iturria aldi baterako ixtea agindu dezala, egoera konpontzeko neurriak hartzen ez diren bitartean**. Onartua.**

**Bulatako Udala**

• Herritarrek beren etxebizitzen esparruan gehiegizko zaratak eta zarata iraunkorrak ez pairatzeko eskubidea babestea, eta horretarako behar diren neurri guztiak hartzea, eraginkortasunez eta arintasunez, antolamendu juridikoak esleitzen dizkion ahalmenez baliatuz, horren barne dela egintza administratiboen nahitaezko exekuzioa.

• Ahal bezain azkar betetzea etxebizitza-esparruetan zarataren bidezko immisioak eragiten dituzten salmenta-makina batzuk erretiratzeko agindua.

**Cintruénigoko Udala**

• Ingurumenaren arloko bere eskumenez eta erantzukizunez baliatzea, bereziki bizilagunek beren etxebizitzaren intimitaterako duten eskubidea urratzen duten gehiegizko zaraten aurrean**. Onartua.**

• Behar diren neurketak egitea eta, kasua bada, kasuko mugez eta zehapenez baliatzea etxebizitzetan zaraten immisioak saihesteko**. Onartua.**

**Corellako Udala**

• Eraginkortasunez jardutea herritarrek beren etxebizitzetan bakean egon daitezen eta atsedena har dezaten, aisiarako jarduerek eragindako bidegabeko zaratak saihestuz**. Onartua.**

• Hasitako lanarekin jarraituz, ahal den arreta guztia jartzea aisiako lokal batean garaturiko jarduerak bizilagunek intimitaterako, osasunerako eta ingurumen egokirako duten eskubidea urratzen duten zarata eta eragozpenak sor ez ditzan; izan ere, herritarren eskubide horiek Konstituzioan jasota daude, eta lehentasunezkotzat jotzen dira beste eskubide batzuen aldean –esate baterako, aisiarako edo jostetarako eskubidea–. Beharrezkoa bada, kasuko jarduerari errekerimendua egin behar zaio neurri zuzentzaileak har ditzan eta, are gehiago, lokala aldi baterako nahiz behin betiko itxi dezan, ez bazaie lege indardunei guztiz egokitzen**. Onartua.**

**Uharteko Udala**

• Hertsiki aplikatzea Zaratak edo bibrazioak sortzen dituzten jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak ezarri zituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuko 15. artikulua, halako moduz non bermatuko baita bizilagunak babesturik daudela etxebizitzaren esparruan gertatzen diren gehiegizko zaraten eta zarata iraunkorren aurrean. Horren indarrez, behar diren neurriak ezartzea trafikoak Ugarrandia etorbidearen eta Pérez Goyena kalearen arteko bidegurutzeko harzolaren gaineko trafikoak eragindako zarata ahal den guztian gutxitzeko.

**Iruñeko Udala**

• Eraginkortasunez jardutea herritarrek beren etxebizitzetan bakean egon daitezen eta atsedena har dezaten, haiek babestuz aisiarako eta jostaketarako lokal-etxabeak erabiltzeak dakartzan bidegabeko zarata eta eragozpenetatik**. Onartua.**

• Ingurumen arloko bere eskumenez eta erantzukizunez baliatzea, bereziki bizilagunen etxeko intimitaterako eskubidea urratzen duten aisiako lokalen gehiegizko zaraten aurka, eta bidezkoak diren neurketak egin eta, kasua bada, mugak eta zehapenak ezartzea**. Onartua.**

• Gazte-taldeek lokal-etxabeak aisiarako gune gisa erabiltzeko baldintza gisa ezartzea aurrez isolamendu akustikoko maila bat egiaztatzea, teknikoki egokitzat jotzen den mailan, bizi-lagunek gehiegizko mailak ez jasateko daukaten eskubidea bermatze aldera**. Onartua.**

• Udaltzaingoaren esku-hartzearen bitartez, areagotzea gazteen aisiarako eremu publikoen zaintza, bizilagunen atsedenaldia bermatze aldera**. Onartua.**

• Hertsiki aplikatzea Zaratak edo bibrazioak sortzen dituzten jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak ezarri zituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuko 15. artikulua, halako moduz non bermatuko baita bizilagunak babesturik daudela etxebizitzaren esparruan gertatzen diren gehiegizko zaraten eta zarata iraunkorren aurrean. Horren indarrez, behar diren neurriak ezartzea Ave María elizaren erlojuak orduen berri emateko erabiltzen duen bolumena gutxitzeko**. Ez da onartu.**

• Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko Foru Legeko 204. artikuluan ezarritakoa betetzea, eta epe bat finkatzea eraikin bat, alde fisikotik, telefonia mugikorreko

antena bat jarri aurreko egoerara lehengoratzeko behar diren eragiketak exekutatzeko, eta enpresa sustatzaileak halakorik egiten ez badu, isun hertsatzaileak jartzea edo, kasua bada, eraldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko obren exekuzio subsidiarioa egitera jotzea**. Ez da onartu.**

**Azkoiengo Udala**

• Ingurumena babestearen eta osasungarritasun publikoaren arloan dauzkaten eskumenez baliatzea; bereziki, zaratak eta dardarak eragiten dituzten jarduera pribatuen gainean esku hartzeko ahalmenak. Horrekin, herritarren funtsezko eskubide batzuk bermatuko dituzte: osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta etxebizitzan intimitatea eta bortxaezintasuna izateko eskubidea.

=> Konponbideak jartzea salmenta makina batzuk jarrita dauden toki batean bildu ohi diren gazteek sortzen dituzten zarata-arazoen aurkako konponbideak jartzea, eta gazte horiek kontzientziatzea beren aisiarako eskubidea eta bizilagunek beren etxebizitzetan atsedena hartzeko eta lasai egoteko eskubidea bateragarri egiteko beharrari buruz**. Onartua.**

=> Deskribatutako eremuan poliziaren presentzia areagotzea, beharrezkoa bada, gizalegearen edo bizikidetasuneko arau funtsezkoenen aurkako jokabide oro saihesten ahalegintzeko**. Onartua.**

=> Salmenta-makinen funtzionamendu-ordutegian ordutegi-muga batzuk ezartzea, haien titularrarentzako erabilera pribatibo bat edo jabari publikoaren aprobetxamendu berezi bat dagoen bitartean, toki araubideko legedian horrelako erabilera edo aprobetxamenduak eratzeko eta erregulatzeko aurreikusitako tresnen bitartez**. Ez da onartu.**

=> Beharrezkoa bada salmenta-makinak erretiratzea, bizilagunek beren etxebizitzetan intimitatea izateko daukaten eskubidea bermatze aldera edo gatazka egoerak saiheste aldera**. Onartua.**

**Tuterako Udala**

• Kutsadura akustikoa dela eta lege indardunek ematen dizkioten eskumenez eta erantzukizunez baliatzea, eta haien indarrez, asteburuetan, Tuterako San Julián kalean, Zaratak edo bibrazioak eragiten dituzten jarduerek bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua betetzea, hartara bizilagunei aukera emanez ingurumen egokiaz eta atsedenerako eskubide legitimoaz gozatzeko**. Onartua.**

• Lan egiten jarraitzea kaleko ekitaldien eta musika emanaldien ordutegiak bezalako neurriak hartzen, bizilagunei eragozpenak saiheste aldera**. Onartua.**

**Zizur Nagusiko Udala**

• Eraginkortasunez babes dezala bizilagunek atsedenerako daukaten eskubidea, eta horretarako beharrezkoak diren eta proportzionatuak diren neurri guztiak har ditzala**. Onartua.**

• Egiaztatzea aisiarako lokal bateko isolamendu akustikoaren maila, eta, beharrezkoa bada, neurri zorrotzagoak hartzea, baloratuz gauez jarduera eten dadila dekretatzeko aukera, edo hura aldi baterako ixteko aukera ere, edo bestela, zarataren emisioarekin zuzenean lotutako ekipoak edo instalazioak ixteko aukera**. Onartua.**

**Montejurrako Mankomunitatea**

• Zaborren bilketak sortutako zarata-mailari eta zarata horrek etxebizitza batean duen eraginari buruzko azterlan bat egitea, eta, kasua bada, behar diren neurriak hartzea, zarata hori legedi indardunarekin bat datozen mailetan mantentzeko**. Onartua.**

**Iruñerriko Mankomunitatea eta Orkoiengo Udala**

• Herritarrek beren etxeetan gehiegizko zaratak eta modu jarraituan ez jasateko daukaten eskubidea babestea, eta horretarako egoki diren neurri guztiak hartzea**. Onartua.**

• Honako neurriak hartzea, hiri autobus baten geratokitik hurbil dagoen etxebizitza batean detektatu diren zarata-arazoei konponbidea emateko:

=> Iruñerriko Mankomunitateak exijitzea eskualdeko hiri garraiorako “motorrak geratzeko” hartutako konpromisoa bete dadila. Konpromiso hori garraio zerbitzuaren kontzesio-hartzailea den enpresak hartu zuen, kontratu publikoei buruzko legedian aurreikusitako tresnen bitartez.

=> Herriko eskualdeko hiri garraiorako geratoki batean sortutako zarata-mailari eta zarata horrek etxebizitza batean duen eraginari buruzko azterlan bat egitea, eta behar diren neurriak hartzea, zarata hori legedi indardunarekin bat datozen mailetan mantentzeko**. Onartua.**

=> Detektatutako zarata-arazoari konponbidea emateko beharrezkoa bada, toki alternatibo bat erabakitzea erreferentziako geratoki gisa, etxebizitzetatik urrunago**. Onartua.**

### 6.2.13. HERRI LANAK

**Barasoaingo Udala**

• Bere jarduketa egokitzea Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 3.5 eta 54.1 f) artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta bide-tarte bat urbanizazio-proiektu batetik kanpo uzteko arrazoiak behar adina azaltzea. **Ez da onartu.**

**Barillasko Udala**

• Segurtasuneko arrazoiengatik eta bizigarritasuneko gutxieneko baldintzengatik, unitate batean urbanizazio bat egiten ez den bitartean, behar diren neurriak ezartzea, behin-behinekoz, unitate horren instalazio elektrikoa aldatzeko edo osatzeko, halako moduz non zerbitzu segurua emanen baitzaie hartan dauden etxebizitzei. **Ez da onartu.**

**Lizarrako Udala**

• Herri lanak exekutatzeko egiten diren desjabetzeetan, bere jarduera Nahitaezko Desjabetzeei buruzko Legean ezarritakoaren arabera egokitzea.

• “Las Lomas” urbanizazioko lubetari eta mendi-mazelari dagokionez:

a) Behar diren azterlanak egitea urbanizazioko lubetaren eta mendi-mazelaren egiazko egoera ezagutzeko.

b) Ahal bezain laster teknikari espezialistek gomendatutako obrak egitea, hain zuzen ere udal txostenean ondorio gisa ageri direnak.

c) Urbanizazioko bizilagunei informazioa ematea lubetan eta mendi-mazelan egin beharreko lanei buruz.

d) Lubetara jotzen duten iturburuak kokatzea eta inbentariatzea, eta, kasua bada, haiek batetik bestera joanaraztea edo Bearingo erreka birbideratzea.

**Iruñeko Udala**

• Sakontasunez aztertzea irudiak mugimenduan eskaintzen dituen publizitate-pantaila, Zortziko biribilgunearen ondoan jarritakoa, Gipuzkoako etorbideak eta PA-30 errepideak bat egiten duten tokian, kentzeko aukera, hain zuzen ere pantaila horrek gidarien eta oinezkoen segurtasuna dela-eta eragin dezakeen arriskuarengatik.

### 6.2.14. ZERBITZU PUBLIKOAK

**Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua**

• Arraioz herrian lurreko telebista digitalaren seinalea jasotzea ahalbidetzen duen azpiegitura aztertzea, eta behar diren jarduketa teknikoak egitea zerbitzuaz ahal den zabaltasun guztiarekin gozatu ahal izateko. **Onartua.**

**Ablitasko Udala**

• Hiri-bideak antolatzeko legezko betebeharra betetzea, herritarrei trafikoa eta bide horretatik pasatu ahal izatea bideratzeko. **Onartua.**

**Agoizko Udala**

• Legez ziurtatzea lursailen eta eraikinen promotore eta jabeek haiek segurtasun, osasungarritasun eta bizigarritasun baldintzetan mantentzen dituztela eta behar diren lanak egiten dituztela baldintza horiek zaintzeko edo berrezartzeko, bai eta haiei etxebizitza-erabilera dela-eta exijitzekoak diren zerbitzuak emateko ere. **Onartua.**

**Iruñeko Udala**

• Oinezkoen zirkulazioari eta bide zirkulazioari irekitako bide publikoak oinezkoentzako segurtasun baldintzetan mantentzeko legezko betebeharra betetzea, eta zaintzea bide horietan oinezkoen joan-etorriak zailtzen dituen oztoporik ez dagoela; betetebehar horrek barekin dakar bereziki zaintzea obrak egiten ari diren hiriko guneak, eta ziurtatzea obra horiek zuzen seinaleztatu direla eta haren garapenean erabil daitezkeen behin-behineko elementuak egokienak direla, egoera onean daudela eta zuzen ezarri direla. **Onartua.**

• Proiektu tekniko bat egitea eta, kasua bada, hura exekutatzea Iruñeko Sanduzelai auzotik Orkoien herrira arte dauden bi espaloiak oinezkoentzat lortzeko, eta behar diren neurriak ezartzea oinezkoek PA-30 errepidea gurutza dezaten behar den segurtasunarekin. **Onartua.**

• Betetzea Konstituzioak eta legeek ezarritako betebeharra, partikularrei kalte-ordainak ematearena haiek edo haien onasun eta eskubideek, bere eskumeneko zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz, pairatzen dituzten lesioengatik. Ez da onartu

**Tuterako Udala**

• Betetzea Konstituzioak eta legeek ezarritako betebeharra, partikularrei kalte-ordainak ematearena haiek edo haien onasun eta eskubideek, bere eskumeneko zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz, pairatzen dituzten lesioengatik. **Ez da onartu.**

**Iruñerriko Mankomunitatea**

• Betetzea Konstituzioak eta legeek ezarritako betebeharra, partikularrei kalte-ordainak ematearena haiek edo haien onasun eta eskubideek, bere eskumeneko zerbitzu publikoen funtzionamendua-

ren ondorioz, pairatzen dituzten lesioengatik. **Ez da onartu.**

**Lizasoko Kontzejua**

• Lursail bat garbi dezala, higieneagatik eta ekitateagatik. **Ez da onartu.**

**6.2.15. OSASUNA**

**Osasun Departamentua**

• Nafarroako Ospitaleguneko Alergologia Zerbitzuari giza baliabideak eta baliabide materialak ematea, alergia arazoak dituzten haurrei "elikagaien tolerantzia induzitzeko" teknika aplikatu ahal izateko. **Onartua.**

• Baloratzea aukerarik ba ote dagoen bularreko minbizia goiz antzematera berariaz zuzendutako programa bat diseinatzeko, familia aurrekariengatik arrisku handia duten emakume gazteen kasuan, eta harren barruan aldizkako azterketak biltzea (mamografia, ekografia eta erresonantzia magnetikoa); edo, bestela, familia aurrekariengatik arrisku handia duten emakume gazteak Osasun Publikoaren Institutua garatzen duen Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programan sartzea. **Ez da onartu.**

• Behar diren neurriak ezartzea egiazko eta eraginkor bihurtzeko in vitro ugalketaren prestazioa bigarren mailako antzutasuna izan eta semealaba osasuntsu bat duten bikoteentzat, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintza pertsonalak betetzen badituzte. **Ez da onartu.**

• Itxaronaldiak gutxitzea lehen edo bigarren mailako antzutasuna izan eta in vitro ugalketa eskatzen duten bikoteen kasuan, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintza pertsonalak betetzen badituzte. **Onartua.**

• Errioxako Osasun Zerbitzuari iradokitzea Nafarroarekin mugakideak diren herrietan bizi diren gaixoentzako zerbitzua ematen jarrai dezan, harik eta gai horri konponbidea emateko esparru egokia ezartzen den arte. **Onartua.**

• Kasu guztietan eta behar adina arrazoitzea herritarren eskubide edo interes legitimoetan eragina duten erabaki guztiak, are gehiago osasun prestazioak ukatzen diren kasuan, eta eraginkor bihur dezala herritarrek beren gaien administrazio egokirako duten eskubidea.

• Aztertzea laguntza jarraituko guneetatik zeinek eduki lezaketen teknikoki egokitutako ibilgailu bat, Administrazioaren titularitatekoa, osasun etxeetatik kanpoko larrialdiko osasun laguntza behar den kasuetan langile fakultatiboek hura erabili ahal izateko, kasuan kasuko baldintzen arabera (orografia, demografia, klimatologia, populazioa bakartua egotea, baserriak, gaixoen adina eta gaixotasunengatiko eskaria, bideen, landa bideen edo hiri arteko bideen egoera eta abar), eta lortutako emaitzak ikusita, ibilgailu horietako bat ematea beharrezkoa den guneei, arrazoizko epe batean. **Onartua.**

• Ezartzea edo, kasua bada, organo eskudunari proposatzea, larrialdiko osasun egoeretarako beren ibilgailu partikularrak erabiltzen dituzten langile fakultatiboei kilometrajearengatiko ordainsariak handi daitezela. **Onartua.**

• Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11.1 artikuluak ezarritakoari jarraituz, eraginkor egitea Espainian bizi diren haur atzerritarrek osasun laguntza publikoak jasotzeko daukaten eskubidea, alde batera utzita guztiz Espainian bizitzen egoteko arrazoiak (osasun turismoa eta abar) eta alde batera utzita, halaber, adingabe horiek Espainiako lurraldean duten legezko egoera edo egoera administratiboa. **Ez da onartu.**

• Aztertzea eta baloratzea osasun zentroetan pediatria zerbitzuek, umeen lehenengo hilabeteetan eginiko azterketa arruntei dagokienez, jarraitutako praktika egokia den, eta osasun etxeetan funtsean antzekoa izanen den arreta ematea eta behar diren baliabideak jartzea langileak/zerbitzuko erabiltzaileak ratiotik heldu diren aldeak saihesteko. **Onartua.**

• Osasun laguntza ematerakoan, laguntza odontologikoa jaso dadila, gaixotasun nagusiaren (Marfanen sindromea) ondorioak tratatzeko. **Ez da onartu.**

• Gaixoentzako heriotza arriskua dagoen kasuetan, alegia, garrantzi eta transzendentzia handikoa den kasuetan, osasun zerbitzu publikoak behar den osasun laguntza emateko baldintzetan ez daudenean, baimendu eta guztiz finantza daitezela gaixoak behar dituen tratamenduak, osasun zentro pribatuetan edo atzerrikoetan ematen direnak.

• Buru-osasunari dagokionez:

=> Buru-gaixoei osasun laguntza bermatzea, aplikatzekoa den legedian ezarritako gehieneko itxaronaldien arabera. **Onartua.**

=> Ahal den guztian arintzea Buru-osasuneko Estrategiaren garapena, buru-gaixoei kalitatezko laguntza psikiatrikoa ziurtatze aldera. **Onartua.**

=> Osasun Departamentuak aztertzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osasun mentalari arreta emateko egiturak dauzkan aurrekontu-prestazioak eta baliabide pertsonal eta materialak, eskariari erantzute aldera, bai anbulatorioetan, bai ospitaleetan, nolanahi ere haiek indartzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatuz. **Onartua.**

• Ez ukatzea farmazia-bulegoei modu baliagarrian emandako errezeten bidezko sendagaien finantziazioa, foru erkidegoan bizi ez diren gaixoei emanda izate hutsarengatik**. Ez da onartu.**

• Ahal den guztian arintzea farmazia bulego baten proiektuaren aldaketa-espedientearen izapidetzea eta ebazpena, eta espediente hori ebaztea farmazia irekitzeko eskaria egiteko unean dauden trafikoko irizpide eta arauen arabera**. Onartua.**

• Behar diren neurriak hartzea uztailaren 30eko 212/2001 Foru Dekretuan, otorduetarako eta ostaturako dieten kontzeptuan ezarritako hogeita hamar euroko zenbatekoa handitzeko, osasun laguntza hartzeko deribazioak, ikuspuntu ekonomikotik, familientzat kosturik izan ez dezan**. Ez da onartu.**

• Osasun garraioaren zerbitzua ematea gertatzen diren behar erreal, egiazko eta egiaztagarrien arabera.

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lantalde medikoak gomendatzen duen kasuetan, baimena ematea "in vitro" ernalketa egin baino lehenagoko ezarpen-aurreko diagnosiaren teknika aplikatzeko, eta konponbideak ematea "in vitro" ernalketaren osasun prestazioa eskuratu ahal izateko**. Onartua.**

• Herritarrak eskura ditzakeen osasun zerbitzuei buruzko informaziorako eskubidea eraginkor egitea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 9.1 artikuluan ezarri bezala**. Onartua.**

• Osasun garraioaren zerbitzuaren adjudikaziohartzaileak diren enpresak premiatzea gaixoei eta haien senideei informazioa emateko, hala eskatzen denean, garraio-zerbitzuan ordutegiaren eta ibilbideen balizko aldaketei buruz**. Onartua.**

• Gaixoei informazioa ematea eskuratzeko eskubidea izan dezaketen prestazioei buruz –esate baterako, elikadurari buruz–, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunen zorroa ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren arabera**. Onartua.**

• Itundutako botilen artean B-5 oxigeno botila sartzea, hartara gaixoen premia guztiak –eta, zehazki, kexa-egilearen premiak– behar bezala betez**. Onartua.**

• "In vitro" ernalketaren tratamendurako "itxaron zerrendan" emandako denbora gisa kontatzea kexa-egile batek itxaron behar izan duen denbora, hain zuzen ere 2007., 2008. eta 2009. urteak, sendagile baten jarduketa okerraren ondorioz, zeren eta ezezkoa eman baitzion kexa-egilea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialistaren ugalkortasuneko kontsultara**. Ez da onartu.**

• Baimena ematea adingabe bati klinika pribatuan tratamendua eman diezaioten, eta zuzenean bere gain hartzea osasun laguntza horrek eskatzen duen finantziazio osoa, edo, azkeneko kasuan, interesdunei eragindako gastuak itzultzea**. Ez da onartu.**

• Atzera botatzea eta eraginik gabe uztea urtarrilaren 14ko 52/2011 Ebazpena, zeinak ezartzen baitu ez dela bidezkoa beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren pazienteen errezetak finantzatzea, salbu hona lekualdatutako pazienteen edo iragaitzazko bidaiarien kasuan (ebazpena 2011ko martxoaren 7ko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen)**. Ez da onartu.**

### 6.2.16. ZIRKULAZIOA

**Iruñeko Udala**

• Aztertzea Azpilagañako bidegurutzean trafikoan arriskurik ba ote dagoen, eta baloratzea egokia ote den neurri zehatzak ezartzea oinezkoen segurtasuna eta haiek bizitzarako eta osotasun fisikorako daukaten eskubideak bermatzeko**. Onartua.**

• Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako zehapen prozedura betetzea.

• Arintzat jotzea trafikoko zenbait arau-hauste, eta haiek larritzat jotzearen ondorioz ordaindutako diru-kopuruak itzultzea**. Ez da onartu.**

**Eguesibarko Udala**

• Zehapen espediente bat aztertzea, halako moduz non egindako arau-haustea arintzat joko baita eta, horrenbestez, zehapen gisa ezarritako zenbatekoa gutxitzea**. Ez da onartu.**

### 6.2.17. HIRIGINTZA

**Sustapen eta Etxebizitza Departamentua:**

• Sakontasunez aztertzea Eguesibarko Udal Plan Orokorraren onespenaren aurka aurkeztutako

gora jotzeko errekurtsoa, eta, zehazki, plana behin betikoz onesteko jarraitutako prozedura. Eta ulertzen bada bidezkoa dela, errekurtsoa baietsi eta maiatzaren 16ko 76/2011 Foru Agindua deuseztatzea, eta horren ondorioz, Eguesibarko udalaren Hirigintzako udal Plan Orokorra itzultzea, behar diren oinarrizko aldaketak egin ondoren eta jendaurrean jarri ondoren, hura behin-behinekoz berriz ere onetsi ahal izateko**. Onartua.**

**Artaxoako Udala**

• Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 35. artikuluko g) letran ezarritakoaren arabera, aintzat hartzea hirigintzaren arloan herritarrek daukaten eskubidea, argibideak eta aholkuak lortzekoa, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakin dezaten**. Onartua.**

**Atezko Udala**

• Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea betetzea eta, haren indarrez, lehen okupazioko lizentziak ez jartzea betebehar batzuk betetzearen baldintzapean (lursailaren aprobetxamenduaren % 10 dirutan ordaintzea), hain zuzen ere Lurraldearen Antolamenduko Departamentuak obretarako lizentzia ematerakoan exijitzen ez dituen baldintzak**. Onartua.**

**Cárcarko Udala**

• Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 106. artikuluan ezarritakoaren babesean urbanizatzea eta eraikitzea batera baimentzen den kasuetan eta, horrenbestez, urbanizazio eta eraikitzea egiaz gertatzen direla bermatzeko fidantza bat jartzea exijitzen denean, obrak amaitzerakoan jarritako fidantza itzultzea**. Onartua.**

**Lizarrako Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek behar den epean eta idatziz herritarrek egiten dituzten hirigintzako kontsultei, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 8. artikuluak eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35.g) artikuluak ezartzen duten bezala.

• Beti bete dezala Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.3 artikulua, bai eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 199. artikulua eta hurrengoak, urratutako hirigintza-ordena berrezartze aldera**. Ez da onartu.**

**Etxarri-Aranazko Udala**

• Hirigintzaren arloko legezkotasuna babesteko eta hautsitako ordena berrezartzeko esleituta dauzkaten eskumenez balia daitezela, eta azken kasu horretan, egiaztatzen dutenean egindako obrak hirigintza-antolamenduarekin bateraezinak direla, behar diren eragiketak egin daitezela xeda dezatela, lursail edo eraikinak urraketaren aurretiko egoerara itzularazteko, betiere hasiera- eta amaiera-epeak ezarrita.

**Iturmendiko Udala**

• Erraztasunak ematea interesdun batek hirigintza-exekuzioko espediente bat eskuratu ahal dezan**. Onartua.**

**Los Arcosko Udala**

• Betetzea uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 318. artikulua, zeinak ezartzen baitu toki entitateek zuzentzen zaizkien eskari guztiak –haien eskumenekoak direnak– ebatzi eta jakinarazi behar dituztela, eta, horretarako, Estatuko oinarrizko legediarekin gertatzen den bezala, berariazko eperik ezarri ezean, hiru hilabeteko epea ematea.

• Jabeek erabilerarako, kontserbaziorako eta errehabilitaziorako legezko betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2000 Foru Legeko 87.1 artikuluko a) letrak udalei ematen dizkien eskumenak betetzea.

**Muruzabalgo Udala**

• Hirigintzaren arloko legezkotasuna babesteko eta hautsitako ordena berrezartzeko esleituta dauzkaten eskumenez balia daitezela, eta azken kasu horretan, egiaztatzen dutenean egindako obrak hirigintza-antolamenduarekin bateraezinak direla, behar diren eragiketak egin daitezela xeda dezatela, lursail edo eraikinak urraketaren aurretiko egoerara itzularazteko, betiere hasiera- eta amaiera-epeak ezarrita.

**Erriberriko Udala**

• Berehala abiatzea bilerak eta elkarrizketak izateko prozesu bat exekuzio unitate bateko jabeekin, exekuzio unitate baten garapenerako balizko konponbide onenak aztertzeko, ahal den guztian harmonizatuz udalaren interesak eta ukitutako jabeen interesak, eta adostasunera iritsiz jabeek oraindik ere ordaindu ez dituzten urbanizazio-kuoten kobrantza dela eta**. Onartua.**

• Hirigintzako Plan Orokorraren aldaketa izapidetzen jarraitzea, ahal dela exekuzio unitate bateko lursailei eraikigarritasun handiagoa eta, horrenbestez, errentagarritasun ekonomiko handiagoa emateko, halako moduz non erakargarriagoak izanen baitira higiezinen merkaturako. **Onartua.**

**Iruñeko Udala**

• Erantzuna ematea herritarrek behar den epean eta idatziz herritarrek egiten dituzten hirigintzako kontsultei, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 8. artikuluak eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35.g) artikuluak ezartzen duten bezala. **Onartua.**

• Udal barrutian egien diren urbanizazio eta eraikitze obretan, behar diren neurriak ezartzea bide segurtasuna, lan segurtasuna eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

• Munta jakin bateko lur-pilaketak eta obrako materialen pilaketak behar diren kasuetan, ebaluatzea ea obren promotoreak izapidetu behar ote den eta, kasua bada, eman behar ote zaion, jarduera sailkatuko lizentzia, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 27ko 4/2005 Foru Legearen arabera.

• Eraikuntza materialak botatzeko lagatzen dituen udal titularitateko orubeak kontrolatzeko legezko betebeharra betetzea, egiaztatze aldera beren behin-behineko erabileran osasungarritasuneko a segurtasuneko behar diren baldintzak betetzen dituztela, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 87.1 b) artikuluan exijitzen den bezala.

• Lursail batzuk hirigintza planeamenduan aurreikusitakoaz bestelako xede batzuetarako behin-behinekoz erabiltzen diren kasuetan, Udalak baimena eman behar izatea, hirigintza administrazioa bai baita, alde batera utzita lursail horien jabea den ala ez den. Baimenari buruzko erabakia hirigintzaren arloko organo eskudunak hartu beharko du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2000 Foru Legearen arabera.

**Mendazako Barrutiko Udala**

• Eraikuntzan esku-hartze administratiboa egiteko hirigintza-eskumenak betetzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 195. eta 196. artikuluetan ezarri bezala –artikulu horiek udalei eskumena ematen diete exekuzio aginduak emateko eta aurri deklarazioak egiteko–, eta, horren indarrez, kontzeju bateko kale batean dauden aurri-eraikinetan jardutea. **Onartua.**

**Eguesibarko Udala**

• Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea betetzea eta, horren indarrez, lehen okupazioko lizentzia bat emateko ez exijitzea eskatzaileari ezin exiji dakizkiokeen betebeharrak. **Onartua.**

• Eraginkor egitea herritarrek eta ibarra osatzen duten kontzejuen eskubidea, udal planaren onespen-prozeduran parte hartzeari buruzkoa. **Onartua.**

• Aztertzea aukerarik ba dagoen udal plan orokorra herriko, Iruñerriko eta Nafarroako populazio-hazkundearen egiazko dinamikarekin etorraraztea, hirigintza garapenerako proposatutako eredua justifikatuz eta etxebizitzetarako, dotazioetarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren beharrei konponbidea emanez, betiere beharren azterlanaren ondorioz eta udaleko populazio-hazkundea dela eta aurreikusten denari jarraituz. Hori guztia, bat etorriz Eremu Zentraleko Lurraldearen Antolamenduko Plana onets izuen maiatzaren 16ko 45/2011 Foru Dekretuan jasotako aurreikuspenekin. **Onartua.**

### 6.2.18. EUSKARA

**Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua**

• Destinoa eremu euskaldunean izanen duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko lanpostuetara sartzeko hautapen prozesu guztietan, euskararen ezagutza merezimendu kualifikatu gisa baloratzea, edo, hala ezarrita dagoenean, nahitaezko baldintza gisa ezartzea. **Onartua.**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administraziora sartzeko eremu mistorako deialdietan euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea, nahitaezko baldintza ez denean, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duen ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz. **Onartua.**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari teknikoa izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian, Irurtzunen destinoa izanen duen lanpostuari dagokionez, euskararen ezagutza exijitzea merezimendu kualifikatu gisa, plantilla organikoan ageri den bezala eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 15. artikulutik ondorioztatzen den bezala. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari teknikoa izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea, gehienez ere lor daitekeen puntuazio guztiaren % 3ko proportzioarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duen ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko turismo-enpresa eta -jardueren teknikari lanpostu bat –destinoa eremu mistoan izanen du– oposizio bidez betetzeko deialdian, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea, gehienez ere lor daitekeen puntuazio guztiaren % 3ko proportzioarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duen ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz. **Ez da onartu.**

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua**

• Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 15. artikulua, euskararen erabilerari buruzkoa, betetzea, bai eta Nafarroako Liburutegien Sistema aratzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeko 11.2 artikulua ere. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Gobernuaren herritarrentzako arreta bulegoetan "eskabide orokorrak" egiteko ereduak egon daitezela, bai gaztelaniaz, bai elebitan, halako moduz non herritarrek aukera izanen baitute Nafarroako Foru Komunitateko Administraziora jotzeko hautatzen duten Nafarroako hizkuntza berekia erabiliz.

• Eremu euskalduneko herritarrei zuzentzen zaizkien jakinarazpen eta komunikazio guztiak gaztelaniaz eta euskaraz idaztea. **Onartua.**

• Betetzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko Foru Legeko 42.3 artikuluan ezarritakoa, eta haren indarrez, Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen ataria gaztelaniaz eta euskaraz eskuragarri egotea. Hori, dena den, ez da eragozpena izanen egokitze hori pixkanaka egin dadin. **Onartua.**

**Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua**

• AP-15 autobideko karteletan, etorkizunean ordeztea, kartel horiek aldatzea bidezkoa denean, eremu euskaldunean gaztelania hutsez jarrita dauden informazio-seinale ofizialak, eta haien tokian gaztelaniaz eta euskaraz idatzitakoak jartzea. **Onartua.**

**Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua**

• Nafarroako Gobernuko eremu euskalduneko turismo bulegoetan dauden iragarki eta liburuxkak euskaraz ere egotea. **Onartua.**

**Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua**

• Eremu euskalduneko herritarrei igorri beharreko aldizkariak, inprimakiak eta paper-gauzak, orokorrean, euskaraz ere idaztea. **Onartua.**

**Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua**

• Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen atarian ageri den informazio guztia euskaraz ere eskaintzea. **Onartua.**

**Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari**

• Eremu euskaldunean bizi diren herritarrei zuzendutako komunikazioak eta jakinarazpenak euskaraz ere idaztea. **Onartua.**

**Altsasuko Udala**

• Euskarari buruzko Foru Legeko 16. artikulua betetzeko, herriko hiri bide batzuk elebitan izendatzea eta errotulatzea. **Onartua.**

• Udaleko aldizkariak, kartelak eta, oro har, argitalpen ofizialak gaztelaniaz eta euskaraz idaztea. **Onartua.**

**Baztango Udala**

• Euskarari buruzko Foru Legeko 16. artikulua betetzea, hiri-bideetako errotulazioei eta toki-izen bereziei dagokienez, nolanahi ere izen tradizionalak errespetatuz. **Onartua.**

• Udalaren esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantzako 34. artikulua aldatzea. Izan ere, artikulu horrek hizkuntza profila betetzen ez duten langileei ezartzen die "hizkuntza prestakuntzarako planean euskara ikasteko ezarritako ikastaroak" egiteko betebeharra. "Eginen dituzte" hitzen ordez "egin ahalko dituzte" hitzak erabiltzea nahi da, euskara ikasteko borondatezkotasunaren printzipioa errespetatze aldera. **Ez da onartu.**

**Bulatako Udala**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritako betez, euskaraz eran-

tzun diezaiela idatziz administrazio horretara hizkuntza horretan jotzen duten herritarrei. **Onartua.**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritakoa betez, elebitan (gaztelaniaz eta euskaraz) idatz ditzala udal jarduerei buruzko informazio- eta propaganda-liburuxkak.

**Iruñeko Udala**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritakoa betez, udalaren kultur jarduerei buruzko informazio-panelak, kartelak eta liburuxkak gaztelaniaz eta euskaraz idaztea, udalaren beraren ordenantzan ezarri bezala. **Onartua.**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritakoa betez, gaztelaniaz eta euskaraz idaztea kartelak, xaflak edo informazio panelak, bai eta udalaren eraikinen, egoitzen eta bulegoen errotulazioa ere. **Onartua.**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritako betez, euskaraz erantzun diezaiela idatziz administrazio horretara hizkuntza horretan jotzen duten herritarrei. **Onartua.**

• Euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko ordenantzan ezarritakoa betez, informazio orokorreko liburuxkak eta dokumentuak euskaraz ere idaztea. **Onartua.**

### 6.2.19. ETXEBIZITZA

**Sustapen eta Etxebizitza Departamentua**

• Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuaren aldaketa bat bultzatzea, halako moduz non foru dekretu horretan xedapen iragankor bat sartuko den; xedapen iragankor horrek bidea emanen du aplikatzeko urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan ezarritako irizpideak –etxebizitza batek, desegokitzat jotzeko, gutxienez ere eduki behar dituen metro koadroak– aplikatzea martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuak indarra hartu aurretik familia unitateko kide berrien jaiotza itxaroten ari ziren familiei, betiere familia horiek 2011n Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari hori eskatzen baldin badiote. **Ez da onartu.**

• Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 5.2 artikulua aplikatzea, idatzita dagoen termino zorrotzetan, hau da, beranduntza interesik eskatu gabe jasotako laguntzaren zati proportzionala itzultzeko garaian, orobat, ezkontza baten banaketaren edo dibortzioaren ondorioz edo bikote egonkor bat bereiztearen ondorioz, etxebizitza titularkide bati esleitzen bazaio etxebizitzaren edo zaharberritze babestuko obraren behin betiko kalifikaziotik hasita bost urte baino lehenago. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 8.4 artikuluaren erregelamendu bidezko garapena egitea, halako moduz non egungo abagune ekonomikoari eta horrek laneko mugikortasunean izaten ari den eraginari erreparatuta, bai eta kasu jakin batzuetan gerta daitezkeen inguruabar familiar edo pertsonalei erreparatuz ere, etxebizitza babestu bat okupatzeko betebeharra salbuesteko kasuak eta baldintzak ezarriko baitira. **Onartua.**

• Erregelamendu horiek onesten ez diren bitartean, ez aplikatzea Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 5. artikulua –jabetza edo erabilera eta gozamen eskubideak nahita lagatzeko edo transmititzeko kasuetarako aurreikusita dago, eta ez justifikatutako desokupazio kasuetarako– behar bezala justifikatutako familiako nahiz laneko beharrengatik edo behar pertsonalengatik beste toki batera joan behar duten pertsonei, joate hori urtebetetik gorakoa denean. **Ez da onartu.**

• Argiki eta zehaztasunez informatzea herritarrei etxebizitza babestuarekin lotutako baldintzei eta gainerako gaiei buruz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 14. artikuluan ezarri bezala. **Onartua.**

• Izapidetzea eta ebaztea babes publikoko etxebizitzetan eraikuntza-akatsengatik aurkeztutako erreklamazioak, halako moduz non legezkotasunaren defentsa eta lehengoratzea bermatuko baitira, babes-araubideen pean dauden etxebizitzen kasuan. **Onartua.**

• Etxebizitza babestua eskuratzeko diru-laguntzak eskatu, eman eta ordaintzeko prozeduretan argitasun eta segurtasun juridiko handiagoak lortzearen eraginetarako, behar diren aldaketak egin ditzala etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarrien erregelamendu-arauetan, eta gutxienez ere, emandako diru-laguntzak ordaintzeko gehieneko epea ezartzea.

• Alokairuko etxebizitza sustatzeari dagokionez:

=> Jarrai dezala alokairuko etxebizitza sustatzeko lanarekin, eta ahalegina kareago ditzala orain arte lan egindako bidetik.

=> Aztertzea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin batera, aukerarik ba ote dagoen pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaindu beharreko errenta zerga-arinketa handiagoa aplikatzeko.

=> Aztertzea aukerarik ba ote dagoen alokairurako laguntza publikoak handitzeko, kopuruei dagokienez ez ezik, diru-sarrera txikiagoak izateagatik edo bestelako inguruabar sozialengatik hura behar izan dezaketen populazio segmentuei dagokienez ere.

=> Aztertzea, halaber, aukerarik ba ote dagoen hiriko zenbait eremutako etxebizitza libreen errentamendua diruz laguntzeko; esate baterako, hiriko alde zaharretan edo beharra dagoen beste toki batzuetan, etxebizitza horiek errehabilitazioa behar dutenean, hiria biziberritzea sustatzeko, etxebizitza horiek okupatzeko eta, horrenbestez, eremu horietako etxebizitzak hobetzeko, etxebizitza horiek konpontzeko beharra dela medio eraikuntzaren sektorea bultzatzeko eta adin desberdinetako pertsonek eta familiek etxebizitza eskuratu ahal izateko.

**Agoizko Udala**

• Legez ziurtatzea lursailen eta eraikinen promotore eta jabeek haiek segurtasun, osasungarritasun eta bizigarritasun baldintzetan mantentzen dituztela eta behar diren lanak egiten dituztela baldintza horiek zaintzeko edo berrezartzeko, bai eta haiei etxebizitza-erabilera dela-eta exijitzekoak diren zerbitzuak emateko ere**. Onartua.**

### 6.3. BITARTEKARITZA-LANAK

2011n, Nafarroako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoen eta herritarren arteko kontziliazio formula batzuk proposatu zituen, gai jakin batzuei konponbidea emateko; izan ere, gai horietan, ikuskatutako administrazio publikoen jokabide irregularrik atzeman ez zen arren, komenigarritzat jo zen haiei ukitutako herritarren interesen aldeko konponbide bat proposatzea, hain zuzen ere legezkotasunarekin eta interes publikoekin bat etorriko litzatekeena.

Ondoren, eginiko bitartekaritza-lan batzuk jaso ditugu, nabarmentzeko modukotzat jo ditugunak:

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuarekin**

• Defizitaren helburua betetzeko zenbait neurri onesten dituen urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu Legea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko E mailako 167 lanpostu betetzeko deialdi orokorrean aplikatzea bidezkoa izateari buruz sortu diren zalantzen aurrean –deialdi hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 23/2011 Ebazpenaz onetsi zen eta maiatzaren 10eko 44/2011 Ebazpenaren bidez aldatu zen–, gai horri buruzko txosten juridiko bat eskatzea Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoari, zeren eta, urtarrilaren 5eko 4/1984 Foru Dekretuaz geroztik, aholkularitza hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen arlo juridikoko barne kontsultetarako organo gorena baita eta Nafarroako Gobernuaren edo Lehendakaritzako kontseilariaren errekerimenduz aholku juridikoa emateko funtzioa betetzen baitu**. Onartua.**

• Aztertzea aukerarik ba ote dagoen praktikak egiteko kontratuak indartzeko, apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuan arautzen prestakuntza-beken ordez. Hori, halere, ez da eragozpena izanen organo eskudunak egokitzat jotzen duenean prestakuntzako bekadunaren figurara jotzeko, zeren eta aukera hori juridikoki lan-harremanaren aukera bezain legitimoa baita**. Onartua.**

**Hezkuntza Departamentuarekin**

• Aztertzea aukerarik ba ote dagoen beren seme-alabak ikastetxez aldatzeko eskatu duten bi ikasleren gurasoen borondatea betetzeko, horietako batek dauzkan hezkuntza premia bereziak direla eta**. Onartua.**

• Azter dezan zein aukera dauden ikasle bat egokitze eta aprobetxamendu hobeak bideratuko dituen ikastetxe batera aldatzeko**. Onartua.**

• Atzerrian udako programak egiteko deialdietan mekanismoak sartzea, ikasleen hautapenerako zozketaren sistema hobetzeko, halako moduz non inplikatutako pertsonen aukeren berdintasuna bermatuko duen sistema bat ezarriko baita**. Onartua.**

• Baloratzea aukerarik ba ote dagoen Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikoko eskola garraioaren zerbitzua luzatzeko Artika Berriraino eta Buztintxuriraino**. Ez da onartu.**

**Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin**

• Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzarekin lan eginez, ahaleginak egin ditzan Gineako nazionalitatea duen 14 urteko neskato baten borondatea betetzeko –izatez zaintza-araubidean dago Iruñeko familia batean–, familia horretan geratu ahal dadin 2011/2012 ikasturtea amaitu arte**. Ez da onartu.**

• Aztertzea aukerari ba ote dagoen buru-gaixotasun bat duen pertsona bati egoitza-arretarako toki bat berehala emateko, babesgabetasun egoera oso kezkagarrian baitago**. Onartua.**

• Baloratzea aukerarik bao te dagoen egoitza-baliabide bat emateko –dela tutoretzapeko nahiz

zaintzapeko pisu bat, dela tutoretzapeko apartamentu bat, dela alokairu araubideko etxebizitza bat, dela beste edozein baliabide– prestazio bermatu gisako egoitza-baliabide batera sartu ahal izatea bideratuko liekeen ezgaitasun-gradua duten pertsonei.

**Osasun Departamentuarekin**

• Behar diren jarduketak egitea Sarrigurengo osasun etxearen irekitzea ahal den guztian azkartzeko**. Onartua.**

• Aztertzea aukerarik ba ote dagoen organo eskudunari zuzentzeko, zertarako-eta aztertzeko arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea dutenentzako sendagaiak Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroan sartu ote daitekeen**. Onartua.**

**Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin**

• Aztertzea ehiza-jarduera antolatzeko eta ehiza kudeatzeko politikak, kasua bada, espezieen eta ehiza-baliabideen beharrezko babesa, zainketa, sustapena eta antolamendua eta ehizarako dagoen eskubidea bateragarri egiteko Nafarroan –eskubide hori Ehizari buruzko Foru Legeko 6. artikuluan aitortzen zaie herritarrei–**. Ez da onartu.**

**Iruñeko Eskualdeko Hauteskunde Batzarrarekin**

• Aztertzea bederatzi hilabete baino gutxiago dituen haur baten amak aurkeztutako alegazioa, hauteskunde-mahaietarako lehendakari eta mahaikide karguentzako eragozpenei eta aitzakia justifikatuei dagokienez, eta horren indarrez, hari kentzea hauteskunde-mahaiko kidearen kargua betetzeko betebeharra**. Onartua.**

**Espetxe Administrazioarekin**

• Espetxe bateko preso bati baimena ematea bere ezkontza ospatzeko bilurrekin egon behar izan gabe, eta ezkontzara familiako bi kide baino gehiago joateko baimena ematea**. Onartua.**

## VII. KAPITULUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

### 7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Nafarroako Arartekoari laguntzeko legezko betebeharra ez betetzeak berarekin dakar, legezko balizko beste neurri batzuen artean, lankidetza falta hori urteko txostenean jasotzeko aukera.

Horrez gain, Nafarroako Arartekoari uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2 artikuluaren arabera, neurri berriak hartzeko oharpenak, gomendioak, lege-betebeharren gogorarazpenak edo iradokizunak jaso ondoren, bi hilabete baino gutxiagoko epean, dagokion administrazio-agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu, Nafarroako Arartekoari jarrera horren arrazoiak azaltzen ez badizkio edo jarrera hori azaltzeko justifikazio egokirik ez badu, Arartekoak urteko txostenean edo txosten berezian jasoko du gertatutakoa. Txosten horretan, Arartekoaren ustez arazoa konpon zitekeen baina jarrera txarragatik konpondu ez den kasuetan, espresuki aipatuko dira jarrera hori izan duten administrazio publikoko agintari edo langileen izenak.

Lankidetzarako betebeharraren ez-betetze larriak zigor-tratamendua ere erakar dezake. Horri dagokionez, Zigor Kodeak, 502.2 artikuluan, Estatuko erakundeen eta botere-banaketaren aurkako delitu gisa tipifikatzen ditu halakoak. Artikulu horren arabera, enplegua edo kargu publikoa sei hilabetetik bi urtera bitarteko epean kentzeko zigorra ezar dakieke "Arartekoaren, kontu-auzitegiaren edo autonomia-erkidegoetako erakunde baliokideen ikerketak oztopatzen dituzten agintari edo funtzionarioei, "erakunde horiek eskatutako informazioa bidaltzea ukatuz, informazio hori bidaltzeko denbora bidezkoa ez den moduan luzatuz edo ikerketa horiek egiteko behar diren espedienteak edo administrazio-agiriak lortzeko zailtasunak jarriz".

### 7.2. LAGUNTZEKO BETEBEHARRAREN BETETZE-MAILA. NAFARROAKO ARARTEKOARI LAGUNTZARIK EMAN EZ DIOTEN ADMINISTRAZIOEN AIPAMENA

2011n, Nafarroako administrazio publikoek kasuen % 78,4an onartu zituzten Arartekoak eginiko bitartekaritza-lan, gomendio eta legezko betebeharren gogorarazpenak eta, oro har, ikerketetan eskatutako informazioak igorri zituzten.

Alabaina, hiru kasutan ikuskatutako administrazio publikoak ez zion egindako gomendioari erantzun, nahiz eta horretarako errekerimenduak egin zitzaizkion.

Honakoak dira erakundearekin lankidetzan ez zutela jardun eta, horrenbestez, beren legezko betebeharrak modu nabarmenean ez zutela bete jo diren administrazioak:

**Larragako Udala**

Espedientea: 10/959

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena eta lankidetzan jarduteko beharrari buruzko oroitarazpena.

Kexa: Udalak ezer ez egitea herritar batek eginiko informazio-eskariari erantzuteko.

Ebazpena: 62/2011, apirilaren 13koa.

Ixteko data: 2011-07-27.

**Azantzako Kontzejua (Goñi)**

Espedientea: 09/672

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena eta lankidetzan jarduteko beharrari buruzko oroitarazpena.

Kexa: Kontzejuko artxiboko kopiak ukatzea.

Ebazpena: 152/2010, irailaren 3koa.

Ixteko data: 2011-05-04.

**Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea**

Espedientea: 10/630

Gaia: Ogasuna.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Zaborrengatik bi tasa kobratzea lanbide jarduera bat eta etxebizitza-jarduera batera egiten diren helbide batean.

Ebazpena: 191/2010, urriaren 26koa.

Ixteko data: 2011-02-17.

## VIII. KAPITULUA. BEREN ONARPEN EZA JUSTIFIKATU GABE, NAFARROAKO ARARTEKOAREN IRADOKIZUN, GOMENDIO EDO LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK ONARTU EZ ZITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Nafarroako Arartekoari buruko uztailaren 3ko Foru Legeko 37.1 artikuluak zehazten du urteko txostenean Nafarroako Arartekoak Nafarroako Parlamentuari azalduko diola aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik; baita zenbat gai ikertu dituen eta ikerketa horien emaitzak ere. Gainera, Administrazioak onartu dituen ohar, iradokizun, gogorarazpenak edo gomendioak zehaztuko ditu.

Halaber, foru lege beraren 34.2 artikuluak ezartzen du ezen iradokizun, gogorarazpen edo iradokizunak egin ondoren dagokion administrazio-agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu edo Nafarroako Arartekoari haiek ez onartzeko arrazoiei buruz informatzen ez badie, kasua urteko txostenean jasoko duela Arartekoak.

Horrenbestez, kapitulu honetan jaso ditugu Nafarroako Arartekoaren erabakiak onartu ez dituzten eta ez onartze hori behar adina justifikatu ez duten Nafarroako administrazio publikoak.

Administrazio publikoak Nafarroako Arartekoaren erabakia ez onartzeko lau kasutatik ia batean Nafarroako Arartekoak jotzen du ez-onartzea behar adina arrazoitu dela eta arrazoizkoa dela. Gogorarazten dugu Nafarroako Arartekoaren erabakiak ez onartzearen portzentajea % 21,6 izan dela 2011n.

### 8.1 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOA

#### Osasun Departamentua - Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (14 kasu)

**Espedientea: 10/755**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Berandutzea “in vitro” ugalketa-tratamendurako itxaron zerrendan sartzerakoan.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Osasun Departamentuari iradokitzen zaio “In vitro” ernalketaren tratamendurako “itxaron zerrendan” emandako denbora gisa konta ditzala kexa-egile batek itxaron behar izan duen denbora, hain zuzen ere 2007., 2008. eta 2009. urteak, sendagile baten jarduketa okerraren ondorioz, zeren eta ezezkoa eman baitzion kexa-egilea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialistaren ugalkortasuneko kontsultara.

Ixteko data: 2011-03-02.

**Espedientea: 11/55**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Daukan minusbaliotasuna dela eta, ez diote lehentasunik ematen aldi baterako kontratazio baterako deialdian.

Ebazpena: 57/2011, martxoaren 24koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gogorarazten zaio ehuneko 33ko edo gehiagoko ezgaitasun-gradua duten pertsonei legez lehentasuna eman behar diela kontratazio-deialdietan.

=> Osasun Departamentuari gomendatzea aldi baterako kontrataziorako dei egin diezaiola kexa-egileari, horrexetarako eginiko zerrendan haren aurrean dauden baina ezgaitasunik ez duten gainerako izangaiei baino lehen.

Ixteko data: 2011-06-22

**Espedientea: 11/68**

Gaia: Osasuna.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea osasun tratamendua emateari atzerriko naziotasuna duen adingabe bati; adingabe horrek udako egonaldiez gozatzen du, harrera-araubidean, Nafarroan.

Ebazpena: 54/2011, martxoaren 24koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari gogoraraztea Nafarroan bizi diren adingabeei osasun laguntza emateko legezko betebeharra duela.

=> Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari gomendatzea haurrari osasun laguntza osoa eman diezaiola Nafarroan bizi den bitartean; osasun laguntza hori, gainera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak finantzatu beharko du guztiz.

Ixteko data: 2011-08-10.

**Espedientea: 11/134**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Bi urte baino gehiago geroratzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak atzeraeraginez aitortutako destinoko osagarria ordaintzeko.

Ebazpena: 93/2011, martxoaren 30ekoa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gogoraraztea legez arrazoizko epe batean izapidetu eta ebatzi behar dituela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lansarien likidazioak, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela, esku hartzen dute organo administratiboei dagokienez.

=> Osasun Departamentuari gomendatzea behar dena egin dezan kexa-egileari atzeratutako lansariak ordaintzeko, luzamendu gehiagorik gabe.

Ixteko data: 2011-11-14.

**Espedientea: 11/146**

Gaia: Osasuna.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Aho-hortzetako laguntzaren osasun prestazioa ukatzea Marfanen sindromea duen gaixo bati.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Osasun Departamentuari iradokitzea doan finantza dezan kexa-egilearen tratamendua modu orokorrean, horren barne direla pairatzen duen Marfanen sindromearen ondoriozko aho-hortzetako arazoak, gaixotasun horren zati bat baitira.

Ixteko data: 2011-06-29.

**Espedientea: 11/190**

Gaia: Osasuna.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Ez diote deitzen ugalkortasun tratamendua egitera, bigarren mailako antzutasuna edukitzeagatik

Ebazpena: 63/2011, apirilaren 13koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gomendatzean behar diren jarraibideak eman diezazkiola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Departamentuari egiazko eta eraginkor bihurtu dezan in vitro/ICSI ugalketaren prestazioa kexa-egilearentzat, osasun laguntzaren ikuspuntutiko arrazoizkoa den epe batean.

Ixteko data: 2011-05-16.

**Espedientea: 11/274**

Gaia: Osasuna.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Ezezkoa ematea adingabe bat zentro pribatu batera deribatzeko eskariari, behar duen laguntza espezializatuarekin jarrai dezan.

Ebazpena: 85/2011, maiatzaren 20koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gomendatzea baimena eman dezala adingabe bati klinika pribatuan tratamendua eman diezaioten, eta zuzenean bere gain har dezala osasun laguntza horrek eskatzen duen finantziazio osoa, edo, azkeneko kasuan, interesdunei eragindako gastuak itzul diezazkiela.

Ixteko data: 2011-06-29.

**Espedientea: 11/279**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Lana eta familia bateragarri egin ahal izateko beste ikastetxe batera zerbitzu eginkizunetan joateko eskariari ezezkoa ematea.

Ebazpena: 119/2011, uztailaren 15ekoa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premia dezala kexa-egile bati zerbitzu eginkizunetan jarduteko aukera eman diezaion, Iruñerrian hutsik dagoen edo hutsik geratzen den lehenengo pediatra lanpostua betetzeko.

Ixteko data: 2011-09-30.

**Espedientea: 11/345**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lanbide-karrera ez aitortzea besta autonomia erkidego bateko Osasun Zerbitzutik lekualdatutako erizainei.

Ebazpena: 99/2011, ekainaren 1ekoa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gogoraraztea hiru hilabeteko epe osagarria betetzeko legezko beharra duela lanbide-karrera aitortzeko espedienteak ebazteko garaian.

=> Osasun Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako premia dezan kexa-egileen lanbide-karrera aitortzeko espedienteak ebatz ditzan ahal den bezain laster, eta dagokien lanbide-osagarria eman diezaien.

Ixteko data: 2011-06-22.

**Espedientea: 11/405**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lanbide-karrera ez aitortzea beste autonomia erkidego bateko Osasun Zerbitzutik lekualdatutako erizaintzako teknikari laguntzaile bati.

Ebazpena: 112/2011, ekainaren 21ekoa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gogoraraztea hiru hilabeteko epe osagarria betetzeko legezko beharra duela lanbide-karrera aitortzeko espedienteak ebazteko garaian.

=> Osasun Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako premia dezan kexa-egileen lanbide-karrera aitortzeko espedienteak ebatz ditzan ahal den bezain laster, eta dagokien lanbide-osagarria eman diezaien.

Ixteko data: 2011-09-29.

**Espedientea: 11/406**

Gaia: Osasuna.

Mota: Bi gomendio.

Kexa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea beste autonomia erkidego batzuetan emandako errezeten ondoriozko farmazia-gastuak finantzatzeari.

Ebazpena: 113/2011, ekainaren 24koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea premia dezala deusezta dezan eta eraginik gabe utz dezan urtarrilaren 14ko 52/2011 Ebazpena. Ebazpen horren bidez, ezartzen da ez dela bidezkoa beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren pazienteen errezetak finantzatzea, salbu hona lekualdatutako pazienteen edo iragaitzazko bidaiarien kasuan (ebazpena 2011ko martxoaren 7ko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

=> Osasun Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premia dezala kexa-egileari finantzatzeko bere farmazia-bulegoan errezeten bidez emandako sendagaiak, urtarrilaren 14ko 52/2011 Ebazpena aplikatzearen ondorioz finantzatu ez zaizkionak.

Ixteko data: 2011-09-23.

**Espedientea: 11/495**

Gaia: Osasuna.

Mota: Iradokizun normatiboa

Kexa: Behar adina laguntza ez ematea lau urteko haur baten gaixotasunari aurre egiteko. Haur hori beste autonomia erkidego bateko osasun etxe batera eramaten dute, bertan osasun laguntza eman diezaioten.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Osasun Departamentuari iradokitzen zaio behar diren neurriak har ditzala uztailaren 30eko 212/2001 Foru Dekretuan, otorduetarako eta ostaturako dieten kontzeptuan ezarritako hogeita hamar euroko zenbatekoa handitzeko, osasun laguntza hartzeko deribazioak, ikuspuntu ekonomikotik, familientzat kosturik izan ez dezan.

Ixteko data: 2011-11-14.

**Espedientea: 11/509**

Gaia: Osasuna.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Desadostasuna “in vitro” ugalketaren osasun prestazioa eskuratzeko itxaron zerrendan azkeneko postuan jartzegatik, alaba baten gurasoak izateagatik.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Osasun Departamentuari iradokitzea behar diren jarraibideak eman diezazkiola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari egiazko eta eraginkor bihurtu dezan in vitro ugalketaren prestazioa bigarren mailako antzutasuna izan eta seme-alaba osasuntsu bat duten bikoteentzat, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintza pertsonalak betetzen badituzte.

Ixteko data: 2011-11-14.

**Espedientea: 11/598**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Erradiazio ionizatzaileen aurreko esposizioaren ondoriozko destinoko osagarriaren ordainketan gehiegi atzeratzea,

Ebazpena: 181/2011, urriaren 27koa; honakoa dio:

=> Osasun Departamentuari gogoraraztea legez arrazoizko epe batean izapidetu eta ebatzi behar dituela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lansarien likidazioak, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela, esku hartzen dute organo administratiboei dagokienez.

=> Osasun Departamentuari gomendatzea behar diren neurriak har ditzala, kasuko aurrekontu-kontusaila behar den diru-kopuruaz hornitzeko, hain zuzen ere kexa-egileari dagozkion ordainketak gehiago luzatu gabe egin ahal izateko; ordainketa horiei bidezko berandutza-interesak gehitu beharko zaizkie, Nafarroako Foru Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 24. artikuluaren arabera.

Ixteko data: 2011-11-18

**Hezkuntza Departamentua (zortzi kasu)**

**Espedientea: 10/752**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa (Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari ere igorri zaiona).

Kexa: Desadostasuna bigarren hezkuntzan emandako behin betiko destinoan adjudikatu zaion lanpostua dela-eta lanpostuaren jabetza hartzeko unean ezarritako irizpideekin, beste administrazio publiko batean lanean ari dela.

Ebazpena: 205/2010, azaroaren 25ekoa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea behar diren neurriak har ditzaten kexa-egileari aitortzeko Bigarren Hezkuntzako behin betiko destinoarekin esleitutako lanpostuaren jabetza-hartzea, borondatezko eszedentziak eragina duen egunean (2009ko irailaren 1a).

Ixteko data: 2011-02-08.

**Espedientea: 10/927**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Ikastetxeetako zaintzaileen desadostasuna, osasun-funtzioak egin behar izateagatik.

Ebazpena: 40/2011, otsailaren 21ekoa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari gomendatzea egokitzat jotzen dituen neurriak ezar ditzan laguntza edo zaintza berezia eskatzen dituzten gaixotasunak dauzkaten ikasleak langile kualifikatuek eta behar adina ezagutza teoriko eta praktikoa dutenek arta ditzaten.

Ixteko data: 2011-06-01.

**Espedientea: 11/24**

Gaia: Hezkuntza.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna ikasle bati ezarritako zehapenarekin, diziplina espedientea izapidetu ondoren.

Ebazpena: 34/2011, otsailaren 11koa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari gomendatzea behar dena xeda dezan ikasle bati ezarritako neurri zuzentzailea edo zehapena ezeztatzeko.

Ixteko data: 2011-04-14.

**Espedientea: 11/249**

Gaia: Hezkuntza.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Lanbide heziketako ikastetxe batek ezezkoa ematea ikasketetarako beka-eskari bateko dokumentazioa paper-euskarrian hartzeari, eskaria internetez aurkeztu behar izateari buruzko aitzakia erabilita, eta horren ondorioz beka galtzea.

Ebazpena: 76/2011, maiatzaren 11koa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari gomendatzea ikasleari beka eman diezaion edo ikastetxeak beka-eskaria hartzeari ezezkoa eman izatearen ondoriozko kalte-galerengatik ordain diezazkion.

Ixteko data: 2011-07-20.

**Espedientea: 11/262**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze lehiaketarako deialdiko behin-behineko adjudikazioen emaitzarekin, lekualdatze lehiaketako izangaien parte-hartzea erregistratzeko erabili den aplikazio telematikoetan informazio okerra egoteak eragindako akatsengatik.

Ebazpena: 118/2011, uztailaren 15ekoa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari gomendatzea kexa-egileei kalte-ordainak ordain diezazkien, konpondu gabeko akats materialaren ondorioz pairatu dituzten eta behar bezala kreditatu dituzten kalteengatik,

Ixteko data: 2011-10-03.

**Espedientea: 11/264**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna irakaslea izateko aldi baterako kontratu bat amaiarazi eta beste bat egitearengatik, zerbitzu bera ematen jarraitzeko.

Ebazpena: 105/2011, ekainaren 9koa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari gomendatzea behar diren kudeaketak egin ditzala kexa-egilearen kontratu-lotura 2011ko abuztuaren 31ra arte luzatzeko, horixe izan baitzen ikasturtearen hasieran sinatutako kontratuan aurreikusitako amaiera eguna.

Ixteko data: 2011-08-30.

Espedienteak: 11/379 eta 11/423

Gaia: Hezkuntza.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Prozedurazko irregulartasunak ikasleak ikastetxe batean onartzerakoan.

Ebazpena: 125/2011, uztailaren 22koa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari iradokitzea ezen, ikusita Administrazioaz enbat geroratu den eskola-postu baino ikasle gehiago izateren egoerari konponbidea ematen, azter dezala prozedurazko akatsak tarteko ikastetxe publikoan onartu ez dituzten bi haur berriz ere onartuak izateko aukera,

Ixteko data: 2011-10-06.

**Espedientea: 11/425**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Desadostasuna musikako eta arte eszenikoetako irakasleak, Dantza Eskolan kontratatzearen ondorioetarako, irakasle gisa ez hartzearekin

Honakoa dioen ebazpena:

=> Hezkuntza Departamentuari iradokitzea analisi juridiko bat egin dezala Dantza Eskolan dauden premiei aurre egiteko dantza-laguntzaileek egiten duten lanaren ohiko nahiz ohiz kanpoko izaerari buruz, eta analisi horren ondorioz ondorioztatu ahal izatea ea ondoz ondoko ekitaldietan erabili nahi den kontratazio administratiboa lan bereziak egiteko kontratazioari dagokiona den, edo, bestela, langileak kontratatzeko beste formula administratibo batera jo beharra dagoen edo halako formula bat ex novo arautu behar ote den.

Ixteko data: 2011-10-06.

**Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua (lau kasu)**

**Espedientea: 10/752**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa (Osasun Departamentuari ere igorri zaizkio).

Kexa: Desadostasuna bigarren hezkuntzan emandako behin betiko destinoan adjudikatu zaion lanpostua dela-eta lanpostuaren jabetza hartzeko unean ezarritako irizpideekin, beste administrazio publiko batean lanean ari dela.

Ebazpena: 205/2010, azaroaren 25ekoa; honakoa dio:

=> Hezkuntza Departamentuari eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea behar diren neurriak har ditzaten kexa-egileari aitortzeko Bigarren Hezkuntzako behin betiko destinoarekin esleitutako lanpostuaren jabetza-hartzea, borondatezko eszedentziak eragina duen egunean (2009ko irailaren 1a).

Ixteko data: 2011-02-08.

**Espedientea: 10/928**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Baja mediko baten ondorioz gozatu ez diren opor-egunak ez ordaintzea.

Ebazpena: 30/2011, otsailaren 7koa; honakoa dio:

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea kexa-egileak bere kontratuaren amaiera dela-eta eskatzen duen ordain ekonomikoa ordain dezan, hain zuzen ere aldi baterako ezgaitasun baten ondorioz baja egoeran egoteagatik gozatzerik izan ez zituen opor-egunei dagokiena, betiere jaso ohi zituen ordainsariei dagokien neurrian.

Ixteko data: 2011-05-12.

**Espedientea: 11/15**

Gaia: Euskara.

Mota: Bi gomendio.

Kexa: Desadostasuna euskara ez baloratzearekin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko lanpostuak betetzeko oposizioetarako deialdi batean.

Ebazpena: 50/2011, martxoaren 14koa; honakoa dio:

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea ezen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari teknikoa izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian, Irurtzunen destinoa izanen duen lanpostuari dagokionez, euskararen ezagutza exijitu behar duela merezimendu kualifikatu gisa, plantilla organikoan ageri den bezala eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 15. artikulutik ondorioztatzen den bezala.

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea ezen, kexa honen xede izan eta eremu mistoan destinoa duten lanpostuak oposizio bidez betetzeko deialdietan, euskara merezimendu gisa balora dezala, erdiets daitekeen gehieneko puntuazioaren guztizkoaren % 3ko proportzioan.

Ixteko data: 2011-06-30.

**Espedientea: 11/25**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Nafarroako Administrazio Auzitegiari eginiko gomendioa.

Kexa: Nafarroako Administrazio Auzitegiari aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa, herritar bati Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko jendeari laguntza emateko bulegoan emandako informazio okerrarengatik.

Ebazpena: 48/2011, martxoaren 14koa; honakoa dio:

=> Nafarroako Administrazio Auzitegiari gomendatzea zuzen dezan Administrazioak kexa-egileari eragindako egoera, eta kexan aipatzen den gora jotzeko errekurtsoa baiets dezan.

Ixteko data: 2011-06-20.

**Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua (hiru kasu)**

**Espedientea: 11/186**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Agintarien gidarientzako oposiziorako emandako ziurtagiri okerrak.

Ebazpena: 162/2011, irailaren 29koa; honakoa dio:

=> Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari gomendatzea ezen kasuko organoek beste ziurtagiri batzuk eman ditzatela kexa-egileak eginiko prestakuntza-ikastaroei buruz, eta haietan eginiko akatsak zuzen daitezela, eta, ondoren, oposizio-lehiaketako epaimahaiak berriz ere barema dezan, izangaiari emanez egiaz, akats horiek egon izan ez balira, ziurtatuko zituen puntuak; eta horrenbestez, amaierako puntuazioa eta gainditutakoen zerrendan betetzen duen tokia aldaraz ditzan.

Oharra: Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuarekin hasitako kexa.

Ixteko data: 2011-12-13.

**Espedientea: 11/202**

Gaia: Euskara.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Turismo enpresa eta jardueren teknikarien lanpostuak oposizio bidez betetzeko deialdian euskara ez baloratzea eta ingelesa borondatezko hautaproba ez-baztertzaile gisa ezartzea.

Ebazpena: 98/2011, maiatzaren 31koa; honakoa dio:

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gomendatzea ezen, eremu mistoan destinoa duen lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdian, hain zuzen ere kexaren xede denean, euskararen ezagutza merezimendu gisa balora dezala, hain zuzen ere erdiets daitekeen puntuazio guztiaren % 3ko proportzioan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren

erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duen ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Oharra: Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuarekin hasitako kexa.

Ixteko data: 2011-07-21.

<u>**Espedientea: 11/422**</u>

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa (Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari ere zuzendu zaio, gomendio gehigarri batekin batera).

Kexa: Ez aitortzea lanaldi gisa (aparteko orduak) zerbitzuaren beharrengatik eginiko joan-etorriak.

Ebazpena: 115/2011, uztailaren 15ekoa; honakoa dio:

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari ezen esklusibotasuneko edo lanaldia luzatzeko ordainsari-osagarria esleituta ez duten langileen kasuan, lanaldi gisa har dadila lanpostutik beste toki batzuetara zerbitzu-arrazoiengatik joateko denbora, zeren eta aparteko ordu gisa jota joan-etorrietan emandako aparteko orduak, lanaldi arrunta gainditzen baldin badute.

Oharra: Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuarekin hasitako kexa.

Ixteko data: 2011-09-23

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

<u>**Espedientea: 10/765**</u>

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa eta iradokizuna.

Kexa: Etxeko laguntza eta egoitza-prestazioa batera ezin jasotzea espediente bat izapidetzeko garaian.

Ebazpena: 7/2011, urtarrilaren 18koa; honakoa dio:

=> Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari iradokitzea azter dezala behar diren neurriak hartzea banakakoaren arreta programa prestatzen denean xede nagusia eta aldi baterako beste xede batzuk artikulatu ahal daitezen, zeren eta suposatzen baita xede nagusi hori, bereziki zerbitzu baten emakida den kasuetan, denboran luzatu egin daitekeela.

=> Departamentu horri gomendatzea ezen, aztertutako kasu zehatzean, haren inguruabarrak direla eta, kexa-egilearen amari eman diezaiola daukan mendetasun egoerari egokituko zitzaion familia inguruneko zainketetarako laguntza, dagokion zenbatekoan eta egoeraren aitorpena egin zenetik hasi (2009ko irailean) eta egoitza arretarako zerbitzuarekin lotutako prestazioa eragina izaten hasi zen arte (2010eko apirilean).

Ixteko data: 2011-04-11.

**Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua (bi kasu)**

<u>**Espedientea: 11/422**</u>

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Bi gomendio (horietako bat aldi berean Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari aurkeztua).

Kexa: Ez aitortzea lanaldi gisa (aparteko orduak) zerbitzuaren beharrengatik eginiko joan-etorriak.

Ebazpena: 115/2011, uztailaren 15ekoa; honakoa dio:

=> Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari ezen esklusibotasuneko edo lanaldia luzatzeko ordainsari-osagarria esleituta ez duten langileen kasuan, lanaldi gisa har dadila lanpostutik beste toki batzuetara zerbitzu-arrazoiengatik joateko denbora, zeren eta aparteko ordu gisa jota joan-etorrietan emandako aparteko orduak, lanaldi arrunta gainditzen baldin badute.

=> Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari gomendatzea aparteko ordu gisa aitor ditzan kexa-egileak zerbitzuaren beharrengatik eginiko joan-etorriak, lanaldi normala gainditzen dutenean.

Ixteko data: 2011-09-23.

<u>**Espedientea: 11/517**</u>

Gaia: Lana.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna teknologo bekadunak prestatzeko jarduerak egiteko enpresak hautatzeko prozesu batetik kanpo uztearekin, zuzentzeko modukoak diren formazko akatsengatik.

Ebazpena: 143/2011, irailaren 9koa; honakoa dio:

=> Landa Garapen, Berrikuntza, Enpresa, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari gomen-

datzea ezen ahal bezain azkar ebatz dezala kexa-egileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa, eta kexa-egile horri aukera eman diezaiola bere eskabidea zuzentzeko, bekadunaren lanerako plana eta bete beharreko funtzioak aurkeztuz; eta, gero, balorazioa berriz egin dezala.

Ixteko data: 2011-12-15.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

**Espedientea: 10/947**

Gaia: Ogasuna.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioarekin.

Ebazpena: 55/2011, apirilaren 5ekoa; honakoa dio:

=> Ekonomia eta Ogasun Departamentuari gogoraraztea legez ez diela dohaintzen gaineko zerga aplikatu behar dohaintzaren izaera ez duten ekintza juridikoei.

=> Ekonomia eta Ogasun Departamentuari gomendatzea eraginik gabe utz dezala kexa-egilea "zeharkako dohaintza" baten subjektu pasibotzat jotzeko ekintza, ezertan kendu gabe bere amaren herentzia mortis causa eskuratzean kausadunaren kontzeptuan ordaindu beharko dituen zergak.

Ixteko data: 2011-08-05.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentua

**Espedientea: 11/227**

Gaia: Etxebizitza

Mota: Gomendioa.

Kexa: Babes ofizialeko etxebizitza bateko eraikuntza akatsak konpontzeari ezezkoa ematea.

Ebazpena: 109/2011, ekainaren 17koa; honakoa dio:

=> Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gomendatzea ezen VINSAri agindu diezaiola interesdunaren erreklamazioari erantzuteko, hura aztertzeko eta, kasua bada, eraikuntza-akatsei bidezkoak diren konponbideak emateko.

Oharra: Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin hasitako kexa.

Ixteko data: 2011-09-19.

## 8.2 NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK

### Agoizko Udala

**Espedientea: 10/703**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Lursailen aldi baterako okupazioarengatiko ordainketa eskatzen duten eskabideei ez erantzutea.

Ebazpena: 197/2010, azaroaren 5ekoa; honakoa dio:

=> Agoizko Udalari gomendatzea xehetasunekin erantzun diezaiela kexa-egileak behin eta berriz eginiko galderei, herritar horren interes eta eskubide legitimoetan eragina dutelako.

Ixteko data: 2011-02-23.

### Barasoaingo Udala

**Espedientea: 10/573**

Gaia: Herri Lanak.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna kale bat urbanizazio proiektu batetik kanpo uztearekin.

Ebazpena: 207/2010, azaroaren 25ekoa; honakoa dio:

=> Barasoaingo Udalari gogoraraztea bere jarduera Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 3.5 eta 54.1 f) artikuluen arabera egokitu behar duela, eta kasu zehatz honetan gogorarazpen hau eraginkor bihurtu behar duela, eta Zuzenbidearen arabera behar adina motibatu behar duela kasuko bide-tartea urbanizazio-lanetatik kanpo uzteko erabakia, edo, bestela, tarte hori zolatu behar duela. Gomendatzen dugu zolatze-lan horiek egin daitezela, kaleko gainerako zolatzen baldin bada, eta hori egiten ez bada, azalpen objektibo bat eman dadila.

Ixteko data: 2011-03-24.

### Barillasko Udala

**Espedientea: 09/341**

Gaia: Herri Lanak.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Etxebizitza batean argi-hornidurarik ez egotea.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Barillasko Udalari iradokitzea ezen segurtasuneko arrazoiengatik eta bizigarritasuneko gutxieneko baldintzengatik, unitatearen urbanizazioa egiten ez den bitartean, behar diren neurriak ezartzea, behin-behinekoz, unitate horren instalazio elektrikoa aldatzeko edo osatzeko, halako moduz non zerbitzu segurua emanen baitzaie hartan dauden etxebizitzei.

Ixteko data: 2011-03-10.

**Eguesibarko Udala**

**Espedientea: 10/327**

Gaia: zirkulazioa

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna ibilgailu baten aparkatze desegokiarengatik ezarritako zehapenarekin.

Ebazpena: 154/2010, irailaren 7koa; honakoa dio:

=> Eguesibarko Udalari gomendatzea azter dezala kexa-egilearen aurka izapidetutako zehapen espedientea, azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako prozeduren bitartez, eta arau-haustea arintzat kalifika dezala eta, kasua bada, zehapenaren zenbatekoa gutxitu dezala.

Ixteko data: 2011-02-08.

**Lizarrako Udala (2 kasu)**

**Espedientea: 08/253**

Gaia: Hirigintza

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Ezer ez egitea transformagailu elektriko bat lizentziarik gabe eraiki eta mantentzearen aurrean.

Ebazpena: 109/1, irailaren 1ekoa; honakoa dio:

=> Lizarrako Udalari gogoraraztea beti bete behar duela Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.3 artikulua, bai eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 199. artikulua eta hurrengoak, urratutako hirigintza-ordena berrezartze aldera.

Oharra: Kexa hau 2011n ireki zen berriz.

Ixteko data: 2011-11-18

**Espedientea: 11/322**

Gaia: Herri Lanak.

Mota: Gomendioa eta iradokizuna.

Kexa: Etxebizitza batzuk kokatuta dauden mendi-mazelari eusten dion lubetaren egoera txarra.

Ebazpena: 132/2011, uztailaren 28koa; honakoa dio:

=> Lizarrako Udalari gomendatzea ezen:

a) Behar diren azterlanak egitea “Las Lomas” urbanizazioko lubetaren eta mendi-mazelaren egiazko egoera ezagutzeko.

b) Ahal bezain laster teknikari espezialistek gomendatutako obrak egitea, hain zuzen ere udal txostenean ondorio gisa ageri direnak.

c) Urbanizazioko bizilagunei informazioa ematea lubetan eta mendi-mazelan egin beharreko lanei buruz.

=> Lizarrako Udalari iradokitzea lubetara jotzen duten iturburuak kokatzea eta inbentariatzea, eta, kasua bada, haiek batetik bestera joanaraztea edo Bearingo erreka birbideratzea.

Ixteko data: 2011-11-18

**Itzako Udala**

**Espedientea: 11/474**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Eszedentzia bat ukatzea, funtzionario lanpostua eta aldi baterako lan-kontratuduna izatea bateraezina izateagatik.

Ebazpena: 169/2011, urriaren 10ekoa; honakoa dio:

=> Itzako Udalari gomendatzea ezezta dezala Alkatetzaren 2009ko urriaren 9ko Erabakia, zeinak ezezkoa ematen baitio kexa-egilearen borondatezko eszedentzia (bateraezintasunarengatiko eszedentzia) hartzeko eskariari, eta, horrenbestez, interesdunaren eskaria aintzat hartu eta hari bateraezintasunarengatiko borondatezko eszedentzia ematea.

Ixteko data: 2011-12-30.

**Larragako Udala**

**Espedientea: 10/959**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Erakundearen lankidetzan jarduteko legezko betebeharraren gogorarazpena eta beste legezko betebehar batzuen gogorarazpena.

Kexa: Udalak ezer ez egitea herritar batek eginiko informazio-eskariari erantzuteko.

Ebazpena: 62/2011, apirilaren 13koa; honakoa dio:

=> Larragako Udalari gogoraraztea Nafarroako Arartekoari presaz eta lehentasunez laguntza emateko legezko betebeharra daukala, eta informazio-eskariei Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarritako epeetan erantzun behar diela.

=> Larragako Udalari gogoraraztea kexa-egileak eginiko dokumentazio-eskaera berariaz ebatzi behar duela, eta hartzen duen erabakia jakinarazi egin behar diola, dokumentazio emanez, edo, hala ez bada, hura ez emateko zioak edo gaiari buruzko eskumen gabeziaren zioak azalduz.

Ixteko data: 2011-07-27.

**Irunberriko Udala**

**<u>Espedientea: 10/530</u>**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Bizilagunen eskubideen mugatzea, Eliza Katolikoaren jabetzapekoa den higiezin bat kultur jardueretarako lagatzearen ondorioz, Elizak jarduera horien edukiari buruzko baimena eman behar baitu.

Ebazpena: 177/2010, urriaren 8koa; honakoa dio:

=> Irunberriko Udalari gomendatzea jarduerak egiteko lagatzeko itun berrian, hain zuzen ere esku hartutako aldeek formalizatu behar duten horretan –Nafarroako Administrazio Auzitegiak deuseztatutakoaren ordez–, baldintzetatik kanpo utz ditzala Irunberriko Udalak, Konstituzioko 16. artikuluaren indarrez, bete beharreko akonfesionaltasunaren aurkako aipamen oro,

Ixteko data: 2011-01.

**Ollarango Udala**

**<u>Espedientea: 11/505</u>**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Adingabe baten gurasoen desadostasuna semearen ludoteka zerbitzua eta etxeko laguntzaren zerbitzua emateko baldintzekin.

Ebazpena: 142/2011, irailaren 2koa; honakoa dio:

=> Ollarango Udalari gogoraraztea legez behar diren neurriak ezarri behar dituela ezgaitasuna duten edo menpekotasun egoeraren bat duten pertsonek udal zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko eskubidea eraginkorra egiteko.

=> Udal horri gomendatzea kexa-egilearen semeari ludoteka zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua eman diezazkiola, orain arte egiten zuen bezala, eta, beharrezkoa bada, behar diren neurriak ezar ditzala hari arreta egokia emateko.

Ixteko data: 2011-11-02.

**Iruñeko Udala (9 kasu)**

**<u>Espedientea: 10/428</u>**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Deialdian aurreikusitako oinarrizko prestakuntzako ikastaroa ez egitea; izan ere, ikastaro horrek aukera emanen zuen udaltzain laguntzaileko hautaprobetan parte hartzeko.

Ebazpena: 136/2011, abuztuaren 1ekoa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gogoraraztea deialdiaren oinarri guztiak exekutatzeko legezko betebeharra duela, eta hari gomendatzea udaltzain laguntzaileak prestatzeko ikastaroa egin dezala eta aldi baterako kontratazioko izangaien zerrenda sor dezala.

Ixteko data: 2011-11-21.

**<u>Espedientea: 10/923</u>**

Gaia: Barne arloa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Babesgabetasuna substantzia estupefazienteak ustez edukitzeagatik irekitako zehapen-prozesu batean.

Ebazpena: 42/2011, martxoaren 1ekoa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gomendatzea ezen azter dezala eta, kasua bada, aitortu eta ofizioz deklara dezala kexa-egileari irekitako zehapen-espedientea iraungi dela.

Ixteko data: 2011-12-15.

**<u>Espedientea: 11/47</u>**

Gaia: Zerbitzu publikoak.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Ezestea bide publikoan izaniko eroriko baten ondoriozko ondare-erantzukizunarengatiko erreklamazio bat.

Ebazpena: 80/2011, maiatzaren 17koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gomendatzea ezen, kasu zehatz honetan, dauzkan erantzukizun objektiboa eta ondare-erantzukizuna bere gain har ditzala eta bidezkoa den kalte-ordaina ordain dezala.

Ixteko data: 2011-09-23.

**Espedientea: 11/159**

Gaia: Trafikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna trafikoaren arloko zehapen batekin eta garabiak ibilgailu bat, oker aparkatuta egotearen ondorioz, eramatearekin.

Ebazpena: 172/2011, urriaren 11koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gomendatzea arintzat jo dezala kexa-egileak eginiko arau-haustea eta, horrenbestez, zehapena larritzat kalifikatu izateari dagokion zenbatekoa itzul diezaiola.

Ixteko data: 2011-11-14.

**Espedientea: 11/198**

Gaia: Trafikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Trafikoko zehapen-espediente bat izapidetzerakoan izaniko okerra.

Ebazpena: 96/2011, maiatzaren 31koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gomendatzea indarrik gabe utz dezala kexa-egileari ezarritako zehapena, zeren eta jotzen baita ez dela kasuko zehapen-prozedura errespetatu.

Ixteko data: 2011-09-26.

**Espedientea: 11/219**

Gaia: Ingurumena.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Iruñeko Ave María Elizako kanpaiek sortutako zarata.

Ebazpena: 106/2011, ekainaren 9koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gogoraraztea Ave María Elizako erlojuari dagokionez, Zarata eta bibrazioak eragiten dituzten jarduerek bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuko 15. artikulua betetzeko legezko betebeharra dagoela.

=> Iruñeko Udalari gomendatzea behar diren neurriak har ditzala Ave María Elizako erlojuak ordu-oharrak ematerakoan erabiltzen duen bolumena gutxitzeko, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuan finkatutako terminoetan.

Ixteko data: 2011-12-19.

**Espedientea: 11/222**

Gaia: Trafikoa.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna ibilgailu baten aparkatze desegokiarengatik irekitako zehapen-espedientearekin.

Ebazpena: 104/2011, ekainaren 9koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gomendatzea arintzat jo dezala kexa-egileak eginiko arau-haustea, eta salaketa egin duen agenteak eginiko salaketa-buletinean aurreikusitako zehapenaren zenbatekoa aplika dezala, eta, horrenbestez, interesdunari 52.50 euroko zenbatekoa itzul diezaiola, bere egoera erregulatze aldera.

Ixteko data: 2011-11-02.

**Espedientea: 11/395**

Gaia: Ingurumena.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Udalak ezer ere ez egitea telefonia-enpresa batek lizentziarik gabe ezarritako telefonia mugikorreko antena erretiratzeko agindua betearazteko.

Ebazpena: 155/2011, irailaren 22koa; honakoa dio:

=> Iruñeko Udalari gogoraraztea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko Foru Legeko 204. artikuluan ezarritakoa betetzeko legezko betebeharra duela, eta epe bat finkatzea eraikin bat, alde fisikotik, telefonia mugikorreko antena jarri aurreko egoerara lehengoratzeko behar diren eragiketak exekutatzeko, eta enpresa sustatzaileak halakorik egiten ez badu, isun hertsatzaileak jartzea edo, kasua bada, eraldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko obren exekuzio subsidiarioa egitera jotzea.

Ixteko data: 2011-12-01.

**Espedientea: 11/480**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Udaltzain bati laneko jazarpena egiteari buruzko salaketa.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Iruñeko Udalari iradokitzea bere egin ditzala Lan Osasunaren Institutuaren eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Udal Zerbitzuaren izaera prebentibo zegin dituen proposamenak; honako hauek definitzean dautza, hain zuzen ere:

a) Langile bakoitzaren rola, haren atribuzioak eta betebeharrak argiro markatuz.

b) Estamentuen arteko harreman-arauak, batzuen eta besteen eskubideekiko errespetua zaintze aldera.

c) Lanerako txandak eta libratzeko txanda ekitatiboak, lankideen artean adostutako aldaketak bideratuz, betiere zerbitzua bermatzen den bitartean.

d) Lana ebaluatzeko irizpideak, zeinek publikoak izan behar baitute. Komeni da haiek egiterakoan langileek parte hartzea.

=> Halaber, orain arte egin ez badu, aitorpen efektibo eta proaktiboa egin dezala kexa-egileari, udaleko langileen ordezkari sindikala den aldetik, dagozkion eskubide eta erantzukizunei buruz.

Ixteko data: 2011-11-14.

**Gareseko Udala**

**Espedientea: 11/487**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Aldi baterako ezgaitasun egoeran egoteagatik gozatu gabeko opor-egunengatiko konpentsazio ekonomikoa ordaintzeari ezezkoa ematea,

Ebazpena: 150/2011, irailaren 21ekoa; honakoa dio:

=> Garesko Udalari gomendatzea konpentsazio ekonomikoa ordain diezaiola kexa-egileari bere garaian, aldi baterako ezgaitasun egoerarengatiko baja-egoeran egoteagatik, gozatu ez zituen opor-egunengatik,

Ixteko data: 2011-12-30.

**Tuterako Udala (4 kasu)**

**Espedientea: 10/873**

Gaia: Zerbitzu publikoak.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna hilerrian hilobi bat erabiltzeko kontzesio administratiboaren aldiarekin.

Ebazpena: 216/2010, abenduaren 20koa; honakoa dio:

=> Tuterako Udalari gomendatzea indarrik gabe utz dezala kexa-egileari hilobien kontzesioa luzatzeko tasarengatik igorritako likidazioa, zeren eta, ez kexa-egilearen senideei hilobiaren titulartasuna emateko eskuratu zitzaien agiri administratiboan, ez Tuterako Udalaren kanposantuko zerbitzuengatiko tasak arautzen dituen ordenantzan, ez baitira tasa horiek berariaz ezartzen; ezin da, ezta ere, testuingurutik ondorioztatu, hilobien kontzesioak iraupen-epe bat duenik.

Ixteko data: 2011-01-19.

**Espedientea: 10/930**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Ezestea bide publikoan izaniko eroriko baten ondoriozko ondare-erantzukizunarengatiko erreklamazio bat.

Ebazpena: 39/2011, otsailaren 16koa; honakoa dio:

=> Tuterako Udalari gomendatzea bere gain har dezala, kasu honetan, ondare-erantzukizuna eta kexa-egileari kasuko kalte-ordaina aitortu eta ordain diezaiola.

Ixteko data: 2011-05-18.

**Espedientea: 11/104**

Gaia: Zerbitzu publikoak.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Gehiegi geroratzea ondare-erantzukizuneko espediente bat izapidetzerakoan, eta ados ez egotea kalte-ordaina ukatzeko ebazpenarekin.

Ebazpena: 83/2011, maiatzaren 18koa; honakoa dio:

=> Tuterako Udalari gomendatzea bere gain har dezala, kasu honetan, ondare-erantzukizuna eta kexa-egileari kasuko kalte-ordaina aitortu eta ordain diezaiola.

Ixteko data: 2011-06-01.

Espedientea: 11/550

Gaia: Zerbitzu publikoak.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Zezen ikuskizun batean zehar txekor batek kale batera jauzi egin ondoren eragindako kalteak ordaintzeari ezezkoa ematea.

Ebazpena: 163/2011, irailaren 29koa; honakoa dio:

=> Tuterako Udalari gomendatzea kasu honetan ondare-erantzukizuna bere gain har dezala, eta interesdunei bidezko kalte-ordaina aitortu eta ordain diezaiola.

Ixteko data: 2011-10-20.

**Arbeitzako Kontzejua (Allin)**

Espedientea: 10/885

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Jubilatuen Kluba kudeatzeko kontratua bertan behera uztea eta bi idazkiri ez erantzutea.

Ebazpena: 2/2011, urtarrilaren 4koa; honakoa dio:

=> Arbeitzako Kontzejuari gomendatzea Jubilatuen Kluba berriz ireki dezala eta haren kudeaketa berrezar dezala, harik eta, kasua bada, legez lokalaren kudeaketari buruzko kontratua amaitzen den arte edo behar den aurre-abisuaren bidez amaiarazten den arte, aurrez horretarako dauden arrazoi objektiboak emanez.

Ixteko data: 2011-06-16

**Azantzako Kontzejua (Goñi)**

Espedientea: 09/672

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Erakundearen lankidetzan jarduteko legezko betebeharraren gogorarazpena eta beste legezko betebehar batzuen gogorarazpena.

Kexa: Kontzejuko artxiboko kopiak ukatzea.

Ebazpena: 152/2010, irailaren 3koa; honakoa dio:

=> Azantzako Kontzejuari gogoraraztea legez bete egin behar duela Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 24.1 eta 26.1 artikuluetan ezarritakoa, Nafarroako Arartekoaren erakundearekin lankidetzan jarduteari eta hari lehentasunez laguntza emateari dagokionez.

=> Azantzako Kontzejuari gogoraraztea bete egin behar duela Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 35. artikulua eta Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.3 artikulua, eta, zehazki, kexa-egileari berehala eman behar diola eskatutako dokumentazioa eskuratzeko bidea.

Ixteko data: 2011-05-04.

**Lizasoko Kontzejua (Ultzama)**

Espedientea: 11/277

Gaia: Zerbitzu publikoak.

Mota: Iradokizuna.

Kexa: Etxebizitza batean hezetasun arazoak egotea, herri-lur bateko urak behar bezala ez kanporatzeagatik.

Honakoa dioen ebazpena:

=> Kontzejuari iradokitzea lursaila garbi dezala, higieneagatik, segurtasunagatik eta guztiekin berdin jokatzeagatik.

Ixteko data: 2011-09-16.

**Iruñerriko Mankomunitatea**

Espedientea: 11/118

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Iruñean, autobus publiko batera igotzerakoan, izandako istripuarengatiko kalte-ordainaren eskariari ez erantzutea.

Ebazpena: 59/2011, martxoaren 25ekoa; honakoa dio:

=> Iruñerriko Mankomunitateari gomendatzea kasu honetan ondare-erantzukizuna bere gain har dezan, eta kexa-egileari bidezkoa den kalte-ordaina ordain diezaion.

Ixteko data: 2011-06-02.

**Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea (bi kasu)**

Espedientea: 10/630

Gaia: Ogasuna.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Zaborrengatik bi tasa kobratzea lanbide jarduera bat eta etxebizitza-jarduera batera egiten diren helbide batean.

Ebazpena: 191/2010, urriaren 26koa; honakoa dio:

=> Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari gogoraraztea tasak hondakin solidoen kudeaketari buruzko ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera ordainarazteko legezko betebeharra duela.

=> Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari gomendatzea kexa-egileari 45,97 euroko kopurua itzul diezaiola, 2010 lehen seihilekoan behar gabe kobratu zizkiolako.

Ixteko data: 2011-02-17.

**<u>Espedientea: 11/145</u>**

Gaia: Ogasuna.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna tasa bat aplikatzearekin etxebizitzan lanbide-jarduera bat edukitzeagatik.

Ebazpena: 77/2011, maiatzaren 11koa; honakoa dio:

=> Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari gogoraraztea ordenantza arautzaileko 6. artikuluan jasotako kasua aplikatu behar duela –artikulu hori zergapetutako egoerak, etxebizitzakoa eta jarduera ekonomikokoa, batera gertatzeari buruzkoa da– soilik kasuko jarduera hori efektiboki eta materialki subjektu pasiboaren etxebizitzan garatzen denean.

=> Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari gomendatzea ezen, kexaren xede den kasu zehatzean, etxeko tasa aplika dezala, zeren eta ezin baita jo kexa-egilearen etxebizitzan jarduera ekonomikoen gaineko zergak zamatu beharreko jarduera ekonomiko bat garatzen denik.

Ixteko data: 2011-07-20.

### 8.3 NAFARROAKO BESTE ENTITATE PUBLIKO BATZUK

**Nafarroako Unibertsitate Publikoa**

**<u>Espedientea: 11/265</u>**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren bi gogorarazpen.

Kexa: Desadostasuna diziplina espediente batean ezarritako zehapenarekin.

Ebazpena: 103/2011, ekainaren 9koa; honakoa dio:

=> Nafarroako Unibertsitate Publikoari gogoraraztea legezkotasun eta tipikotasun printzipioak bete behar dituela enplegatu publikoen diziplina ahalmenaz baliatzeko garaian.

=> Nafarroako Unibertsitate Publikoari gogoraraztea Prozedura administratiboetan, diziplina-prozeduretan barne direla, interesdunei erraztasunak emateko legezko betebeharra duela, aholkulari baten laguntza izateko eskubideaz baliatzeko, Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeko 85.2 artikuluan ezarritako terminoetan.

=> Nafarroako Unibertsitate Publikoari gomendatzea indarrik gabe utz dezala kexa-egilearen aurka izapidetutako diziplina espedientean emandako zehapen-ebazpena, eta ezarri zaizkion zehapenak indarrik gabe utz ditzala.

Ixteko data: 2011-08-10.

## IX. KAPITULUA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN TXOSTENAK

### 9.1 SARRERA. EGINDAKO TXOSTENAK.

2011n, Nafarroako Arartekoaren bulegoak honako txostenak egin zituen:

• Bere ekimenez eginiko bi txosten berezi.

• Nafarroako Parlamentuak eskatutako txosten berezi bat.

Txosten hauek interesdun guztien eskura daude erakundearen webgunean, http://www.defensornavarra.com, txosten berezien atalean.

### 9.2 ERAKUNDEAK BERE EKIMENEZ EGIN DITUEN TXOSTEN BEREZIAK

Jakina den bezala, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, 36.2 artikuluaren arabera, Nafarroako Arartekoak ahalmena du Nafarroako Parlamentuaren aurrean txosten berezi edo monografikoak aurkezteko, gertakarien larritasun, garrantzia edo premiak hala eskatzen dutenean.

2011n, bi txosten berezi egin ziren erakundearen ekimenez, eta Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean aurkeztu ziren. Honakoak dira txostenak:

**1. Ikasle Immigranteak derrigorrezko bigarren hezkuntzan integratzeari buruzko txostena.**

– Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 2011ko otsailaren 4ko 6. alean argitaratu zen.

– 2011ko otsailaren 23an aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

**2. Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko txostena.**

– Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 2011ko abenduaren 5eko 37. alean argitaratu zen.

– 2011ko abenduaren 20an aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

Bi txosten horiek kontatuta, hamalau dira 2007tik 2011ra bitartean Nafarroako Arartekoaren ekimenez egin eta Nafarroako Parlamentuari aurkeztu zaizkion txosten bereziak.

Hauexek dira:

– "Adin guztiendako gizartea Zaharrek ere badute zeresanik" txosten berezia.

– Nafarroako administrazio publikoen jarduna adingabeak babesteko. Txosten berezia.

– Osasun administrazioaren arloko indarkeriari buruzko txosten berezia.

– "Isiltasun administratiboa hirigintza jardueran" txosten berezia. Bereziki, planeamendua administrazio isiltasunaren bidez onesteari buruzkoa.

– Nafarroako foruen zerga-sistemari buruzko txosten berezia.

– Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia.

– Administrazio-isiltasuna aurkatzeko preklusio epeen zuzenbide erregimenaren gaineko txosten berezia.

– Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruzko txosten berezia.

– Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Zerbitzuen Zorroari eta Prestazioen Katalogoari buruzko txosten berezia.

– Edari alkoholdunen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboei buruzko txosten berezia.

– Nafarroako Justizia Administrazioari buruzko txosten berezia.

– Nafarroako herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko foru lege bat egitea iradokitzen duen txosten berezia.

### 9.3 NAFARROAKO PARLAMENTUAK ESKATUTAKO TXOSTENAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16 d) artikuluak ahalmenak ematen dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari bere eskumeneko arloetan txostenak egiteko, Parlamentuak eskatuta.

Arau horren babesean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea **txosten bat egin zezan aztertzeko zein den herritarren hizkuntza eskubideen egiazko egoera Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio digitala dela-eta** (bereziki www.navarra.es webgunean).

Txosten berezi hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2011ko abenduaren 5eko 37. alean, eta 2011ko abenduaren 20ko saioan aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

**Adierazi beharra dago, era berean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2011ko azaroaren 21eko bilkuran, erabaki zuela Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin zezala aztertzeko zein diren herritarrek Nafarro-**

**ako Foru Komunitateko administrazio digitalaren arloan dauzkaten hizkuntza eskubideak**. Txosten hori 2012an aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuan.

2007tik bost dira Nafarroako Parlamentuak eskatuta Nafarroako Arartekoak egin dituen txostenak, zeren eta aipatutakoaz gainera honakoak egin baitira:

– Erakundearen eskumenak adingabeen babesaren arloan zabaltzeari buruzko txostena.

– Txostena, gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeari buruzkoa.

– Atzerritarren eta etorkinen eskubideak ziurtatzeari dagokionez Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeari buruzko txostena.

– Elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruzko txostena.

### 9.4 FORU PARLAMENTARIEK ESKATUTAKO TXOSTENAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikuluaren arabera, parlamentariek –zein bere aldetik–, ikerketa batzordeek eta Foru Araubide Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren esku-hartzea eskatu ahalko dute, idatzi arrazoituaren bidez, 1.3 artikuluak aipatzen duen edozein administrazio publikotan gertatutako jarrera, ebazpen eta egintza jakinak argitu eta iker ditzan, baldin eta bere eskumenen esparruan pertsona bati zein pertsona talde bati eragiten badiote.

2011n, foru parlamentariek ez diote eskatu Nafarroako Arartekoari gai bakarreko inongo txostenik egin dezan.

Aurreko urteetan, berriz, honako txostenak eskatu izan dizkiote:

– Txostena, "laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio-zerbitzu kolektibo eta egokituari buruzkoa".

– Txostena, Nafarroako ikastetxeetan hiritartasunerako hezkuntza eta hezkuntza etiko-zibikoa ikasgaietan erabiltzen diren testuliburu batzuei buruzkoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoari dagokionez, betiere generoen arteko berdintasunari eta familia-ereduen eta aukera afektibo-sexualen aniztasunari buruzko irizpideak aplikatuz.

## X. KAPITULUA. ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA

### 10.1 INFORMAZIO BULEGOA. NAFARROAKO ARARTEKOARI EGINIKO KONTSULTAK

2011n, Informazio Bulegoan, guztira, 1.209 kontsulta erregistratu ziren. Horietatik, 864 kontsulta herritarrari behar den aholkua emanez amaitu ziren, eta haietatik ez zen bestelako jarduerarik eratorri. Gainerako kontsulten ondorioz, edo kexa bat aurkeztu zen Nafarroako administrazio publikoren batean, edo zerbitzu publikoak hobetzeko proposamen bat egin zen.

Kontsultei dagokienez, % 92 banakakoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, horietako askotan, nagusiki gizarte ongizateari eta hezkuntzari buruzkoetan, azaldutako gaia banakakoa gainditu eta familietan eragiten zuen. Kontsulten % 8 kolektiboek egin zituzten; hau da, pertsona-taldeek, interesak ordezkatzen zituzten entitateek edo nortasun juridikoa zuten entitateek egin zituzten.

Kasuen % 51n kontsulta modu pertsonal eta zuzenean egin zen, Informazio Bulegoan bertan. Kontsulten % 34,7a, berriz, telefono bidez egin zen. Kasuen % 14an, Internet bidez egin zen eta % 0,3an, azkenik, posta arruntez nahiz fax bidez.




Ikus daitekeen bezala, Nafarroako Arartekoari kontsulta egiten dioten bi pertsona nahiz kolektibotatik bat zuzenean bertaratzen da bulegoan, horrekin zerbitzu publiko horrek eskaintzen dituen hurbiltasuna eta arreta pertsonalizatua bilatuz.

Egindako kontsultak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

| Arloak | Konsultak, guztira | % |
|---|---|---|
| Gizarte Ongizatea | 161 | 13,3% |
| Funtzio Publikoa | 93 | 7,7% |
| Hezkuntza eta Irakaskuntza | 78 | 6,5% |
| Justizia | 78 | 6,5% |
| Euskera | 76 | 6,3% |
| Etxebizitza | 72 | 6,0% |
| Osasuna | 67 | 5,5% |
| Herritarrek dauzkaten bermeak | 61 | 5,0% |
| Hirigintza | 54 | 4,5% |
| Ogasuna | 53 | 4,4% |
| Ingurumena | 48 | 4,0% |
| Zerbitzu Publikoak | 47 | 3,9% |
| Trafikoa | 46 | 3,8% |
| Barne Arloa | 37 | 3,1% |
| Gizarte Segurantza | 27 | 2,2% |
| Herri Lanak | 25 | 2,1% |
| Merkataritza | 25 | 2,1% |
| Toki Entitateen Funtzionamendua | 14 | 1,2% |
| Nekazaritza | 11 | 0,9% |
| Atzerritartasuna | 11 | 0,9% |
| Kirola | 8 | 0,7% |
| Lana | 6 | 0,5% |
| Industria | 2 | 0,2% |
| Gazteria | 2 | 0,2% |
| Besterik | 107 | 8,9% |
| **GUZTIRA** | **1.209** | **100,0%** |

Ikus daitekeen bezala, kontsulta gehienak gizarte ongizateari buruzkoak (egindakoen % 13) eta funtzio publikoari buruzkoak (egindakoen % 8) izan ziren.

Hirugarren multzoa hezkuntzari buruzko kontsultek osatzen dute (% 6) eta, kopuru berarekin, justiziari buruzkoek (% 6). Laugarren tokian, administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzko kontsultak ageri dira (% 6). Horien ondoren, etxebizitzari (% 6), osasunari (%6) eta herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten bermeei buruzkoak (% 5) daude.

Ondokoa izan zen kexen eduki nagusia:

**Gizarte ongizatearen** arloan, beste behin baliabide ekonomikorik gabeko pertsonei laguntzak ematearekin lotutako kontsultak nagusitu ziren; bereziki, oinarrizko errenta emateko epeei buruzkoak (eskubidea aitortzeari edo oinarrizko errenta ordaintzeari dagokionez), bai eta gizarte laguntzak emateko baldintzei buruzkoak ere. Gainera, kontsulta ugari egin ziren ezgaitasunari buruz, hirugarren adinari buruz, familientzako laguntzei buruz eta adingabeak eta nerabeak babesteari buruz.

**Funtzio publikoari** dagokionez, kontsulten erdiak Nafarroako administrazio publikoek lanpostuetara sartzeko onartutako deialdietan parte hartutako herritarrek egin zituzten; ugari izan ziren parte hartzeko exijitzen diren baldintzei buruzkoak,

kalifikazioak aztertzeko aukerari buruzkoa, epaitegiek artatuak izateari buruzkoak eta emaitzak aurkatzeko aukerari buruzkoak. Halaber, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionario publikoek ere kontsultak egin zituzten, batez ere hezkuntzaren edo osasunaren arloan, beren ordainsariekin lotutako arazoei buruz.

**Hezkuntzaren** arloan, kontsulta nagusiak funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpideen aplikazioari buruzkoak izan ziren. Halaber nagusitu ziren ikasteko bekak eta laguntzak emateko eta ukatzeko irizpideei buruzko kontsultak, zehazki ikasketa ertain eta unibertsitarioetarako beken eta laguntzen deialdian ezarritako errenta- eta ondare-atalaseei dagokienez eta ikastetxeen antolamenduari, funtzionamenduari eta hezkuntza programei dagokienez.

**Justiziaren** arloan, gai nagusia abokatuen jardun profesional aizan zen, eta, horren ondotik, prozedura judizialetan eta epaiak betearazterakoan izandako geroratzeak. Gainera, kontsulta batzuk egin ziren adingabeen zaintza eta jagoletza araubideari buruz banantze prozesuetan, bai eta bisiten araubideari buruz ere. Halaber, zenbait kontsultari erantzun zitzaien, bahitura judizialei buru zeta herritarrek ados ez egoteari buruz epai judizialen edukiarekin, epai horien aurka errekurtsoak aurkezteko aukerari buruz eta ezgaitze judizialen prozedurei buruz.

Nafarroako administrazio publikoetan **euskararen erabiltzeari** dagokienez, kontsulta gehienak “Hizkuntza Eskubideen Behatokia” fundazio pribatuak aurkeztu zituen. Kontsulta horietatik gehienak izan ziren euskara ez erabiltzeari buruz inprimaki, liburuxka eta zabalkundeko materialetan, bai eta eremu mistotik igorritako idatzizko komunikazioetan ere.

**Etxebizitzari** buruzko kontsultetan, agerian jarri ziren herritarrek etxebizitza bat eskuratzeko dauzkaten zailtasun ekonomikoak, zeren eta ugari izan baitziren alokairu araubideko etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzei buruzko kontsultak. Halaber, kontsultak egin ziren babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko laguntzei buruz. Bestalde, nabarmentzekoak izan ziren Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean jasotako arauei buruz, alokairu araubideko eta jabetza araubideko etxebizitzak eskuratzeko baremoari dagokionez, eta egungo etxebizitza desegokia den kasuetan beste etxebizitza bat esleitzeari dagokionez. Halaber, ugari izan ziren babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntza akatsei buruzko kontsultak.

**Osasunaren** arloan, kontsulta ugari egin ziren osasun arretarengatiko eta laguntza mediko orokorrarengatiko erreklamazioei buruz. Kontsulta horietan, herritarrek aholkua eskatu zuten jasotako osasun laguntzarekiko desadostasun kasuetan erreklamatzeko dauden bideei buruz, esleitutako medikua aldatzeko prozedurari buruz eta laguntza espezializatuari aplikatzekoak zaizkion epeei buruz (itxaron zerrendak). Halaber, osasun prestazio jakin batzuk eskuratzeko exijitzen diren baldintzei buruzko kontsultak nagusitu ziren; esate baterako, in vitro ugalketa edo oxigenoterapia.

Herritarren **bermeei** dagokienez, kontsulta ugarienak herritarrek aurkeztutako eskaerei, eskabideei edo errekurtso administratiboei erantzuteko administrazio publikoek dauzkaten epeei buruzkoak izan ziren. Halaber, kontsulta ugari izan ziren izaera pertsonaleko datuen babesari buruz, bai eta Administrazioaren langileengandik arreta egoki eta errespetuzkoa jasotzeko herritarrek daukaten eskubideari buruz ere.

**Hirigintzari** dagokionez, herritarrek aholkua eskatu zuten eraikuntzan eta hirigintza diziplinan esku hartzearekin lotutako alderdiei buruz; gehienetan, eraikuntza-jarduera batzuekin ados ez egoteari buruzko kontsultak izan ziren. Gainera ,kontsulta batzuk egin ziren planeamendua onesteko prozedurei buruz eta parte-hartzeari buruz bai eta hirigintzaren arloko informazioa eskuratzeko eskubideari buruz ere.

**Ogasunean**, kontsulta gehienak tokiko tributuei eta mankomunitateen tasei buruzkoak izan ziren. Arlo horretan, zenbait kontsulta egin ziren mankomunitateek hondakinen (zaborra) kudeaketa-zerbitzua ematearen truke kobratzen dituzten tasei buruz. Nafarroako Zerga Ogasunaren tributuei buruzko kontsulta gehienak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak eta zerga horren kudeaketari buruzkoak izan ziren.

**Ingurumena** dela-eta eginiko kontsulten gai nagusia kutsadura akustikoa izan zen; bereziki, foru legedian baimendutakoaz gainetiko zarata eragiten duten jardueren ondorioz herritarrek beren etxebizitzetan pairatzen duten egoerari buruzko kontsultak izan ziren.

**Zerbitzu publikoei** dagokienez, kontsulta gehienak nahitaezko gutxieneko zerbitzuak emateari buruzkoak administrazio publikoen aurretiko ondare-erantzukizunari buruzkoak izan ziren.

**Trafikoa** dela-eta aurkeztutako kontsultei dagokienez, herritarrek beren zalantzak planteatu zituzten, funtsean, ezarritako zehapenei buruz eta zehapen prozedurari buruz.

**Barne** arloan, kontsultak, nagusiki, poliziaren jarduketei buruzkoak izan ziren. Ondoren, espetxe-administrazioari buruzko kontsultak ageri dira.

**Gizarte segurantzari** buruzko kontsulta gehienak behar ez bezala kobratutako prestazioak itzultzeari buruzkoak izan ziren; ondoren, ezgaitasuna deklaratzeko prozesuak eta prestazioetarako eskubideari buruzko kontsultak heldu dira.

**Herri lanen** arloa dela eta, nabarmentzekoak dira toki entitateek eremu publikoak egoera onean kontserbatzeko betebeharrari buruzko kontsultak eta azpiegiturak egiteari edo ez egiteari buruzko kontsultak.

**Merkataritzari** dagokionez, kontsulten gai nagusia kontsumitzaileen babesa izan zen, bereziki telefonia mugikorreko konpainien jarduketaren aurrean.

**Nekazaritzaren** arloan, kontsultak lurzati berrantolamenduko prozesuei buruzkoak izan ziren nagusi; zehazki, herritarrek esleitutako ordezko lursailekin ados ez egoteari buruzkoak eta lursail horien azalera determinatzeko irizpideei buruzkoak.

**Atzerritartasunaren** arloan, nabarmentzekoak dira egoitza- eta lan-baimenak eskuratzeko behar diren izapideei buruzko kontsultak, atzerritarren pasaporteekin izandako arazoei buruzkoak eta ezkontzak baliozkotzeari buruzkoak.

**Kirolaren** arloko kontsultak, nagusiki, kirol federazioen funtzionamenduari buruzkoak izan ziren.

**Lanaren** arloa dela eta, kontsulta gehienak langabeziarengatiko prestazioak eskuratzeko baldintzei buruzko zalantzek eragindakoak izan ziren.

Kontsulta **juridiko pribatuei** dagokienez, gisa desberdinetako gaiei buruzkoak izan ziren, baina nagusi izan ziren beren negozioak galdutako herritarrek izandako arazo ekonomikoekin lotutakoak, bai eta lan egiten ari ziren enpresetan langileek ordainsariak ez jasotzeari buruzko kontsultak ere. Halaber, zenbait kontsulta egin ziren banku-entitateekin izaniko arazoei buruz, bai hipotekak, abalak eta, oro har, zorrak betearaztearen ondorioz, bai entitate horien funtzionamenduaren ondoriozkoak ere. Orobat, nabarmentzekoak dira auzokideekiko arazoei buruzko gaiak, dela elementu komunak (esate baterako, igogailuak) jartzeko desadostasunek auzokideen artean eragindako eztabaidengatik, bai bizilagunen arteko bizikidetasun txarrak eragindako arazo larriagoengatik ere.

### 10.2 GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANA

2011n, Nafarroako Arartekoak, bere aldetik nahiz bere laguntzaileen bitartez, harremanak izan zituen interes sozial eta profesional batzuk ordezkatzen dituzten zenbait entitaterekin, bai eta pertsonen zenbait kolektiborekin ere.

Entitate edo kolektibo horien artean, honakoak nabarmendu daitezke:

– ANAYAS – Nafarroako Alergikoen eta Asmatikoen Elkartea.

– “Eguesibar Zain Dezagun” bizilagunen plataforma.

– SARAY – Nafarroako Bularreko Minbiziaren Elkartea.

– Logroñon dagoen Nafarroako Etxea.

– Nafarroako Energia Fotovoltaikoren Ekoizleak.

– Haurren aldeko Plataforma.

– Gurelur-Ingurumena babesteko Nafarroako Funtsa.

– Vianako “Fuente Vieja” bizilagunen elkartea.

– Nafarroako Erakunde Publikoetako Langile Administratiboen Sindikatua (SPA).

– Iturengo Eskola Publikoko Gurasoen Elkartea.

– AFAPNA sindikatua.

– Colectivo Ecologista Riojano.

– ADECANA – Ehizaren aldeko Nafarroako Elkartea.

– Lurra Nafarroa-Asociación Navarra en Defensa de la Tierra.

– Nafarroako Medikuen Sindikatua.

– UAGN - Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasuna.

– ATA- Nafarroako Langile Autonomoen Federazio Nazionala.

– Becas 12 Kolektiboa.

– Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa

– 0-3 urte Plataforma.

## XI. KAPITULUA ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA

### 11.1 NAFARROAKO ARARTEKOAREN BALIAGARRITASUNARI ETA ERAGINKORTASUNARI BURUZ HERRITARREK DAUKATEN IRITZIA

Aurreko urteetan bezala, 2011n iritzia eskatu genien herritarrei Nafarroako Arartekoaren bulegoaren funtzionamenduari buruz.

Balorazioa egin da erakundea erabili duten pertsona guztiei igorritako inkesta anonimo baten bitartez. Inkesta herritarrei igorri zitzaien beren kexa izapidetu ondorengo amaierako emaitza jakinarazteko unean. Hartara, galdetegiko galderei erantzuten dietenean, herritarrek informazio osoa eta behar adinakoa daukate beren arazoari konponbidea emateko egin dugun bitartekaritza lanari buruz.

Erakundeko zerbitzuek hilero egiten dute galdetegien bitartezko ebaluazioa, eta horrek aukera ematen digu hobetu daitezkeen arloak detektatzeko eta gure esku-hartzea eskatzen dutenei zerbitzu hobea emateko behar diren aldaketak egiteko.

Epigrafe honetan, urteko emaitza islatzen da, 2011n jasotako galdetegi guztiak –128 izan ziren– ebaluatu ondoren egindakoa.

Honakoak dira galderak eta azterketari buruz lortutako emaitza nagusiak:

• Nola jakin duzu Nafarroako Arartekoaren berri?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Senideen edo ezagunen bidez | 22 | 17% |
| 2. Banuen beste harreman batzuen esperientzia | 13 | 10% |
| 3. Administrazioren baten aholkuz | 14 | 11% |
| 4. Hedabideen bidez (prentsa, irratia, telebista...) | 50 | 39% |
| 5. Besteak | 25 | 20% |
| Ez da batere baliagarria izan | 4 | 3% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

• Zer iritzi duzu Nafarroako Arartekoaren Erakundean eskainitako arretaz?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso ona | 87 | 68% |
| 2. Ona | 27 | 21% |
| 3. Hala moduzkoa | 5 | 4% |
| 4. Txarra | 3 | 2% |
| 5. Oso txarra | 3 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 3 | 2% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Ikusten den bezala, 10 inkestatutik 9k balorazio ona edo oso ona egiten dute emandako laguntzari buruz.

• Zer moduzkoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik prozesua amaitu den arte igaro den denbora?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso luzea | 9 | 7% |
| 2. Luzea | 17 | 13% |
| 3. Zentzuzkoa | 58 | 45% |
| 4. Laburra | 24 | 19% |
| 5. Oso laburra | 17 | 13% |
| Ez da batere baliagarria izan | 3 | 2% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Galdera honen emaitzak agerian jartzen du 10 inkestatutik ia 8k jotzen dutela kexak izapidetzeko epea arrazoizkoa edo laburra dela.

• Arartekoak esku hartzeak arazoa konpontzen lagundu duela uste al duzu?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Bai, oso onuragarria izan da | 60 | 47% |
| 2. Bai, nahiko onuragarria izan da | 35 | 27% |
| 3. Ez, ez da oso onuragarria izan | 12 | 9% |
| 4. Ez, ez da batere onuragarria izan | 15 | 12% |
| 5. Guztiz alferrekoa | 0 | 0% |
| Ez da batere baliagarria izan | 6 | 5% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Ikus daitekeen bezala, 10 herritarretatik 7k uste dute Nafarroako Arartekoak emandako zerbitzua baliagarria edo oso baliagarria izan dela beren arazoa konpontzeko.

• *Nola baloratzen duzu Nafarroako Arartekoaren bulegoan jasotako informazioa?*

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso ona | 73 | 57% |
| 2. Ona | 38 | 30% |
| 3. Hala moduzkoa | 9 | 7% |
| 4. Txarra | 2 | 2% |
| 5. Oso txarra | 3 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 3 | 2% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Horrenbestez, inkestatutako 10 pertsonatatik ia 9k jotzen dute jasotako informazioa ona edo oso ona dela.

• Uste duzu Arartekoak bidalitako idazkiak argiak eta ulergarriak direla?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso argiak | 62 | 48% |
| 2. Argiak | 36 | 28% |
| 3. Ulergarriak | 18 | 14% |
| 4. Ez oso argiak | 4 | 3% |
| 5. Ez dira batere argiak | 3 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 5 | 4% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Inkestatutako 10 pertsonatatik bederatzik uste dute jasotako idazkiak oso argiak, argiak edo ulergarriak direla.

• Arartekoak zure kexari buruz hartutako erabakiarekin ados zaude?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Erabat ados | 55 | 43% |
| 2. Ados | 32 | 25% |
| 3. Ados, neurri batean | 22 | 17% |
| 4. Ez nago ados | 2 | 2% |
| 5. Ez nago batere ados | 11 | 9% |
| Ez da batere baliagarria izan | 6 | 5% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Horrenbestez, inkestatutako 10 pertsonatatik 6k diote ados daudela edo guztiz ados daudela hartutako erabakiarekin.

• Beste pertsona batzuei gomendatuko zenieke Nafarroako Arartekoarengan jotzea?

Inkestatutakoen % 86k baietz erantzun zuen eta % 12k, berriz, ezetz; inkestatutakoen % 5ek ez zion galdera horri erantzun.

• *Hartutako erabakia edozein dela ere, 0 eta 10 bitarteko eskalan nola baloratuko zenuke informazio-bulegoak zure arazoaren gainean izan duen esku-hartze globala?*

| | | |
|---|---|---|
| 0 | 9 | 7% |
| 1 | 0 | 0% |
| 2 | 0 | 0% |
| 3 | 3 | 2% |
| 4 | 1 | 1% |
| 5 | 4 | 3% |
| 6 | 10 | 8% |
| 7 | 9 | 7% |
| 8 | 13 | 10% |
| 9 | 33 | 26% |
| 10 | 38 | 30% |
| Ez da batere baliagarria izan | 8 | 6% |
| **Guztira** | **128** | **100%** |

Herritarren balorazioaren batez bestekoa 7,8koa da. Moda, edo maizen agertzen den balioa, 10a da (% 30) eta ondoren 9a dator (% 26).



Ikus daitekeen bezala, inkestatutako 10 pertsonatatik 7k 8 edo nota altuagoa eman diote erakundearen esku-hartzeari.

**11.2 HERRITARREK AZKEN LAU URTEETAN EGINIKO EBALUAZIOA**

Epigrafe honetan, 2008tik 2011ra bitarte jasotako galdetegi guztiak –718 izan ziren– ebaluatu ondoren egindako ebaluazioaren emaitza islatzen da.

Azterlan honekin, ideia osatuago bat eman nahi dugu herritarrek Nafarroako Arartekoaren figurari buruz daukaten pertzepzioari buruz eta, zehazkiago, erakundearen baliagarritasunari eta zerbitzuari buruz, zeren eta lortutako emaitza ez baita soilik urte bati buruzkoa, baizik eta lau urteko epe oso bati buruzkoa.

Honakoak dira galderak eta azterketari buruz lortutako emaitzak:

• Nola jakin duzu Nafarroako Arartekoaren berri?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Senideen edo ezagunen bidez | 115 | 16% |
| 2. Banuen beste harreman batzuen esperientzia | 127 | 18% |
| 3. Administrazioren baten aholkuz | 62 | 9% |
| 4. Hedabideen bidez (prentsa, irratia, telebista...) | 286 | 40% |
| 5. Besteak | 110 | 15% |
| Ez da batere baliagarria izan | 18 | 3% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

• Zer iritzi duzu Nafarroako Arartekoaren Erakundean eskainitako arretaz?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso ona | 422 | 59% |
| 2. Ona | 205 | 29% |
| 3. Hala moduzkoa | 38 | 5% |
| 4. Txarra | 24 | 3% |
| 5. Oso txarra | 11 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 18 | 3% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Ikusten den bezala, 10 inkestatutik 9k balorazio ona edo oso ona egiten dute emandako laguntzari buruz.

• Zer moduzkoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik prozesua amaitu den arte igaro den denbora?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso luzea | 36 | 5% |
| 2. Luzea | 65 | 9% |
| 3. Zentzuzkoa | 349 | 49% |
| 4. Laburra | 147 | 20% |
| 5. Oso laburra | 95 | 13% |
| Ez da batere baliagarria izan | 26 | 4% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Galdera honen emaitzak agerian jartzen du 10 inkestatutik 8 baino gehiagok jotzen dutela kexak izapidetzeko epea arrazoizkoa edo laburra dela.

• Arartekoak esku hartzeak arazoa konpontzen lagundu duela uste al duzu?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Bai, oso onuragarria izan da | 250 | 35% |
| 2. Bai, nahiko onuragarria izan da | 202 | 28% |
| 3. Ez, ez da oso onuragarria izan | 101 | 14% |
| 4. Ez, ez da batere onuragarria izan | 105 | 15% |
| 5. Guztiz alferrekoa | 0 | 0% |
| Ez da batere baliagarria izan | 60 | 8% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Ikus daitekeen bezala, inkestatuen % 63k (hirutik bik, orokorrean) uste dute baliagarria edo oso baliagarria izan dela Nafarroako Arartekoak beren arazoari konponbidea emateko eskainitako zerbitzua. Kopuru hori % 68,5eraino igotzen da horri buru iritzirik eman ez dutenak kenduz gero.

• Nola baloratzen duzu Nafarroako Arartekoaren bulegoan jasotako informazioa?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso ona | 341 | 47% |
| 2. Ona | 268 | 37% |
| 3. Hala moduzkoa | 47 | 7% |
| 4. Txarra | 23 | 3% |
| 5. Oso txarra | 17 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 22 | 3% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Horrenbestez, inkestatutako 10 pertsonatatik 8 baino gehiagok jotzen dute jasotako informazioa ona edo oso ona dela.

• Uste duzu Arartekoak bidalitako idazkiak argiak eta ulergarriak direla?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Oso argiak | 304 | 42% |
| 2. Argiak | 261 | 36% |
| 3. Ulergarriak | 82 | 11% |
| 4. Ez oso argiak | 28 | 4% |
| 5. Ez dira batere argiak | 17 | 2% |
| Ez da batere baliagarria izan | 26 | 4% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Inkestatutako 10 pertsonatatik bederatzik uste dute jasotako idazkiak oso argiak, argiak edo ulergarriak direla.

• Arartekoak zure kexari buruz hartutako erabakiarekin ados zaude?

| | | |
|---|---|---|
| 1. Erabat ados | 250 | 35% |
| 2. Ados | 174 | 24% |
| 3. Ados, neurri batean | 126 | 18% |
| 4. Ez nago ados | 39 | 5% |
| 5. Ez nago batere ados | 76 | 11% |
| Ez da batere baliagarria izan | 53 | 7% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Horrenbestez, inkestatutako 10 pertsonatatik 6k diote ados daudela edo guztiz ados daudela hartutako erabakiarekin.

• Beste pertsona batzuei gomendatuko zenieke Nafarroako Arartekoarengan jotzea?

Inkestatutakoen % 84k baietz erantzun zuen eta % 11k, berriz, ezetz; inkestatutakoen % 5ek ez zion galdera horri erantzun.

• Hartutako erabakia edozein dela ere, 0 eta 10 bitarteko eskalan nola baloratuko zenuke informazio-bulegoak zure arazoaren gainean izan duen esku-hartze globala?

| | | |
|---|---|---|
| 0 | 34 | 5% |
| 1 | 16 | 2% |
| 2 | 8 | 1% |
| 3 | 18 | 3% |
| 4 | 14 | 2% |
| 5 | 34 | 5% |
| 6 | 36 | 5% |
| 7 | 57 | 8% |
| 8 | 151 | 21% |
| 9 | 130 | 18% |
| 10 | 171 | 24% |
| Ez da batere baliagarria izan | 49 | 7% |
| **Guztira** | **718** | **100%** |

Azken lau urteetan, herritarren balorazioaren batez bestekoa 7,5ekoa da. Moda, edo maizen agertzen den balioa, 10a da (% 21) eta ondoren 8a (% 21) eta 9a (% 18) datoz.

### 11.3. KEXAK IZAPIDETZEKO BATEZ BESTEKO EPEAK

2011n, honakoak izan dira kexak izapidetzeko batez besteko denborak:

| IZAPIDETZE-DENBORAK (egunetan) | 2011 | 2010 |
|---|---|---|
| Hasieratik herritarrak hartze-agiria jaso duen arte | 1,6 | 1,6 |
| Hasieratik kexa izapidetzeko onartu den arte | 7,8 | 8,3 |
| Hasieratik kexa itxi den arte | 82,2 | 70,5 |
| Kudeatutako kexen kopurua | 1.042 | 1.151 |

Datu hauek agertzera ematen dut egora egin duela kexak izapidetzeko batez besteko denborak, 2010ean 70,5 egunekoa izatetik 2011n 82.2 egunekoa izatera pasa baita. Aitzitik, bere horretan mantentzen da kexa jasotzen denetik herritarrari jasotze horren berri ematen zaionera arteko denbora, bai eta hasieratik kexa aztertzen denera eta izapidetzeko onartzen den ala ez erabakitzen denera arteko denbora ere; azken hori, izan ere, 8,3 egunetik 7,8 egunera jaitsi da.

Epearen luzatze horren arrazoia, gure iritziz honakoa izanen litzateke, nagusiki: 2011ko ekainetik irailera bitarte sortutako atzerapena, ikuskatutako administrazio publikoek (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako toki entitateak) ikerketa prozesuetan eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzerakoan gertatutakoa, hain zuzen ere Foru Komunitateko Administrazioaren eta udalen eta kontzejuen 2011ko maiatzeko hauteskundeen ondorengo berrantolatze administratiboaren ondorioz. Halaber, adierazi beharra dago urte batetik bestera aurkezten diren kexen konplexutasunean gerta daitekeen aldeak eragina izan dezakeela kexa-espedienteak izapidetzeko denboretan.

## I. ERANSKINA. EBAZPENEN ZERRENDA

### 1. ONARTU DIREN EBAZPENAK

Atal honetan, administrazio publikoek 2011. urtean onartu dituzten ebazpenei buruzko datu nagusiak biltzen dira.

Zenbakiz eta dataz adierazten diren ebazpenen testu osoa http://www.defensornavarra.com webgunean kontsulta daiteke, 2011ko "Ebazpenak" atalean.

Gainera, txosten honetako VI. kapituluan, 2011n emandako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpen nagusiak jaso dira.

Adierazi beharra dago, halaber, Nafarroako Parlamenturako 2011ko hauteskundeen ondoren eta Nafarroako Gobernu berria eratu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak orain artekoaz bestelako departamentu-egitura bat hartu zuela. Irizpide nagusi gisa erabili dugu gure erakundearen erabakiak onartu zituen edo onartu ez zituen Administrazioko departamentua aipatzearena, eta hasieran kexa zein departamenturi buruz egin zen aipatzearena.

### 1.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAK ONARTUTAKO EBAZPENAK

**Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua (12 kasu)**

**Espedientea: 09/523**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Ez erantzutea gurpil-aulki bat erosteak ekarritako gastuak itzultzeko idatziz aurkeztutako eskariari.

Ebazpena: 184/2010, urriaren 14koa.

**Espedientea: 09/780**

Gaia: Ogasuna.

Mota: Gomendioa (Ekonomia eta Ogasun Departamentuarentzako beste gomendio bat ere badago).

Kexa: Ados ez egotea laguntza behar duen pertsonaren ziurtagiri gisa exijitzen den dokumentazioarekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean eragin horietarako aurreikusitako murrizketa bat egin ahal izateko.

Ebazpena: 92/2010, maiatzaren 21ekoa.

**Espedientea: 10/393**

Gaia: Hezkuntza.

Mota: Iradokizuna (Hezkuntza eta Osasun departamentuei ere egin zaie)

Kexa: Fisioterapiako berariazko tratamendurik ez egotea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat, zehazki, garuneko perlesia duten ikasleentzat, ikasturtea amaitzen denetik hurrengoa hasten den arte.

Ebazpena: 149/2010, irailaren 2koa.

**Espedientea: 10/709**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Mendetasunerako laguntza ekonomiko bati aurrekontuan diru nahikorik ez egoteagatik ezezkoa emateari buruzko jakinarazpena iristea mendetasuna zuen pertsona hil eta bi urtetara.

Ebazpena: 202/2010, azaroaren 18koa.

**Espedientea: 10/892**

Gaia: Gizarte-ongizatea

Mota: Legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Oinarrizko errentari buruzko ebazpena atzeratzea.

Ebazpena: 44/2011, martxoaren 3koa.

**Espedientea: 10/906**

Gaia: Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna ikuskapen akta batzuk artxibatzeagatik, zehapen-espedienterik ireki gabe.

Ebazpena: 23/2011, urtarrilaren 31koa.

**Espedientea: 10/915**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna mendetasuna duen pertsona bat zaintzeko emaniko laguntza ekonomikoarekin eta aurkeztutako idazkiari ez erantzutearekin.

Ebazpena: 17/2011, urtarrilaren 26koa.

**Espedientea: 10/937**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Oinarrizko errentari buruzko espediente baten ebazpena atzeratzea.

Ebazpena: 28/2011, otsailaren 3koa.

**Espedientea: 10/952**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Desadostasuna mendetasun egoeran dagoen pertsona bati laguntzeko aitortutako laguntza aldatzearekin eta administrazio publikoak ordaindutako kopuruarekin.

Ebazpena: 36/2011, otsailaren 15ekoa.

**Espedientea: 10/958**

Gaia: Funtzio publikoa.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna ordezkapeneko kontratu administratibo bat bertan behera uztearekin, proba-aldia ez gainditzeagatik.

Ebazpena: 22/2011, urtarrilaren 28koa.

**Espedientea: 11/39**

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa (Barañaingo Udalari ere egin zaio).

Kexa: Desadostasuna oinarrizko errenta ukatzearekin, aldi baterako senide batekin bizitzen egoteagatik.

Ebazpena: 43/2011, martxoaren 3koa.

**Espedientea: 11/131**

Gaia: Gizarte-ongizatea

Mota: Iradokizuna

Kexa: Zaintzailerik ez egotea generoko indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko larrialdi zentro batean dauden haurrei arreta egiteko.

Ebazpena: 56/2011, martxoaren 24koa.

**Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua (16 kasu)**

**Espedientea: 10/839**

Gaia: Merkataritza.

Mota: Gomendioa eta legezko betebeharren gogorarazpena

Kexa: Desadostasuna kontsumoarena arloko erreklamazio baten izapidetzea dela eta

Ebazpena: 10/2011, urtarrilaren 19koa.

Oharra: Kexa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarekin hasi zen.

Espedienteak: 10/955 eta 10/956

Gaia: Gizarte ongizatea.

Mota: Gomendioa.

Kexa: Bortzirietako arreta goiztiarreko zerbitzuan atzemandako gabeziak, Iruñera joan behar baita haurrek fisioterapia tratamendua har dezaten.

Ebazpena: 45/2011, martxoaren 8koa.

Oharra: Kexa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarekin hasi zen.

**Espedientea: 11/64**

Gaia: Gizarte-ongizatea

